1. Si el concursado fuera persona natural, se anotarán y, una vez el auto devenga firme, se inscribirán en el Registro civil la declaración de concurso, con indicación del órgano judicial que la hubiera dictado, del carácter de la resolución y de la fecha en que se hubiera producido; la intervención o, en su caso, la suspensión de las facultades de administración y disposición del concursado sobre los bienes y derechos que integren la masa activa, así como la identidad del administrador o de los administradores concursales.

2. Si el concursado, persona natural o jurídica, fuera sujeto inscribible en el Registro mercantil, se anotarán y, una vez el auto devenga firme, se inscribirán en la hoja que esa persona tuviera abierta la declaración de concurso, con indicación del órgano judicial que la hubiera dictado, del carácter de la resolución y de la fecha en que se hubiera producido; la intervención o, en su caso, la suspensión de las facultades de administración y disposición del concursado sobre los bienes y derechos que integren la masa activa, así como la identidad del administrador o de los administradores concursales. Cuando no constase hoja abierta al concursado, se practicará previamente la inscripción de este en el Registro mercantil.

Si la concursada fuera persona jurídica no inscribible en el Registro mercantil pero que constara o debiera constar inscrita en otro registro público, se inscribirán en este las mismas circunstancias señaladas en el párrafo anterior.

Artículo 37. Anotación e inscripción en los registros públicos de bienes y derechos.

1. Si el concursado tuviera bienes o derechos inscritos en registros públicos, se anotarán y, una vez el auto devenga firme, se inscribirán en el folio correspondiente a cada uno de ellos la declaración de concurso, con indicación del órgano judicial que la hubiera dictado, del carácter de la resolución y de la fecha en que se hubiera producido; la intervención o, en su caso, la suspensión de las facultades de administración y disposición del concursado sobre los bienes y derechos que integren la masa activa, así como la identidad del administrador o de los administradores concursales.



2. Behin idatzoharra edo inskripzioa egin ondoren, ondasun edo eskubide horiei dagokienez, idatzoharrean ezin izango dira jaso konkurtso-deklarazioaren ostean epaileak erabakitakoak baino embargo edo zainpean uzte gehiago, lege honetan ezarritako salbuespenak salbu.

VI. KAPITULUA

Elkarri lotutako konkurtsoak

1. atala. Konkurtsoen baterako deklarazioa

38. artikulua. Hainbat zordunen borondatezko konkurtsoaren baterako deklarazioa.

Pertsona juridiko baten zorren gaineko erantzukizun osoa edo partziala duten ezkontide, bazkide edo administratzaile diren zordunek eta talde bereko sozietateek kasuan kasuko konkurtsoen baterako deklarazio judiziala eskatu ahal izango dute.

39. artikulua. Hainbat zordunen nahitaezko konkurtsoaren baterako deklarazioa.

Hartzekodunak bere zordun batzuen konkurtsoaren baterako deklarazio judiziala eskatu ahal izango du, haiek ezkontideak direnean, talde bereko sozietateak direnean edo haien artean ondareen nahasmendua dagoenean.

40. artikulua. Izatezko bikotearen konkurtsoaren baterako deklarazioa.

Epaileak konkurtsoa batera deklaratu ahal izango du izatezko bikote inskribatu diren bi pertsonarentzat, bikoteko kideek edo hartzekodun batek hala eskatuta, baldin eta hautematen badu esanbidezko edo isilbidezko itunak daudela, edo egitate eztabaiaezinak, eta horien ondorioz, bizikideek ondare erkidea eratzeko borondate argia dutela.

2. atala. Jada deklaraturata dauden konkurtsoak metatzea

41. artikulua. Konkurtsoak metatzea.

1. Jada deklaraturako konkurtsoen metaketa bidezkoa izango da ezkontideen konkurtsoen kasuan; inskribaturako izatezko bikoteen kasuan, bikotearen konkurtsoaren baterako deklaraziorako ezarritako betekizun berberak betetzen direnean; pertsona juridiko baten zorren erantzukizun pertsonala, osoa edo zati bat duten bazkide, kide, partaide edo administratzaileen kasuan; nortasun juridikorik gabeko erakunde bateko kideen kasuan eta erakunde horren izenean hartutako zorren erantzukizun pertsonala dutenen kasuan; talde berekoak diren sozietateen

2. Una vez practicada la anotación o la inscripción, no podrán anotarse respecto de aquellos bienes o derechos más embargos o secuestros posteriores a la declaración de concurso que los acordados por el juez de este, sin más excepciones que las establecidas en esta ley.

CAPÍTULO VI

De los concursos conexos

Sección 1.^a De la declaración conjunta de concursos

Artículo 38. Declaración conjunta de concurso voluntario de varios deudores.

Aquellos deudores que sean cónyuges, socios o administradores total o parcialmente responsables de las deudas de una persona jurídica y las sociedades pertenecientes al mismo grupo podrán solicitar la declaración judicial conjunta de los respectivos concursos.

Artículo 39. Declaración conjunta de concurso necesario de varios deudores.

El acreedor podrá solicitar la declaración judicial conjunta de concurso de varios de sus deudores cuando sean cónyuges, cuando se trate de sociedades que formen parte del mismo grupo o cuando exista entre ellos confusión de patrimonios.

Artículo 40. Declaración conjunta de concurso de pareja de hecho.

El juez podrá declarar el concurso conjunto de dos personas que sean pareja de hecho inscrita, a solicitud de los miembros de la pareja o de un acreedor, cuando aprecie la existencia de pactos expresos o tácitos o de hechos concluyentes de los que se derive la inequívoca voluntad de los convivientes de formar un patrimonio común.

Sección 2.^a De la acumulación de concursos ya declarados

Artículo 41. Acumulación de concursos.

1. La acumulación de concursos ya declarados procederá en los casos de concursos de los cónyuges; de las parejas de hecho inscritas cuando concurren los mismos requisitos establecidos para la declaración conjunta del concurso de la pareja; de los socios, miembros, integrantes o administradores que sean personalmente responsables, total o parcialmente, de las deudas de una persona jurídica; de quienes sean miembros de una entidad sin personalidad jurídica y respondan personalmente de las deudas contraídas en nombre de esta; de las sociedades que formen



kasuan; eta dagozkien ondareak nahasita dituztenen kasuan.

2. Konkurtsopekoetatik edozeinek edo konkurtso-administrazioetatik edozeinek eskatu ahal izango dio epaileari, idazki arrazoituaren bidez, jada deklaratu diren elkarri lotutako konkurtsoen metaketa. Eskaera hori egin ezean, hartzekodunetatik edozeinek eska dezake metaketa, idazki arrazoitu baten bidez.

3. Metaketa bidezkoa izango da, nahiz eta konkurtsoak epaitegi desberdinek deklaratu.

3. atala Elkarri lotutako konkurtsoen izapidetze koordinatua

42. artikulua. Izapidetze koordinatua.

Batera deklaraturako eta metaturako konkurtsoak modu koordinatuan izapidetuko dira, masak bateratu gabe.

43. artikulua. Masak bateratzea.

Salbuespen gisa, epaileak, ofizioz edo edozein interesdunek eskatuta, batera deklaraturako edo metaturako konkurtsoen masak bateratzea erabaki ahal izango du, baldin eta ondareak nahasita badaude eta aktibo eta pasiboen titulartasuna mugatzea ezinezkoa bada, konkurtsoaren izapidetzean atzerapenik edo justifikaziorik gabeko gasturik egin gabe.

II. TITULUA

Konkurtso organoak

I. KAPITULUA

Konkurtso epailea

1. atala. Eskumena

44. artikulua. Eskumen objektiboa.

1. Hartzekodunen konkurtsoa deklaratzeko eta izapidetzeko eskumena merkataritza-arloko epailei dagokie.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaren salbuespen gisa, lehen auzialdiko epaileek eskumena dute enpresaburuak ez den pertsona fisiko baten hartzekodunen konkurtsoa deklaratzeko eta izapidetzeko.

3. Liburu honetan ezarritakoaren ondoretarako, enpresaburuak dira merkataritza-legeriaren arabera izaera hori duten pertsona fisikoak.

parte de un mismo grupo; y de quienes tuvieren confundidos los respectivos patrimonios.

2. Cualquiera de los concursados o cualquiera de las administraciones concursales podrá solicitar al juez, mediante escrito razonado, la acumulación de los concursos conexos ya declarados. En defecto de esta solicitud, la acumulación podrá ser solicitada por cualquiera de los acreedores mediante escrito razonado.

3. La acumulación procederá aunque los concursos hayan sido declarados por diferentes juzgados.

Sección 3.ª De la tramitación coordinada de los concursos conexos

Artículo 42. Tramitación coordinada.

Los concursos declarados conjuntamente y acumulados se tramitarán de forma coordinada, sin consolidación de las masas.

Artículo 43. Consolidación de masas.

Excepcionalmente, el juez, de oficio o a solicitud de cualquier interesado, podrá acordar la consolidación de las masas de concursos declarados conjuntamente o acumulados cuando exista confusión de patrimonios y no sea posible deslindar la titularidad de activos y pasivos sin incurrir en demora en la tramitación del concurso o en un gasto injustificado.

TÍTULO II

De los órganos del concurso

CAPÍTULO I

Del juez del concurso

Sección 1.ª De la competencia

Artículo 44. Competencia objetiva.

1. Son competentes para declarar y tramitar el concurso de acreedores los jueces de lo mercantil.

2. Por excepción a lo establecido en el apartado anterior, los jueces de primera instancia son competentes para declarar y tramitar el concurso de acreedores de una persona natural que no sea empresario.

3. A los efectos de lo establecido en este libro son empresarios las personas naturales que tengan esa condición conforme a la legislación mercantil.



45. artikulua. Lurralde-eskumena.

1. Zordunak bere interes nagusien gunea zein lurraldetan duen, bertako epaileari dagokio konkurtsoa deklaratu eta haren izapideak egiteko eskumena. Zordunak bere interesak ohikotasunez eta hirugarrenek ikusteko moduan non administratu, eta toki hori interes nagusien gunea dela ulertuko da.

2. Zorduna pertsona juridikoa izanez gero, uste izango da bere interes nagusien gunea egoitza sozialean dagoela. Ondore horietarako, ez da efikaza izango konkurtsoa eskatu aurreko sei hilabeteen barruan merkataritza-erregistroan inskribatutako egoitza aldatzea, aldaketa hori adostu edo erabaki den data edozein izanda ere.

3. Zordunaren egoitza eta haren interes nagusien gunea Espainiako lurraldean badaude, nahiz eta leku desberdinetan egon, eskuduna izango da, hartzekodun eskatzaileak aukeratuta, egoitza zein lurraldetan dagoen bertako epailea.

46. artikulua. Lehia, elkarri lotutako konkurtsoen kasuan.

1. Konkurtsoaren baterako deklarazioko epaile eskuduna izango da pasibo handiena duen zordunaren interes nagusien gunea dagoen tokikoa, eta, sozietate-taldea bada, sozietate nagusiarena, edo, horri dagokion konkurtsoa eskatzen ez bada, pasibo handiena duen sozietatearena.

2. Elkarri lotutako konkurtsoak metatzeari buruz erabakitzeko eskuduna izango da, konkurtso horiek epaitegi desberdinek deklaratu badituzte, eta ondoren batera izapidetzeko, konkurtso-eskaera aurkezteko unean edo, hala denean, sozietate nagusiaren konkurtsoa aurkezteko unean pasibo handiena duen zordunaren konkurtsoaz arduratzen ari den epailea, edo konkurtsoan deklaratu ez denean, konkurtsoko sozietateetatik edozeinen konkurtsoaz lehenengo arduratu dena.

3. Aurreko bi apartatuetan aipatutako konkurtsoak enpresaburua ez den pertsona fisiko batenak eta enpresaburua den pertsona fisiko batenak badira edo pertsona juridiko batenak badira, merkataritza-arloko epaileak izango du baterako deklarazioari, metatzeari eta ondorengo izapidetze koordinatuari buruz erabakitzeko eskumena.

Artículo 45. Competencia territorial.

1. La competencia para declarar y tramitar el concurso corresponde al juez en cuyo territorio tenga el deudor el centro de sus intereses principales. Por centro de los intereses principales se entenderá el lugar donde el deudor ejerce de modo habitual y reconocible por terceros la administración de tales intereses.

2. En caso de deudor persona jurídica, se presume que el centro de sus intereses principales se halla en el lugar del domicilio social. Será ineficaz a estos efectos el cambio de domicilio inscrito en el Registro mercantil dentro de los seis meses anteriores a la solicitud del concurso, cualquiera que sea la fecha en que se hubiera acordado o decidido.

3. Si el domicilio del deudor y el centro de sus intereses principales radicara en territorio español, aunque en lugares diferentes, será también competente, a elección del acreedor solicitante, el juez en cuyo territorio radique el domicilio.

Artículo 46. Competencia en caso de concursos conexos.

1. Será juez competente para la declaración conjunta de concurso el del lugar donde tenga el centro de sus intereses principales el deudor con mayor pasivo y, si se trata de un grupo de sociedades, el de la sociedad dominante o, en supuestos en que el concurso no se solicite respecto de esta, el de la sociedad de mayor pasivo.

2. Será competente para decidir sobre la acumulación de los concursos conexos, si estos hubiesen sido declarados por diferentes juzgados, y para su posterior tramitación conjunta, el juez que estuviera conociendo del concurso del deudor con mayor pasivo en el momento de la presentación de la solicitud de concurso o, en su caso, del concurso de la sociedad dominante o cuando esta no haya sido declarada en concurso, el que primero hubiera conocido del concurso de cualquiera de las sociedades del grupo.

3. Si los concursos a que se refieren los dos apartados anteriores fueren de una persona natural no empresario y de una persona natural empresario o de una persona jurídica, la competencia para decidir sobre la declaración conjunta o la acumulación y posterior tramitación coordinada será del juez de lo mercantil.



47. artikulua. Konkurtso-deklarazioaren ondoreak.

1. Lurralde-eskumena arautzen duen artikuluan ezarritako eskumen-erregelen arabera deklaraturako konkurtsoaren ondoreek irismen unibertsala izango dute. Nazioartean, erregela horien arabera deklaraturako konkurtsoa konkurtso nagusizat hartuko da.

2. Masa aktiboak zordunaren ondasun eta eskubide guztiak hartuko ditu, Espainiako lurraldearen barruan zein kanpoan kokatuta egon, atzerrian lurralde-konkurtsoa ireki zein ez ireki. Atzerriko lurraldean kokaturako ondasun edo eskubideen gainean kaudimengabezia-prozedura bat irekitzen bada, atzerriko kaudimengabezia-prozedurak aitortzeko erregelak hartuko dira kontuan.

48. artikulua. Konkurtso-deklaraziorako lehenetasuna.

Konkurtso-deklarazioaren eskaerak bi epaitegi eskudun edo gehiagori aurkeztu bazaizkie, lehenengo eskaera zeinetan aurkeztu eta epaitegi horrek izango du lehenetasuna, nahiz eta eskaera horrek edo harekin batera aurkeztutako dokumentazioak akats prozesal edo materialen bat izan, edo dokumentazioa nahikoa ez izan.

49. artikulua. Establezimendu bat Espainian kokatzeko eskumena.

1. Zordunaren interes nagusien gunea ez badago Espainiako lurraldean, baina zordunak Espainian establezimenduren bat badu, establezimendu hori zein lurraldetan dagoen kokatuta bertako epailea izango da eskuduna hartzekodunen konkurtsoa deklaratu eta izapidetzeko, eta establezimenduak bat baino gehiago izanez gero, eskatzaileak aukeratu du toki horietako merkataritza-arloko epaileen artean. Zordunak giza baliabideen eta baliabide materialen bidez jarduera ekonomikoa modu ez-iragankorrean non gauzatzen duen, eragiketa-toki hori joko da establezimendutzat.

2. Nazioarteko eremuan konkurtso hori lurralde-konkurtsoz joko da, eta haren ondoreek ukituko dituzte zordunak Espainiako lurraldean dituen ondasunak eta eskubideak bakarrik, haiek jarduerarekin lotuta izan zein ez. Zordunak bere interes nagusien gunea duen estatuan kaudimengabezia-prozedura bat irekitzen bada, kontuan hartuko dira kaudimengabezia-prozedura paraleloen arteko koordinazio-erregelak.

Artículo 47. Efectos de la declaración de concurso.

1. Los efectos del concurso declarado conforme a las reglas de competencia establecidas en el artículo que regula la competencia territorial tendrán alcance universal. En el ámbito internacional, el concurso declarado conforme a esas reglas tendrá la consideración de concurso principal.

2. La masa activa comprenderá todos los bienes y derechos del deudor, estén situados dentro o fuera del territorio español, con independencia de que se abra o no en el extranjero un concurso territorial. En el caso de que sobre los bienes o derechos situados en territorio extranjero se abra un procedimiento de insolvencia, se tendrán en cuenta las reglas de reconocimiento de procedimientos extranjeros de insolvencia.

Artículo 48. Preferencia para la declaración de concurso.

Si se hubieran presentado solicitudes de declaración del concurso ante dos o más juzgados competentes, será preferente aquel ante el que se hubiera presentado la primera solicitud, aunque esa solicitud o la documentación que la acompañe adolezcan de algún defecto procesal o material o aunque la documentación sea insuficiente.

Artículo 49. Competencia por razón de radicar en España un establecimiento.

1. Si el centro de los intereses principales del deudor no se hallare en territorio español pero tuviese en este un establecimiento, será competente para declarar y tramitar el concurso de acreedores el juez en cuyo territorio radique ese establecimiento y, de existir varios, donde se encuentre cualquiera de ellos, a elección del solicitante. Por establecimiento se entenderá todo lugar de operaciones en el que el deudor ejerza de forma no transitoria una actividad económica con medios humanos y materiales.

2. Los efectos de este concurso, que en el ámbito internacional se considerará concurso territorial, se limitarán a los bienes y derechos del deudor, afectos o no a su actividad, que estén situados en territorio español. En el caso de que en el Estado donde el deudor tuviere el centro de sus intereses principales se abriera un procedimiento de insolvencia, se tendrán en cuenta las reglas de coordinación entre procedimientos paralelos de insolvencia.



50. artikulua. Eskumena ofizioz aztertzea.

Epaileak ofizioz aztertuko du bere eskumena, eta zehaztuko du zein lege-erregelatan oinarritzen den.

51. artikulua. Deklinatoria.

1. Zordunak nazioarteko eta lurraldeko eskumen-arazoa aurkeztu ahal izango du deklinatoriaren bidez, ebatzea jaso eta hurrengo bost egunen barruan. Konkurtso-deklarazioa eskatzeko legitimazioa duten gainerakoek ere aurkez dezakete, hamar eguneko epean, konkurtso-deklarazioaren ediktua *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen denetik hasita.

2. Deklinatoria jartzen duenak zehaztu behar du zein organok duen konkurtsoaren gaineko eskumena, baina ez da etengo konkurtso-prozedura. Epaileak ez du ezer adieraziko zordunaren aurkakotzari buruz, aldez aurretik ez badu ebatzi eskumen-arazoa, Ministerio Fiskalari entzun eta gero. Eskumen-arazoa baiesten badu, eskumena utzi beharko du dagokion organoaren mesederako, alderdiak ebatuz eta egindako jarduna igorritz.

3. Konkurtsoan egindako jardun osoa baliozkoa izango da, deklinatoria baietsi arren.

2. atala. Jurisdikzioa

52. artikulua. Jurisdikzioaren izaera eskusibo eta baztertzailea.

Konkurtsoko epaileak duen jurisdikzioa eskusibo eta baztertzailea da honako gai hauetaz arduratzeko:

1.a Konkurtsopekoaren aurka zuzendutako akzio zibilak, ondarean eragina dutenean, salbu eta gaitasunari, seme-alabatasunari, ezkontzari eta adingabeei buruzko prozesu zibiletan egikaritzen direnak.

2.a Konkurtso-kredituei buruzko exekuzioak edo konkurtsopekoaren ondasun eta eskubideen gaineko masaren aurkako kredituei buruzko exekuzioak, baldin eta ondasun eta eskubide horiek masa aktiboan sartuta badaude edo sartzen badira, exekuzio hori agindu duen auzitegia edo administrazio-agintaritza edozein izanda ere, lege honetan ezarritakoez beste salbuespenik gabe.

3.a Zordunaren lanbide- edo enpresa-jarduerarekin jarraitzeko ondasun edo eskubide baten izaera beharrezkoa zehaztea.

4.a Konkurtso-prozeduran doako laguntza juridikoari dagokionez hartu beharreko neurriak.

Artículo 50. Examen de oficio de la competencia.

El juez examinará de oficio su competencia y determinará la regla legal en la que se funde.

Artículo 51. Declinatoria.

1. El deudor podrá plantear cuestión de competencia internacional y territorial por declinatoria dentro de los cinco días siguientes a aquel en que se le hubiera emplazado. También podrán plantearla los demás legitimados para solicitar la declaración de concurso, en el plazo de diez días desde la publicación del edicto de la declaración del concurso en el «Boletín Oficial del Estado».

2. La interposición de declinatoria, en la que el promotor estará obligado a indicar cuál es el órgano competente para conocer del concurso, no suspenderá el procedimiento concursal. En ningún caso se pronunciará el juez sobre la oposición del deudor sin que, previa audiencia del Ministerio Fiscal, haya resuelto la cuestión de competencia planteada. En caso de que estime la cuestión de competencia, deberá inhibirse a favor del órgano al que corresponda, con emplazamiento de las partes y remisión de lo actuado.

3. Todo lo actuado en el concurso será válido aunque se estime la declinatoria.

Sección 2.^a De la jurisdicción

Artículo 52. Carácter exclusivo y excluyente de la jurisdicción.

La jurisdicción del juez del concurso es exclusiva y excluyente para conocer de las siguientes materias:

1.^a Las acciones civiles con trascendencia patrimonial que se dirijan contra el concursado, con excepción de las que se ejerciten en los procesos civiles sobre capacidad, filiación, matrimonio y menores.

2.^a Las ejecuciones relativas a créditos concursales o contra la masa sobre los bienes y derechos del concursado integrados o que se integren en la masa activa, cualquiera que sea el tribunal o la autoridad administrativa que la hubiera ordenado, sin más excepciones que las previstas en esta ley.

3.^a La determinación del carácter necesario de un bien o derecho para la continuidad de la actividad profesional o empresarial del deudor.

4.^a Las que en el procedimiento concursal debe adoptar en relación con la asistencia jurídica gratuita.



5.a Konkurtsopekoaren ezkontza-sozietatea edo erkidegoa desegitea eta likidatzea.

6.a Konkurtsopeko sozietatearen bazkideen aurka zor sozialak erreklamatzeko egikaritzen diren akzioak, bazkide horiek zor horiek ordaintzeko erantzukizun subsidiarioa dutenean, haiek noiz hartu diren kontuan izan gabe, eta konkurtsopeko sozietatearen bazkideei ekarpen sozial geroratuak ordaintzea edo prestazio erantsiak betetzea galdatzeko akzioak.

7.a Administratzaile edo likidatzaileen aurkako erantzukizun-akzioak, zuzenbidekoak edo egitezkoak; pertsona juridikoa den administratzailearen karguari dagozkion eginkizunak modu iraunkorrean betetzeko izendatutako pertsona fisikoaren aurkakoak; eta sozietatearen zuzendaritza goreneko ahalmenak esleituta dituen pertsonaren aurkakoak –izendapena alde batera utzita–, baldin eta kontseiluaren ahalmenak kontseilari eskuorde bati edo gehiagori modu iraunkorrean eskuordetu ez bazaizkio, konkurtsorearen deklarazio judizialaren aurretik edo ondoren konkurtsopeko pertsona juridikoari sortutako kalte-galerengatik.

8.a Konkurtsorearen deklarazio judizialaren aurretik edo ondoren konkurtsopeko pertsona juridikoari eragindako kalte-galerengatik auditoreen aurkako erantzukizun-akzioak.

53. artikulua. Konkurtsoko epaileak lan-arloan duen jurisdikzioa.

1. Konkurtsoko epailearen jurisdikzioa eskusibo eta baztertzaila da ekonomia-, teknika-, antolaketa-nahiz ekoizpen-arrazoietan oinarritutako lan-baldintzen funtsezko aldaraztea, lekualdaketa, kaleratzea, kontratu-etetea eta lanaldi-murrizketa xede duten akzio sozialez arduratzeko, baldin eta lan-arloko legeriaren eta lege honetan ezarritakoaren arabera izaera kolektiboa badute, bai eta goizuzendaritzako kontratuak eteteari edo azkentzeari buruzko akzioez arduratzeko ere.

2. Kontratu-etetea eta lanaldi-murrizketa kolektiboak izango dira lan-baldintzak izaera kolektiboarekin funtsean aldatzeko lan-arloko legerian ezarritako langile kopuruari eragiten diotenean.

54. artikulua. Kautela-neurriak.

1. Konkurtsoko epailearen jurisdikzio eskusibo eta baztertzaila konkurtsopekoaren ondasun eta eskubideei eragiten dien edo eragin diezaikeen edozein kautela-neurritara hedatzen da, baldin eta ondasun eta eskubide horiek konkurtsopekoaren

5.^a La disolución y liquidación de la sociedad o comunidad conyugal del concursado.

6.^a Las acciones de reclamación de deudas sociales que se ejerciten contra los socios de la sociedad concursada que sean subsidiariamente responsables del pago de esas deudas, cualquiera que sea la fecha en que se hubieran contraído, y las acciones para exigir a los socios de la sociedad concursada el desembolso de las aportaciones sociales diferidas o el cumplimiento de las prestaciones accesorias.

7.^a Las acciones de responsabilidad contra los administradores o liquidadores, de derecho o de hecho; contra la persona natural designada para el ejercicio permanente de las funciones propias del cargo de administrador persona jurídica y contra la persona, cualquiera que sea su denominación, que tenga atribuidas facultades de más alta dirección de la sociedad cuando no exista delegación permanente de facultades del consejo en uno o varios consejeros delegados, por los daños y perjuicios causados, antes o después de la declaración judicial de concurso, a la persona jurídica concursada.

8.^a Las acciones de responsabilidad contra los auditores por los daños y perjuicios causados, antes o después de la declaración judicial de concurso, a la persona jurídica concursada.

Artículo 53. Jurisdicción del juez del concurso en materia laboral.

1. La jurisdicción del juez del concurso es exclusiva y excluyente para conocer de las acciones sociales que tengan por objeto la modificación sustancial de las condiciones de trabajo, el traslado, el despido, la suspensión de contratos y la reducción de jornada por causas económicas, técnicas, organizativas o de producción que, conforme a la legislación laboral y a lo establecido en esta ley, tengan carácter colectivo, así como de las que versen sobre la suspensión o extinción de contratos de alta dirección.

2. La suspensión de contratos y la reducción de jornada tendrán carácter colectivo cuando afecten al número de trabajadores establecido en la legislación laboral para la modificación sustancial de las condiciones de trabajo de carácter colectivo.

Artículo 54. Medidas cautelares.

1. La jurisdicción exclusiva y excluyente del juez del concurso se extiende a cualquier medida cautelar que afecte o pudiera afectar a los bienes y derechos del concursado integrados o que se integren en la masa activa, cualquiera que sea el tribunal o la autoridad



masa aktiboan sartuta badaude edo sartzen badira, neurri hori erabaki duen auzitegia edo administrazio-agintaritza edozein izanda ere, salbu eta gaitasunari, seme-alabatasunari, ezkontzari eta adingabeei buruzko prozesu zibiletan hartzen direnak, bai eta arbitraje-prozeduran arbitroek hartutako edozein neurri buruzkoak ere.

2. Konkurtsoko epailearen iritziz beste auzitegi edo administrazio-agintaritza batzuek hartutako neurriek kalte egin badiezaioke hartzekodunen konkurtsoa behar bezala izapidetzeari, neurri horiek etetea erabakiko du, neurri horiek ezarri dituen organoa edozein izanda ere, eta hartutako neurriak kentzeko errekeritu ahal izango dio. Errekerituak errekerimenduari berehala erantzuten ez badio, konkurtsoko epaileak jurisdikzio-gatazka, eskumen-gatazka edo eskumen-arazoa planteatuko du, bidezkoa denaren arabera.

55. artikulua. Jurisdikzioaren hedadura objektiboa.

1. Konkurtsoko epailearen jurisdikzioa arazo prejudizial zibil guztietara hedatzen da, salbu eta aurreko artikuluetan baztertutakoetara, konkurtsoarekin zuzeneko lotura duten administrazio-arazoetara eta arazo sozialetara, edo konkurtso-prozedura behar bezala izapidetzeko ebazpena behar dutenetara.

2. Aurreko apartatuak aipaturiko arazoei buruzko erabakiak ez du ondorerik sortuko hartzekodunen konkurtsoetik kanpo.

56. artikulua. Jurisdikzioaren nazioarteko irismena.

Nazioarteko eremuan, konkurtsoko epailearen jurisdikzioa konkurtso-legerian oinarritutako akzioetara bakarrik hedatzen da, akzio horiek zuzeneko lotura badute konkurtsoarekin.

II. KAPITULUA

Konkurtso-administrazioa

1. atala. Konkurtso-administrazioa izendatzea

1. azpiatala. Konkurtso-administrazioaren osaera

57. artikulua. Konkurtso-administrazio bakarra.

Konkurtso-administrazioa kide bakarrak osatuko du, zeina pertsona fisikoa edo juridikoa izan ahal izango baita.

administrativa que la hubiera acordado, excepto las que se adopten en los procesos civiles sobre capacidad, filiación, matrimonio y menores, así como de cualquiera de las adoptadas por los árbitros en el procedimiento arbitral.

2. Si el juez del concurso considerase que las medidas adoptadas por otros tribunales o autoridades administrativas pueden suponer un perjuicio para la adecuada tramitación del concurso de acreedores, acordará la suspensión de las mismas, cualquiera que sea el órgano que las hubiera decretado, y podrá requerirle para que proceda al levantamiento de las medidas adoptadas. Si el requerido no atendiera de inmediato al requerimiento, el juez del concurso planteará conflicto de jurisdicción, conflicto de competencia o cuestión de competencia, según proceda.

Artículo 55. Extensión objetiva de la jurisdicción.

1. La jurisdicción del juez del concurso se extiende a todas las cuestiones prejudiciales civiles, con excepción de las excluidas en los artículos anteriores, las administrativas y las sociales directamente relacionadas con el concurso o cuya resolución sea necesaria para la adecuada tramitación del procedimiento concursal.

2. La decisión sobre las cuestiones a las que se refiere el apartado anterior no surtirán efecto fuera del concurso de acreedores en que se produzca.

Artículo 56. Alcance internacional de la jurisdicción.

En el ámbito internacional la jurisdicción del juez del concurso comprende únicamente el conocimiento de aquellas acciones que tengan su fundamento jurídico en la legislación concursal y guarden una relación inmediata con el concurso.

CAPÍTULO II

De la administración concursal

Sección 1.^a Del nombramiento de la administración concursal

Subsección 1.^a De la composición de la administración concursal

Artículo 57. Administración concursal única.

La administración concursal estará integrada por un único miembro, que podrá ser persona natural o jurídica.



58. artikulua. Konkurtso-administrazio duala.

1. Konkurtsoko epaileak, ofizioz edo izaera publikoko hartzekodun batek eskatuta, bigarren konkurtso-administratzaile izendatu ahal izango du administrazio publiko hartzekodun bat edo hari lotutako edo haren mendeko zuzenbide publikoko erakunde hartzekodun bat, betiere, konkurtsoren batean interes publikoko arrazoiren bat baldin badago.
2. Lehen konkurtso-administratzaileak ordezkatu beharko du konkurtso-administrazioa hirugarrenen aurrean.

59. artikulua. Konkurtso-administrazioa, elkarri lotutako konkurtsoetan eta metatutako konkurtsoetan.

1. Elkarri lotutako konkurtsoetan, haiek deklaratu eta izapidetzeko eskumena duen epaileak konkurtso-administrazio bakarra izendatu ahal izango du, komenigarria denean.
 2. Jada deklaraturako konkurtsoak metatuz gero, metatutako konkurtso-prozedurez arduratzen den epaileak konkurtso-administrazio bakarra izendatu ahal izango du lehendik daudenen artean.
2. azpiatala. Konkurtso-erregistro publikoan inskribatzeko betekizuna

60. artikulua. Inskripzioa nahitaezkoa izatea.

1. Konkurtso-erregistro publikoaren laugarren atalean inskribatuta dauden pertsona fisiko edo juridikoak bakarrik izendatu ahal izango dira konkurtso-administratzaile.
2. Erregistroan inskribatzeko eskaeran, edo inskripzioa egin ondoren, konkurtso-administratzailearen lanak zein lurralde-eremutan egiteko prest dagoen adierazi beharko du interesdunak.

61. artikulua. Inskribatzeko betekizunak.

1. Erregelamendu bidez zehaztutako betekizunak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek bakarrik eskatu ahal izango dute Konkurtso-erregistro publikoan inskribatzea. Betekizun horien artean egongo dira, besteak beste, titulazio jakin bat edukitzea, eskarmentua egiaztatzea eta hautaprobak edo ikastaro espezifikokoak egin behar izatea.
2. Konkurtso-administratzailea izendatzeko, tamaina txikiko, ertaineko edo handiko konkurtsoak bereiziko dira. Konkurtsoaren tamaina definitzeko ezaugarriak ere erregelamenduz ezarriko dira. Tamaina ertaineko edo handiko konkurtsoetan konkurtso-administratzaile

Artículo 58. Administración concursal dual.

1. En aquellos concursos en que concurra causa de interés público, el juez del concurso, de oficio o a instancia de un acreedor de carácter público, podrá nombrar como segundo administrador concursal a una Administración pública acreedora o a una entidad de derecho público acreedora vinculada o dependiente de aquella.
2. La representación de la administración concursal frente a terceros recaerá sobre el primer administrador concursal.

Artículo 59. Administración concursal en los concursos conexos y acumulados.

1. En los concursos conexos, el juez competente para la declaración y tramitación de estos, podrá nombrar, cuando resulte conveniente, una administración concursal única.
2. En caso de acumulación de concursos ya declarados, el juez que conozca de los procedimientos concursales acumulados podrá nombrar de entre las existentes una única administración concursal.

Subsección 2.^a Del requisito de la inscripción en el Registro público concursal

Artículo 60. Carácter obligatorio de la inscripción.

1. Solo podrán ser nombradas como administrador concursal las personas naturales o jurídicas que estén inscritas en la sección cuarta del Registro público concursal.
2. En la solicitud de inscripción en el Registro o después de haberse practicado esta, la persona interesada deberá hacer constar en qué ámbito territorial está dispuesta a ejercer las labores de administrador concursal.

Artículo 61. Requisitos para la inscripción.

1. Solo podrán solicitar la inscripción en el Registro público concursal las personas naturales o jurídicas que cumplan los requisitos que se determinen reglamentariamente. Esos requisitos podrán referirse a la titulación requerida, a la experiencia a acreditar y a la realización o superación de pruebas o cursos específicos.
2. Para el nombramiento del administrador concursal se distinguirá entre concursos de tamaño pequeño, medio o grande. Reglamentariamente se fijarán también las características que permitan definir el tamaño del concurso. Para ser nombrado



izendatua izateko, betekizun gehigarriak galdatu ahal izango dira erregelamendu bidez.

3. azpiatala. Konkurtso-administrazioa izendatzea

62. artikulua. Izendapena.

1. Konkurtso-administratzaile izendatuko da txanda korrelatiboaren arabera dagokion Konkurtso-erregistro publikoan inskribatutako pertsona fisiko edo juridikoa. Lehenengo izendapena zozketa bidez egingo da, izena eman dutenen zerrendan daudenen artean, eta zerrenda horretan segidako zenbakiak dituztenekin jarraituko da.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaren salbuespen gisa, tamaina handiko konkurtsoetan, epaileak eskumena izango du, modu arrazoituan, txanda korrelatiboagatik dagokion pertsonaren ordezkari bat izendatzeko konkurtso-administratzaile gisa, eta betiere ikusten badu beste administratzaile horren profila hobeki egokitzen zaiela konkurtsoko ezaugarriei.

Epaileak honako irizpide hauetakoren batean oinarrituta arrazoitu beharko du izendapena: izendatutakoak konkurtsopekoaren jarduerasektorean aurretik espezializazio edo eskarmentu egiaztatua edukitzea, edo zordunak finantzaketarako erabiltzen dituen finantza-tresnekin eskarmentua edukitzea, lan-baldintzak funtsean aldatzeko espedienteekin edo lan-harremanak modu kolektiboan eten edo azkentzeko espedienteekin.

63. artikulua. Konkurtso-administratzailea den pertsona juridikoaren ordezkariak.

1. Konkurtso-administratzaile gisa pertsona juridikoa izendatu denean, kargua onartzean komunikatu beharko du nor izango den karguak berezko dituen eginkizunak betetzeko ordezkari moduan jardungo duen pertsona fisikoa.

2. Pertsona juridikoa bere lanbide-kualifikazioagatik konkurtso-administratzaile izendatu denean, kualifikazio bera izan beharko du karguari dagozkion eginkizunak betetzeko ordezkari gisa izendatzen den pertsona fisikoak ere.

3. Bigarren konkurtso-administratzailea izendatzen denean, administrazio publiko hartzekodunak edo hari lotutako edo haren mendeko zuzenbide publikoko erakunde hartzekodunak komunikatu beharko du zer enplegatu publikok ordezkariak dituen karguari dagozkion eginkizunak betetzerakoan; enplegatu publiko horrek esparru juridiko edo ekonomikoan

administrador concursal en concursos de tamaño medio o gran tamaño podrán exigirse reglamentariamente requisitos adicionales.

Subsección 3.^a Del nombramiento de la administración concursal

Artículo 62. Del nombramiento.

1. El nombramiento del administrador concursal recaerá en la persona natural o jurídica inscrita en el Registro público concursal que corresponda por turno correlativo. La primera designación se realizará mediante sorteo entre los que figuren en el listado de inscritos y continuará con los que tengan números sucesivos en ese listado.

2. Por excepción a lo establecido en el apartado anterior, en los concursos de gran tamaño, el juez, de manera motivada, podrá designar a un administrador concursal distinto del que corresponda al turno correlativo cuando considere que el perfil del administrador alternativo se adecua mejor a las características del concurso.

El juez deberá motivar su designación atendiendo bien a la especialización o experiencia previa acreditada por el nombrado en el sector de actividad del concursado, bien a la experiencia con instrumentos financieros empleados por el deudor para su financiación o con expedientes de modificación sustancial de las condiciones de trabajo o de suspensión o extinción colectiva de las relaciones laborales.

Artículo 63. Representación de la persona jurídica administradora concursal.

1. Cuando el nombramiento de administrador concursal recaiga en una persona jurídica, esta, al aceptar el cargo, deberá comunicar la identidad de la persona natural que haya de representarla para el ejercicio de las funciones propias del cargo.

2. Cuando la persona jurídica haya sido nombrada administradora concursal por su cualificación profesional, esta deberá concurrir en la persona natural que designe como representante para el ejercicio de las funciones propias del cargo.

3. Cuando se proceda al nombramiento del segundo administrador concursal, la Administración pública acreedora o la entidad de derecho público acreedora vinculada o dependiente de aquella designadas deberán comunicar la identidad del empleado público con titulación universitaria de licenciado o graduado, que desempeñe sus funciones en el ámbito jurídico o



lizentziadunaren edo gradudunaren unibertsitate-titulua izango du.

4. Konkurtso-administratzaile izendatutako pertsona juridikoaren ordezkariari konkurtso-administratzaileentzat ezarritako bateraezintasun-, debeku-, errekusatze-, banantze- eta erantzukizun-araubide bera aplikatuko zaio.

64. artikulua. Bateraezintasunak.

Honako hauek ezin izango dira konkurtso-administratzaile izendatu:

1.a Sozietate anonimoen edo erantzukizun mugatuko sozietateen administratzaile izan ezin direnak.

2.a Zordunari edo azken hiru urteetan zordun horrekin lotura berezia duten pertsoneri edozein motatako lanbide-zerbitzuak eman dizkietenak, bai eta epe horretan lanbide-jarduera berean edo izaera desberdineko jardueran parte hartu dutenak ere.

3.a Kontu-auditoretzaren arloko legerian aurreikusitako bateraezintasun-egoeraren batean daudenak, haien izaera edo lanbidea edozein dela ere, zordunari, zuzendariei edo administratzaileei dagokionez, edo konkurtsoko masa pasiboaren ehuneko hamar baino gehiago ordezkatzan duen hartzekodun bati dagokionez.

65. artikulua. Debekuak.

1. Ezin izango dira izendatu konkurtso-administratzaile azken hiru urteetan zordunari edo harekin lotura berezia duten pertsoneri edozein motatako zerbitzu profesionalak eman dizkien norbaitekin lotura berezia dutenak.

2. Inskribatutakoen zerrendan prest dauden pertsonak behar bestekoak badira, ezin izango dira konkurtsoko administratzaile gisa izendatu epaitegi berak izendatu dituenak aurreko bi urteetan egindako hiru konkurtsotan, lehen izendapenaren datatik kontatzen hasita. Enpresa-talde bereko sozietateen konkurtsoetan egindako izendapenak bat bezala zenbatuko dira.

3. Inskribatutakoen zerrendan prest dauden pertsonak behar bestekoak badira, ezin izango da izendatu pertsona juridiko konkurtso-administratzailearen ordezkari, karguari dagozkion eginkizunak betetzeko, epaitegi berean konkurtso-administratzaile gisa edo pertsona juridiko konkurtso-

económico, que haya de representarlas para el ejercicio de las funciones propias del cargo.

4. Al representante de la persona jurídica nombrada administradora concursal le será de aplicación el mismo régimen de incompatibilidades, prohibiciones, recusación, separación y responsabilidad establecido para los administradores concursales.

Artículo 64. Incompatibilidades.

No podrán ser nombrados administradores concursales:

1.º Quienes no puedan ser administradores de sociedades anónimas o de responsabilidad limitada.

2.º Quienes hayan prestado cualquier clase de servicios profesionales al deudor o a personas especialmente relacionadas con este en los últimos tres años, así como quienes durante ese plazo hubieran compartido con aquel el ejercicio de actividades profesionales de la misma o diferente naturaleza.

3.º Quienes se encuentren, cualquiera que sea su condición o profesión, en alguna de las situaciones de incompatibilidad previstas en la legislación en materia de auditoría de cuentas, en relación con el propio deudor, sus directivos o administradores, o con un acreedor que represente más del diez por ciento de la masa pasiva del concurso.

Artículo 65. Prohibiciones.

1. No podrán ser nombrados administradores concursales quienes estén especialmente relacionados con alguna persona que haya prestado cualquier clase de servicios profesionales al deudor o a personas especialmente relacionadas con este en los últimos tres años.

2. En el caso de que existan suficientes personas disponibles en el listado de inscritos, no podrán ser nombrados administradores concursales aquellas personas que hubieran sido nombradas para dicho cargo por el mismo juzgado en tres concursos dentro de los dos años anteriores contados desde la fecha del primer nombramiento. Los nombramientos efectuados en concursos de sociedades pertenecientes al mismo grupo de empresas se computarán como uno solo.

3. En el caso de que existan suficientes personas disponibles en el listado de inscritos, no podrá ser designada representante de la persona jurídica administradora concursal para el ejercicio de las funciones propias del cargo aquella persona natural que hubiera actuado en el mismo juzgado como



administratzaile baten ordezkari gisa aurreko bi urteetan hiru konkurtsotan jardun duen pertsona fisikoa, lehen izendapenaren datatik kontaktzen hasita.

4. Ezin izango dira konkurtso-administratzaile izendatu aurreko hiru urteetan kargu horretatik banandu direnak, ez eta lege honetan xedatutakoa aplikatuz desgaituta daudenak ere.

5. Ondoz ondoko konkurtsoaren kasuan, debeku horiez gain, lege honen II. liburuan ezarritakoak aplikatuko dira.

66. artikulua. Onartzeko eginbeharra.

1. Konkurtso-administratzailearen izendapena biderik azkarrenetik komunikatuko zaio izendatuari. Komunikazioa jaso eta hurrengo bost egunen barruan, izendatuak epaitegira agertu eta kargua onartu beharko du.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaren salbuespen gisa, bigarren konkurtso-administratzaile izendatu diren administrazio publiko hartzekodunak edo hari lotutako edo haren mendeko erakunde hartzekodunak izendapena ez onartzeko aukera izango dute.

67. artikulua. Onarpenaren araubidea.

1. Kargua onartzeko unean, izendatuak egiaztatu beharko du erantzukizun zibileko aseguru bat edo berme baliokide bat duela indarrean, erregelamenduz garatzen diren baldintzetan, estalitako arriskuaren izaerarekiko eta irismenarekiko proportzionala, bere eginkizuna betetzean izan ditzakeen kalteei erantzuteko, eta kargua onartzen duen ala ez adierazi beharko du. Izendatua pertsona juridikoa denean, pertsona juridiko horri –eta ez pertsona fisiko ordezkariari– galdatuko zaio erantzukizun zibileko aseguru edo berme baliokidea sinatzea.

2. Kargua onartzeko unean, izendatuak kredituak komunikatzeko posta-helbidea eta helbide elektronikoa eman beharko dizkio epaitegiari, baita beste edozein jakinarazpen ere. Adierazten duen helbide elektronikoak komunikazio elektronikoaren segurtasun-baldintza teknikoak bete beharko ditu, komunikazioen transmisioa eta harrera, datak eta eduki osoa jasotzeari dagokionez. Komunikazioetarako adierazitako posta-helbidea eta helbide elektronikoa bakarrak izango dira, konkurtso-administratzaileen kopurua edozein izanda ere.

administrador concursal o representante de una persona jurídica administradora concursal en tres concursos dentro de los dos años anteriores contados desde la fecha del primer nombramiento.

4. No podrán ser nombrados administradores concursales quienes hubieran sido separados de este cargo dentro de los tres años anteriores, ni quienes se encuentren inhabilitados por aplicación de lo dispuesto en esta ley.

5. En el caso de concurso consecutivo, además de estas prohibiciones, serán de aplicación las establecidas en el Libro II de esta ley.

Artículo 66. Deber de aceptación.

1. El nombramiento de administrador concursal será comunicado al designado por el medio más rápido. Dentro de los cinco días siguientes al de recibo de la comunicación, el designado deberá comparecer ante el juzgado y aceptar el cargo.

2. Por excepción a lo establecido en el apartado anterior, la Administración pública acreedora o la entidad acreedora vinculada o dependiente de aquella que hayan sido nombradas segundas administradoras concursales podrán no aceptar el nombramiento.

Artículo 67. Régimen de la aceptación.

1. En el momento de la aceptación del cargo, el nombrado deberá acreditar que tiene vigente, en los términos que se desarrollen reglamentariamente, un seguro de responsabilidad civil o garantía equivalente proporcional a la naturaleza y alcance del riesgo cubierto para responder de los posibles daños en el ejercicio de su función y manifestar si acepta o no el cargo. Cuando el nombrado sea una persona jurídica recaerá sobre esta y no sobre la persona natural representante la exigencia de suscripción del seguro de responsabilidad civil o garantía equivalente.

2. En el momento de la aceptación del cargo, el nombrado deberá facilitar al juzgado las direcciones postal y electrónica en las que efectuar la comunicación de créditos así como cualquier otra notificación. La dirección electrónica que señale deberá cumplir las condiciones técnicas de seguridad de las comunicaciones electrónicas en lo relativo a la constancia de la transmisión y recepción, de sus fechas y del contenido íntegro de las comunicaciones. La dirección postal y la dirección electrónica señaladas a efectos de comunicaciones serán únicas, cualquiera que sea el número de administradores concursales.



3. Izendatutako konkurtso-administratzailea errekusatzeko arrazoiren bat badago, arrazoi hori adierazi beharko du une horretan.

4. Izendatua pertsona fisikoa bada, hark epaitegiari adierazi beharko dio pertsona juridiko profesionalen batean parte hartzen duen, gainerako kide edo laguntzaileei bateraezintasun-araubide bera aplikatzeko.

68. artikulua. Konkurtso-administratzailearen egiaztatutuna.

1. Kargua onartzen den une berean, Justizia Administrazioaren letraduak konkurtso-administratzailea dela egiaztatzen duen agiria eman eta emango dio izendatuari.

2. Egiaztatutuna epaitegira itzuli beharko da, konkurtso-administratzaileak edozein arrazoiengatik kargua uzten duen unean.

69. artikulua. Izendapen berria.

Izendatua agertzen ez bada, erantzukizun zibileko aseguru edo berme baliokide nahikoa sinatuta ez badu edo kargua onartzen ez badu, epaileak beste izendapen bat egingo du berehala.

70. artikulua. Ez agertzeagatik, estaldurarik ez izateagatik edo ez onartzeagatik desgaitzea.

Arrazoi zuzenik gabe agertzen ez dena, kargua onartzen ez duena edo asegurua sinatuta ez duena ezin izango da administratzaile izendatu hiru urteko epean, lurralde-eremu berean deklaritzen diren hartzekodunen konkurtsoetan.

71. artikulua. Uko egitea.

1. Kargua onartu ondoren, izendatuak arrazoi larriengatik bakarrik egin ahal izango dio uko karguari, edo kargua betetzeko galdatutako baldintzak gerora galdu dituelako.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaren salbuespen gisa, bigarren konkurtso-administratzaile izendatu diren administrazio publiko hartzekodunak edo hari lotutako edo haren mendeko erakunde hartzekodunak izendapenari edozein unetan uko egiteko aukera izango dute.

4. azpiatala. Konkurtso-administrazioaren errekusazioa

72. artikulua. Errekusatzeko legitimazioa.

Konkurtso-deklarazioa eskatzeko legitimazioa dutenetatik edozeinek errekusa ditzake konkurtso-administratzaileak.

3. En el caso de que concurra en el administrador concursal nombrado alguna causa de recusación, estará obligado a manifestarla en ese momento.

4. Cuando el nombrado fuera una persona natural, deberá manifestar si se encuentra integrado en alguna persona jurídica profesional al objeto de extender el mismo régimen de incompatibilidades a los restantes socios o colaboradores.

Artículo 68. Credencial del administrador concursal.

1. En el mismo momento de aceptación del cargo, el Letrado de la Administración de Justicia expedirá y entregará al nombrado documento acreditativo de su condición de administrador concursal.

2. La credencial deberá ser devuelta al juzgado en el momento en el que por cualquier causa se produzca el cese del administrador concursal.

Artículo 69. Nuevo nombramiento.

Si el nombrado no compareciese, no tuviera suscrito un seguro de responsabilidad civil o garantía equivalente suficiente o no aceptase el cargo, el juez procederá de inmediato a un nuevo nombramiento.

Artículo 70. Inhabilitación por falta de comparecencia, por falta de cobertura o por falta de aceptación.

A quien sin justa causa no compareciese, no aceptase el cargo o no tuviera suscrito el seguro, no se le podrá designar administrador durante el plazo de tres años en aquellos concursos de acreedores que se declaren en el mismo ámbito territorial.

Artículo 71. Renuncia.

1. Una vez aceptado el cargo, el nombrado solo podrá renunciar por causa grave o por haber perdido de forma sobrevenida las condiciones exigidas para ejercer el cargo.

2. Por excepción a lo establecido en el apartado anterior, la Administración pública acreedora o la entidad acreedora vinculada o dependiente de aquella que hayan sido nombradas segundas administradoras concursales podrán renunciar al nombramiento en cualquier momento.

Subsección 4.^a De la recusación de la administración concursal

Artículo 72. Legitimación para recusar.

Los administradores concursales podrán ser recusados por cualquiera de las personas legitimadas para solicitar la declaración de concurso.



73. artikulua. Errekusatzeko arrazoiak.

Errekusatzeko arrazoiak dira lege honetan jasotako bateraezintasuna edo debekua dakarten inguruabarrak, bai eta Prozedura Zibilarren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean adituak errekusatzeko ezarritakoak ere.

74. artikulua. Errekusatzeko araubidea.

1. Legitimatuta dagoenak sustatu beharko du errekusatzea, errekusazioaren oinarri den arrazoiaren berri izan bezain laster.
2. Errekusazioa konkurtso-intzidentearen bideetatik bideratuko da.
3. Errekusatzeak ez du etete-ondorerik izango. Intzidentea izapidetzen den bitartean, errekusatuak konkurtso-administratzaile gisa jardungo du, emandako ebazpenak jarduketan baliozkotasunaren gain eraginik sortu gabe.

5. azpiatala. Laguntzaile eskuordeak

75. artikulua. Laguntzaile eskuordeak.

1. Konkurtsoaren konplexutasunak hala eskatzen duenean, konkurtso-administrazioak epaileari eskatu ahal izango dio laguntzaile eskuorde bat edo batzuk izendatzeko, eskuordetu beharreko eginkizunak zehatzuz; eginkizun horien artean egon daitezke zordunaren jarduera osoarekin edo zati batekin jarraitzeari buruzkoak.
2. Konkurtso-administratzaile pertsona juridiko bat izendatu ez bada, epaileak, beharrezkotzat jotzen badu, konkurtso-administratzaileari entzun ondoren, izendatuak ez duen lanbide-izaera daukan laguntzaile eskuorde bat izendatu ahal izango du, eginkizun zehatzak eskuordetuta. Epaileak laguntzaile eskuordea izendatuko du, konkurtso-administrazioak dauzkan langileei eta konkurtsopekoen mendekoek administrazio horri eman beharreko lankidetzari kalterik egin gabe.

76. artikulua. Laguntzaile eskuordeen nahitaezko izendapena.

Gutxienez laguntzaile eskuorde bat izendatzea nahitaezkoa izango da konkurtsoa tamaina handikoa denean, masa aktiboan Espainiako lurraldean sakabanatutako establezimenduak daudenean, konkurtso-administratzaileak txostena egiteko luzapena eskatzen duenean eta, elkarri lotutako konkurtsoetan, konkurtso-administrazio bakarra izendatu denean.

Artículo 73. Causas de recusación.

Son causas de recusación las circunstancias constitutivas de incompatibilidad o prohibición contenidas en esta ley, así como las establecidas en la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil, para la recusación de peritos.

Artículo 74. Régimen de la recusación.

1. La recusación habrá de promoverse por el legitimado tan pronto como el recusante tenga conocimiento de la causa en que se funde.
2. La recusación se sustanciará por los cauces del incidente concursal.
3. La recusación no tendrá efectos suspensivos. En tanto se tramita el incidente, el recusado seguirá actuando como administrador concursal, sin que la resolución que recaiga afecte a la validez de las actuaciones.

Subsección 5.ª De los auxiliares delegados

Artículo 75. Auxiliares delegados.

1. Cuando la complejidad del concurso así lo exija, la administración concursal podrá solicitar del juez el nombramiento de uno o varios auxiliares delegados, con especificación de las funciones a delegar, que pueden incluir las relativas a la continuación de la totalidad o parte de la actividad del deudor.
2. Salvo que hubiera sido nombrada administradora concursal una persona jurídica, el juez, si lo considera necesario, previa audiencia del administrador concursal, podrá designar un auxiliar delegado que ostente la condición profesional que no tenga el nombrado, con delegación de funciones determinadas. El nombramiento por el juez del auxiliar delegado se realizará sin perjuicio del personal que tuviera la administración concursal y de la colaboración que deben prestar a esta los dependientes del concursado.

Artículo 76. Nombramiento obligatorio de auxiliares delegados.

El nombramiento de, al menos, un auxiliar delegado será obligatorio cuando el concurso sea de gran tamaño, cuando en la masa activa existan establecimientos dispersos por el territorio español, cuando el administrador concursal solicite prórroga para la emisión del informe y, en los concursos conexos, cuando se hubiera nombrado una administración concursal única.



77. artikulua. Laguntzaile eskuordeen lege-araubidea.

1. Eskuordetutako eginkizunak zehaztuko ditu laguntzaile eskuordeak izendatzen dituen ebazpen judizialak, eta bakoitzaren ordainsaria ezarriko du.

2. Laguntzaile eskuordeei aplikatuko zaie konkurtso-administratzaileentzat eta haien ordezkarietzat ezarritako desgaiakuntza-, debeku-, errekusatze- eta erantzukizun-araubidea.

78. artikulua. Laguntzaile eskuordeen ordainsaria.

Laguntzaile eskuordeen ordainsaria konkurtso-administrazioaren kontura izango da, eta administrazio horrek dagokiona jaso ahala ordainduko da. Epaileak esanbidez besterik erabaki ezean, laguntzaile eskuordeen ordainsaria konkurtso-administrazioak jasotzen duen ehunekoaren arabera finkatuko da.

79. artikulua. Ebazpena errekurritu ezina izatea.

1. Ezingo da errekurtsorik jarri konkurtsoko epaileak laguntzaile eskuordeak izendatzeari buruz hartutako erabakiaren aurka.

2. Laguntzaile eskuordeak izendatzeko eskaera ukatu bada, konkurtso-administrazioak eskaera berriro egin ahal izango du, eskaera ukatzea eragin zuten inguruabarrak aldatzen direnean.

2. atala. Kargua betetzea

80. artikulua. Diligentzia- eta leialtasun-eginbeharrak.

Konkurtso-administratzaileak eta laguntzaile eskuordeak beren karguan arituko dira administratzaile eratsuaren eta ordezkari leialaren arretaz.

81. artikulua. Konkurtso-administrazio dualaren kasuan, eginkizunak betetzea.

1. Konkurtso-administrazioa bi kidek osatzen dutenean, konkurtso-organo horren eginkizunak modu mankomunatuan gauzatuko dira. Desadostasuna gertatuz gero, epaileak ebatziko du.

2. Epaileak zenbait eskumen esleitu ahal izango dizkio administratzaileetako bati, banaka, edo eskumen horiek haien artean banatu ahal izango ditu.

3. Konkurtso-administrazio dualaren erabakiak eta akordioak, izapidetzekoak edo kudeaketa arruntekoak

Artículo 77. Régimen legal de los auxiliares delegados.

1. La resolución judicial en la que se nombren auxiliar o auxiliares delegados especificará las funciones delegadas y establecerá la retribución de cada uno de ellos.

2. Será de aplicación a los auxiliares delegados el régimen de inhabilitaciones, prohibiciones, recusación y responsabilidad establecido para los administradores concursales y sus representantes.

Artículo 78. Retribución de los auxiliares delegados.

La retribución de los auxiliares delegados correrá a cargo de la administración concursal y se abonará a medida que esta perciba la que le corresponda. Salvo que expresamente el juez acuerde otra cosa, la retribución de los auxiliares delegados se fijará mediante un porcentaje respecto de la que perciba la administración concursal.

Artículo 79. Carácter irrecurable de la resolución.

1. Contra la decisión del juez del concurso relativa al nombramiento de auxiliares delegados no cabe recurso alguno.

2. Si la solicitud de nombramiento de auxiliares delegados hubiera sido denegada, la administración concursal podrá reproducirla cuando se modifiquen las circunstancias que dieron lugar a la denegación.

Sección 2.ª Del ejercicio del cargo

Artículo 80. Deberes de diligencia y lealtad.

Los administradores concursales y los auxiliares delegados desempeñarán el cargo con la diligencia de un ordenado administrador y de un leal representante.

Artículo 81. Ejercicio de funciones en caso de administración concursal dual.

1. Cuando la administración concursal esté integrada por dos miembros, las funciones de este órgano concursal se ejercerán de forma mancomunada. En caso de disconformidad, resolverá el juez.

2. El juez podrá atribuir determinadas competencias de forma individualizada a uno de los administradores o distribuirlas entre ellos.

3. Las decisiones y los acuerdos de la administración concursal dual que no sean de trámite



ez direnak, idatziz jasoko dira, eta organoko bi kideek sinatuko dituzte.

82. artikulua. Ikuskatze judiziala.

Konkurso-administrazioa konkurtsoko epaileak ikuskatuko du. Edozein unetan, epaileak informazio zehatza edo oroitidazkia eskatu ahal izango dio konkURSO-administrazioari, prozeduraren egoerari buruz edo konkURSOarekin zerikusia duen beste edozein gairi buruz.

83. artikulua. Ebazpen judiziala.

Konkurso-administrazioak kargua betetzeari buruzko arazoak ebazteko ematen diren ebazpen judizialek auto forma izango dute, eta ezingo da errekurtsorik jarri auto horren aurka. Ebatzitako gaiaren gainean ezingo da konkURSO-intzidenterik planteatu.

3. atala. Ordainsaria

1. azpiatala. Ordainsariaren araubide juridikoa

84. artikulua. Ordainsarirako eskubidea.

Konkurso-administratzaileek ordainsaria jasotzeko eskubidea izango dute masaren kontura.

85. artikulua. Ordainsaria zehaztea.

Konkurso-administrazioaren ordainsaria erregelamendu bidez onetsiko den arantzel baten bidez zehaztuko da. Arantzelak kontuan hartuko ditu konkURSO-administrazioak benetan betetzen dituen eginkizunak, hartzekodunen kopurua, konkURSOaren tamaina –konkurso-administrazioa izendatzeko ezarritako sailkapenaren arabera– eta konkURSOen metaketa.

86. artikulua. Ordainsaria zehazteko erregelak.

1. KonkURSO-administrazioaren ordainsaria zehazten duen arantzelak honako erregela hauek bete beharko ditu nahitaez:

1.a Esklusibotasunaren erregela. KonkURSO-administrazioek, konkURSOan esku hartzeagatik, arantzelaren aplikaziotik eratorritako diru kopurua jasoko dute soilik.

2.a Mugaketaren erregela. KonkURSO-administrazioak konkURSOan esku hartzeagatik jaso dezakeen gehieneko kopurua milioi bat eta bostehun mila euroren eta konkURSOpekoaren aktiboaren balorazioa ehuneko lau biderkatuta ateratzen denaren arteko txikiena izango da.

o de gestión ordinaria se consignarán por escrito y serán firmados por los dos miembros del órgano.

Artículo 82. Supervisión judicial.

La administración concursal está sometida a la supervisión del juez del concurso. En cualquier momento, el juez podrá requerir a la administración concursal una información específica o una memoria sobre el estado del procedimiento o sobre cualquier otra cuestión relacionada con el concurso.

Artículo 83. Resolución judicial.

Las resoluciones judiciales que se dicten para resolver las cuestiones relativas al ejercicio del cargo por la administración concursal revestirán forma de auto, contra el que no cabrá recurso alguno. Sobre la materia resuelta no podrá plantearse incidente concursal.

Sección 3.ª De la retribución

Subsección 1.ª Del régimen jurídico de la retribución

Artículo 84. Derecho a la retribución.

Los administradores concursales tendrán derecho a retribución con cargo a la masa.

Artículo 85. Determinación de la retribución.

La retribución de la administración concursal se determinará mediante un arancel que se aprobará reglamentariamente. El arancel atenderá a las funciones que efectivamente desempeñe la administración concursal, al número de acreedores, al tamaño del concurso según la clasificación establecida a los efectos del nombramiento de la administración concursal y a la acumulación de concursos.

Artículo 86. Reglas de determinación de la retribución.

1. El arancel que determine la retribución de la administración concursal se ajustará necesariamente a las siguientes reglas:

1.ª Regla de la exclusividad. Los administradores concursales solo podrán percibir por su intervención en el concurso las cantidades que resulten de la aplicación del arancel.

2.ª Regla de la limitación. La cantidad total máxima que la administración concursal puede percibir por su intervención en el concurso será la menor de entre la cantidad de un millón quinientos mil euros y la que resulte de multiplicar la valoración del activo del concursado por un cuatro por ciento.



Epaileak, alderdiei entzun ondoren, aurreko muga gainditzen duen ordainsaria onetsi ahal izango du, modu arrazoituan, baldin eta, konkurtsoaren konplexutasuna dela-eta, konkurtso-administrazioak bere gain hartutako kostuek hala justifikatzen badute, baina zenbateko hori ez da inoiz aipatutako mugaren ehuneko berrogeita hamar baino handiagoa izango.

3.a Efizientziaren erregela. Konkurtso-administrazioaren ordainsaria sortuko da lege honek eta konkurtsoko epaileak eratzitako eginkizunak bete ahala.

Epaileak hasieran ezarri den ordainsaria murriztu ahal izango du, modu arrazoituan, egoera hauetakoren bat gertatuz gero: konkurtso-administrazioak dagozkion betebeharrak ez betetzea; konkurtso-administrazioak bere betebeharrak ez betetzea berari egotzi dakiokkeen atzerapen bat dela medio edo egindako lanaren kalitatea balekoa ez izatea.

Atzerapena bete beharreko epearen erdia baino gehiago bada, edo hartzekodunen informazio-eginbearra betetzen ez bada, epaileak ordainsaria murriztu beharko du, salbu eta atzerapen hori justifikatzen duten inguruabar objektiboak badaude edo administratzailearen jokabidea arduratsua izan bada gainerako eginkizunak betetzeko.

Lanaren kalitatea eskasa dela ulertuko da inbentarioaren edo hartzekodunen zerrendaren aurkaratzeak demandatzaileen alde ebatzen direnean, behin-behineko inbentarioaren balioaren edo konkurtso-administrazioak aurkeztutako hartzekodunen behin-behineko zerrendaren zenbatekoaren ehuneko hamarra edo handiagoa den proportzioan. Azken kasu horretan, epaileak ordainsaria murriztu beharko du, gutxienez, aldaketaren proportzio berean, salbu eta balorazio edo zenbateko hori justifikatzen duten inguruabar objektiboak gertatzen direnean edo administratzailearen jokabidea gainerako eginkizunak betetzean arduratsua izan denean.

2. Masaren aurkako kredituak ordaintzeko masa aktiboa nahikoa ez delako amaitzen diren konkurtsoetan, konkurtso-administrazioari bermatuko zaio gutxieneko ordainsari bat ordainduko zaiola, arantzel-bermerako kontu baten bidez.

87. artikulua. Ordainsariaren zenbatekoa eta kredituaren epemuga.

1. Ordainsariaren zenbatekoa auto bidez finkatuko da, arantzelaren arabera.

El juez, oídas las partes, podrá aprobar de forma motivada una remuneración que supere el límite anterior cuando, debido a la complejidad del concurso, lo justifiquen los costes asumidos por la administración concursal, sin que en ningún caso pueda exceder del cincuenta por ciento de dicho límite.

3.^a Regla de la eficiencia. La retribución de la administración concursal se devengará conforme se vayan cumpliendo las funciones atribuidas por esta ley y el juez del concurso.

La retribución inicialmente fijada podrá ser reducida por el juez de manera motivada por el incumplimiento de las obligaciones de la administración concursal, un retraso atribuible a la administración concursal en el cumplimiento de sus obligaciones o por la calidad deficiente de sus trabajos.

Si el retraso excediera en más de la mitad del plazo que deba observar, o se incumpliera el deber de información de los acreedores, el juez deberá reducir la retribución, salvo que existan circunstancias objetivas que justifiquen ese retraso o que la conducta del administrador hubiese sido diligente en el cumplimiento de las demás funciones.

Se considerará que la calidad del trabajo es deficiente cuando se resuelvan impugnaciones sobre el inventario o la relación de acreedores en favor de los demandantes en proporción igual o superior al diez por ciento del valor del inventario provisional o del importe de la relación provisional de acreedores presentada por la administración concursal. En este último caso, el juez deberá reducir la retribución, al menos, en la misma proporción que la modificación, salvo que concurran circunstancias objetivas que justifiquen esa valoración o ese importe o que la conducta del administrador hubiese sido diligente en el cumplimiento de las demás funciones.

2. En aquellos concursos que concluyan por la insuficiencia de la masa activa para satisfacer los créditos contra la masa se garantizará a la administración concursal el pago de un mínimo retributivo mediante una cuenta de garantía arancelaria.

Artículo 87. Cuantía de la retribución y vencimiento del crédito.

1. La cuantía de la retribución se fijará por medio de auto conforme al arancel.



2. Autoak finkatuko du, halaber, ordainsaria zein epetan ordaindu behar den, arantzelaren arabera. Kredituaren sortzapena epe bakoitzaren epemugan gertatuko da.

88. artikulua. Ordainsaria aldatzea.

Prozeduraren edozein egoeratan, epaileak, ofizioz edo konkurtsopekoak nahiz edozein hartzekodunek hala eskatuta, ezarritako ordainsaria aldatu ahal izango du, arrazoi zuzena izanez gero, arantzela aplikatuz.

89. artikulua. Ordainsarien arloko errekursoak.

Konkurso-administratzailearen ordainsaria zehaztu edo aldatzeko autoa apelatu ahal izango dute interesdunak eta konkurtso-deklarazioa eskatzeko legitimazioa dutenak.

90. artikulua. Komunikatzeko eginbeharra.

Konkurtsopekoak edo konkurtso-administratzaileari edozein ordainsari ordaintzen dion edozein hirugarrenek komunikatu beharko dio konkurtsoa izapidetzen ari den epaitegiko Justizia Administrazioaren letraduari, ordaindutako zenbatekoa, arrazoi eta ordainketa-data adierazita. Betebehar bera izango du konkurtso-administrazioak, konkurtsoaren ondorioz edo horren ondorioz jaso ditzakeen edozein motatako ordainsariei dagokienez.

2. azpiatala. Arantzel-bermerako kontua

91. artikulua. Arantzel-bermerako kontuaren eraketa, kudeaketa eta funtzionamendua.

1. Arantzel-bermerako kontua bakarra izango da, eta Justizia Ministerioak kudeatuko du, zuzenean edo hirugarrenen bidez.

2. Kontuaren funtzionamenduak, funtsak erabiltzeko araubidea barne, lege honetan eta hura garatzeko emandako arau guztietan ezarritakoa bete beharko du. Erregelamenduz arautuko da arantzel-bermerako kontuaren banaketa-araubidea.

3. Kontua kudeatzeko eta diru-sarrerak eta zordunketak kontrolatzeko, Justizia Ministerioak zehazten duen aplikazio informatikoa erabiliko da. Aplikazioak kontrol-, segurtasun- eta gainbegiratzetresna egokiak edukiko ditu, eta datuen autentikotasuna, konfidentzialtasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna bermatu beharko ditu; halaber, aukera eman beharko du transferentzia-agindu telematikoak eta ordaintze-manamenduak emanaz

2. El auto fijará también los plazos en que la retribución deba ser satisfecha, conforme al arancel. El devengo del crédito se producirá al vencimiento de cada uno de los plazos.

Artículo 88. Modificación de la retribución.

En cualquier estado del procedimiento, el juez, de oficio o a solicitud del concursado o de cualquier acreedor, podrá modificar la retribución fijada, si concurriera justa causa, con aplicación del arancel.

Artículo 89. Recursos en materia de retribución.

El auto por el que se fije o modifique la retribución de la administración concursal será apelable por el interesado y por las personas legitimadas para solicitar la declaración de concurso.

Artículo 90. Deber de comunicación.

El concursado o cualquier tercero que abone cualquier clase de retribución al administrador concursal estarán obligados a comunicarlo al Letrado de la Administración de Justicia del juzgado ante el que se tramita el concurso, con indicación del importe abonado, de la causa y la fecha del pago. Igual obligación recaerá sobre la administración concursal respecto de las retribuciones de cualquier clase que pueda percibir por causa o con ocasión del concurso.

Subsección 2.^a De la cuenta de garantía arancelaria

Artículo 91. Constitución, gestión y funcionamiento de la cuenta de garantía arancelaria.

1. La cuenta de garantía arancelaria será única y su gestión corresponderá al Ministerio de Justicia, que la ejercerá ya sea directamente o a través de terceros.

2. El funcionamiento de la cuenta, incluido el régimen de disposición de los fondos, se regirá por lo establecido en esta ley y en cuantas normas se dicten en su desarrollo. Reglamentariamente se regulará el régimen de distribución de la cuenta de garantía arancelaria.

3. La gestión de la cuenta y el control de los ingresos y los cargos se realizará a través de la aplicación informática que determine el Ministerio de Justicia. La aplicación dispondrá de los mecanismos adecuados de control, seguridad y supervisión, y deberá garantizar la autenticidad, confidencialidad, integridad y disponibilidad de los datos, permitir la disposición de fondos mediante la expedición de órdenes telemáticas de transferencia y mandamientos de pago, así como



funtsak erabiltzeko, eta kontuetako mugimenduen eta saldoen gaineko informazioa ere eman beharko du.

4. Baliabide informatiko egokirik ez badago edo gerora teknikoki ezinezko bihurtuz gero, ordaintze-manamenduak edo transferentzia-aginduak eskuz emateko aukera ere egongo da, inprimaki normalizatuak erabiliz.

92. artikulua. Zuzkidurak egiteko eginbeharra.

1. Konkurtso-administratzaile bakoitzak arantzel-bermerako kontuan egin beharreko zuzkiduraren zenbatekoa kalkulatzeko, honako ehuneko hauek aplikatuko zaizkie hartzekodunen konkurtsoan benetan jasotzen dituen ordainsariei:

a) 2.565 eurotik 50.000 eurora bitartean jasotako ordainsarietatik, ehuneko bi eta erdi.

b) 50.001 eurotik 500.000 eurora bitartean jasotako ordainsarietatik, ehuneko bost.

c) Jasotako 500.000 euro baino gehiagoko ordainsarietatik, ehuneko hamar.

2. Zuzkidurak egiteko eginbeharretik kanpo egongo dira konkurtso-administratzailea –hartzekodunen konkurtsoan benetan jaso duen ordainsaria 2.565 eurora iristen ez bada– eta ordainsaria arantzel-bermerako kontuaren kargura jasotzeko eskubidea dutenak.

93. artikulua. Zuzkiduren sarrera.

1. Konkurtso-administratzaile bakoitzak kontuak eman aurretik sartu beharko ditu aurreko artikuluan ezarritako nahitaezko zuzkidurak arantzel-bermerako kontuan.

2. Nahitaezko zuzkidurak arantzel-bermerako kontuan sartzeko unean, konkurtso-administratzaile bakoitzak konkurtsoa izapidetzen ari den epaitegiko Justizia Administrazioaren letraduari jakinarazi beharko dio arantzel-bermerako kontuan sartutako zenbatekoa.

3. Kontuak emateko unean konkurtso-administratzaileak ez badu ordaindu behar duen zuzkidura, Justizia Administrazioaren letraduak hamar eguneko epean eginbehar hori betetzeko eskatuko dio. Hala egiten ez badu, baja emango zaio Konkurtso-erregistro publikoko laugarren atalean, ordaintzen duen arte.

proporcionar información sobre los movimientos y saldos de las cuentas.

4. En los casos de falta de medios informáticos adecuados o imposibilidad técnica sobrevenida, se podrán emitir mandamientos de pago u órdenes de transferencia de forma manual utilizando los impresos normalizados.

Artículo 92. Deber de dotación.

1. La cuantía de la dotación a efectuar por cada administrador concursal a la cuenta de garantía arancelaria se calculará por aplicación de los siguientes porcentajes sobre las retribuciones que efectivamente perciba en el concurso de acreedores:

a) Un dos y medio por ciento por la remuneración obtenida que se encuentre entre los 2.565 euros y los 50.000 euros.

b) Un cinco por ciento por la remuneración obtenida que se encuentre entre los 50.001 euros y los 500.000 euros.

c) Un diez por ciento por la remuneración obtenida que supere los 500.000 euros.

2. El administrador concursal cuya retribución efectivamente percibida en el concurso de acreedores no alcance la cantidad de 2.565 euros, así como los que tengan derecho a percibir la retribución con cargo a la cuenta de garantía arancelaria estarán excluidos del deber de realizar dotaciones.

Artículo 93. Ingreso de las dotaciones.

1. Cada administrador concursal deberá ingresar en la cuenta de garantía arancelaria las dotaciones obligatorias establecidas en el artículo anterior antes de la rendición de cuentas.

2. En el momento del ingreso en la cuenta de garantía arancelaria de las dotaciones obligatorias, cada uno de los administradores concursales deberá dar cuenta al Letrado de la Administración de Justicia del juzgado en el que se tramita el concurso del importe ingresado en la cuenta de garantía arancelaria.

3. Si en el momento de la rendición de cuentas el administrador concursal no hubiera realizado el ingreso de la dotación a que estuviera obligado, el Letrado de la Administración de Justicia le instará a que, dentro del plazo de diez días, cumpla con ese deber. Si no lo hiciera, será dado de baja en la sección cuarta del Registro público concursal hasta que proceda a su abono.



4. atala. Erantzukizuna

94. artikulua. Erantzukizunaren aurrebaldintzak.

1. Konkurtso-administratzaileek eta laguntzaile eskuordeek erantzukizuna izango dute konkurtsopekoari eta hartzekodunei begira, legearen aurka edo behar den arretarik gabe gauzatutako egite edo ez-egiteen ondorioz masari eragindako kalte-galerengatik eta karguari datxezkion eginbeharrak bete gabe egindakoengatik.

2. Konkurtso-administrazio dualaren kasuan, administrazio publiko hartzekodunaren edo hari lotutako edo haren mendeko zuzenbide publikoko erakunde hartzekodunaren eta karguari dagozkion eginkizunak betetzeko izendatutako pertsonaren erantzukizun-araubidea administrazio-erloto legeriaren araubide espezifikoak izango da.

95. artikulua. Erantzukizunaren izaera solidarioa.

Konkurtso-administratzaileek eta laguntzaile eskuordeek erantzukizun solidarioa izango dute azken horiek gauzatutako egite eta ez-egite kaltegarrien ondorioz, salbu eta administratzaileek frogatzen dutenean kaltea eragotzi edo saihesteko behar den arreta jarri dutela.

96. artikulua. Itzulketak jasotzeko eskubidea.

Epaiak kalte-galerak ordaintzeko kondena ezarri badu, akzioa masaren onerako egikaritu duen hartzekodunak egin dituen beharrezko gastuak berreskuratzeko eskubidea izango du, egiazki jasotako zenbatekoaren kontura.

97. artikulua. Preskripzioa.

Konkurtso-administratzaileek eta laguntzaile eskuordeek masa aktiboari eragindako kalte-galeren erantzukizun-akzioak lau urtera preskribatuko dira, auzi-jartzaileak erreklamazioaren xede den kalte edo galeraren berri izan duenetik kontatuta eta, edozein kasutan, konkurtso-administratzaileek edo laguntzaile eskuordeek beren kargua utzi dutenetik kontatuta.

98. artikulua. Erantzukizun-akzio indibiduala.

1. Salbuetsita geratzen dira konkurtsopekoari, hartzekodunei edo hirugarrenei dagozkien erantzukizun-akzioak, konkurtso-administratzaileen eta laguntzaile eskuordeen egite edo ez-egiteek zuzeneko kaltea eragin dietenean haien interesei.

Sección 4.ª De la responsabilidad

Artículo 94. Presupuestos de la responsabilidad.

1. Los administradores concursales y los auxiliares delegados responderán frente al concursado y frente a los acreedores de los daños y perjuicios causados a la masa por los actos y omisiones contrarios a la ley y por los realizados incumpliendo los deberes inherentes al desempeño del cargo sin la debida diligencia.

2. En caso de administración concursal dual, el régimen de responsabilidad de la Administración pública acreedora o de la entidad de derecho público acreedora vinculada o dependiente de ella y la de la persona designada para el ejercicio de las funciones propias del cargo será el específico de la legislación administrativa.

Artículo 95. Carácter solidario de la responsabilidad.

Los administradores concursales responderán solidariamente con los auxiliares delegados de los actos y omisiones lesivos de estos, salvo que prueben haber empleado toda la diligencia debida para prevenir o evitar el daño.

Artículo 96. Derecho de reembolso.

Si la sentencia contuviera condena a indemnizar daños y perjuicios, el acreedor que hubiera ejercitado la acción en interés de la masa tendrá derecho a que, con cargo a la cantidad efectivamente percibida, se le reembolsen los gastos necesarios que hubiera soportado.

Artículo 97. Prescripción.

Las acciones de responsabilidad por los daños y perjuicios causados a la masa activa por los administradores concursales y los auxiliares delegados prescribirán a los cuatro años, contados desde que el actor hubiera tenido conocimiento del daño o perjuicio por el que reclama y, en todo caso, desde que los administradores concursales o los auxiliares delegados hubieran cesado en su cargo.

Artículo 98. Acción individual de responsabilidad.

1. Quedan a salvo las acciones de responsabilidad que puedan corresponder al concursado, a los acreedores o a terceros por actos u omisiones de los administradores concursales y auxiliares delegados que lesionen directamente los intereses de aquellos.



2. Aurreko apartatuan aipatutako erantzukizun-akzioak lau urtera preskribatuko dira, auzi-jartzaileak erreklamazioaren xede den kalte edo galeraren berri izan duenetik kontatuta, eta, edozein kasutan, konkurtso-administratzaileek edo laguntzaile eskuordeek kargua utzi dutenetik kontatuta.

99. artikulua. Epaile eskuduna eta prozedura aplikagarria.

Atal honetan aurreikusitako akzioak erantzukizun zibila eskatzera bideratzen direnean, konkurtsoaren gaineko ardura duen edo izan duen epailearen aurrean bideratuko dira, kasuan kasuko deklarazio-judizioaren izapideen bidez.

5. atala. Banantzea eta errebokatzea

100. artikulua. Banantzea eta errebokatzea.

1. Arrazoi zuzena dagoenean, epaileak, ofizioz edo konkurtso-deklarazioa eskatzeko legitimazioa duten pertsonetatik edozeinek nahiz konkurtso-administratzaileek beste kideak hala eskatuta, kargutik banandu ahal izango ditu edozein konkurtso-administratzaile, edota laguntzaile eskuordeen izendapena errebokatu ahal izango du.

2. Edonola ere, administratzaile-kargutik banantzeko arrazoi izango dira honako egoera hauek: administratzailearen eginkizunak modu nabarmenean ez betetzea eta inbentarioaren edo hartzekodunen zerrendaren gaineko aurkaratzeak ebaztea eskatzaileen alde edo konkurtso-administratzailearen alde, inbentarioaren ehuneko hogeia edo hortik gorako zenbateko batean. Hala ere, banantze-arrazoi hori gertatzen bada, epaileak konkurtso-administratzailea karguan mantendu ahal izango du, hori egitea gomendatzen duten inguruabar objektiboak daudenean.

3. Pertsona juridiko baten ordezkaria kargutik banandu edo errebokatzeak pertsona juridiko hori konkurtso-administratzaile edo laguntzaile eskuorde gisa automatikoki kargutik kentzea ekarriko du.

4. Banantze edo errebokatzearen ondorioz kargutik kentzeko ebazpen judizialak auto forma izango du, eta bertan jasoko dira epaileak erabakiaren oinarri diren arrazoiak.

101. artikulua. Izendapen berria.

1. Konkurtso-administratzaile batek kargua utzi behar duenetan, epaileak berehala egingo du beste izendapen bat. Kargua uzteari eta izendapen berriari

2. Las acciones de responsabilidad a que se refiere el apartado anterior prescribirán a los cuatro años, contados desde que el actor hubiera tenido conocimiento del daño o perjuicio por el que reclama y, en todo caso, desde que los administradores concursales o los auxiliares delegados hubieran cesado en su cargo.

Artículo 99. Juez competente y procedimiento aplicable.

Las acciones previstas en esta sección, cuando se dirijan a exigir responsabilidad civil, se sustanciarán ante el juez que conozca o haya conocido del concurso por los trámites del juicio declarativo que corresponda.

Sección 5.ª De la separación y de la revocación

Artículo 100. Separación y revocación.

1. Cuando concorra justa causa, el juez, de oficio o a instancia de cualquiera de las personas legitimadas para solicitar la declaración de concurso o del otro miembro de la administración concursal, podrá separar del cargo a cualquiera de los administradores concursales o revocar el nombramiento de los auxiliares delegados.

2. En todo caso será causa de separación del administrador el incumplimiento grave de las funciones de administrador y la resolución de impugnaciones sobre el inventario o la lista de acreedores en favor de los demandantes por una cuantía igual o superior al veinte por ciento del valor del inventario o de la lista de acreedores presentada por la administración concursal. No obstante, la concurrencia de esta causa de separación, el juez, podrá mantener al administrador concursal en el ejercicio del cargo cuando concurren circunstancias objetivas que así lo aconsejen.

3. La separación o revocación del representante de una persona jurídica implicará el cese automático de esta como administrador concursal o como auxiliar delegado.

4. La resolución judicial de cese por separación o revocación revestirá forma de auto, en el que se consignarán los motivos en los que el juez funde la decisión.

Artículo 101. Nuevo nombramiento.

1. En todos los casos de cese de un administrador concursal, el juez procederá de inmediato a efectuar un nuevo nombramiento. Al cese y al nuevo nombramiento se dará la misma publicidad que



konkurto-administratzaile ordeztuaren izendapenak izan duen publizitate bera emango zaie.

2. Konkurto-administratzaile izendatutako pertsona juridikoak karguari dagozkion eginkizunak betetzean hura ordezkatzeko pertsona fisikoa errebokatzen badu, aldi berean komunikatu beharko dio epaitegiari ordezkari berriaren identitatea. Errebokatzeari eta izendapen berriari, errebokatuaren izendapenak izan duen publizitate bera emango zaie.

102. artikulua. Kontuak ematea.

1. Konkurto-administratzaileak konkurtoa amaitu baino lehen kargua uzten badu, epaileak kontu-emate osoa aurkezteko eskatuko dio.

2. Konkurto-administratzaileak kontuak emateko idazkian behar bezala justifikatuko du emandako ahalmenak erabili dituela; masaren aurkako kredituen eta konkurto-kredituen ordainketak eta, hala badagokio, egindako kontsignazioak azalduko ditu; epaileak konkurto-fase bakoitzerako ezarri dion ordainsaria zehaztuko du, jasotako zenbatekoak zehaztuz, osagarriak barne, bai eta jasotze horietako bakoitzaren datak ere, eta, halaber, laguntzaile eskuordearen edo laguntzaile eskuordeen ordainketak adieraziko ditu, izendatuak izan badira, bai eta kontratatu dituen aditu, tasatzaile eta erakunde espezializatuak ere, konkurto-administratzailearen beraren ordainsariaren kargura. Era berean, konkurto-administratzaileak konkurtoari esleitutako langile kopurua zehaztuko du, bai eta langile horiek konkurtoan guztira emandako ordu kopurua ere.

3. Kontuak emateko epea hilabetekoa izango da, errekerimendua jakinarazten denetik kontatzen hasita. Aurkeztutako kontu-ematea onesteari aurka egiteko araubidea eta kontu horiek onesteari edo gaitzesteari ondoreak arautuko dira likidazioa bukatzeagatik konkurtoa amaitzen den kasuetarako ezarritakoaren arabera.

4. Justizia Administrazioaren letraduak kontuak emateko idazkia igorriko dio Konkurto-erregistro publikoari.

103. artikulua. Konkurto-administratzaileen eta laguntzaile eskuordeen izendapenaren, errebokazioaren eta kargu-uztearen aurkako errekurtoak.

1. Konkurto-administratzaileen eta laguntzaile eskuordeen izendapenari, errebokazioari eta kargu-

hubiera tenido el nombramiento del administrador concursal sustituido.

2. Si la persona jurídica nombrada administradora concursal revocara a la persona natural que la representaba en el ejercicio de las funciones propias del cargo, deberá comunicar simultáneamente al juzgado la identidad del nuevo representante. A la revocación y a la nueva designación se dará la misma publicidad que hubiera tenido la designación del revocado.

Artículo 102. Rendición de cuentas.

1. En el caso de cese del administrador concursal antes de la conclusión del concurso, el juez le requerirá para que presente una completa rendición de cuentas.

2. En el escrito de rendición de cuentas, el administrador concursal justificará cumplidamente la utilización que haya hecho de las facultades conferidas; expondrá de los pagos y, en su caso, de las consignaciones realizadas de los créditos contra la masa y de los créditos concursales; detallará la retribución que le hubiera sido fijada por el juez para cada fase del concurso, especificando las cantidades percibidas, incluidas las complementarias, así como las fechas de cada una de esas percepciones, y expresará los pagos del auxiliar o auxiliares delegados, si hubieran sido nombrados, así como los de cualesquiera expertos, tasadores y entidades especializadas que hubiera contratado, con cargo a la retribución del propio administrador concursal. Asimismo, precisará el número de trabajadores asignados por la administración concursal al concurso y el número total de horas dedicadas por el conjunto de estos trabajadores al concurso.

3. La rendición de cuentas se presentará en el plazo de un mes a contar desde la notificación del requerimiento. El régimen de la oposición a la aprobación de la rendición de cuentas presentada y los efectos de la aprobación o desaprobación de esas cuentas se regirá por lo establecido para los casos en los que el concurso finalice por finalización de la liquidación.

4. El Letrado de la Administración de Justicia remitirá el escrito de rendición de cuentas al Registro público concursal.

Artículo 103. Recursos contra el nombramiento, revocación y cese de los administradores concursales y auxiliares delegados.

1. Contra las resoluciones sobre nombramiento, revocación y cese de los administradores concursales



uzteari buruzko ebazpenen aurka berraztertzeko errekurtoa jarri ahal izango da, eta, errekurto hori ebazten duen autoaren aurka, apelazio-errekurtoa, eta azken horrek ez du etete-ondorerik izango.

2. Errekurtoa jartzeko legitimazioa izango dute konkurtsopekoak, konkurtso-administrazioak, ukitutako konkurtso-administratzaileak, ukitutako laguntzaile eskuordeak eta interes legitimoa dutela egiaztatzen dutenek, nahiz eta lehenago agertu ez.

104. artikulua. Konkurtso-erregistro publikoko baja.

Konkurtso-administratzailea kargutik banantzeak edo laguntzaile eskuordea errebokatzek berekin ekarriko dute ukituari Konkurtso-erregistro publikoan baja ematea. Baja kautelazkoa izango da, kargu-uztearen ebazpena irmoa ez den bitartean.

III. TITULUA

Konkurtso-deklarazioaren ondoreak

I. KAPITULUA

Zordunaren gaineko ondoreak

1. atala. Konkurtsopekoaren gaineko ondoreak, oro har

105. artikulua. Konkurtsopekoaren komunikazioen, bizilekuaren eta zirkulazio askearen gaineko ondoreak.

Konkurtso-deklarazioak konkurtsopekoaren oinarriko eskubide eta askatasunen gainean dituen ondoreak, korrespondentziaren, bizilekuaren eta zirkulazio askearen arloan, Konkurtsoa Eraldatzeko uztailaren 9ko 8/2003 Lege Organikoan ezarritakoak izango dira; lege organiko horrek Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen du.

106. artikulua. Konkurtsopekoaren ondare-ahalmenen gaineko ondoreak.

1. Borondatezko konkurtsoaren kasuan, konkurtsopekoak masa aktiboaren gaineko administratze- eta xedatze-ahalmenei eutsiko die, baina ahalmen horien egikaritza konkurtso-administrazioaren esku-hartzearen mende egongo da, eta azken horrek baimena eman edo ukatu ahal izango du, bere ustez komenigarria denaren arabera.

2. Nahitaezko konkurtsoaren kasuan, konkurtsopekoak eten egingo du masa aktiboa administratzeko eta xedatzeko ahalmenen egikaritzea. Konkurtso-administrazioak zorduna ordeztuko du ahalmen horiek egikaritzean.

y auxiliares delegados cabrá recurso de reposición y, contra el auto que lo resuelva, el de apelación que no tendrá efecto suspensivo.

2. Estarán legitimados para recurrir el concursado, la administración concursal, el administrador concursal afectado, el auxiliar delegado afectado y quienes acrediten interés legítimo, aunque no hubieran comparecido con anterioridad.

Artículo 104. Baja en el Registro público concursal.

La separación del administrador concursal o la revocación del auxiliar delegado determinarán la baja del afectado en el Registro público concursal. La baja será cautelar mientras la resolución de cese no sea firme.

TÍTULO III

De los efectos de la declaración de concurso

CAPÍTULO I

De los efectos sobre el deudor

Sección 1.^a De los efectos sobre el concursado en general

Artículo 105. Efectos sobre las comunicaciones, residencia y libre circulación del concursado.

Los efectos de la declaración de concurso sobre los derechos y libertades fundamentales del concursado en materia de correspondencia, residencia y libre circulación serán los establecidos en la Ley Orgánica 8/2003, de 9 de julio, para la Reforma Concursal, por la que se modifica la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial.

Artículo 106. Efectos sobre las facultades patrimoniales del concursado.

1. En caso de concurso voluntario, el concursado conservará las facultades de administración y disposición sobre la masa activa, pero el ejercicio de estas facultades estará sometido a la intervención de la administración concursal, que podrá autorizar o denegar la autorización según tenga por conveniente.

2. En caso de concurso necesario, el concursado tendrá suspendido el ejercicio de las facultades de administración y disposición sobre la masa activa. La administración concursal sustituirá al deudor en el ejercicio de esas facultades.



3. Aurreko apartatuetan xedatutakoa gorabehera, epaileak etetea erabaki ahal izango du, konkurtsoa borondatezkoa izan arren, edo, esku-hartze soila, konkurtsoa nahitaezkoa denean. Kasu bietan, arrazoitu egin beharko du erabakia, saihestu nahi diren arriskuak eta eskuratu nahi diren abantailak adieraziz.

107. artikulua. Ahalmenak mugatzeko edo eteteko eremu objektiboa.

1. Esku-hartzearen eta etetearen eremua honako hauetara mugatuko da: masa aktiboan sartuta dauden edo sartzan diren ondasun eta eskubideak; ondasun edo eskubide horiekin zerikusia duten ondare-izaerako betebeharrak onartu, aldatu edo azkentzea; eta, hala denean, zordunak ezkontza-sozietate edo -erkidegoan dituen ahalmenak egikaritzea.

2. Konkurtsopekoak testamentua egiteko ahalmenari eutsiko dio.

108. artikulua. Konkurtsopekoaren ondare-ahalmenak aldatzea.

1. Konkurtso-administrazioak hala eskatuta, epaileak, konkurtsopekoari entzun ondoren, edozein unetan erabaki ahal izango du, auto bidez, konkurtsopekoak masa aktiboaren gainean dituen ahalmenak eten edo esku hartzeko egoerak aldatzea.

2. Esku-hartze edo etetearen aldaketari, eta, horren ondorioz, konkurtso-administrazioaren ahalmenek izandako aldarazpenari konkurtso-deklaraziorako erabaki den publikitate bera emango zaie.

109. artikulua. Ahalmenak mugatzeko edo eteteko araubidea haustea.

1. Konkurtsopekoaren egintzak, konkurtsoko epaileak erabakitako ondare-ahalmenen mugapena edo etendura hausten badute, konkurtso-administrazioak hala eskatuta bakarrik deuseztatu ahal izango dira, salbu eta administrazio horrek egintza horiek baliozkotu edo berretsi baditu.

2. Hartzekodunetatik edozeinek eta arau-haustearen ondorioz ukitutako kontratu-harremanetan alderdi izan denak konkurtso-administrazioari eskatu ahal izango diote adierazpena egin dezan, kasuan kasuko akzioari buruz edo egintza baliozkotu edota berresteari buruz.

3. Deuseztatzeko akzioa konkurtso-intzidentearen bideetatik izapidetuko da. Errekerimendua egin bada, akzioa iraungiko da errekerimendua egin denetik hilabete igaro denean. Gainerakoetan, akzioa

3. No obstante lo dispuesto en los apartados anteriores, el juez podrá acordar la suspensión en caso de concurso voluntario o la mera intervención cuando se trate de concurso necesario. En ambos casos, deberá motivarse el acuerdo señalando los riesgos que se pretendan evitar y las ventajas que se quieran obtener.

Artículo 107. Ámbito objetivo de la limitación o de la suspensión de facultades.

1. El ámbito de la intervención y de la suspensión estará limitado a los bienes y derechos integrados o que se integren en la masa activa, a la asunción, modificación o extinción de obligaciones de carácter patrimonial relacionadas con esos bienes o derechos y, en su caso, al ejercicio de las facultades que correspondan al deudor en la sociedad o comunidad conyugal.

2. El concursado conservará la facultad de testar.

Artículo 108. Modificación de las facultades patrimoniales del concursado.

1. A solicitud de la administración concursal, el juez, oído el concursado, podrá acordar en cualquier momento, mediante auto, el cambio de las situaciones de intervención o de suspensión de las facultades del concursado sobre la masa activa.

2. Al cambio de las situaciones de intervención o de suspensión y la consiguiente modificación de las facultades de la administración concursal se le dará la misma publicidad que la acordada para la declaración de concurso.

Artículo 109. Infracción del régimen de limitación o suspensión de facultades.

1. Los actos del concursado que infrinjan la limitación o la suspensión de las facultades patrimoniales acordada por el juez del concurso solo podrán ser anulados a instancia de la administración concursal, salvo que esta los hubiese convalidado o confirmado.

2. Cualquier acreedor y quien haya sido parte en la relación contractual afectada por la infracción podrá requerir de la administración concursal que se pronuncie acerca del ejercicio de la correspondiente acción o de la convalidación o confirmación del acto.

3. La acción de anulación se tramitará por los cauces del incidente concursal. De haberse formulado el requerimiento, la acción caducará al cumplirse un mes desde la fecha de este. En otro caso, caducará con el



iraungiko da zordunak hitzarmena betetzen duenean, edo, likidazioaren kasuan, hura amaitzen denean.

4. Konkurtsopekoak ondare-ahalmenen mugapena edo etendura hautsiz egindako egintzak ezin izango dira erregistro publikoetan inskribatu harik eta egintza horiek berretsi edo baliozkotu arte, deuseztatzeko uzia ezesten duen ebazpen judiziala irmo bihurtu arte edo akzioaren iraungitzea egiaztatzen den arte.

110. artikulua. Konkurtsopekoari egindako ordainketak.

Konkursopekoari egindako ordainketak askatuko du ordainketa egiten duena, baldin eta, prestazioa egiteko uanean, konkurtso-deklarazioaren berri ez bazuen. Konkurtso-deklarazioa *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen denetik ezagutzen dela joko da.

111. artikulua. Lanbide- edo enpresa-jarduerarekin jarraitzea.

1. Konkurtso-deklarazioak ez du geldiaraziko zorduna gauzatzen ari den lanbide- edo enpresa-jarduera.

2. Konkurtso-deklarazioa onartu arte, konkurtsopekoak bere jarduerarekin jarraitzeko ezinbestekoak diren egintzak egin ahal izango ditu, betiere haiek merkatuaren baldintza normalekin bat badatoz; horrek, dena den, ez dio kalterik egingo epaileak konkurtsoa deklaratzeko horri buruz hartu dituen kautela-neurriei.

112. artikulua. Esku-hartzea gertatzen bada, ekintza edo eragiketa jakin batzuetarako baimen orokorra.

Konkursopekoaren lanbide- edo enpresa-jarduerarekin jarraitzea errazteko, konkurtso-administrazioak, esku-hartzea gertatzen bada, oro har baimendu ahal izango ditu jardueraren igorpenari edo trafikoari dagozkion egintza edo eragiketak, izaera edo zenbatekoa dela-eta konkurtsopekoak edo haren zuzendari nagusiak edo zuzendari nagusiek egin ditzaketenak.

113. artikulua. Etendura gertatzen bada, lanbide- edo enpresa-jarduera egiten jarraitzea.

Konkursopekoaren administratze- eta xedatze-ahalmenak eteten badira, konkurtso-administrazioak behar diren neurriak hartuko ditu lanbide- edo enpresa-jarduerarekin jarraitzeko.

cumplimiento del convenio por el deudor o, en el supuesto de liquidación, con la finalización de esta.

4. Los actos realizados por el concursado con infracción de la limitación o de la suspensión de facultades patrimoniales no podrán ser inscritos en registros públicos mientras no sean confirmados o convalidados, alcance firmeza la resolución judicial por la que se desestime la pretensión de anulación o se acredite la caducidad de la acción.

Artículo 110. Pagos al concursado.

El pago realizado al concursado solo liberará a quien lo hiciere si, al tiempo de efectuar la prestación, desconocía la declaración de concurso. Se presume el conocimiento desde la publicación de la declaración de concurso en el «Boletín Oficial del Estado».

Artículo 111. Continuación del ejercicio de la actividad profesional o empresarial.

1. La declaración de concurso no interrumpirá la continuación de la actividad profesional o empresarial que viniera ejerciendo el deudor.

2. Hasta la aceptación de la administración concursal el concursado podrá realizar los actos que sean imprescindibles para la continuación de su actividad, siempre que se ajusten a las condiciones normales del mercado, sin perjuicio de las medidas cautelares que hubiera adoptado al respecto el juez al declarar el concurso.

Artículo 112. Autorización general de determinados actos u operaciones en caso de intervención.

1.a Lan-exekuzioak, baldin eta ondasun edo eskubide horren enbargoa konkurtsoa deklaratu baino lehenagokoa bada.

2.a Exekuzio-prozedura administratiboak, baldin eta enbargo-eginbidea konkurtso-deklarazioaren data baino lehenagokoa bada.

2. Exekuzioarekin lortutako dirua hura eragin duen kreditua ordaintzeko erabiliko da, eta soberakina masa aktiboan sartuko da. Hala ere, konkurtso-administrazioak egikaritutako eskubide hobeko hirugarrengotzan zehazten bada kobrantza-lehentasuna duten konkurtso-kredituak badaudela, lehentasun horrek lortutako zenbatekoa konkurtsoaren esku jarriko da.

3. Likidazio-plana onesten duen ebazpen judizialaren datan, irmoa izan ala ez, ondasunak edo

tampoco apremios administrativos, incluidos los tributarios, contra los bienes o derechos de la masa activa.

Artículo 143. Suspensión de las actuaciones y de los procedimientos de ejecución.

1. Las actuaciones y los procedimientos de ejecución contra los bienes o derechos de la masa activa que se hallaran en tramitación quedarán en suspenso desde la fecha de declaración de concurso, sin perjuicio del tratamiento concursal que corresponda dar a los respectivos créditos. Serán nulas cuantas actuaciones se hubieran realizado desde ese momento.

2. El juez del concurso, a solicitud de la administración concursal, previa audiencia de los acreedores afectados, podrá acordar el levantamiento y cancelación de los embargos trabados en las actuaciones y los procedimientos de ejecución cuya tramitación hubiera quedado suspendida cuando el mantenimiento de esos embargos dificultara gravemente la continuidad de la actividad profesional o empresarial del concursado. El levantamiento y cancelación no podrá acordarse respecto de los embargos administrativos.

Artículo 144. Excepciones a la suspensión de las actuaciones y de los procedimientos de ejecución.

1. Cuando se incorpore a las actuaciones o al procedimiento correspondiente el testimonio de la resolución del juez del concurso que declare que un bien o derecho concreto que hubiese sido objeto de embargo no es necesario para la continuidad de la actividad profesional o empresarial del deudor, podrán proseguirse las actuaciones y procedimientos de ejecución de las siguientes clases:

1.º Las ejecuciones laborales en las que el embargo de ese bien o derecho fuese anterior a la fecha de declaración del concurso.

2.º Los procedimientos administrativos de ejecución en los que la diligencia de embargo fuera anterior a la fecha de declaración del concurso.

2. El dinero obtenido con la ejecución se destinará al pago del crédito que hubiera dado lugar a la misma y el sobrante se integrará en la masa activa. No obstante, si en tercería de mejor derecho ejercitada por la administración concursal se determinase la existencia de créditos concursales con preferencia de cobro, el importe de lo obtenido al que alcance esa preferencia se pondrá a disposición del concurso.

3. Si a la fecha de la resolución judicial por la que se apruebe el plan de liquidación, sea o no firme, no se



eskubideak besterendu ez badira edo enbargatutako ondasun edo eskubidearen enkante-iragarkiak argitaratu ez badira, exekuzio-jarduketa eta -prozedura horiek ondorerik gabe geratuko dira.

2. azpiatala. Berme errealak eta antzekoak exekutatzeko prozeduretarako erregela bereziak

145. artikulua. Berme errealen exekuzioen gaineko ondoreak.

1. Konkurtsoa deklaratzetik denetik, masa aktiboko ondasunen edo eskubideen gaineko berme-eskubide errealen titularrek, konkurtso-hartzekodunak izan zein ez, ezin izango dute ondasun edo eskubide horiek nahitaez diru bihurtzeko edo exekutatzeko prozedurarik hasi konkurtsopekoaren lanbide- edo enpresa-jarduerarekin jarraitzeko.

2. Konkurtsoa deklaratzetik denetik, eten egingo dira data horretan masa aktiboaren edozein ondasun edo eskubideren gainean hasitako nahitaez diru bihurtzeko edo exekutatzeko jarduketak, enkante-iragarkiak argitaratuta egon arren.

146. artikulua. Beharrezkoak ez diren ondasun edo eskubideen gaineko berme errealak exekutatzen hastea edo jarraitzea.

Masa aktiboko ondasun edo eskubideen gaineko berme-eskubide errealen titularrek, konkurtso-hartzekodunak izan zein ez, eskubide horiek konkurtsopekoaren lanbide- edo enpresa-jarduerarekin jarraitzeko beharrezkoak ez direnean, ondasun edo eskubide horien gainean nahitaez diru bihurtzeko edo exekutatzeko prozedurak hasi nahi badituzte, edo etendura amaitutzat eman nahi dutenean, demandarekin batera aurkeztu beharko dute edo izapidetzea eten deneko prozedura judizialean edo administrazio-prozeduran sartu beharko dute konkurtsoko epailearen ebazpenaren lekukotza, zeinean deklaratzetik baita haiek ez direla beharrezkoak jarraitutasun horretarako. Betekizun hori bete ondoren, exekuzioa hasi ahal izango da, edo etendura bertan behera utzi, eta hasiera batean izapidetzeko eskumena zuen jurisdikzio- edo administrazio-organoaren aurrean jarraitzeko agindu ahal izango da.

147. artikulua. Masa aktiboaren ondasunak edo eskubideak beharrezkoak diren ala ez deklaratzeko.

1. Konkurtsoko epaileari dagokio masa aktiboan sartutako edozein ondasun edo eskubide beharrezkoa edo ez-beharrezkoa dela deklaratzeko, eskubide

hubiera producido la enajenación de los bienes o derechos o no se hubieran publicado los anuncios de subasta del bien o derecho embargado, estas actuaciones y procedimientos de ejecución quedarán sin efecto.

Subsección 2.ª De las reglas especiales para los procedimientos de ejecución de garantías reales y asimilados

Artículo 145. Efectos sobre las ejecuciones de garantías reales.

1. Desde la declaración de concurso, los titulares de derechos reales de garantía, sean o no acreedores concursales, sobre bienes o derechos de la masa activa necesarios para la continuidad de la actividad profesional o empresarial del concursado, no podrán iniciar procedimientos de ejecución o realización forzosa sobre esos bienes o derechos.

2. Desde la declaración de concurso, las actuaciones de ejecución o realización forzosa ya iniciadas a esa fecha sobre cualesquiera bienes o derechos de la masa activa quedaran suspendidas, aunque ya estuviesen publicados los anuncios de subasta.

Artículo 146. Inicio o continuación de ejecuciones de garantías reales sobre bienes o derechos no necesarios.

Los titulares de derechos reales de garantía, sean o no acreedores concursales, sobre bienes o derechos de la masa activa no necesarios para la continuidad de la actividad profesional o empresarial del concursado que pretendan iniciar procedimientos de ejecución o realización forzosa sobre esos bienes o derechos o que pretendan alzar la suspensión deberán acompañar a la demanda o incorporar al procedimiento judicial o administrativo cuya tramitación hubiera sido suspendida el testimonio de la resolución del juez del concurso que declare que no son necesarios para esa continuidad. Cumplido ese requisito podrá iniciarse la ejecución o alzarse la suspensión de la misma y ordenarse que continúe ante el órgano jurisdiccional o administrativo originariamente competente para tramitarla.

Artículo 147. Declaración del carácter necesario o no necesario de bienes o derechos de la masa activa.

1. La declaración del carácter necesario o no necesario de cualquier bien o derecho integrado en la masa activa corresponde al juez del concurso, a



errealaren titularrak hala eskatuta, konkurtso-administrazioari entzun ondoren, hartzekodunen konkurtsoa edozein fasetan dagoela ere.

2. Sozietatearen akzioak edo partaidetzak, horien xede erreal eskusiboa bada aktibo bat eta hura finantzatzeko behar den pasiboa edukitzea, ez dira beharrezkotzat joko jarduerarekin jarraitzeko, salbu eta horien gainean eraturako bermea exekutatzeko berekin badakarrenean konkurtsopekoak aktibo horren ustiapenari eustea ahalbidetzen duten kontratu-harremanak aldatzea edo suntsiaraztea.

3. Ondasun edo eskubide bat beharrezkoa dela alde aurretik deklaratzeko ez du eragotziko eskubide errealaren titularrak geroko eskaera bat aurkeztea, ondasun edo eskubide hori bera beharrezkoa ez dela deklaratu dadin, inguruabarrak aldatu direnean.

148. artikulua. Edozein motatako ondasunen gaineko berme errealak exekutatzen hasteko edo jarraitzeko debekuaren amaiera.

1. Masa aktiboko edozein ondasun edo eskubideren gaineko berme-eskubide errealen titularrak, konkurtso-hartzekodunak izan zein ez izan, ondasun edo eskubide horiek nahitaez diru bihurtzeko edo exekutatzeko prozedurak hasi ahal izango dituzte, eta kasu hauetan jarraitu ahal izango dute izapideak etenda dituzten eskubideekin:

1.a Ondasun edo eskubide horien gaineko exekuzio banandurako eskubidea egikaritzea eragozten ez duen hitzarmen baten efikazia-datatik.

2.a Konkurtso-deklarazioaren datatik urtebete igaro den unetik likidazioa ireki gabe.

2. Exekuzio-demanda edo etendako exekuzioak berrabiarazteko eskaera eskubide errealaren titularrak aurkeztuko dio konkurtso-epaileari, eta hark, demanda edo berrabiarazteko eskaera izapidetza bidezkoa izanez gero, pieza bananduan izapidetza erabakiko du konkurtso-prozeduran bertan, jarduketak kasuan kasuko prozedura judizialaren edo estrajudizialaren arauari egokituz.

3. Exekuzio-jarduketak hasi edo berrabiarazi, gero ezin izango da eten konkurtsoaren berezko gorabeherak direla medio.

149. artikulua. Masa aktiboaren likidazio-fasea irekitzeko berme errealen exekuzioetan dituen ondoreak.

1. Likidazio-fasea irekitzeko masa aktiboko ondasun eta eskubideen gaineko bermea exekutatzen edo

solicitud del titular del derecho real, previa audiencia de la administración concursal, cualquiera que sea la fase en que se encuentre el concurso de acreedores.

2. Las acciones o participaciones de sociedades cuyo objeto real exclusivo fuera la tenencia de un activo y del pasivo necesario para su financiación no se considerarán necesarias para la continuación de la actividad, salvo que la ejecución de la garantía constituida sobre las mismas fuera causa de modificación o de resolución de las relaciones contractuales que permitan al concursado mantener la explotación de ese activo.

3. La previa declaración del carácter necesario de un bien o derecho no impedirá que se presente por el titular del derecho real una solicitud posterior para que se declare el carácter no necesario de ese mismo bien o derecho cuando hayan cambiado las circunstancias.

Artículo 148. Fin de la prohibición de inicio o continuación de ejecuciones de garantías reales sobre cualquier clase de bienes.

1. Los titulares de derechos reales de garantía sobre cualesquiera bienes o derechos de la masa activa, sean o no acreedores concursales, podrán iniciar procedimientos de ejecución o realización forzosa sobre esos bienes o derechos y continuar aquellos cuya tramitación hubiera sido suspendida en los siguientes casos:

1.º Desde la fecha de eficacia de un convenio que no impida el ejercicio del derecho de ejecución separada sobre esos bienes o derechos.

2.º Desde que hubiera transcurrido un año a contar de la fecha de declaración de concurso sin que hubiera tenido lugar la apertura de la liquidación.

2. La demanda de ejecución o la solicitud de reanudación de las ejecuciones suspendidas se presentará por el titular del derecho real ante el juez del concurso, el cual, de ser procedente la admisión a trámite de la demanda o de la solicitud de reanudación, acordará la tramitación en pieza separada dentro del propio procedimiento concursal, acomodando las actuaciones a las normas propias del procedimiento judicial o extrajudicial que corresponda.

3. Iniciadas o reanudadas las actuaciones ejecutivas, no podrán ser suspendidas por razón de las vicisitudes propias del concurso.

Artículo 149. Efectos de la apertura de la fase de liquidación de la masa activa sobre las ejecuciones de garantías reales.

1. La apertura de la fase de liquidación producirá la pérdida del derecho a iniciar la ejecución o la



nahitaez diru bihurtzen hasteko eskubidea galtzea ekarriko die konkurtso-deklarazioa egin aurretik akzio horiek egikaritu ez dituzten edo konkurtso-deklarazioa egin zenetik urtebete igaro ondoren hasi ez dituzten hartzekodunei.

2. Konkurtso-deklarazioaren ondorioz etenda geratu diren exekuzioak hartzekodunen konkurtsoari metatuko zaizkio, pieza banandu gisa. Metaketa gertatzen denetik, etendura ondorerik gabe geratuko da.

150. artikulua. Berreskuratze-akzioen araubidea.

Aurreko artikuluetan ezarritakoa honako akzio hauei aplikatuko zaie:

1.a Prezio atzeratua ez ordaintzearen ondoriozko ondasun higiezin salerosketen akzio suntsiarazleak, nahiz eta haiek Jabetza Erregistroan inskribatutako baldintza esplizituetatik eratorritakoak izan.

2.a Epeka saldutako edo Ondasun Higigarrien Erregistroan inskribatutako kontratuen bidez domeinu-erreserbarekin finantzatutako ondareak berreskuratzeak akzioak.

3.a Jabetza-erregistroetan edo ondasun higigarrien erregistroetan inskribatutako edota exekuzioa atxikita duen agiri batean formalizatutako kontratuen bidez finantza-errentamenduan emandako ondasunak berreskuratzeak akzioak.

151. artikulua. Konkurtsopekoaren hirugarren edukitzailearen izaera.

Konkurtso-deklarazioak ez du eraginik izango berme errealairen exekuzioaren gainean, konkurtsopekoa berme horren xede den ondasunaren edo eskubidearen hirugarren edukitzailea denean.

III. KAPITULUA

Kredituen gaineko ondoreak

152. artikulua. Interesen sortzapena etetea.

1. Konkurtso-deklarazioa egiten denetik etenda geratuko da interesen sortzapena, interes horiek legezkoak nahiz hitzarmenezkoak izan.

2. Aurreko apartatuan ezarritakotik salbuetsita daude soldata-kredituak, zeinek diruaren legezko interesaren araberako interesak sortuko baitituzte, eta berme erreala duten kredituak, zeinek bermearen baliora iritsi arte hitzartutako ordainketa-interesak sortuko baitituzte.

realización forzosa de la garantía sobre bienes y derechos de la masa activa por aquellos acreedores que no hubieran ejercitado estas acciones antes de la declaración de concurso o no las hubieran iniciado transcurrido un año desde la declaración de concurso.

2. Las ejecuciones que hubieran quedado suspendidas como consecuencia de la declaración de concurso se acumularán al concurso de acreedores como pieza separada. Desde que se produzca la acumulación, la suspensión quedará sin efecto.

Artículo 150. Régimen de las acciones de recuperación.

Lo establecido en los artículos anteriores será de aplicación a las siguientes acciones:

1.º A las acciones resolutorias de compraventas de bienes inmuebles por falta de pago del precio aplazado, aunque deriven de condiciones explícitas inscritas en el Registro de la propiedad.

2.º A las acciones tendentes a recuperar los bienes vendidos a plazos o financiados con reserva de dominio mediante contratos inscritos en el Registro de bienes muebles.

3.º A las acciones tendentes a recuperar los bienes cedidos en arrendamiento financiero mediante contratos inscritos en los Registros de la propiedad o de bienes muebles o formalizados en documento que lleve aparejada ejecución.

Artículo 151. Condición de tercer poseedor del concursado.

La declaración de concurso no afectará a la ejecución de la garantía real cuando el concursado tenga la condición de tercer poseedor del bien o derecho objeto de esta.

CAPÍTULO III

De los efectos sobre los créditos

Artículo 152. Suspensión del devengo de intereses.

1. Desde la declaración de concurso quedará suspendido el devengo de los intereses, legales o convencionales.

2. Se exceptúan de lo establecido en el apartado anterior los créditos salariales, que devengarán intereses conforme al interés legal del dinero y los créditos con garantía real, que devengarán los intereses remuneratorios pactados hasta donde alcance el valor de la garantía.



153. artikulua. Konpentsazioa.

1. Konkurtso-deklarazioaren aurretik zeuden betekizunak betetzen dituen konpentsazioak ondore guztiak izango ditu, nahiz eta deklarazio horren ondoren alegatu, edo nahiz eta ebazpen judiziala edo administrazio-egintza deklarazioaren ondoren eman. Hartzekodunak konkurtso-administratzaileari kreditua dagoela komunikatzeak ez du eragotziko konpentsazio-deklarazioa egitea.

2. Konkurtsoa deklaratu ondoren, ez da bidezkoa izango konkurtsopekoaren kredituak eta zorrak konpentsatzea, harreman juridiko beretik datozenak izan ezik. Nazioarteko zuzenbide pribatuko arauetan ezarritakoa salbu geratzen da.

3. Konkurtsoko epaileak ebatziko du konpentsatu beharreko kredituen eta zorren zenbatekoari buruzko eztabaida, bai eta konpentsazioaren aurrebaldintzen betetzea ere, konkurtso-intzidentearen bideetatik.

154. artikulua. Atxikipen-eskubidea etetea.

1. Konkurtsoa deklaratu ondoren, etenda geratuko da masa aktiboan sartutako ondasun eta eskubideen gaineko atxikipen-eskubidea.

2. Konkurtsoa amaitzean ondasun edo eskubide horiek besterendu ez badira, berehala itzuli beharko zaizkio atxikipen-eskubidearen titularrari, haren kreditua osorik ordaindu ez bada.

3. Etete horrek ez die eragingo administrazio-, tribut-, lan- eta gizarte-segurantzako legeek ezarritako atxikipenei.

155. artikulua. Preskripzioa geldiaraztea.

1. Deklarazioaren aurreko kredituei dagokienez, zordunaren aurkako akzioen preskripzioa geldiarazita geratuko da, deklarazioa egiten denetik konkurtsoa amaitu arte.

2. Preskripzioa eteteak ez du ondorerik izango zordun solidarioen aurrean, ez eta fidatzaile eta abal-emaileen aurrean ere.

3. Deklarazioa egiten denetik konkurtsoa amaitu arte, eten egingo da honako hauen aurkako akzioen preskripzioa: bazkideak eta administratzaileak, likidatzaileak, pertsona juridikoa den administratzailearen karguari dagozkion eginkizunak modu iraunkorrean betetzeko izendatutako pertsona

Artículo 153. Compensación.

1. La compensación cuyos requisitos hubieran existido antes de la declaración de concurso producirá plenos efectos aunque sea alegada después de esa declaración o aunque la resolución judicial o el acto administrativo que la declare se haya dictado con posterioridad a ella. El hecho de que el acreedor haya comunicado al administrador concursal la existencia del crédito no impedirá la declaración de compensación.

2. Declarado el concurso, no procederá la compensación de los créditos y deudas del concursado a excepción de aquellos que procedan de la misma relación jurídica. Queda a salvo lo establecido en las normas de derecho internacional privado.

3. La controversia sobre el importe de los créditos y deudas a compensar y la concurrencia de los presupuestos de la compensación se resolverá por el juez del concurso por los cauces del incidente concursal.

Artículo 154. Suspensión del derecho de retención.

1. Declarado el concurso, quedará suspendido el ejercicio del derecho de retención sobre bienes y derechos integrados en la masa activa.

2. Si en el momento de conclusión del concurso esos bienes o derechos no hubieran sido enajenados deberán ser restituidos de inmediato al titular del derecho de retención cuyo crédito no haya sido íntegramente satisfecho.

3. Esta suspensión no afectará a las retenciones impuestas por la legislación administrativa, tributaria, laboral y de seguridad social.

Artículo 155. Interrupción de la prescripción.

1. Desde la declaración hasta la conclusión del concurso quedará interrumpida la prescripción de las acciones contra el deudor por los créditos anteriores a la declaración.

2. La interrupción de la prescripción no producirá efectos frente a los deudores solidarios, así como tampoco frente a los fiadores y avalistas.

3. Desde la declaración hasta la conclusión del concurso quedará interrumpida la prescripción de las acciones contra socios y contra los administradores, los liquidadores, la persona natural designada para el ejercicio permanente de las funciones propias del cargo de administrador persona jurídica, y la persona,



fisikoa, eta sozietatearen goi-zuzendaritzarako ahalmenak esleituta dituen pertsona –izendapena alde batera utzita–, kontseiluaren ahalmenak kontseilari eskuorde bati edo batzuei modu iraunkorrean eskuordetu ez bazaizkie, eta konkurtsopeko pertsona juridikoaren auditoreak; halaber, eten egingo dira lege honetan xedatutakoaren arabera egikaritzea etenda duten beste akzio guztiak.

4. Etendura gertatzen bada, preskripziorako epearen zenbaketa konkurtsoa amaitzen den egunean hasiko da berriro.

IV. KAPITULUA

Kontratuen gaineko ondoreak

1. atala. Kontratuen gaineko ondoreak

156. artikulua. Kontratuen indarraldiaren printzipio orokorra.

Konkurtsodeklarazioa ez da kontratua aurretiaz suntsiarazteko arrazoia. Ulertuko da alderdietatik edozeinen konkurtsodeklarazioaren ondorioz kontratua suntsiarazi edo azkentzeko ahalmena ezartzen duten klausulak ez direla jarri.

157. artikulua. Kontratugile batek betetzeko dituen kontratuen gaineko ondoreak.

Elkarrekiko betebeharren kontratuetan, konkurtsoa deklaratzeko alderdietako batek bere betebeharrak oso-osorik bete dituztenean eta besteak bere kargura direnak betetzeke dituztenean erabat edo zati batez, konkurtsopekoaren kreditua edo zorra, konkurtsoaren masa aktiboan edo pasiboan sartuko da, kasuan-kasuan.

158. artikulua. Bi alderdiek bete gabe dituzten elkarrekiko betebeharrak dituzten kontratuen gaineko ondoreak.

Konkurtsodeklarazioak berak bakarrik ez du eraginik izango kontratuen indarraldian, konkurtsopekoak edo beste alderdiak betetzeke dituztenean elkarrekiko betebeharrak. Bi alderdiek gauzatu beharko dituzte hitzemandako prestazioak, eta konkurtsopekoak bete beharrekoak masaren kontura izango dira.

159. artikulua. Kasu bereziak.

1. Konkurtso-deklarazioak ez du eraginik izango kontratuaren salaketa aldebakarrekoa egiteko ahalmena egikaritzean, legeak berariaz aitortzen duen kasuetan.

cualquiera que sea su denominación, que tenga atribuidas facultades de más alta dirección de la sociedad cuando no exista delegación permanente de facultades del consejo en uno o varios consejeros delegados, así como contra los auditores de la persona jurídica concursada y aquellas otras cuyo ejercicio quede suspendido en virtud de lo dispuesto en esta ley.

4. En caso de interrupción, el cómputo del plazo para la prescripción se iniciará nuevamente a la fecha de la conclusión del concurso.

CAPÍTULO IV

De los efectos sobre los contratos

Sección 1.^a De los efectos sobre los contratos

Artículo 156. Principio general de vigencia de los contratos.

La declaración de concurso no es causa de resolución anticipada del contrato. Se tendrán por no puestas las cláusulas que establezcan la facultad de resolución o la extinción del contrato por la sola causa de la declaración de concurso de cualquiera de las partes.

Artículo 157. Efectos sobre los contratos pendientes de cumplimiento por uno de los contratantes.

En los contratos con obligaciones recíprocas, cuando al momento de la declaración del concurso una de las partes hubiera cumplido íntegramente sus obligaciones y la otra tuviese pendiente el cumplimiento total o parcial de las que fueran a su cargo, el crédito o la deuda que corresponda al concursado se incluirá, según proceda, en la masa activa o en la pasiva del concurso.

Artículo 158. Efectos sobre los contratos con obligaciones recíprocas pendientes de cumplimiento por ambas partes.

La declaración de concurso, por sí sola, no afectará a la vigencia de los contratos con obligaciones recíprocas pendientes de cumplimiento tanto a cargo del concursado como de la otra parte. Ambas partes deberán ejecutar las prestaciones comprometidas, siendo con cargo a la masa aquellas a que esté obligado el concursado.

Artículo 159. Supuestos especiales.

1. La declaración de concurso no afectará al ejercicio de la facultad de denuncia unilateral del contrato en los casos en que así se reconozca expresamente por la ley.



2. Konkurtso-deklarazioak ez du eraginik izango alderdietatik edozeinen konkurtso-egoeretan edo administrazio-likidazioetan, kontratuaren azkentzea xedatzen duten edo hori ituntzea esanbidez ahalbidetzen duten legeen aplikazioan.

2. atala. Kontratuak suntsiaraztea

1. azpiatala. Ez-betetzeagatiko suntsiaraztea

160. artikulua. Aurreko ez-betetzearen ondoriozko suntsiaraztea.

Konkurtoa deklaratu ondoren, konkurtsoa deklaratu aurreko ez-betetzeagatik kontratua suntsiarazteko ahalmena egikaritu ahal izango da soilik kontratua segidako traktukoa bada.

161. artikulua. Geroko ez-betetzearen ondoriozko suntsiaraztea.

Konkurtoa deklaraturutakoan, kontratua suntsiarazteko ahalmena egikaritu ahal izango da, elkarrekiko betebeharrak betetzeke dituela, baldin eta kontratu hori alderdietatik edozeinek gerora betetzen ez badu.

162. artikulua. Suntsiarazpen-akzioa egikaritzea.

Ez-betetzearen ondoriozko kontratuaren suntsiarazpen-akzioa konkurtsoko epailearen aurrean egikarituko da, eta konkurtso-intzidentearen izapideen bidez bideratuko da.

163. artikulua. Kontratua suntsiaraztearen ondoreak.

1. Ez-betetzearen ondorioz kontratua suntsiarazten bada, mugaeguneratzeke dauden betebeharrak azkenduta geratuko dira. Mugaeguneratu direnei dagokienez, konkurtsoan sartuko da kontratu-betebeharrak bete dituen hartzekodunaren kreditua, baldin eta konkurtsopekoaren ez-betetzea konkurtsoa deklaratu aurretik gertatu bada. Deklarazioaren ondoren gertatuz gero, betebeharra bete duen alderdiaren kreditua masaren kontura ordainduko da.

2. Edozein kasutan ere, kredituak bidezkoak diren kalte-galerak ere jasoko ditu.

164. artikulua. Kontratua betetzea konkurtsoko epailearen ebazpen bidez.

Suntsiarazpen-arrazoia egon arren, epaileak, konkurtsoaren interesa kontuan izanda, kontratua betetzea erabaki dezake, eta kasu horretan, konkurtsopekoak egin beharreko prestazioak masaren kontura gauzatuko dira.

2. La declaración de concurso no afectará a la aplicación de las leyes que dispongan o expresamente permitan pactar la extinción del contrato en los casos de situaciones concursales o de liquidación administrativa de alguna de las partes.

Sección 2.^a De la resolución de los contratos

Subsección 1.^a De la resolución por incumplimiento

Artículo 160. Resolución por incumplimiento anterior.

Declarado el concurso, la facultad de resolución del contrato por incumplimiento anterior a la declaración de concurso solo podrá ejercitarse si el contrato fuera de tracto sucesivo.

Artículo 161. Resolución por incumplimiento posterior.

Declarado el concurso, la facultad de resolución del contrato con obligaciones recíprocas pendientes de cumplimiento podrá ejercitarse por incumplimiento posterior de cualquiera de las partes.

Artículo 162. Ejercicio de la acción de resolución.

La acción de resolución del contrato por incumplimiento se ejercitará ante el juez del concurso y se sustanciará por los trámites del incidente concursal.

Artículo 163. Efectos de la resolución del contrato.

1. En caso de resolución del contrato por incumplimiento, quedarán extinguidas las obligaciones pendientes de vencimiento. En cuanto a las vencidas, se incluirá en el concurso el crédito que corresponda al acreedor que hubiera cumplido sus obligaciones contractuales, si el incumplimiento del concursado fuera anterior a la declaración del concurso. Si fuera posterior, el crédito de la parte cumplidora se satisfará con cargo a la masa.

2. En todo caso, el crédito comprenderá el resarcimiento de los daños y perjuicios que proceda.

Artículo 164. Cumplimiento del contrato por resolución del juez del concurso.

Aunque exista causa de resolución, el juez, atendiendo al interés del concurso, podrá acordar el cumplimiento del contrato, siendo a cargo de la masa las prestaciones debidas o que deba realizar el concursado.



2. azpiatala. Konkurtsoaren onerako suntsiaraztea

165. artikulua. Kontratuaren suntsiarazpen judiziala, konkurtsoaren onerako.

1. Suntsiarazteko arrazoirik egon ez arren, konkurtsopekoak, esku-hartzea gertatzen bada, eta konkurtso-administrazioak, etetearen kasuan, elkarrekiko betebeharrak dituen edozein kontratu suntsiarazteko eskatu ahal izango dute, haien ustez hori beharrezkoa edo komenigarria bada konkurtsoaren onerako.

2. Demanda konkurtso-epailearen aurrean aurkeztu baino lehen, legitimazioa duten pertsonak Justizia Administrazioaren letraduari eskatu ahal izango diote konkurtsopekoari, konkurtso-administrazioari eta kontratuko beste alderdiari dei egitea, konkurtso-epailearen aurrean agertzeko. Agerraldia egin ondoren, suntsiarazpenari eta horren ondoreei buruzko akordiorik badago, epaileak autoa emango du, eta kontratua erabakitakoarekin bat etorri suntsiarazi dela deklaratu du. Desadostasunak izanez gero, legitimatuetatik edozeinek suntsiarazpen-demanda aurkeztu ahal izango du, aurreko apartatuan ezarritakoaren arabera.

3. Suntsiarazpen-demanda konkurtso-intzidentearen bideetatik izapidetuko da. Epaileak hartuko du suntsiarazpenari buruzko erabakia, eta, kasua bada, bidezkoak diren itzulketak eta masaren kontura ordaindu beharreko kalte-ordaina erabakiko ditu.

Hutsaldu beharreko kontratua finantza-errentamendukoa ez bada, demandari peritu-tasazioa gehituko zaio, lagatako ondasunen balioa zein den ere; epaileak tasazio hori kontuan hartu ahal izango du kalte-ordaina finkatzeko.

3. atala. Kontratuak birgaitzeko eskubidea

166. artikulua. Finantzaketa-kontratuak birgaitzea.

1. Konkurtso-administrazioak, bere ekimenez edo konkurtsopekoak hala eskatuta, kreditu-, mailegu- eta gainerako finantzaketa-kontratuak birgaitu ahal izango ditu, baldin eta konkurtso-deklarazioaren aurreko hiru hilabeteetan aurretiaz mugaeguneratu badira amortizazio-kuotak edo sortutako interesak ez ordaintzeagatik.

2. Konkurtso-administrazioak kontratuaren beste alderdiari jakinarazi beharko dio birgaitzeko ahalmena egikaritu dela kredituen komunikazioa aurkezteko epea amaitu baino lehen, birgaitzeko unean zor diren

Subsección 2.^a De la resolución en interés del concurso

Artículo 165. Resolución judicial del contrato en interés del concurso.

1. Aunque no exista causa de resolución, el concursado, en caso de intervención, y, la administración concursal, en caso de suspensión, podrán solicitar la resolución de cualquier contrato con obligaciones recíprocas si lo estimaran necesario o conveniente para el interés del concurso.

2. Antes de presentar la demanda ante el juez del concurso, las personas legitimadas podrán solicitar al Letrado de la Administración de Justicia que cite al concursado, a la administración concursal y a la otra parte en el contrato a una comparecencia ante el juez del concurso. Celebrada la comparecencia, de existir acuerdo en cuanto a la resolución y sus efectos, el juez dictará auto declarando resuelto el contrato de conformidad con lo acordado. Si hubiere discrepancias, cualquiera de los legitimados podrá presentar demanda de resolución conforme a lo establecido en el apartado anterior.

3. La demanda de resolución se tramitará por los cauces del incidente concursal. El juez decidirá acerca de la resolución solicitada acordando, en su caso, las restituciones que procedan y la indemnización que haya de satisfacerse con cargo a la masa.

Si el contrato a rescindir fuera de arrendamiento financiero, a la demanda se acompañará tasación pericial independiente del valor de los bienes cedidos, que el juez podrá tener en cuenta para fijar la indemnización.

Sección 3.^a Del derecho a la rehabilitación de contratos

Artículo 166. Rehabilitación de contratos de financiación.

1. La administración concursal, por propia iniciativa o a instancia del concursado, podrá rehabilitar a favor de este los contratos de crédito, préstamo y demás de financiación cuyo vencimiento anticipado por impago de cuotas de amortización o de intereses devengados se haya producido dentro de los tres meses precedentes a la declaración de concurso.

2. La notificación del ejercicio de la facultad de rehabilitación a la otra parte del contrato deberá realizarse por la administración concursal antes de que finalice el plazo para presentar la comunicación



zenbatekoak ordaindu edo kontsignatu aurretik edo aldi berean, eta etorkizuneko ordainketak masaren kontura bere gain hartu ondoren.

3. Birgaitzea ez da bidezkoa izango hartzekodunak aurka egiten badio, konkurtso-deklarazioaren aurretik zordunaren beraren aurka, zordunkide solidario baten aurka edo edozein bermatzailearen aurka zor diren kopuruak erreklamatzeko akzioak egikaritzen hasi delako.

167. artikulua. Ondasunak prezio geroratuaren bidez eskuratzeko kontratuak birgaitzea.

1. Konkurtso-administrazioak, bere ekimenez edo konkurtsopekoak hala eskatuta, ondasun higigarri edo higiezinak kontraprestazio edo prezio geroratuaren bidez eskuratzeko kontratuak birgaitu ahal izango ditu, baldin eta haiek konkurtso-deklarazioa egin baino hiru hilabete aurretik suntsiarazi badira.

2. Konkurtso-administrazioak kontratuaren beste alderdiari jakinarazi beharko dio birgaitzeko ahalmena egikaritu dela kredituen komunikazio-epea amaitu baino lehen, birgaitzeko unean zor diren zenbatekoak ordaindu edo kontsignatu aurretik edo aldi berean, eta etorkizuneko ordainketak masaren kontura bere gain hartu ondoren.

3. Eskualdatzailea birgaitzearen aurka azaldu ahal izango da, baldin eta, konkurtso-deklarazioa egin baino lehen, kontratua suntsiarazteko edo eskualdatutako ondasuna itzultzeko akzioak egikaritu baditu, edo, aurrerapen berberarekin, ondasunaren edukitza materiala bidezko bideetatik berreskuratu ostean, jasotako kontraprestazioaren zati egokia itzuli nahiz kontsignatu badu, edota xedatze-egintzak gauzatu baditu ondasun horren gain hirugarrenaren mesederako; eskualdatzaileak hori guztia behar beste egiaztatu beharko du, konkurtso-administrazioak horren berri ez badu.

4. Birgaitu den kontratua ondoren betetzen ez bada, hartzekodunak berori suntsiarazteko eskubidea izango du, eta ezin izango da berriro birgaitu.

168. artikulua. Hiri-errentamenduen kontratuak birgaitzea.

1. Konkurtso-deklarazioaren aurretik zordunaren aurka egikaritu den utzarazpen-akzioa ezereztu ahal izango du konkurtso-administrazioak, bai eta hiri-errentamenduko kontratuaren indarraldia birgaitu ere, botatzea benetan gauzatzeko unea iritsi arte.

de créditos, con previa o simultánea satisfacción o consignación de las cantidades debidas al momento de la rehabilitación y con asunción de los pagos futuros con cargo a la masa.

3. La rehabilitación no procederá cuando el acreedor se oponga por haber iniciado antes de la declaración de concurso el ejercicio de las acciones en reclamación del pago de las cantidades debidas contra el propio deudor, contra algún codeudor solidario o contra cualquier garante.

Artículo 167. Rehabilitación de contratos de adquisición de bienes con precio aplazado.

1. La administración concursal, por propia iniciativa o a instancia del concursado, podrá rehabilitar los contratos de adquisición de bienes muebles o inmuebles con contraprestación o precio aplazado cuya resolución se haya producido dentro de los tres meses precedentes a la declaración de concurso.

2. La notificación del ejercicio de la facultad de rehabilitación a la otra parte del contrato deberá realizarse por la administración concursal antes de que finalice el plazo para la comunicación de créditos, con previa o simultánea satisfacción o consignación de las cantidades debidas al momento de la rehabilitación y con asunción de los pagos futuros con cargo a la masa.

3. El transmitente podrá oponerse a la rehabilitación cuando, con anterioridad a la declaración de concurso, hubiese iniciado el ejercicio de las acciones de resolución del contrato o de restitución del bien transmitido, o cuando, con la misma antelación, hubiese recuperado la posesión material del bien por cauces legítimos y devuelto o consignado en lo procedente la contraprestación recibida o hubiese realizado actos dispositivos sobre el mismo en favor de tercero, lo que habrá de acreditar suficientemente si no constare a la administración concursal.

4. El posterior incumplimiento del contrato que hubiera sido rehabilitado conferirá al acreedor el derecho a resolverlo sin posibilidad de ulterior rehabilitación.

Artículo 168. Rehabilitación de contratos de arrendamientos urbanos.

1. La administración concursal podrá enervar la acción de desahucio ejercitada contra el deudor con anterioridad a la declaración del concurso, así como rehabilitar la vigencia del contrato de arrendamiento urbano hasta el momento mismo de practicarse el efectivo lanzamiento.



2. Konkurtso-administrazioak beste alderdiari jakinarazi beharko dio kontratuko birgaitzeko ahalmena edo kontratuko utzarazteko akzioa ezereztekoa, ordaindu gabe dauden errenta eta kontzeptu guztiak masaren kontura alde aurretik edo aldi berean ordainduz, bai eta ordura arte sortutako prozesuko kostu posibleak ordaintzeko konpromisoa hartuz ere.

3. Artikulu honek aipatzen dituen eskubideak egikaritu ahal izango dira, errentariak aurreko batean utzarazpena ezereztu badu ere.

4. atala. Lan-kontratuen eta hitzarmen kolektiboen gaineko ondoreak

1. azpiatala. Lan-kontratuen gaineko ondoreak

169. artikulua. Legeria aplikagarria.

1. Konkurtsoa deklaratu ondoren, azpiatal honetan ezarritako erregelen arabera izapidetuko dira ekonomia-, teknika-, antolaketa- nahiz ekoizpen-arrazoietan oinarritutako lan-baldintzen funtsezko aldaraztea, lekualdaketa, kaleratzea, kontratu-etetea eta lanaldi-murrizketa, izaera kolektiboa dutenean.

2. Azpiatal honetan aurreikusi ez den guztiari lan-arloko legeria aplikatuko zaio. Langileen ordezkariak legeria horrek ematen dizkien ahalmen guztiak izango dituzte.

170. artikulua. Izapidetzen ari diren neurri kolektiboak.

1. Konkurtso-deklarazioaren datan enpresaburuak izapidetako hasi baditu lan-baldintzak funtsean aldarazteko, lekualdatzeko, kaleratzeko, kontratuak eteteko edo lanaldia murrizteko, izaera kolektiboarekin, konkurtsopekoak berehala emango dio horren berri konkurtsoko epaileari. Oraindik akordiorik lortu ez bada edo enpresaren erabakia jakinarazi ez bada, komunikazioa egin eta hurrengo hiru egunen barruan, Justizia Administrazioaren letraduak agerraldirako zitazioa egingo die hurrengo artikuluan aurreikusitako legitimatuei, neurri kolektiboak izapidetzen jarraitzea bidezkoa den azaltzeko eta justifikatzeko, hala badagokio, azpiatal honetan aurreikusitakoaren arabera. Konkurtsoa deklaratzeko egunera arte egindako jarduketek balio izango dute epaitegian izapidetzen den prozeduran.

2. Konkurtso-deklarazioaren datan akordio bat lortu bada edo hartutako erabakia, izaera kolektibokoa, jakinarazi bada, lan-baldintzak funtsean aldarazteari,

2. La notificación a la otra parte del ejercicio de la facultad de rehabilitación del contrato o de enervación de la acción de desahucio del contrato deberá realizarse por la administración concursal con previo o simultáneo pago con cargo a la masa de todas las rentas y conceptos pendientes, así como con el compromiso de satisfacer las posibles costas procesales causadas hasta ese momento.

3. El ejercicio de los derechos a que se refiere este artículo podrá realizarse aunque el arrendatario ya hubiera enervado el desahucio en ocasión anterior.

Sección 4.ª De los efectos sobre los contratos de trabajo y sobre los convenios colectivos

Subsección 1.ª De los efectos sobre los contratos de trabajo

Artículo 169. Legislación aplicable.

1. Declarado el concurso, la modificación sustancial de las condiciones de trabajo, el traslado, el despido y la suspensión de contratos y la reducción de jornada por causas económicas, técnicas, organizativas o de producción, se tramitarán por las reglas establecidas en esta Subsección cuando tengan carácter colectivo.

2. En todo lo no previsto en esta Subsección se aplicará la legislación laboral. Los representantes de los trabajadores tendrán cuantas facultades les atribuya esa legislación.

Artículo 170. Medidas colectivas en tramitación.

1. Si a la fecha de la declaración del concurso el empresario hubiera iniciado los trámites para la modificación sustancial de las condiciones de trabajo, el traslado, el despido, la suspensión de contratos o la reducción de jornada, de carácter colectivo, el concursado lo pondrá inmediatamente en conocimiento del juez del concurso. En el caso de que aún no se hubiera alcanzado un acuerdo o no se hubiera notificado la decisión empresarial, dentro de los tres días siguientes al de la comunicación, el Letrado de la Administración de Justicia citará a comparecencia a los legitimados previstos en el artículo siguiente para exponer y justificar, en su caso, la procedencia de continuar con la tramitación de las medidas colectivas, conforme a lo previsto en esta Subsección. Las actuaciones practicadas hasta la fecha de la declaración de concurso conservarán su validez en el procedimiento que se tramite ante el juzgado.

2. Si a la fecha de la declaración del concurso ya se hubiera alcanzado un acuerdo o se hubiera notificado a la decisión adoptada con relación a la modificación



lekualdaketari, kaleratzeari, kontratuak eteteari edo lanaldia murrizteari dagokienez, konkurtso-administrazioari egokituko zaio neurri horiek exekutatzea.

3. Konkurtso-deklarazioa egitean enpresaren akordio edo erabakia arlo sozialeko jurisdikzioan aurkaratu bada, prozedurak jurisdikzio horretako organoen aurrean jarraituko du, dagokion ebazpena irrimo bihurtu arte.

4. Artikulu honek aipatzen dituen kasuetan, konkurtso-deklarazioa lan-agintaritzari komunikatu beharko zaio, bidezkoak diren ondoretarako.

171. artikulua. Legitimazio aktiboa.

1. Konkurtsoko epaileari lan-baldintzen funtsezko aldaraztea, lekualdaketa, kaleratzea, kontratuen etetea edo lanaldi-murrizketa, izaera kolektiboarekin, eskatzeko legitimazio aktiboa, konkurtsopekoa enplegatzaile den lan-kontratuetan eragina badute, konkurtso-administrazioari edo konkurtsopeko enpresako langileei dagokie, haien legezko ordezkarien bitartez.

2. Prozedura izapidetzean, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 41. artikulua 4. apartatua adierazitako subjektuei dagokie langileen ordezkariak, bertan adierazitako hurrenkeran eta baldintzetan. Artikulu horretan aipatutako epeak igaro eta langileek ordezkariak izendatu ez dutenean, batzorde batek esku hartzea erabaki ahal izango du epaileak; batzorde horrek hiru kide izango ditu gehienez, eta ordezkagarritasun nagusiko sindikatuak eta enpresaren sektoreko ordezkagarritasuna dutenek osatuko dute.

172. artikulua. Eskaera aurkeztea.

Aurreko artikuluan aurreikusitako neurriak konkurtsoko epaileari eskatu ahal izango zaizkio behin konkurtso-administrazioaren txostena aurkeztu ostean bakarrik, salbu eta aplikatu nahi diren neurri kolektiboen atzerapenak enpresaren eta enpleguaren bihar-etzikiko bideragarritasuna modu larrian oztoka dezakeela edo langileei kalte larria eragin diezaiekeela uste denean; halakoetan, inguruabar hori egiaztatu ondoren, eskaera prozesuko edozein unetan egin ahal izango zaio epaileari, konkurtsoa deklaratzeko denetik.

sustancial de las condiciones de trabajo, al traslado, al despido, a la suspensión de contratos o la reducción de jornada, de carácter colectivo, corresponderá a la administración concursal la ejecución de tales medidas.

3. Si al tiempo de la declaración de concurso el acuerdo o la decisión empresarial hubieran sido impugnados ante la jurisdicción social, el procedimiento continuará ante los órganos de esta jurisdicción hasta la firmeza de la correspondiente resolución.

4. En los casos a que se refiere este artículo, la declaración de concurso habrá de ser comunicada a la autoridad laboral a los efectos que procedan.

Artículo 171. Legitimación activa.

1. La legitimación activa para solicitar del juez del concurso la modificación sustancial de las condiciones de trabajo, el traslado, el despido, la suspensión de contratos o la reducción de jornada, de carácter colectivo, que afecten a los contratos de trabajo en que sea empleador el concursado, corresponde a este, a la administración concursal o a los trabajadores de la empresa concursada a través de sus representantes legales.

2. La representación de los trabajadores en la tramitación del procedimiento corresponderá a los sujetos indicados en el apartado 4 del artículo 41 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, aprobado por el Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, en el orden y condiciones señalados en el mismo. Transcurridos los plazos indicados en el referido artículo sin que los trabajadores hayan designado representantes, el juez podrá acordar la intervención de una comisión de un máximo de tres miembros, integrada por los sindicatos más representativos y los representantes del sector al que la empresa pertenezca.

Artículo 172. Presentación de la solicitud.

La adopción de las medidas previstas en el artículo anterior solo podrá solicitarse del juez del concurso una vez presentado el informe de la administración concursal, salvo que se estime que la demora en la aplicación de las medidas colectivas pretendidas puede comprometer gravemente la viabilidad futura de la empresa y del empleo o causar grave perjuicio a los trabajadores, en cuyo caso, y con acreditación de esta circunstancia, podrá realizarse la solicitud al juez en cualquier momento procesal desde la declaración de concurso.



173. artikulua. Eskaeraren edukia.

1. Eskaeran azaldu eta justifikatu beharko dira, hala badagokio, lortu nahi diren neurri kolektiboak eragin dituzten arrazoiak eta haiekin lortu nahi diren helburuak, eta haiek egiaztatzeko behar diren agiriak ere aurkeztu beharko dira.

2. Neurri horrek berrogeita hamar langile baino gehiago dituzten enpresak ukitzen baditu, eskaerarekin batera plan bat aurkeztu behar da, proposatutako lan-neurriek enpresaren eta enpleguaren etorkizuneko bideragarritasunaren gain izan dezaketen eragina azaltzeko.

174. artikulua. Kontsulta-aldia.

1. Eskaera jaso ondoren, epaileak dei egingo die konkurtsopekoari, konkurtso-administrazioari eta langileen ordezkariari kontsulta-aldi baterako; kontsulta-aldi horren iraupena ez da izango hogeita hamar egun naturaletik gorakoa, ezta hamabost egun naturaletik gorakoa ere, berrogeita hamar langile baino gutxiago dituzten enpresen kasuan.

Eskaera konkurtsopekoak edo konkurtso-administrazioak egin duenean, langileen legezko ordezkariari kontsulta-aldia hasi dela adierazteko komunikazioan eskaeraren kopia jaso behar da, baita kasuan-kasuan aurkeztutako agirien kopia ere.

2. Konkurtso-administrazioak edo langileen ordezkariak epaileari eskatu ahal izango diote kontsulta-aldian parte har dezatela beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek, baldin eta, zantzuen arabera, konkurtsopekoarekin enpresa-batasun bat osa badezakete.

3. Kontsulta-aldian, konkurtsopekoak, konkurtso-administrazioak eta langileen ordezkariak fede onez negoziatu beharko dute, akordioa lortzeko.

175. artikulua. Laguntzeko eta laguntza judiziala emateko eginbeharra.

1. Konkurtso-administrazioak konkurtsopekoaren laguntza eskatu ahal izango du, bai eta beharrezkotzat jotzen duen epaitegiaren laguntza ere, eskaeraren arrazoiak eta eskaerarekin batera aurkeztutako agirien zehaztasuna egiaztatzeko.

2. Baldin eta langileen ordezkariak edo konkurtso-administrazioak epaileari eskatzen badiote kontsulta-aldian bestelako pertsona fisiko edo juridikoek parte har dezaten, zantzuak badaudelako konkurtsopekoarekin enpresa-batasuna osatu dezaketela pentsatzeko, egiaztapen hori egiteko

Artículo 173. Contenido de la solicitud.

1. En la solicitud se deberán exponer y justificar, en su caso, las causas motivadoras de las medidas colectivas pretendidas y los objetivos que se proponen alcanzar con estas, acompañando los documentos necesarios para su acreditación.

2. Si la medida afectase a empresas de más de cincuenta trabajadores, deberá acompañarse a la solicitud un plan que contemple la incidencia de las medidas laborales propuestas en la viabilidad futura de la empresa y del empleo.

Artículo 174. Período de consultas.

1. Una vez recibida la solicitud, el juez convocará al concursado, a la administración concursal y a los representantes de los trabajadores a un período de consultas, cuya duración no será superior a treinta días naturales, o a quince, también naturales, en el supuesto de empresas que cuenten con menos de cincuenta trabajadores.

En los casos en que la solicitud haya sido formulada por el concursado o por la administración concursal, la comunicación a los representantes legales de los trabajadores del inicio del período de consultas deberá incluir copia de la solicitud y de los documentos que, en su caso, se hubieran acompañado.

2. La administración concursal o los representantes de los trabajadores podrán solicitar al juez la participación en el período de consultas de otras personas naturales o jurídicas que indiciariamente puedan constituir una unidad de empresa con la concursada.

3. Durante el período de consultas, el concursado, la administración concursal y los representantes de los trabajadores, deberán negociar de buena fe para la consecución de un acuerdo.

Artículo 175. Deber de colaboración y auxilio judicial.

1. La administración concursal podrá requerir la colaboración del concursado y el auxilio del juzgado que estime necesarios para la comprobación de las causas de la solicitud y de la exactitud de los documentos que la acompañen.

2. En caso de que los representantes de los trabajadores o la administración concursal soliciten al juez la participación en el período de consultas de otras personas naturales o jurídicas que indiciariamente puedan constituir una unidad de empresa con la concursada, podrán interesar el auxilio



beharrezkotzat jotzen den laguntza eskatu ahal izango diote epaitegiari. Halaber, enpresa-batasunaren kasuan, eta enpresa-taldearen errealitate ekonomikoa baloratzeko, agiri ekonomiko bateratuak edo beste enpresa batzuei dagozkienak ere eskatu ahal izango dituzte.

176. artikulua. Kontsulta-aldia ordeztea.

1. Kontsulta-aldia irekitzea ez da beharrezkoa izango, baldin eta eskaerarekin batera konkurtso-administrazioak eta langileen ordezkariak sinatutako akordioa aurkezten bada.

2. Edozein unetan, konkurtso-administrazioak edo langileen ordezkariak eskatuta, epaileak erabaki ahal izango du kontsulta-aldiaren ordezkariaren esparruan aplikatzeko den bitartekotza- edo arbitraje-prozedura aplikatzea; kasu horretan, aldi horretarako adierazitako gehieneko epearen barruan gauzatu beharko da bitartekotza edo arbitrajea.

177. artikulua. Akordioa.

1. Akordioa lortzeko, langileen legezko ordezkarien gehiengoaren adostasuna beharko da, edo, hala balegokio, langileen ordezkariak-batzordeko kideen gehiengoarena, baldin eta, bai kasu batean, bai bestean, ukitutako lantokiko edo lantokietako langileen gehiengo ordezkariak badute.

2. Akordioan, ukitutako langileak nortzuk diren zehaztuko da; horrez gain, haien kalte-ordainak finkatuko dira lan-arloko legerian ezarritakoaren arabera, non eta, konkurtsoak eragindako interesak aztertuta, ez diren beste kalte-ordain handiago batzuk esanbidez ituntzen.

178. artikulua. Epaileari komunikatzea.

Ezarritako epea igarotakoan edo akordioa erdietsitakoan, konkurtso-administrazioak eta langileen ordezkariak kontsulta-aldiaren emaitza komunikatuko diote konkurtsoko epaileari.

179. artikulua. Lan-agintaritzaren txostena.

1. Aurreko artikuluan aurreikusitako komunikazioa egin ondoren, Justizia Administrazioaren letratuak proposatutako neurriei edo erdietsitako akordioari buruzko txostena eskatuko dio lan-agintaritzari.

2. Lan-agintaritzak hamabost eguneko epean eman beharko du txostena, eta aukeran izango du txosten hori eman baino lehen konkurtso-administrazioari eta langileen ordezkariari entzutea.

del juzgado que se estime necesario para esa comprobación. Igualmente, para el caso de unidad empresarial, y a efectos de valorar la realidad económica del conjunto empresarial, se podrá reclamar la documentación económica consolidada o la relativa a otras empresas.

Artículo 176. Sustitución del período de consultas.

1. La apertura del período de consultas no será necesaria en caso de que la solicitud venga acompañada de acuerdo suscrito por la administración concursal y los representantes de los trabajadores.

2. En cualquier momento, el juez, a instancia de la administración concursal o de la representación de los trabajadores, podrá acordar la sustitución del período de consultas por el procedimiento de mediación o arbitraje que sea de aplicación en el ámbito de la empresa, que deberá desarrollarse dentro del plazo máximo señalado para dicho período.

Artículo 177. Acuerdo.

1. El acuerdo requerirá la conformidad de la mayoría de los representantes legales de los trabajadores o, en su caso, de la mayoría de los miembros de la comisión representativa de los trabajadores siempre que, en ambos casos, representen a la mayoría de los trabajadores del centro o centros de trabajo afectados.

2. En el acuerdo se recogerá la identidad de los trabajadores afectados y se fijarán las indemnizaciones, que se ajustarán a lo establecido en la legislación laboral, salvo que, ponderando los intereses afectados por el concurso, se pacten de forma expresa otras superiores.

Artículo 178. Comunicación al juez.

Al finalizar el plazo señalado o en el momento en que se consiga un acuerdo, la administración concursal y los representantes de los trabajadores comunicarán al juez del concurso el resultado del período de consultas.

Artículo 179. Informe de la autoridad laboral.

1. Una vez realizada la comunicación prevista en el artículo anterior, el Letrado de la Administración de Justicia recabará informe de la autoridad laboral sobre las medidas propuestas o el acuerdo alcanzado.

2. El informe de la autoridad laboral deberá ser emitido en el plazo de quince días, pudiendo esta oír a la administración concursal y a los representantes de los trabajadores antes de su emisión.



3. Konkurtsoko epaileak txostena jasotakoan edo txostena emateko epea igarotakoan, aurrera egingo dute jarduketek. Txostena epez kanpo ematen bada, konkurtsoko epaileak aukeran izango du kontuan hartu edo ez, dagokion ebazpena emateko.

180. artikulua. Ebazpena emateko epea.

Aurreko artikuluetan agindutako izapideak bete ondoren, epaileak, gehenez ere bost eguneko epean, auto bidez ebaztiko du proposatutako neurriei buruz.

181. artikulua. Ebazpena, akordioa erdietsi denean.

Akordiorik badago, epaileak onetsiko du, salbu eta akordioa amaitzean iruzurra, doloa, hertsapena edo eskubide-abusua egon dela hautematen badu. Kasu horretan, lan-arloko legeriaren arabera dagokiona erabakiko du.

182. artikulua. Ebazpena, akordiorik ez dagoenean.

1. Akordiorik erdietsi ezean, konkurtsoko epaileak entzunaldia emango die kontsulta-aldian esku hartu dutenei, eta horretarako, agerraldira deituko die Justizia Administrazioaren letratuak; alegazioak eta agiri-frogak aurkeztu ahal izango dituzte agerraldi horretan. Agerraldi horren ordean, hiru eguneko alegazio-izapide idatzia erabaki ahal izango du epaileak.

2. Nolanahi ere, lan-arloko legeriaren arabera dagokiona erabakiko du epaileak.

183. artikulua. Etendura eta kaleratze kolektiboak erabakitzen dituen ebazpenaren efikazia.

Lan-kontratuak izaera kolektiboarekin etetea edo kaleratze kolektiboa erabakiz gero, ematen den egunetik aurrera izango ditu autoak eratze-ondoreak, salbu eta bertan geroko beste data bat xedatzen bada, eta ukitutako langileen legezko langabezia-egoera sortuko du.

184. artikulua. Kontrata hutsaltzeko eskubidea etetea, kalte-ordainarekin.

1. Konkurtsua izapidetzen den bitartean, kontrata hutsaltzeko eskubidea eten egingo da, lan-arloko legeriak langile kaltetunari aitortzen dion kalte-ordainarekin, baldin eta konkurtsua izapidetu bitartean lan-baldintzak izaera kolektiboarekin funtsean aldatzea erabakitzen bada.

3. Recibido el informe por el juez del concurso o transcurrido el plazo de emisión, seguirá el curso de las actuaciones. Si el informe es emitido fuera de plazo, podrá no obstante ser tenido en cuenta por el juez del concurso al adoptar la correspondiente resolución.

Artículo 180. Plazo de emisión de la resolución.

Cumplidos los trámites ordenados en los artículos anteriores, el juez, en un plazo máximo de cinco días, resolverá mediante auto, sobre las medidas propuestas.

Artículo 181. Resolución en caso de acuerdo.

De existir acuerdo, el juez lo aprobará, salvo que en la conclusión del mismo aprecie la existencia de fraude, dolo, coacción o abuso de derecho. En este caso, determinará lo que proceda conforme a la legislación laboral.

Artículo 182. Resolución en caso de inexistencia de acuerdo.

1. Si no hubiera sido alcanzado un acuerdo, el juez del concurso dará audiencia a quienes hubieran intervenido en el período de consultas, para lo cual, el Letrado de la Administración de Justicia los convocará a una comparecencia en la que podrán formular alegaciones y aportar prueba documental. El juez podrá sustituir esta comparecencia por un trámite escrito de alegaciones por tres días.

2. En todo caso, el juez determinará lo que proceda conforme a la legislación laboral.

Artículo 183. Eficacia de la resolución que acuerde la suspensión y el despido colectivos.

En caso de acordarse la suspensión de los contratos de trabajo de carácter colectivo o el despido colectivo, el auto surtirá efectos constitutivos desde la fecha en que se dicte, salvo que en él se disponga otra fecha posterior, y originará la situación legal de desempleo de los trabajadores afectados.

Artículo 184. Suspensión del derecho de rescisión de contrato con indemnización.

1. Durante la tramitación del concurso, quedará en suspenso el derecho de rescisión del contrato con indemnización que reconoce la legislación laboral al trabajador perjudicado en el supuesto de acordarse una modificación sustancial de las condiciones de trabajo de carácter colectivo durante la tramitación del concurso.



2. Aurreko apartatuan ezarritako etetea aplikatuko da, orobat, lekualdaketa kolektiboa erabakitzen denean, baldin eta lantoki berria jatorrizko lantokiaren probintzia berean bada eta bien artean hirurogei kilometro baino gutxiago badaude; nolana ere, ez da beharrezkoa izango baldintza horiek betetzea, joan-etorria egiteko, gutxienez, eguneko lansaioaren ehuneko hogeita bosta baino gehiago behar denean.

3. Aurreko apartatueta aurreikusitako eteteak ezin izango dira hamabi hilabete baino gehiagoz luzatu, aldaketa edo lekualdaketa baimentzen duen autoaren datatik kontatzen hasita.

185. artikulua. Kontratua langilearen borondatez azkentzea.

1. Azpiatal honetan kaleratze kolektiborako aurreikusitako prozedura hastea erabakitzen denetik, arlo sozialeko epaileek eten egingo dute konkurtso-eskaeraren ondoren ebazpen irmorik gabe dauden banakako prozesu guztien izapidetzea, baldin eta konkurtsopekoaren aurka akzio suntsiarazle indibidualak egikaritu badira, langilearen borondatez kontratua azkentzea eragiten duten arrazoietan oinarrituta, lan-arloko legeriaren babesean, eta konkurtsopekoaren kaudimengabeziak edo egoera ekonomikoak eraginda. Banakako prozesuen eteteak bere horretan iraungo du, harik eta prozedura horri amaiera ematen dion autoa irmo bihurtzen den arte.

2. Etetea erabakitzen duen ebazpena konkurtso-administrazioari komunikatuko diote, dagokionean ematen duten epaiaren ondoriozko kreditua kontingente modura aitor dadin, etetea amaitutzat ematen bada.

3. Kaleratze kolektiboa erabakitzen duen autoak gauza epaituaren ondoreak izango ditu etendako banakako prozesuei dagokienez, eta haiek izapidetze gehiagorik gabe artxibatuko dira.

2. azpiatala. Goi-zuzendaritzako langileen kontratuen gaineko ondoreak

186. artikulua. Goi-zuzendaritzako langileen kontratuak azkentzea eta etetea, konkurtso-administrazioak hala erabakita.

1. Konkurtsoa izapidetzen den bitartean, konkurtso-administrazioak, bere ekimenez edo konkurtsopekoak hala eskatuta, azkendu edo eten egin ahal izango ditu konkurtsopekoak goi-zuzendaritzako langileekin dituen kontratuak.

2. Lan-kontratua azkentzen bada, konkurtso epaileak goi-zuzendariari dagokion kalte-ordaina

2. La suspensión prevista en el apartado anterior también será de aplicación cuando se acordare un traslado colectivo, siempre que el nuevo centro de trabajo se encuentre en la misma provincia que el centro de trabajo de origen y a menos de sesenta kilómetros de este, salvo que se acredite que el tiempo mínimo de desplazamiento, de ida y vuelta, supera el veinticinco por ciento de la duración de la jornada diaria de trabajo.

3. Las suspensiones previstas en los apartados anteriores no podrán prolongarse por un período superior a doce meses, a contar desde la fecha del auto autorizando la modificación o el traslado.

Artículo 185. Extinción del contrato por voluntad del trabajador.

1. Desde que se acuerde la iniciación del procedimiento previsto en esta Subsección para el despido colectivo, los jueces del orden social suspenderán la tramitación de la totalidad de los procesos individuales posteriores a la solicitud del concurso pendientes de resolución firme en los que se hubieran ejercitado contra el concursado acciones resolutorias individuales con fundamento en las causas que determinan la extinción del contrato por voluntad del trabajador al amparo de la legislación laboral motivadas por la situación económica o de insolvencia del concursado. La suspensión de los procesos individuales subsistirá hasta que adquiera firmeza el auto que ponga fin a dicho procedimiento.

2. La resolución que acuerde la suspensión se comunicará a la administración concursal a los efectos del reconocimiento como contingente del crédito que pueda resultar de la sentencia que en su día se dicte, si fuera alzada la suspensión.

3. El auto que acuerde el despido colectivo producirá efectos de cosa juzgada sobre los procesos individuales suspendidos, que se archivarán sin más trámites.

Subsección 2.^a De los efectos sobre los contratos del personal de alta dirección

Artículo 186. Extinción y suspensión de los contratos del personal de alta dirección por decisión de la administración concursal.

1. Durante la tramitación del concurso, la administración concursal, por propia iniciativa o a instancia del concursado, podrá extinguir o suspender los contratos de este con el personal de alta dirección.

2. En caso de extinción del contrato de trabajo, el juez del concurso podrá moderar la indemnización que



gutxitu ahal izango du; kasu horretan, ondorerik gabe geratuko da kontratuan hitzartu den kalte-ordaina, eta haren muga lan-arloko legerian kaleratze kolektiborako ezarritako kalte-ordainaren zenbatekoa izango da.

187. artikulua. Goi-zuzendaritzako langileen kontratua azkentzea, goi-zuzendariak hala erabakita.

Kontratua eteten bada, goi-zuzendariaren borondatez azkendu ahal izango da, hilabete lehenago aurreabisua emanda, eta goi-zuzendari horrek kalte-ordaina jasotzeko eskubideari eutsiko dio, aurreko artikuluko baldintzetan.

188. artikulua. Ordainketa geroratzea.

Konkurso-administrazioak epaileari eskatu ahal izango dio kalifikazio-epaia irmoa izan arte atzera dadila goi-zuzendaritzari dagokion kalte-ordainaren kredituaren ordainketa.

3. azpiatala. Hitzarmen kolektiboen gaineko ondoreak

189. artikulua. Hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak aldatzea.

Aplikagarriak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzen aldatetak lan-arloko legeriaren arabera onargarria den gaitan bakarrik izango du eragina, eta, nolana ere, langileen legezko ordezkarien adostasuna eskatuko du.

5. atala. Administrazio publikoekiko kontratuen gaineko ondoreak

190. artikulua. Administrazio-kontratuak.

Konkurtsopekoak administrazio publikoekin egindako administrazio-kontratuen gain konkurtsodeklarazioak izango dituen ondoreei dagokienez, haien legeria berezian ezarritakoa izan behar da kontuan.

191. artikulua. Kontratu pribatuak.

Legeria berezirik izan ezean, konkurtsopekoak administrazio publikoekin eta sektore publikoko beste erakunde batzuekin egindako kontratu pribatuetan konkurtsodeklarazioak izango dituen ondoreak lege honetan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

corresponda al alto directivo, quedando sin efecto en ese caso la que se hubiera pactado en el contrato, con el límite de la indemnización establecida en la legislación laboral para el despido colectivo.

Artículo 187. Extinción del contrato del personal de alta dirección por decisión del alto directivo.

En caso de suspensión del contrato, este podrá extinguirse por voluntad del alto directivo, con preaviso de un mes, conservando el derecho a la indemnización en los términos del artículo anterior.

Artículo 188. Aplazamiento de pago.

La administración concursal podrá solicitar del juez que el pago del crédito relativo a la indemnización que corresponda al alto directivo se aplaze hasta que sea firme la sentencia de calificación.

Subsección 3.^a De los efectos sobre los convenios colectivos

Artículo 189. Modificación de condiciones establecidas en convenios colectivos.

La modificación de las condiciones establecidas en los convenios colectivos que sean aplicables solo podrá afectar a aquellas materias en las que sea admisible con arreglo a la legislación laboral, y, en todo caso, requerirá el acuerdo de los representantes legales de los trabajadores.

Sección 5.^a De los efectos sobre los contratos con las administraciones públicas

Artículo 190. Contratos de carácter administrativo.

Los efectos de la declaración de concurso sobre los contratos de carácter administrativo celebrados por el concursado con Administraciones públicas se regirán por lo establecido en su legislación especial.

Artículo 191. Contratos de carácter privado.

En defecto de legislación específica, los efectos de la declaración de concurso sobre los contratos de carácter privado celebrados por el concursado con las Administraciones públicas y otras entidades del sector público se regirán por lo establecido en esta ley.



IV. TITULUA

Masa aktiboa

I. KAPITULUA

Masa aktiboaren osaera

192. artikulua. Unibertsaltasun-printzipioa.

1. Konkurtsoaren masa aktiboa osatzen dute konkurtsoa deklaratzeko den egunean konkurtsopekoaren ondarean sartutako ondasun eta eskubide guztiek, bai eta prozedura amaitu arte bertara itzultzen edo eskuratzen diren ondasun eta eskubide guztiek ere.

2. Aurreko apartatuan xedatutakotik salbuetsi dira legez enbargatu ezin diren ondasun eta eskubideak, haiek ondare-izaera eduki arren.

193. artikulua. Ezkontideen ondasunak.

1. Pertsona ezkonduaren konkurtsoa gertatu denean, masa aktiboan konkurtsopekoaren ondasun eta eskubide pribatiboak sartuko dira.

2. Ezkontzaren ondasun-eraentza irabazpidezko sozietatea edo beste edozein ondasun-erkidego bada, aurrekoaz gain masan sartuko dira irabazpidezko ondasunak edo ondasun erkideak, haiekin egin behar zaien aurre konkurtsopekoaren betebeharrei.

194. artikulua. Konkurtsopekoaren ezkontidearen eskuratze-eskubideak.

1. Konkurtsopekoaren ezkontideak masa aktiboan sartutako irabazpidezko ondasunak edo ondasun erkideak oso-osorik eskuratzeko eskubidea izango du, masari haren balioaren erdia ordainduta.

2. Eskuratze-prezioa konkurtsopekoaren ezkontideak eta konkurtso-administrazioak adostasunez zehaztutakoa izango da. Adostasunik izan ezean, konkurtsopekoaren epaileak merkatuko balio gisa zehazten duena hartuko da kontuan, alderdiei entzun ondoren. Egoki deritzon, epaileak adituaren txostena eskatu ahal izango du.

3. Aurreko apartatuan ezarritakoaren salbuespen gisa, ezkontzaren ohiko etxebizitzaren balioa eskuratze-prezio eguneratua izango da, kontsumoko prezioen indize espezifikoaren arabera, baina ezin izango du inola ere merkatuko balioa gainditu.

195. artikulua. Dohaintzen presuntzioa.

1. Konkurtsopekoaren ondasun-banantzearen araubidean ezkondata badago, masa aktiboaren mesederako ulertuko da, aurkako frogarik ezean, konkurtsopekoaren bere ezkontideari dohaintzan eman

TÍTULO IV

De la masa activa

CAPÍTULO I

De la composición de la masa activa

Artículo 192. Principio de universalidad.

1. La masa activa del concurso está constituida por la totalidad de los bienes y derechos integrados en el patrimonio del concursado a la fecha de la declaración de concurso y por los que se reintegren al mismo o adquiera hasta la conclusión del procedimiento.

2. Se exceptúan de lo dispuesto en el apartado anterior aquellos bienes y derechos que, aun teniendo carácter patrimonial, sean legalmente inembargables.

Artículo 193. Bienes conyugales.

1. En caso de concurso de persona casada, la masa activa comprenderá los bienes y derechos propios o privativos del concursado.

2. Si el régimen económico del matrimonio fuese el de sociedad de gananciales o cualquier otro de comunidad de bienes, se incluirán en la masa, además, los bienes gananciales o comunes cuando deban responder de obligaciones del concursado.

Artículo 194. Derechos de adquisición del cónyuge del concursado.

1. El cónyuge del concursado tendrá derecho a adquirir la totalidad de cada uno de los bienes gananciales o comunes incluidos en la masa activa satisfaciendo a la masa la mitad de su valor.

2. El precio de adquisición será el que de común acuerdo determinen el cónyuge del concursado y la administración concursal. En defecto de acuerdo, se estará al que, oídas las partes, determine el juez del concurso como valor de mercado. Cuando lo estime oportuno, el juez podrá solicitar informe de experto.

3. Por excepción a lo establecido en el apartado anterior, el valor de la vivienda habitual del matrimonio será el del precio de adquisición actualizado conforme al índice específico de precios al consumo, sin que en ningún caso pueda superar el del valor de mercado.

Artículo 195. Presunción de donaciones.

1. Si el concursado estuviera casado en régimen de separación de bienes, se presumirá en beneficio de la masa activa, salvo prueba en contrario, que el concursado había donado a su cónyuge la mitad de la



ziola konkurtso-deklarazioaren aurreko urtean horrek ordaindutako kontraprestazioaren erdia, ondasunak edo eskubideak kostu bidez eskuratzeko.

2. Kontraprestazioa zuzenean edo zeharka konkurtsopekoaren ondaretik datorrela egiaztatzen bada, aurkako frogarik ezean, kontraprestazio osoa dohaintzan eman dela ulertuko da.

3. Artikulu honek aipatu presuntzioak ez dira aplikatuko, egintza gauzatzeko unean ezkontideak judizio bidez edo egitez bananduta daudenean.

196. artikulua. Ezkontideen arteko biziraupen-ituna.

Ezkontide biek biziraupen-itunaren bidez eskuratutako ondasunak bataren zein bestearen konkurtsoan zatitzeko modukoak direla ulertuko da, eta konkurtsopeko ezkontideari dagokion erdia masa aktiboan sartuko da.

197. artikulua. Kontu solidarioak.

1. Konkurtsopekoa titular solidario gisa agertzen denean kontuetan, kontu horietako saldo hartzekodunak masa aktiboan sartuko dira, konkurtso-administrazioaren ustez horren aurkako froga nahikoa dagoenean izan ezik.

2. Edozein interesdunek aurkaratu ahal izango du saldoari buruzko erabakia. Aurkaratze hori bideratzeko, konkurtso-intzidentearen izapideak beteko dira.

II. KAPITULUA

Masa aktiboaren inbentarioa

198. artikulua. Inbentarioa egiteko eginbeharra.

1. Konkurtso-administrazioak masa aktiboaren inbentarioa egin beharko du, eta inbentario horretan jasoko dira bere txostena aurkeztu aurreko egunean masa aktiboa osatzen duten ondasunen eta eskubideen zerrenda eta balorazioa.

2. Irabazpidezko edo beste ondasun-erkidegoko eraentzaren mende ezkontutako pertsonaren konkurtsoa gertatu denean, inbentarioan jasoko dira konkurtsopeko zordunaren ondasun eta eskubide pribatiboen zerrenda eta balorazioa, bai eta ondasun eta eskubide irabazpidezko edo erkideena ere, konkurtsopekoaren betebeharrengatik erantzun behar duenean, horien izaera esanbidez zehaztuz.

3. Konkurtsopekoaren esku dauden eta konkurtsopekoak erabiltzeko eskubidea duen inoren jabetzako ondasunak ez dira inbentarioan sartuko, eta

contraprestación satisfecha por este durante el año anterior a la declaración de concurso para la adquisición a título oneroso de bienes o derechos.

2. Si se acreditara que la contraprestación procedía directa o indirectamente del patrimonio del concursado, se presumirá, salvo prueba en contrario, la donación de la totalidad de la contraprestación.

3. Las presunciones a que se refiere este artículo no regirán cuando en el momento de la realización del acto los cónyuges estuvieran separados judicialmente o de hecho.

Artículo 196. Pacto de sobrevivencia entre los cónyuges.

Los bienes adquiridos por ambos cónyuges con pacto de sobrevivencia se considerarán divisibles en el concurso de cualquiera de ellos, integrándose en la masa activa la mitad correspondiente al cónyuge concursado.

Artículo 197. Cuentas indistintas.

1. Los saldos acreedores de cuentas en las que el concursado figure como titular indistinto se integrarán en la masa activa, salvo prueba en contrario apreciada como suficiente por la administración concursal.

2. Cualquier interesado podrá impugnar la decisión sobre el saldo. La impugnación se sustanciará por los trámites del incidente concursal.

CAPÍTULO II

Del inventario de la masa activa

Artículo 198. Deber de elaboración del inventario.

1. La administración concursal deberá elaborar un inventario de la masa activa, que incluirá la relación y la valoración de los bienes y derechos de que se compone al día inmediatamente anterior al de la presentación de su informe.

2. En caso de concurso de persona casada en régimen de gananciales o cualquier otro de comunidad de bienes, se incluirán en el inventario la relación y el avalúo de los bienes y derechos privativos del deudor concursado, así como las de los bienes y derechos gananciales o comunes cuando debe responder de obligaciones del concursado, con expresa indicación de este carácter.

3. Los bienes de propiedad ajena en poder del concursado y sobre los que este tenga derecho de uso, no se incluirán en el inventario, ni será necesario



ez da beharrezkoa izango haien balorazioa egitea. Salbuespenez, inbentarioan sartuko da inoren jabetzako ondasun bat erabiltzeko eskubidea, konkurtsopekoa finantza-errentaria bada.

199. artikulua. Ondasunen eta eskubideen deskribapena.

Konkurto-administrazioak inbentarioan adieraziko ditu aipatutako ondasun eta eskubide horien izaera, ezaugarriak, kokalekua eta, hala denean, erregistroko identifikazio-datuak. Inbentarioan adieraziko dira, halaber, ondasun eta eskubide horiei eragiten dieten eskubideak, kargak, trabak eta zamak, hartzekodunaren edo hirugarrenaren mesederako, haien izaera eta, hala denean, erregistroko identifikazio-datuak aipatuta.

200. artikulua. Produkzio-unitateak.

1. Masa aktiboan establezimendu, ustiategi edo ondasunen edo zerbitzuen ekoizpen-unitate bat edo gehiago badaude, inbentarioaren eranskin gisa deskribatuko dira, haiek osatzen duten masa aktiboaren ondasunak eta eskubideak adierazita.

2. Ekoizpen-unitatezat hartzen da funtsezko jarduera ekonomiko bat edo jarduera ekonomiko osagarri bat egiteko antolatutako bitartekoen multzoa.

201. artikulua. Ondasunen eta eskubideen balorazioa.

1. Inbentarioan jasotako ondasun eta eskubide bakoitzaren balorazioa egingo da haiek duten merkatu-balioaren arabera.

2. Merkatuko balioaz gain, inbentarioan adieraziko da eskubide, karga edo zama betierekoak, aldi baterakoak edo askagarriak, zuzenean eragiten dietenak eta haien balioan eragiten dutenak, kentzetik ondorioztatzen den balioa, bai eta masa pasiboan sartu gabeko kredituak bermatzen edo ziurtatzen dituzten berme errealak eta trabak edo embargoak ere.

202. artikulua. Harreman osagarriak.

1. Inbentariora bilduko da masa aktiboaren gain eragina izan dezaketen auzi guztien zerrenda, bai eta konkurto-administrazioaren iritziz haiek masa horretara itzultzeko sustatu beharreko akzio guztien zerrenda ere.

2. Zerrenda bietan informazioa emango da kasuan kasuko jarduketa judizialen bideragarritasun, arrisku, kostu eta finantzaketa-aukerei buruz.

su avalúo. Por excepción se incluirá en el inventario el derecho de uso sobre un bien de propiedad ajena si el concursado fuera arrendatario financiero.

Artículo 199. Descripción de los bienes y derechos.

La administración concursal expresará en el inventario la naturaleza, las características, el lugar en que se encuentren y, en su caso, los datos de identificación registral de cada uno de los bienes y derechos relacionados. Se indicarán también en el inventario los derechos, los gravámenes, las trabas y las cargas que afecten a estos bienes y derechos, a favor de acreedor o de tercero, con expresión de la naturaleza que tuvieren y, en su caso, los datos de identificación registral.

Artículo 200. Unidades productivas.

1. Si en la masa activa existieran uno o varios establecimientos, explotaciones o cualesquiera otras unidades productivas de bienes o de servicios, se describirán como anejo del inventario, con expresión de los bienes y derechos de la masa activa que las integren.

2. Se considera unidad productiva el conjunto de medios organizados para el ejercicio de una actividad económica esencial o accesoria.

Artículo 201. Valoración de los bienes y derechos.

1. El avalúo de cada uno de los bienes y derechos incluidos en el inventario se realizará con arreglo al valor de mercado que tuvieren.

2. Además del valor de mercado se indicará en el inventario el valor que resulte de deducir los derechos, los gravámenes o las cargas de naturaleza perpetua, temporal o redimible que directamente les afecten e influyan en su valor, así como las garantías reales y las trabas o embargos que garanticen o aseguren créditos no incluidos en la masa pasiva.

Artículo 202. Relaciones complementarias.

1. Al inventario se añadirá una relación de todos los litigios cuyo resultado pueda afectar a la masa activa y otra comprensiva de cuantas acciones debieran promoverse, a juicio de la administración concursal, para la reintegración de esa masa.

2. En ambas relaciones se informará sobre la viabilidad, los riesgos, los costes y las posibilidades de financiación de las correspondientes actuaciones judiciales.



203. artikulua. Aditu independenteen aholkularitza.

1. Konkurtso-administrazioak beharrezkotzat jotzen badu aditu independente bat baino gehiagoren aholkularitza, ondasun eta eskubideen balioak edo aribidean dauden auzien bideragarritasuna eta aurreko artikulua aipatu akzioak zenbatesteko, epaileari izendapena proposatuko dio, enkarguaren nondik norakoak adierazita. Ezingo da errekurtsorik jarri epaileak hartutako erabakiaren aurka.
2. Aditu independenteei konkurtso-administratzaileentzat eta haien ordezkariatzat ezarritako bateraezintasunen, debekuen, errekusatzeen eta erantzukizunen araubidea aplikatuko zaie.
3. Aditu independenteen ordainsaria konkurtso-administrazioaren kontura izango da.
4. Adituek emandako txostenak eta sortutako zerbitzu-sarien zehaztapena inbentariora bilduko dira.

III. KAPITULUA

Masa aktiboa kontserbatzea eta besterentzea

1. atala. Masa aktiboa kontserbatzea

204. artikulua. Kontserbatzeko eginbeharra.

Masa aktiboa administratzeko eta xedatzeko ahalmenak egikaritzean, masa aktiboa osatzen duten elementuak konkurtsoaren onerako egokiena den moduan kontserbatuko dira. Horretarako, konkurtso-administrazioak beharrezkotzat jotzen duen laguntza eskatu ahal izango dio epaitegiari.

2. atala. Masa aktiboko ondasun eta eskubideak besterentzea

1. azpiatala. Erregela orokorrak

205. artikulua. Besterentzeko debekua.

Epaileak hitzarmena onetsi arte edo likidazio-plana onetsi arte, masa aktiboa osatzen duten ondasun eta eskubideak ezin izango dira besterendu edo kargatu epailearen baimenik gabe.

206. artikulua. Besterentzeko legezko debekuaren salbuespenak.

1. Aurreko artikuluan xedatutakoari begira salbuespen gisa hartzen dira:

1.a Zordunaren lanbide- edo enpresa-jarduerari eusteko berezko xedatze-egintzak, kapitulu honetan ezarritako baldintzetan.

Artículo 203. Asesoramiento de expertos independientes.

1. Si la administración concursal considerase necesario el asesoramiento de uno varios expertos independientes para la estimación de los valores de bienes y derechos o de la viabilidad de los litigios en curso y de las acciones a que se refiere el artículo anterior, propondrá el nombramiento al juez, con expresión de los términos del encargo. Contra la decisión del juez no cabrá recurso alguno.
2. Será de aplicación a los expertos independientes el régimen de incompatibilidades, prohibiciones, recusación y responsabilidad establecido para los administradores concursales y sus representantes.
3. La retribución de los expertos independientes será a cargo de la administración concursal.
4. Los informes emitidos por los expertos y el detalle de los honorarios devengados se unirán al inventario.

CAPÍTULO III

De la conservación y de la enajenación de la masa activa

Sección 1.^a De la conservación de la masa activa

Artículo 204. Deber de conservación.

En el ejercicio de las facultades de administración y disposición sobre la masa activa se atenderá a la conservación de los elementos que la integren del modo más conveniente para el interés del concurso. A tal fin, la administración concursal podrá solicitar del juzgado el auxilio que estime necesario.

Sección 2.^a De la enajenación de bienes y derechos de la masa activa

Subsección 1.^a De las reglas generales

Artículo 205. Prohibición de enajenación.

Hasta la aprobación judicial del convenio o hasta la aprobación del plan de liquidación, los bienes y derechos que integran la masa activa no se podrán enajenar o gravar sin autorización del juez.

Artículo 206. Excepciones a la prohibición legal de enajenación.

1. Se exceptúan de lo dispuesto en el artículo anterior:

1.º Los actos de disposición inherentes a la continuación de la actividad profesional o empresarial del deudor, en los términos establecidos en este capítulo.



2.a Hartzekodunen konkurtsoa izapidetzeko beharrezkoak diren diruzaintzako eskakizunak betetzeko ezinbestekoak diren xedatze-egintzak.

3.a Masa aktiboaren parte diren establezimenduen, ustategien edo ondasunen edo zerbitzuen beste edozein ekoizpen-unitateren bideragarritasuna bermatzeko ezinbestekoak diren xedatze-egintzak.

Konkurto-administrazioak berehala komunikatu beharko dizkio konkurtsoko epaileari apartatu honetako lehenengo, bigarren eta hirugarren zenbakietan aipatutako xedatze-egintzak, egintza horiek ezinbestekoak direla justifikatuta.

2. Aurreko artikuluan xedatutakotik salbuetsita geratzen dira, halaber, jarduerak jarraitzeko beharrezkoak ez diren ondasunak xedatzeko egintzak, baldin eta inbentarioan emandako balioarekin funtsean bat datozen eskaintzak aurkezten badira. Kointzidentzia hori funtsezkoa dela ulertuko da, higiezin kasuan aldea ehuneko hamarretik beherakoa bada eta higigarrien kasuan ehuneko hogeitik beherakoa, eta goragoko eskaintzarik ez badago.

Konkurto-administrazioak berehala komunikatu beharko dio konkurtsoko epaileari jasotako eskaintza, ondasunak beharrezkoak ez direla justifikatuta. Aurkeztutako eskaintza onetsi egingo da, baldin eta hamar eguneko epean ez bada goragoko bat aurkezten.

207. artikulua. Auzigaietako ondasun eta eskubideak besterentzea.

1. Ondasun eta eskubideen titulartasunari edo xedakortasunari begira auzia sustatu bada, ondasun zein eskubide horiek izatera horrekin besterendu ahal izango dira, eta eskuratzaila auziaren ondorioen mende geratuko da.

2. Konkurtso-administrazioak auziaren gaineko eskumena duen epaitegi edo auzitegiari komunikatuko dio besterentzea. Komunikazio horrek prozesuko ondorengotza eragingo du zuzenbide osoz, baina kontrako alderdia ezin izango da horren aurka jarri, eta berdin da eskuratzaila pertsonatzen ez bada ere.

208. artikulua. Masa aktiboko ondasun eta eskubideak eskuratzeko debekua.

1. Konkurtso-administratzaileek ezin izango dute eskuratu, ez zuzenean ez bitarteko pertsona baten bidez, masa aktiboa osatzen duten ondasun eta eskubideak, ezta enkante batean ere.

2.º Los actos de disposición indispensables para satisfacer las exigencias de tesorería que requiera la tramitación del concurso de acreedores.

3.º Los actos de disposición indispensables para garantizar la viabilidad de los establecimientos, explotaciones o cualesquiera otras unidades productivas de bienes o de servicios que formen parte de la masa activa.

La administración concursal deberá comunicar inmediatamente al juez del concurso los actos de disposición a que se refieren los números primero, segundo y tercero de este apartado con justificación del carácter indispensable de esos actos.

2. Se exceptúan igualmente de lo dispuesto en el artículo anterior los actos de disposición de bienes que no sean necesarios para continuidad de la actividad cuando se presenten ofertas que coincidan sustancialmente con el valor que se les haya dado en el inventario. Se entenderá que esa coincidencia es sustancial si en el caso de inmuebles la diferencia es inferior a un diez por ciento y en el caso de muebles a un veinte por ciento, y no constare oferta superior.

La administración concursal deberá comunicar inmediatamente al juez del concurso la oferta recibida con justificación del carácter no necesario de los bienes. La oferta presentada quedará aprobada si en plazo de diez días no se presenta una superior.

Artículo 207. Enajenación de bienes y derechos litigiosos.

1. Los bienes o derechos sobre cuya titularidad o disponibilidad exista cuestión litigiosa promovida, podrán enajenarse con tal carácter, quedando el adquirente a las resultas del litigio.

2. La administración concursal comunicará la enajenación al juzgado o tribunal que esté conociendo del litigio. Esta comunicación producirá, de pleno derecho, la sucesión procesal, sin que pueda oponerse la contraparte y aunque el adquirente no se persone.

Artículo 208. Prohibición de adquirir bienes y derechos de la masa activa.

1. Los administradores concursales no podrán adquirir por sí o por persona interpuesta, ni aun en subasta, los bienes y derechos que integren la masa activa del concurso.



2. Eskuratzeko debekua hausten dutenak desgaituta geratuko dira karguan jarduteko, eta epaileak berehala beste izendapen bat egingo du, eta eskuratutako ondasuna edo eskubidea masara itzuliko dute, inolako kontraprestaziorik gabe. Konkurtso-administratzailea konkurtso-hartzekoduna bada, konkurtso-hartzekodunak galdu egingo du, gainera, bera titular den kreditua.

2. azpiatala. Pribilegio bereziari atxikitako ondasunak edo eskubideak besterentzearen berezitasunak

209. artikulua. Atxikitako ondasunak diru bihurtzeko ohiko modua.

Konkurtoaren edozein egoeratan, pribilegio berezia duten kredituei lotutako ondasun eta eskubideak enkantean –enkante judiziala nahiz estrajudiziala izan, enkante elektronikoa barne– bihurtuko dira diru, salbu eta epaileak lege honetan aurreikusitakoaren artean haiek diru bihurtzeko beste modu bat baimentzen duenean.

210. artikulua. Atxikitako ondasunak zuzenean diru bihurtzea.

1. Konkurtsoaren edozein egoeratan, epaileak baimendu ahal izango du pribilegio berezia duten kredituei atxikitako ondasun eta eskubideak zuzenean diru bihurtzea.

2. Konkurtso-administrazioak edo pribilegio berezia duen hartzekodunak epaileari aurkeztu beharko dio zuzeneko diru-bihurtzea egiteko eskaera, eta baimen judizialak lortzeko lege honetan ezarritako prozeduraren bidez izapidetuko da.

3. Epaileak eskatutako baimena emango du, baldin eta eskaintza bermea eratzean itundutako gutxieneko prezioa baino goragokoa bada, eta eskudirutan ordainduko du. Epaileak, salbuespen gisa, zuzeneko diru-bihurtzea baimendu ahal izango du beheragoko prezio baten truke, baldin eta konkurtsopekoak eta hartzekodunak edo pribilegio berezia duten hartzekodunek hori esanbidez onartzen badute, betiere diru-bihurtzea merkatuko balioan egiten bada, erakunde homologatu batek ondasun higiezin kasuan eguneratutako tasazio ofizialaren arabera, eta erakunde espezializatu batek ondasun higigarrietarako balorazioa egiten badu.

4. Baimen judiziala eman ondoren, zuzeneko diru-bihurtzerako ezarritako baldintzak iragarriko dira atxikitako ondasun edo eskubidearen enkanteari dagokion publikitate berarekin, eta, azken iragarkiaren hurrengo hamar egunen barruan epaitegian eskaintzaile hoberik aurkezten bada, epaileak

2. Los que infringieren la prohibición de adquirir quedarán inhabilitados para el ejercicio del cargo, procediendo el juez de inmediato a un nuevo nombramiento, y reintegrarán a la masa, sin contraprestación alguna, el bien o derecho que hubieran adquirido. Si el administrador concursal fuera acreedor concursal, perderá este, además, el crédito de que fuera titular.

Subsección 2.^a De las especialidades de la enajenación de bienes o derechos afectos a privilegio especial

Artículo 209. Modo ordinario de realización de los bienes afectos.

La realización en cualquier estado del concurso de los bienes y derechos afectos a créditos con privilegio especial se hará en subasta, judicial o extrajudicial, incluida la electrónica, salvo que el juez autorice otro modo de realización de entre los previstos en esta ley.

Artículo 210. Realización directa de los bienes afectos.

1. En cualquier estado del concurso, el juez podrá autorizar la realización directa de los bienes y derechos afectos a créditos con privilegio especial.

2. La solicitud de realización directa deberá ser presentada al juez por la administración concursal o por el acreedor con privilegio especial y se tramitará a través del procedimiento establecido en esta ley para la obtención de autorizaciones judiciales.

3. El juez concederá la autorización solicitada si la oferta lo fuera por un precio superior al mínimo que se hubiese pactado al constituir la garantía, con pago al contado. El juez podrá autorizar excepcionalmente la realización directa por un precio inferior si el concursado y el acreedor o los acreedores con privilegio especial lo aceptasen de forma expresa, siempre y cuando se efectúe a valor de mercado según tasación oficial actualizada por entidad homologada para el caso de bienes inmuebles y valoración por entidad especializada para bienes muebles.

4. Concedida la autorización judicial, las condiciones fijadas para la realización directa se anunciarán con la misma publicidad que corresponda a la subasta del bien o derecho afecto y, si dentro de los diez días siguientes al último de los anuncios se presentase en el juzgado mejor postor, el juez abrirá licitación entre



lizitazioa irekiko du eskaintzaile guztien artean, bertan parte hartzeko eman beharreko fidantza zehaztuz.

211. artikulua. Atxikitako ondasunak ordainean ematea edo ordaintzea.

1. Konkurtsoaren edozein egoeratan, epaileak baimen dezake ordainketarako pribilegio berezia duten kredituei atxikitako ondasun eta eskubideak ordainean ematea edo ordaintzea hartzekodun pribilegiatuari edo berak izendatutako pertsonari.

2. Ordainean emateko edo ordaintzeko eskaera aurkeztu beharko du pribilegio berezia duen hartzekodunak edo konkurtso-administrazioak, horren aurretiazko eta esanbidezko adostasunarekin. Eskaera baimen judizialak lortzeko lege honetan ezarritako prozeduraren bidez izapidetuko da. Edozein interesdunek alegazioak egin ahal izango ditu ordainean ematearen egokitasunari buruz edo ematea proposatzeko baldintzei buruz.

3. Ordainean ematearen bidez, oso-osorik ordainduta geratuko da pribilegio berezia duen kreditua.

4. Ordainketarako ematea baimentzeko, pribilegio berezia duen kredituari atxikitako ondasuna edo eskubidea, ondoren, merkatukoa baino txikiagoa ez den balio batean, diru bihurtu beharko da, erakunde homologatu batek ondasun higiezinaren kasuan eguneratutako tasazio ofizialaren arabera, eta erakunde espezializatu batek ondasun higigarrien kasuan egindako balorazioaren arabera. Gerakinik badago, masa aktiboari egokituko zaio. Kreditua osorik ordaintzea lortzen ez bada, ordaindu ez den zatia dagokion sailkapenaren araberrako konkurtsoan aitortuko da.

212. artikulua. Atxikitako ondasun eta eskubideak besterentzea, kargak irauten duen bitartean.

1. Konkurtso-administrazioak hala eskatuta, epaileak, interesdunei entzun ondoren, baimendu ahal izango du pribilegio berezia duten kredituei atxikitako masa aktiboko ondasun eta eskubideak besterentzea, betiere kargak irauten badu eta eskuratzailerak zordunaren betebeharrean subrogatzen bada. Eskuratzailerak subrogatu ondoren, kreditua masa pasibotik kanpo utziko da.

2. Salbuespenez, eskuratzailerak ez da subrogatuko, bermeak iraun arren, tributu-kredituak eta gizarte-segurantzakoak badira.

todos los oferentes determinando la fianza que hayan de prestar para participar en ella.

Artículo 211. Dación en pago o para pago de los bienes afectos.

1. En cualquier estado del concurso, el juez podrá autorizar la dación de los bienes y derechos afectos a créditos con privilegio especial en pago o para el pago al acreedor privilegiado o a la persona que él designe.

2. La solicitud de dación en pago o para pago deberá ser presentada por el acreedor con privilegio especial o por la administración con privilegio especial con el consentimiento expreso y previo de aquel. La solicitud se tramitará a través del procedimiento establecido en esta ley para la obtención de autorizaciones judiciales. Cualquier interesado podrá efectuar alegaciones sobre la pertinencia de la dación o sobre las condiciones en las que se haya propuesto su realización.

3. Mediante la dación en pago quedará completamente satisfecho el crédito con privilegio especial.

4. La autorización de la dación para pago deberá exigir que la posterior realización del bien o derecho afecto al crédito con privilegio especial se efectúe por un valor no inferior al de mercado según tasación oficial actualizada por entidad homologada para el caso de bienes inmuebles y valoración por entidad especializada para bienes muebles. Si hubiera remanente, corresponderá a la masa activa. Si no se consiguiese la completa satisfacción del crédito, la parte no satisfecha será reconocida en el concurso con la clasificación que corresponda.

Artículo 212. Enajenación de bienes y derechos afectos con subsistencia del gravamen.

1. A solicitud de la administración concursal, el juez, previa audiencia de los interesados, podrá autorizar la enajenación de bienes y derechos de la masa activa afectos a créditos con privilegio especial con subsistencia del gravamen y con subrogación del adquirente en la obligación del deudor. Subrogado el adquirente, el crédito quedará excluido de la masa pasiva.

2. Por excepción, no tendrá lugar la subrogación del adquirente, a pesar de que subsista la garantía, cuando se trate de créditos tributarios y de seguridad social.



213. artikulua. Lortutako zenbatekoaren xedea.

1. Atxikitako ondasunak diru bihurtzeko modua edozein dela ere, hartzekodun pribilegiatuak eskubidea izango du ondasun edo eskubidea diru bihurtzearen ondoriozko zenbatekoa jasotzeko, jatorrizko zorra gainditzen ez duen kopuruan, bermea eratuta duen ondasunari edo eskubideari inbentarioan lege honetan ezarritakoaren arabera emandako balioa edozein dela ere. Gerakinik badago, masa aktiboari egokituko zaio.

2. Kreditua osorik ordaintzea lortzen ez bada, ordaindu ez den zatia dagokion sailkapenaren araberrako konkurtsoan aitortuko da.

214. artikulua. Ekoizpen-establezimendu edo -unitateetan sartutako ondasunak eta eskubideak.

1. Nolanahi ere, pribilegio bereziko kredituei atxikitako masa aktiboko ondasun eta eskubideak batera besterentzen diren establezimendu, ustiategi edo beste edozein ekoizpen-unitatetan sartuta badaude, honako erregela hauek aplikatuko dira:

1.a Eskualdatzean bermea bertan behera geratzen bada, hartzekodun pribilegiatuei honako hau egokituko zaie: lortutako prezioaren barruan, eskualdatutako ekoizpen-unitatearen balio globaletik bermea eratuta duen ondasunaren edo eskubidearen balioari dagokion zati proportzionala.

Jaso beharreko prezioa bermearen baliora iristen ez bada, beharrezkoa izango da exekuzio banandurako eskubidea duten pribilegio bereziko hartzekodunek eskualdaketarekin ados daudela adieraztea, baldin eta haiek, gutxienez, eskualdaketak eragindako pasibo pribilegiatu bereziaren klasearen ehuneko hirurogeita hamabost badira. Ordaintzen ez den kreditu bermatuaren zatia konkurtsoan aitortuko da, dagokion sailkapenarekin.

Jasotzekoa den prezioa bermearen balioaren parekoa edo goragokoa bada, ez da beharrezkoa izango ukitutako hartzekodun pribilegiatuek eskualdaketarekin ados daudela adieraztea.

2.a Eskualdatzean bermeak indarrean jarraitzen badu, eta eskuratzailea masa aktiboaren konturako ordainketa-betebeharrean subrogatzen bada, ez da beharrezkoa izango hartzekodun pribilegiatuak adostasuna ematea, eta kreditua masa pasibotik kanpo geratuko da. Epaileak egiaztatuko du eskuratzaileak eskualdatzen den betebeharra bere gain hartzeko beharrezkoak diren kaudimen ekonomikoa eta bitartekoak dituela.

Artículo 213. Destino del importe obtenido.

1. Cualquiera que sea el modo de realización de los bienes afectos, el acreedor privilegiado tendrá derecho a recibir el importe resultante de la realización del bien o derecho en cantidad que no exceda de la deuda originaria, cualquiera que fuere el valor atribuido en el inventario, conforme a lo establecido en esta ley, al bien o derecho sobre el que se hubiera constituido la garantía. Si hubiera remanente, corresponderá a la masa activa.

2. Si no se consiguiese la completa satisfacción del crédito, la parte no satisfecha será reconocida en el concurso con la clasificación que corresponda.

Artículo 214. Bienes y derechos incluidos en establecimientos o unidades productivas.

1. En todo caso, si los bienes y derechos de la masa activa afectos a créditos con privilegio especial estuviesen incluidos en los establecimientos, explotaciones o cualesquiera otras unidades productivas que se enajenen en conjunto se aplicarán las siguientes reglas:

1.^a Si se transmitiesen sin subsistencia de la garantía, corresponderá a los acreedores privilegiados la parte proporcional del precio obtenido equivalente al valor que el bien o derecho sobre el que se ha constituido la garantía suponga respecto al valor global de la unidad productiva transmitida.

Si el precio a percibir no alcanzase el valor de la garantía será necesaria la conformidad a la transmisión por los acreedores con privilegio especial que tengan derecho de ejecución separada, siempre que representen, al menos, el setenta y cinco por ciento de la clase del pasivo privilegiado especial, afectado por la transmisión. La parte del crédito garantizado que no quedase satisfecha será reconocida en el concurso con la clasificación que corresponda.

Si el precio a percibir fuese igual o superior al valor de la garantía, no será preciso el consentimiento de los acreedores privilegiados afectados.

2.^a Si se transmitiesen con subsistencia de la garantía, subrogándose el adquirente en la obligación de pago a cargo de la masa activa, no será necesario el consentimiento del acreedor privilegiado, quedando el crédito excluido de la masa pasiva. El juez velará por que el adquirente tenga la solvencia económica y los medios necesarios para asumir la obligación que se transmite.



3.a Eskuratzailerak ez da subrogatuko, bermeak iraun arren, tributu-kredituak eta gizarte-segurantzakoak badira.

3. azpiatala. Ekoizpen-unitateak besterentzearen berezitasunak

215. artikulua. Ekoizpen-unitateak besterentzeko ohiko modua.

Enpresa osoa edo ekoizpen-unitate bat edo batzuk enkante judizialean edo estrajudizialean, baita enkante elektronikoan ere, besterenduko dira konkurtsoaren edozein egoeratan, salbu eta epaileak baimena ematen duenean lege honetan aurreikusitako beste moduren bat erabiltzeko.

216. artikulua. Zuzenean edo pertsona edo erakunde espezializatu baten bidez besterentzeko baimen judiziala.

1. Konkurtsoaren edozein egoeratan edo enkantea hutsik geratzen denean, epaileak, auto bidez, baimena eman ahal izango du enpresa osoa edo ekoizpen-unitate bat edo batzuk zuzenean besterentzeko edo pertsona edo erakunde espezializatu baten bidez besterentzeko.

2. Konkurtso-administrazioak aurkeztu beharko dio eskaera epaileari, eta lege honetan baimen judizialak lortzeko ezarritako prozeduraren bidez izapidetuko da.

3. Pertsona edo erakunde espezializatuaren ordainsaria konkurtso-administrazioak jaso duen ordainsariaren kontura egingo da.

4. Ezingo da errekurtsorik jarri masa aktiboaren ondasunak eta eskubideak besterentze zuzenaren bidez edo pertsona edo erakunde espezializatu baten bidez diru bihurtzea erabakitzen duen autoaren aurka.

217. artikulua. Konkurtso-administrazioaren konturako zehaztapenak.

Enpresa osoa edo ekoizpen-unitate bat edo batzuk besterentzen badira, konkurtso-administrazioak, besterentze-sistema edozein dela ere, eskaintzak aurkezteko epea zehaztu beharko du, eta, epe hori hasi aurretik, masa aktiboaren kontura egindako gastuak (enpresa osoaren edo besterendu beharreko ekoizpen-unitatearen edo -unitateen jarduerak martxan jarraitzekoak) zehaztu beharko ditu, bai eta behin betiko adjudikazioa egin arte aurreikus daitezkeenak ere.

3.^a Cuando se trate de créditos tributarios y de seguridad social, no tendrá lugar la subrogación del adquirente a pesar de que subsista la garantía.

Subsección 3.^a De las especialidades de la enajenación de unidades productivas

Artículo 215. Modo ordinario de enajenación de unidades productivas.

La enajenación en cualquier estado del concurso del conjunto de la empresa o de una o varias unidades productivas se hará en subasta, judicial o extrajudicial, incluida la electrónica, salvo que el juez autorice otro modo de realización de entre los previstos en esta ley.

Artículo 216. Autorización judicial para la enajenación directa o a través de persona o entidad especializada.

1. En cualquier estado del concurso o cuando la subasta quede desierta, el juez, mediante auto, podrá autorizar la enajenación directa del conjunto de la empresa o de una o varias unidades productivas o la enajenación a través de persona o de entidad especializada.

2. La solicitud deberá ser presentada al juez por la administración concursal y se tramitará a través del procedimiento establecido en esta ley para la obtención de autorizaciones judiciales.

3. La retribución de la persona o entidad especializada se realizará con cargo a la retribución que la administración concursal haya percibido.

4. Contra el auto que acuerde la realización de los bienes y derechos de la masa activa a través de enajenación directa o a través de persona o entidad especializada no cabrá recurso alguno.

Artículo 217. Determinaciones a cargo de la administración concursal.

En caso de enajenación del conjunto de la empresa o de una o varias unidades productivas, la administración concursal, cualquiera que sea el sistema de enajenación, deberá determinar el plazo para la presentación de las ofertas y especificar, antes de la iniciación de ese plazo, los gastos realizados con cargo a la masa activa para la conservación en funcionamiento de la actividad del conjunto de la empresa o de la unidad o unidades productivas objeto de enajenación, así como los previsibles hasta la adjudicación definitiva.



218. artikulua. Eskaintzen edukia.

Besterentzeko sistema edozein dela ere, eskaintzek eduki hau izan beharko dute gutxienez:

1.a Eskaintzailearen identifikazioa, bere kaudimen ekonomikoari buruzko informazioa, eta erabilgarri dituen giza baliabideei eta bitarteko teknikoei buruzko informazioa.

2.a Zehatz-mehatz ezartzen du zer ondasun, eskubide, kontratu eta lizentzia edo baimen jasotzen diren eskaintzan.

3.a Eskaintzako prezioa, ordaintzeko moduak eta emandako bermeak. Eskualdatzen direnak pribilegio bereziko kredituei lotutako ondasunak edo eskubideak badira, bermeek indarrean jarraituz gero eta bertan behera utziz gero eskainiko liratekeen prezioak bereizi beharko dira eskaintzan.

4.a Eskaintzak langileengan duen eragina.

219. artikulua. Lehentasunaren erregela.

Enkantearen kasuan, epaileak, auto bidez, eskaintza handiena baino ehuneko hamabost handiagoa ez den eskaintzaileari adjudikatzea erabaki ahal izango du, baldin eta uste badu enpresa osoaren edo, hala badagokio, ekoizpen-unitatearen eta lanpostuen jarraipena bermatzen duela, bai eta hartzekodunen kredituak hobeto eta azkarrago ordaintzea ere.

220. artikulua. Langileen ordezkarietara entzunaldia ematea.

1. Enpresa edo ekoizpen-unitate bat edo batzuk besterentzeari buruz epaileak hartzen dituen ebazpenak langileen ordezkarietara, halakorik balego, hamabost eguneko epean entzunaldia eman ondoren eman beharko dira.

2. Besterentze-eragiketarako berekin badakarte lan-baldintzen funtsezko aldarazte, lekualdaketa, kaleratze, kontratu-etete edo lanaldi-murrizketa kolektiboa, lege honetan lan-kontratuei buruz xedatutakoa beteko da.

221. artikulua. Enpresaren ondorengotza.

1. Produkzio-unitate bat besterentzen bada, lan-ondoretarako eta gizarte-segurantzaren ondoretarako, enpresaren ondorengotza dagoela ulertuko da.

2. Konkurtsoko epaileak bakarrik izango du eskumena enpresaren ondorengotza deklaratzeko.

Artículo 218. Contenido de las ofertas.

Cualquiera que sea el sistema de enajenación, las ofertas deberán tener, al menos, el siguiente contenido:

1.º La identificación del oferente y la información sobre su solvencia económica y sobre los medios humanos y técnicos a su disposición.

2.º La determinación precisa de los bienes, derechos, contratos y licencias o autorizaciones incluidos en la oferta.

3.º El precio ofrecido, las modalidades de pago y las garantías aportadas. En caso de que se transmitiesen bienes o derechos afectos a créditos con privilegio especial, deberá distinguirse en la oferta entre el precio que se ofrecería con subsistencia o sin subsistencia de las garantías.

4.º La incidencia de la oferta sobre los trabajadores.

Artículo 219. Regla de la preferencia.

En caso de subasta, el juez, mediante auto, podrá acordar la adjudicación al oferente cuya oferta no difiera en más del quince por ciento de la oferta superior cuando considere que garantiza en mayor medida la continuidad de la empresa en su conjunto o, en su caso, de la unidad productiva y de los puestos de trabajo, así como la mejor y más rápida satisfacción de los créditos de los acreedores.

Artículo 220. Audiencia de los representantes de los trabajadores.

1. Las resoluciones que el juez adopte en relación con la enajenación de la empresa o de una o varias unidades productivas deberán ser dictadas previa audiencia, por plazo de quince días, de los representantes de los trabajadores, si existieran.

2. En el caso de que las operaciones de enajenación implicaran la modificación sustancial de las condiciones de trabajo, el traslado, el despido, la suspensión de contrato o la reducción de jornada de carácter colectivo, se estará a lo dispuesto en esta ley en materia de contratos de trabajo.

Artículo 221. Sucesión de empresa.

1. En caso de enajenación de una unidad productiva, se considerará, a los efectos laborales y de seguridad social, que existe sucesión de empresa.

2. El juez del concurso será el único competente para declarar la existencia de sucesión de empresa.



222. artikulua. Eskuratzaillearen subrogazioa.

1. Ekoizpen-unitate bat edo batzuk eskualdatuz gero, eskuratzaillea subrogatuta geratuko da eskualdatutako ekoizpen-unitatean edo unitateetan garatzen den lanbide- edo enpresa-jardueraren jarraitutasunari lotutako kontratuetan, beste alderdiaren adostasunik behar izan gabe.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaren salbuespen gisa, administrazio-kontratuen lagapena sektore publikoko kontratuei buruzko legerian ezarritakoaren arabera egingo da.

3. Eskuratzailleak instalazio beretan jarduten jarraitzen badu, produkzio-unitatea osatzen duten enpresa- edo lanbide-jardueraren jarraitutasunari lotutako lizentzia edo baimen administratiboetan ere subrogatuta geratuko da.

223. artikulua. Subrogazioa baztertzeko kasuak, eskuratzaillearen borondatez.

Ekoizpen-unitate bat eskualdatzeak ez du esan nahi lagapen-hartzailea lizentzia, baimen edo lanez besteko kontratu horiek direla-eta subrogatuko denik, eskuratzailleak, eskaintza egitean, esanbidez adierazi badu ez duela subrogatzeko asmorik.

224. artikulua. Ordaintzeko dauden kredituen gaineko ondoreak.

1. Ekoizpen-unitate bat eskualdatzeak ez dakar berekin konkurtsopekoak eskualdaketa egin aurretik ordaindu gabeko kredituak ordaintzeko betebeharra, bai konkurtsokoak bai masaren aurkakoak, honako kasu hauetan izan ezik:

1.a Eskuratzailleak esanbidez hartzen duenean betebeharrak hori bere gain.

2.a Lege-xedapen batek hala ezartzen duenean.

3.a Enpresaren ondorengotza gertatzen denean ekoizpen-unitate horretako langileen kontratuetan eskuratzaillea subrogatuta geratzen den unitateko langileei dagozkien laneko eta gizarte-segurantzako kredituei dagokienez. Konkurtsoko epaileak kreditu horiek direla-eta erabaki ahal izango du eskuratzaillea ez subrogatzea Soldadak Bermatzeko Funtsak bere gain hartzen duen zatian, zati hori besterentzearen aurretik ordaintzeke zeuden soldaten edo kalte-ordainen zenbatekoaren zatia denean, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Langileen Estatutuaren testu bateginari jarraituz.

Artículo 222. Subrogación del adquirente.

1. En caso de transmisión de una o varias unidades productivas, el adquirente quedará subrogado en los contratos afectos a la continuidad de la actividad profesional o empresarial que se desarrolle en la unidad o unidades productivas objeto de transmisión, sin necesidad de consentimiento de la otra parte.

2. Por excepción a lo establecido en el apartado anterior, la cesión de contratos administrativos se producirá de conformidad con lo establecido en la legislación sobre contratos del sector público.

3. Cuando el adquirente continuase la actividad en las mismas instalaciones, también quedará subrogado en las licencias o autorizaciones administrativas afectas a la continuidad de la actividad empresarial o profesional que formen parte de la unidad productiva.

Artículo 223. Exclusiones a la subrogación por voluntad del adquirente.

La transmisión de una unidad productiva no implicará la subrogación del cesionario respecto de aquellas licencias, autorizaciones o contratos no laborales en los que el adquirente, al formular la oferta, haya manifestado expresamente su intención de no subrogarse.

Artículo 224. Efectos sobre los créditos pendientes de pago.

1. La transmisión de una unidad productiva no llevará aparejada obligación de pago de los créditos no satisfechos por el concursado antes de la transmisión, ya sean concursales o contra la masa, salvo en los siguientes supuestos:

1.º Cuando el adquirente hubiera asumido expresamente esta obligación.

2.º Cuando así lo establezca una disposición legal.

3.º Cuando se produzca sucesión de empresa respecto de los créditos laborales y de seguridad social correspondientes a los trabajadores de esa unidad productiva en cuyos contratos quede subrogado el adquirente. El juez del concurso podrá acordar respecto de estos créditos que el adquirente no se subrogue en la parte de la cuantía de los salarios o indemnizaciones pendientes de pago anteriores a la enajenación que sea asumida por el Fondo de Garantía Salarial de conformidad con el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, aprobado por el Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre.



2. Aurreko apartatuan xedatutakoa ez da aplikatzekoa izango ekoizpen-unitateen eskuratzailerak konkurtsopekoarekin lotura berezia duten pertsonak diren kasuetan.

4. azpiatala. Zamak ezereztea

225. artikulua. Zamak ezereztea.

1. Justizia Administrazioaren letraduaren errematea onesten duen dekretuan edo ondasun edo eskubideen eskualdaketa baimentzen duen epailearen autoan, dela bananduta, dela loteka, dela enpresa edo ekoizpen-unitate bateko kide izanik, konkurtso-kredituen alde eratutako konkurtsoaren aurreko zama guztiak ezereztea erabakiko da. Ezereztearen gastuak eskuratzaileraren kontura izango dira.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaren salbuespen gisa, zamak ezereztea ez da bidezkoa izango, pribilegio berezia duten kredituen ordainketari lotutako ondasun edo eskubideen eskualdaketa kargak bere horretan irauten duenean.

IV. KAPITULUA

Masa aktibora itzultzea

1. atala. Hutsalketa-akzio bereziak

226. artikulua. Zordunaren egintzak hutsaltzeko akzioak.

Konkurtoa deklaratu ondoren, zordunak deklarazioaren aurreko bi urteetan masa aktiboari kalte eginez gauzatu dituen egintzak hutsal daitezke, iruzurrezko asmorik izan ez arren.

227. artikulua. Erabateko kalte-presuntzioak.

Ondare-kaltea dagoela uste da, aurkako frogarik onartu gabe, dohaineko xedatze-egintzak gauzatu direnean, usadioen araberako eskuzabaltasunak salbu, eta konkurtso-deklarazioaren ostean mugaeguneratu beharreko betebeharrak ordaindu edo azkendu direnean, berme errealik ez dutenean izan ezik.

228. artikulua. Kalte-presuntzio erlatiboak.

Aurkako frogarik ezean, ulertuko da ondare-kaltea dagoela, egintza hauek gauzatzen direnean:

1.a Konkurtsopekoarekin lotura berezia duten pertsonetatik edozeinen mesederako egindako kostu bidezko xedatze-egintzak.

2. No será de aplicación lo dispuesto en el apartado anterior cuando los adquirentes de las unidades productivas sean personas especialmente relacionadas con el concursado.

Subsección 4.ª De la cancelación de cargas

Artículo 225. Cancelación de cargas.

1. En el decreto del Letrado de la Administración de Justicia por el que se apruebe el remate o en el auto del juez por el que autorice la transmisión de los bienes o derechos ya sea de forma separada, por lotes o formando parte de una empresa o unidad productiva, se acordará la cancelación de todas las cargas anteriores al concurso constituidas a favor de créditos concursales. Los gastos de la cancelación serán a cargo del adquirente.

2. Por excepción a lo establecido en el apartado anterior, no procederá acordar la cancelación de cargas cuando la transmisión de bienes o derechos afectos a la satisfacción de créditos con privilegio especial se hubiera realizado con subsistencia del gravamen.

CAPÍTULO IV

De la reintegración de la masa activa

Sección 1.ª De las acciones rescisorias especiales

Artículo 226. Acciones rescisorias de los actos del deudor.

Declarado el concurso, serán rescindibles los actos perjudiciales para la masa activa realizados por el deudor dentro de los dos años anteriores a la fecha de la declaración, aunque no hubiere existido intención fraudulenta.

Artículo 227. Presunciones absolutas de perjuicio.

El perjuicio patrimonial se presume, sin admitir prueba en contrario, cuando se trate de actos de disposición a título gratuito, salvo las liberalidades de uso, y de pagos u otros actos de extinción de obligaciones cuyo vencimiento fuere posterior a la declaración del concurso, excepto si contasen con garantía real.

Artículo 228. Presunciones relativas de perjuicio.

Salvo prueba en contrario, el perjuicio patrimonial se presume cuando se trate de los siguientes actos:

1.º Los actos de disposición a título oneroso realizados a favor de alguna de las personas especialmente relacionadas con el concursado.



2.a Aurreko betebeharren edo horien ordezt hartu diren betebeharrak berrien mesederako berme errealek eratze-egintzak.

3.a Ordainketak edo betebeharrak azkentzeko beste egintza batzuk, zeinen muga-eguna konkurtso-deklarazioaren ondorengoa baita, berme erreala badute.

229. artikulua. Kaltea frogatzea.

Aurreko artikuluan jasotako gabeko egintzak direnean, hutsalketa-akzioa egikaritzen duenak frogatu beharko du masa aktiboari egindako ondare-kaltea.

230. artikulua. Hutsaldu ezin diren egintzak.

Ezin izango dira inola ere hutsaldu:

1.a Zordunaren lanbide- edo enpresa-jardueraren egintza arruntak, baldintza normaletan egindakoak.

2.a Kreditu publikoen aldeko edozein motatako bermeak eratze-egintzak.

3.a Soldatak Bermatzeko Funtsoaren aldeko bermeak eratze-egintzak.

4.a Baloreen eta tresna eratorrien ordainketa-, konpentsazio- eta likidazio-sistemak arautzen dituzten lege berezien esparruko egintzak.

5.a Kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuetako enpresak desegiteko neurriak antolatze-eragiketarako.

231. artikulua. Konkurtso-administrazioaren legitimazio aktiboa.

Konkurtso-administrazioari dagokio hutsalketa-akzioak egikaritzeko legitimazio aktiboa.

232. artikulua. Hartzekodunen legitimazio aktibo subsidiarioa.

1. Konkurtso-administrazioak hutsalketa-akzioen bat egikaritzea idatziz eskatu duten hartzekodunek, hutsaldu nahi den egintza zehatza eta hutsalketaren oinarria identifikatuz, akzio hori egikaritzeko legitimazioa izango dute, konkurtso-administrazioak errekerimendua egin eta hurrengo bi hilabeteen barruan hori egiten ez badu. Legitimazio subsidiarioa dutenen demanda aurkeztuak konkurtso-administrazioari jakinaraziko zaizkio.

2. Epe hori igaro arren, konkurtso-administrazioak akzio hori hutsaltzeko akzioa egikaritu ahal izango du,

2.º Los actos de constitución de garantías reales a favor de obligaciones preexistentes o de las nuevas contraídas en sustitución de aquellas.

3.º Los pagos u otros actos de extinción de obligaciones cuyo vencimiento fuere posterior a la declaración del concurso si contasen con garantía real.

Artículo 229. Prueba del perjuicio.

Cuando se trate de actos no comprendidos en el artículo anterior, el perjuicio patrimonial para la masa activa deberá ser probado por quien ejercite la acción rescisoria.

Artículo 230. Actos no rescindibles.

En ningún caso podrán ser objeto de rescisión:

1.º Los actos ordinarios de la actividad profesional o empresarial del deudor que hubieran sido realizados en condiciones normales.

2.º Los actos de constitución de garantías de cualquier clase a favor de créditos públicos.

3.º Los actos de constitución de garantías a favor del Fondo de Garantía Salarial.

4.º Los actos comprendidos en el ámbito de leyes especiales reguladoras de los sistemas de pagos y compensación y liquidación de valores e instrumentos derivados.

5.º Las operaciones mediante las que se instrumenten las medidas de resolución de entidades de crédito y empresas de servicios de inversión.

Artículo 231. Legitimación activa de la administración concursal.

La legitimación activa para el ejercicio de las acciones rescisorias corresponderá a la administración concursal.

Artículo 232. Legitimación activa subsidiaria de los acreedores.

1. Los acreedores que hayan instado por escrito de la administración concursal el ejercicio de alguna acción rescisoria, identificando el acto concreto que se trate de rescindir y el fundamento de la rescisión, estarán legitimados para ejercitarla si la administración concursal no lo hiciere dentro de los dos meses siguientes al requerimiento. Las demandas presentadas por los legitimados subsidiarios se notificarán a la administración concursal.

2. El transcurso de este plazo no impedirá a la administración concursal el ejercicio de la acción de



hartzekodunek akzioa egikaritu edo ez. Hartzekodunek jada egikaritu badute, konkurtsoko epaileak ofizioz metatuko ditu prozedurak.

3. Hartzekodunak beren kontura arituko dira auzitan, konkurtsoaren onerako. Demanda osorik edo zati batean baiesten bada, sortutako gastu eta kostuak, hutsalketaren ondorioz lortutakoaren mugaraino, masa aktiboaren kontura jasotzeko eskubidea izango dute hartzekodunek, behin epaia irmoa denean.

233. artikulua. Legitimazio pasiboa.

1. Hutsalketa-demandak konkurtsopekoaren eta aurkaratutako egintzan alderdi izan direnen kontra zuzendu beharko dira.

2. Itzuli nahi den ondasuna edo eskubidea hirugarren bati eskualdatu bazaio, demanda hirugarren horren aurka ere zuzenduko da, auzi-jartzaileak eskuratzailerean fede onaren presuntzioa hautsi nahi duenean, edota horrek lortutako erreibindikaezintasunari nahiz erregistro-publizitatearen ondoriozko babesari eraso egin nahi dionean.

234. artikulua. Prozedura.

Hutsalketa-akzioen izapideak konkurtso-intzidentearen bitartez egingo dira.

235. artikulua. Hutsalketaren ondoreak.

1. Akzioa baiesten duen epaiak deklaratu du aurkaratutako egintza ez dela efikaza.

2. Aurkaratutako egintza elkarrekiko betebeharrak dituen kontratua bada, epaiak kondenatuko du jadanik egin diren prestazioak itzultzera, horien fruitu eta interesekin.

3. Alde bakarreko egintza bada, epaiak, bidezkoa bada, masa aktibora itzultzera kondenatuko du haren xede den prestazioa, eta dagokion kreditua hartzekodunen zerrendan sartzeko aginduko du.

4. Zordunaren ondaretik ateratako ondasun eta eskubideak ezin badira masa aktibora itzuli, demandatua izan ez den hirugarren baten esku izateagatik, edo, epaiaren arabera, fede onez jardun, erreibindikaezintasuna lortu edo erregistroko babesa duen hirugarrenarena izateagatik, ondasun horiek konkurtsopeko zordunaren ondaretik irteetan zuten balioa gehi legezko interesa emateko kondena ezarriko zaio hutsaldutako egintzan alderdi izan denari.

rescisión de ese acto, haya sido o no ejercitada la acción por los acreedores. Si ya hubiera sido ejercitada por los acreedores, el juez del concurso procederá de oficio a la acumulación de los procedimientos.

3. Los acreedores litigarán a su costa en interés del concurso. En caso de que la demanda fuera total o parcialmente estimada, tendrán derecho a reembolsarse con cargo a la masa activa, una vez que la sentencia alcance firmeza, de los gastos y costas en que hubieran incurrido hasta el límite de lo obtenido como consecuencia de rescisión.

Artículo 233. Legitimación pasiva.

1. Las demandas de rescisión deberán dirigirse contra el concursado y contra quienes hayan sido parte en el acto impugnado.

2. Si el bien o el derecho que se pretenda reintegrar hubiera sido transmitido a un tercero, la demanda también deberá dirigirse contra este cuando el actor pretenda desvirtuar la presunción de buena fe del adquirente o atacar la irrevindicabilidad de que goce o la protección derivada de la publicidad registral.

Artículo 234. Procedimiento.

Las acciones rescisorias se tramitarán por el cauce del incidente concursal.

Artículo 235. Efectos de la rescisión.

1. La sentencia que estime la acción declarará la ineficacia del acto impugnado.

2. Si el acto objeto de impugnación fuera un contrato con obligaciones recíprocas, la sentencia condenará a la restitución de las prestaciones objeto de aquel que ya se hubieran realizado, con sus frutos e intereses.

3. Si se tratase de un acto unilateral, la sentencia, si procediera, condenará a la restitución a la masa activa de la prestación objeto de aquel y ordenará la inclusión en la lista de acreedores del crédito que corresponda.

4. Si los bienes y derechos salidos del patrimonio del deudor no pudieran reintegrarse a la masa activa por pertenecer a tercero no demandado o que, conforme a la sentencia, hubiera procedido de buena fe o gozase de irrevindicabilidad o de protección registral, se condenará a quien hubiera sido parte en el acto rescindido a entregar el valor que tuvieran cuando salieron del patrimonio del deudor concursado, más el interés legal.



5. Epaiak fede gaiztoa hautematen badu zordunarekin kontratua egin zuenarengan, kondenatu egingo da, gainera, masa aktiboari eragindako kaltegalera guztien kalte-ordaina ematera.

236. artikulua. Kontraprestaziorako eskubidearen araubidea.

1. Elkarrekiko betebeharrak dituen kontratu bat hutsaltzearen ondorioz demandatuetatik edozeinen mesederako den prestaziorako eskubidea masaren aurkako kreditutzat hartuko da, eta deuseztatutako egintzaren xede diren ondasun eta eskubideak itzultzearekin batera ordaindu beharko da.

2. Alde bakarreko egintza bat hutsaltzearen ondorioz demandatuaren alde sortutako kreditua, kasuan-kasuan, konkurtso-kreditutzat hartuko da, dagokion sailkapenarekin.

3. Epaiak fede gaiztoa hauteman badu demandatuarengan, prestaziorako kreditua mendeko kreditutzat hartuko da. Sailkapen bera izango du fede gaiztoa duen hartzekodunaren aldeko kredituak, baldin eta aldebakarreko egintza hutsaltzen bada.

237. artikulua. Hutsalketa-epaiaren aurkako errekurtsua.

Hutsalketa-intzidentean ematen den epaiaren aurka errekurtsua jar daiteke zuzenean. Apelazio-errekurtsu hori izapidetzeak eta ebazteak lehentasuna izango dute.

2. atala. Gainerako itzulketa-akzioak

238. artikulua. Zordunaren egintzak aurkaratzeko beste akzio batzuk.

1. Konkurtsoa deklaratu ondoren, zuzenbide orokorraren arabera bidezkoak diren beste edozein akzio egikaritzuz ere aurkara daitezke zordunak deklarazioa egin baino lehenagoko egintzak.

2. Aurkaratze-akzioak konkurtsoko epailearen aurrean egikaritzeko dira, eta konkurtsoko hutsalketa-akzioetarako ezarritako legitimazio-, prozedura- eta apelazio-arau berberak aplikatzeko dira.

5. Si la sentencia apreciase mala fe en quien contrató con el deudor, se le condenará, además, a indemnizar la totalidad de los daños y perjuicios causados a la masa activa.

Artículo 236. Régimen del derecho a la contraprestación.

1. El derecho a la prestación que, en su caso, resulte a favor de cualquiera de los demandados como consecuencia de la rescisión de un contrato con obligaciones recíprocas tendrá la consideración de crédito contra la masa, que habrá de satisfacerse simultáneamente a la reintegración de los bienes y derechos objeto del acto rescindido.

2. El crédito que, en su caso, resulte a favor del demandado como consecuencia de la rescisión de un acto unilateral tendrá la consideración de crédito concursal con la clasificación que le corresponda.

3. Si la sentencia hubiera apreciado mala fe en el demandado, el crédito a la prestación tendrá la consideración de crédito subordinado. Igual clasificación tendrá el crédito a favor del acreedor de mala fe en caso de rescisión del acto unilateral.

Artículo 237. Recurso contra la sentencia de rescisión.

La sentencia que se dicte en el incidente de rescisión será directamente apelable. La tramitación y la resolución de este recurso de apelación tendrán carácter preferente.

Sección 2.^a De las demás acciones de reintegración

Artículo 238. Otras acciones de impugnación de los actos del deudor.

1. Declarado el concurso, también podrán impugnarse mediante el ejercicio de cualesquiera otras acciones que procedan conforme al derecho general los actos del deudor anteriores a la fecha de la declaración.

2. Las acciones de impugnación se ejercerán ante el juez del concurso siendo de aplicación las mismas normas de legitimación, procedimiento y apelación establecidas para las acciones rescisorias concursales.



V. KAPITULUA

Masa aktiboa murriztea

239. artikulua. Ondasunak eta eskubideak banantzea.

1. Konkurtsopekoaren esku inoren jabetzako ondasunak badaude eta konkurtsopekoak ez badu haien gaineko erabilera-, berme- edo atxikitze-eskubiderik, konkURSO-administrazioak ondasun horiek emango dizkie zuzenbidearen arabera haien titular direnei, horiek hala eskatuta.

2. KonkURSO-administrazioak ondasunaren entrega ukatzea aurkaratu ahal izango du jabeak, konkURSO-intzidentearen izapideen bidez.

3. Banantze-intzidentean ematen den epaiaren aurka errekurtsua jar daiteke zuzenean. Apelazio-errekurtsu hori izapidetzeak eta ebazteak lehenasuna izango dute.

240. artikulua. Banantzeko ezintasuna, ondasuna edo eskubidea besterentzeagatik.

1. KonkURSO-deklarazioa eman baino lehen zordunak hirugarrenari besterendu badizkio banandu beharreko ondasun eta eskubideak, eta horiek ezin badira erreibindikatu, titular kaltetunak aukera dezake kontraprestazioa jasotzeko eskubidearen lagapena galdatzea, eskuratzailerak oraindik ez duenean berori ordaindu, edota, eskuratzailerak nahi duenaren arabera, ondasun eta eskubide horiek besterentze-unean nahiz besterendu osteko beste uneren batean duten balioaren araberrako kreditua gehi legezko interesa komunikatzea konkURSO-administrazioari, konkURSOan aitortua izan dadin.

2. Hilabeteko epean, banantzeko ezintasuna aitortu duen ebazpen judiziala irmo denetik kontatzen hasita, titular kaltetunak konkURSO-administrazioari komunikatu beharko dio zein den ondasunaren edo eskubidearen balioa, baliatzen duen aukeraren arabera, eta ondoriozko kreditua aitortzea eskatu beharko du. Titular kaltetunari dagokion kreditua konkURSO-kreditu arrunta izango da. Kreditua hilabeteko epe hori igarotakoan komunikatzen bada, komunikazioa ez egitearen ondoreak sortuko dira.

241. artikulua. Ontziak eta aireontziak banantzea.

1. Ontzi eta aireontzien gaineko pribilegioak dituzten kredituen titularrek ondasun horiek masa aktibotik banan ditzakete, kasuan kasuko legeria berezian aitortu akzioak egikaritzen badituzte prozedura egokiaren bidez. Exekuzioaren ostean gerakina

CAPÍTULO V

De la reducción de la masa activa

Artículo 239. Separación de bienes y derechos.

1. Los bienes de propiedad ajena que se encuentren en poder del concursado y sobre los cuales este no tenga derecho de uso, garantía o retención serán entregados por la administración concursal a sus legítimos titulares, a solicitud de estos.

2. La denegación de la entrega del bien por la administración concursal podrá ser impugnada por el propietario por los trámites del incidente concursal.

3. La sentencia que se dicte en el incidente de separación será directamente apelable. La tramitación y la resolución de este recurso de apelación tendrán carácter preferente.

Artículo 240. Imposibilidad de separación por enajenación del bien o del derecho.

1. Si los bienes y derechos susceptibles de separación hubieran sido enajenados por el deudor antes de la declaración de concurso a tercero de quien no puedan reivindicarse, el titular perjudicado podrá optar entre exigir la cesión del derecho a recibir la contraprestación si todavía el adquirente no la hubiera realizado, o comunicar a la administración concursal, para su reconocimiento en el concurso, el crédito correspondiente al valor que tuvieran los bienes y derechos sea en el momento de la enajenación, sea en cualquier otro posterior, a elección del solicitante, más el interés legal.

2. En el plazo de un mes a contar de la firmeza de la resolución judicial que hubiere reconocido la imposibilidad de separación, el titular perjudicado deberá comunicar a la administración concursal el valor del bien o del derecho según la opción que ejercite, solicitando el reconocimiento del crédito que resulte. El crédito correspondiente al titular perjudicado tendrá la consideración de crédito concursal ordinario. Si la comunicación del crédito se efectuara transcurrido ese plazo de un mes, se producirán los efectos de la falta de comunicación oportuna.

Artículo 241. Separación de buques y aeronaves.

1. Los titulares de créditos con privilegio sobre los buques y las aeronaves podrán separar estos bienes de la masa activa del concurso, mediante el ejercicio, por el procedimiento correspondiente, de las acciones que tengan reconocidas en su legislación específica.



badago konkurtsopekoarentzat, hori masa aktiboan sartuko da.

2. Exekuzio banandua ez bada hasi urtebeteko epean konkurtso-deklarazioaren datatik, jada ezin izango da egin, eta kreditu horien sailkapena lege honetan ezarritakoaren arabera arautuko da.

VI. KAPITULUA

Masa aktiboaren aurkako kredituak

1. atala. Masa aktiboaren aurkako kredituak

242. artikulua. Masaren aurkako kredituak.

Honako hauek dira masaren aurkako kredituak:

1.a Konkurtsoa deklaratu aurreko azken hogeita hamar lanegunei dagozkien soldatengatiko kredituak, baldin eta lanbidearteko gutxieneko soldataren bikoitza gainditzen ez badute.

2.a Konkurtso-eskaera eta -deklarazioa egiteko, kautela-neurriak hartzeko eta lege honetan aurreikusitako ebazpen judizialak argitaratzeko beharrezkoak diren gastu eta kostu judizialak.

3.a Konkurtsopekoari eta konkurtso-administrazioari laguntza eta ordezkari ematea prozeduraren izapidetze osoan eta horren intzidenteetan, haien esku-hartzea legez nahitaezkoa denean edo masaren onerako egiten denean, hitzarmena efikaza izan arte edo, bestela, konkurtsoa amaitu arte, salbu eta epailearen ebazpenen aurka jarritako errekurtoek eragindakoak, errekurto horiek erabat edo zati batean ezesten direnean kostuak ordaintzeko kondena espresuarekin.

4.a Lege honetan xedatutakoaren arabera, masaren onerako judizioan aurrera egin edo hori hasten duen konkurtsopekoari, konkurtso-administrazioari zein hartzekodun legitimatuei laguntzeagatik nahiz horiek ordezkatzegatik eragindako gastu eta kostu judizialak, atzera egin, amore eman, transakzioa egin edo zorduna bananduta defendatzearen inguruan ezarritakoa izan ezik, eta, hala denean, legeak ezarritako muga kuantitatiboak gainditu gabe.

5.a Aurkeztutako demandak ezestearen ondorioz edo konkurtso-administrazioaren baimenarekin edo amore ematearen edo atzera egitearen ondorioz edo orobat konkurtso-administrazioaren baimenarekin jarritako errekurtoak ezestearen ondorioz kostuak ordaintzera kondenatua izatetik datozen kredituak. Transakziorik izanez gero, kostuei buruz alderdiek itundutakoa beteko da.

Si de la ejecución resultara remanente a favor del concursado, se integrará en la masa activa.

2. Si la ejecución separada no se hubiera iniciado en el plazo de un año desde la fecha de la declaración de concurso, ya no podrá efectuarse, y la clasificación de estos créditos se regirá por lo establecido en esta ley.

CAPÍTULO VI

De los créditos contra la masa activa

Sección 1.^a De los créditos contra la masa activa

Artículo 242. Créditos contra la masa.

Son créditos contra la masa:

1.º Los créditos por salarios correspondientes a los últimos treinta días de trabajo efectivo realizado antes de la declaración de concurso en cuantía que no supere el doble del salario mínimo interprofesional.

2.º Los gastos y las costas judiciales necesarios para la solicitud y la declaración de concurso, la adopción de medidas cautelares y la publicación de las resoluciones judiciales previstas en esta ley.

3.º La asistencia y representación del concursado y de la administración concursal durante toda la tramitación del procedimiento y sus incidentes, cuando su intervención sea legalmente obligatoria o se realice en interés de la masa, hasta la eficacia del convenio o, en otro caso, hasta la conclusión del concurso, con excepción de los ocasionados por los recursos que interpongan contra resoluciones del juez cuando fueren total o parcialmente desestimados con expresa condena en costas.

4.º Los gastos y las costas judiciales ocasionados por la asistencia y representación del concursado, de la administración concursal o de acreedores legitimados en los juicios que, en interés de la masa, continúen o inicien conforme a lo dispuesto en esta ley, salvo lo previsto para los casos de desistimiento, allanamiento, transacción y defensa separada del deudor y, en su caso, hasta los límites cuantitativos en ella establecidos.

5.º Los créditos por la condena al pago de las costas como consecuencia de la desestimación de las demandas que se hubieran presentado o de los recursos que se hubieran interpuesto con autorización de la administración concursal o como consecuencia del allanamiento o del desistimiento realizados igualmente con autorización de la administración concursal. En caso de transacción, se estará a lo pactado por las partes en materia de costas.



6.a Konkurtso-administrazioaren ordainsaria.

7.a Zordunaren mantenuari dagozkionak eta zordunak mantenua emateko legezko eginbeharrak duen pertsonen mantenuari dagozkionak, lege honetan mantenuaren bidezko tasunari eta zenbatekoari buruz xedatutakoaren arabera, bai eta konkurtso-deklarazioaren osteko ebazpen judizialean zehaztutako hedadura osoan, lehen auzialdiko epaileak gaitasunari, seme-alabatasunari, ezkontzari eta adingabeei buruzko prozesu zibiletan erabakitako mantenuari dagozkionak ere.

Konkurtsa deklaratu ondoren sortutako mota horretako kredituak ere halakotzat hartuko dira, haien jatorria aurretik emandako ebazpen judizial bat denean.

8.a Konkurtsopekoaren lanbide- edo enpresa-jardueran aritzeagatik sortutakoak, konkurtso-deklarazioaren ondoren. Erregela horren barruan sartzen dira aldi horri dagozkion lan-kredituak, konkurtsoa deklaratu ondoren egindako kaleratzeagatik edo lan-kontratuak azkentzeagatik kalte-ordainak barne, bai eta lan-osasunaren arloko betebeharrak ez betetzeagatik prestazioen gaineko errekarguak ere, epaileak lanbide- edo enpresa-jarduera etetea erabaki arte edo konkurtsoa amaitu dela deklaratzeko duen arte.

Konkurtsoko epaileak lan-kontratuen azkentze kolektiboak aginduz gero, ulertuko da haien ondoriozko kalte-ordainengatik kredituak oneste-ebazpenean komunikatu eta aitortu direla, unea edozein izanda ere.

9.a Lege honen arabera, konkurtsopekoaren kargurako prestazioetatik eratorritakoak, elkarren arteko betebeharrak bete gabe dituzten kontratuetan, baldin eta konkurtso-deklarazioaren ondoren indarrean jarraitzen badute, eta itzulketa- eta kalte-ordain-betebeharren ondoriozkoak, konkurtsoaren onerako suntsiarazpenaren kasuan, edo konkurtsopekoak konkurtso-deklarazioa egin ondoren egindako ez-betetzeen kasuan.

10.a Pribilegio berezia duten kredituak ordaintzen direnean ondasun eta eskubide ukituak diru bihurtu gabe, kontratuak birgaitzen direnean, utzarazpena ezerezten denean edo lege honetan ezarri beste kasuetan, zor diren zenbatekoei dagozkien kredituak, eta etorkizunean konkurtsopekoaren kontura eman beharreko zenbatekoei dagozkienak.

11.a Zordunak gauzatu egintzen konkurtso-hutsalketan horrek jasotako kontraprestazioak itzultzearen ondoriozko kredituak, salbu eta epaian

6.º La retribución de la administración concursal.

7.º Los de alimentos del deudor y de las personas respecto de las cuales tuviera el deber legal de prestarlos, conforme a lo dispuesto en esta ley sobre su procedencia y cuantía así como, en toda la extensión que se fije en la correspondiente resolución judicial posterior a la declaración del concurso, los de los alimentos a cargo del concursado acordados por el juez de primera instancia en alguno de los procesos civiles sobre capacidad, filiación, matrimonio y menores.

También tendrán esta consideración los créditos de este tipo devengados con posterioridad a la declaración del concurso cuando tengan su origen en una resolución judicial dictada con anterioridad.

8.º Los generados por el ejercicio de la actividad profesional o empresarial del concursado tras la declaración del concurso. Quedan comprendidos en esta regla los créditos laborales correspondientes a ese período, incluidas las indemnizaciones por despido o extinción de los contratos de trabajo que se hubiesen producido con posterioridad a la declaración de concurso, así como los recargos sobre las prestaciones por incumplimiento de las obligaciones en materia de salud laboral, hasta que el juez acuerde el cese de la actividad profesional o empresarial, o declare la conclusión del concurso.

Los créditos por indemnizaciones derivadas de extinciones colectivas de contratos de trabajo ordenados por el juez del concurso se entenderán comunicados y reconocidos por la propia resolución que los apruebe, sea cual sea el momento.

9.º Los que, conforme a esta ley, resulten de prestaciones a cargo del concursado en los contratos con obligaciones recíprocas pendientes de cumplimiento que continúen en vigor tras la declaración de concurso, y de obligaciones de restitución e indemnización en caso de resolución en interés del concurso o por incumplimiento posterior a la declaración de concurso por parte del concursado.

10.º Los que, en los casos de pago de créditos con privilegio especial sin realización de los bienes o derechos afectos, en los de rehabilitación de contratos o de enervación de desahucio y en los demás previstos en esta ley, correspondan por las cantidades debidas y las de vencimiento futuro a cargo del concursado.

11.º Los que, en los casos de rescisión concursal de actos realizados por el deudor, correspondan a la devolución de contraprestaciones recibidas por este,



kreditu honen titularrak fede gaiztoz jardun duela hauteman denean.

12.a Konkurtso-administrazioak prozeduran zehar baliozkotasunez hartutako betebeharren ondoriozko kredituak, edo administrazio horren esku-hartzearen mende dagoen konkurtsopekoak horren baimen edo adostasunarekin hartu dituen betebeharren ondoriozkoak.

13.a Legearen ondorioz sortutako betebeharren ondoriozkoak edo konkurtsopekoaren kontratuz kanpoko erantzukizunaren ondoriozkoak, konkurtso-deklarazioaren ondoren eta hura amaitu arte.

14.a Likidazioaren kasuan, epaileak onetsitako hitzarmena betetzeko beharrezkoa den bideragarritasun-plana finantzatzeko likidazio-fasea ireki aurretik konkurtsopekoari emandako kredituak.

Ez dira masaren aurkako kreditutzat hartuko hitzarmena betetzeko fasean sortutako kredituak, baldin eta zordunarekin lotura berezia duen edozein pertsonarenak badira eta kasuko pertsona titularra bada edo izan bada, antzeko helburua duten maileguren edo kontratuen ondorioz, edo sozietate zordunaren kapitala handitzeko eragiketetan egindako diruzko ekarpenen ondorioz, nahiz eta gehikuntza ondorerik gabe geratu.

15.a Lege honek berariaz izaera hori eratziki dien kredituak.

243. artikulua. Soldatak Bermatzeko Funtsa.

Soldatak Bermatzeko Funtsa masaren edo konkurtsoen aurkako edozein kredituren titulartasunean subrogatzeak ez die eragingo kreditu horien izaerari eta sailkapenari.

2. atala. Masa aktiboaren aurkako kredituen araubidea

244. artikulua. Masaren aurkako kredituak ordaintzea.

Masaren aurkako kredituak ordainduko dira pribilegio berezia duten kredituak ordaintzeari lotu gabeko ondasun eta eskubideen kontura.

245. artikulua. Masaren aurkako kredituak ordaintzeko unea.

1. Masaren aurkako kreditutzat hartzen diren soldatengatiko kredituak berehala ordainduko dira.

salvo que la sentencia apreciare mala fe en el titular de este crédito.

12.º Los que resulten de obligaciones válidamente contraídas durante el procedimiento por la administración concursal o, con la autorización o conformidad de esta, por el concursado sometido a intervención.

13.º Los que resulten de obligaciones nacidas de la ley o de responsabilidad extracontractual del concursado con posterioridad a la declaración de concurso y hasta la conclusión del mismo.

14.º En caso de liquidación, los créditos concedidos al concursado antes de la apertura de la fase de liquidación para financiar el plan de viabilidad necesario para el cumplimiento del convenio aprobado por el juez.

No tendrán la consideración de créditos contra la masa los créditos, nacidos durante la fase de cumplimiento del convenio, de que fuera o hubiera sido titular cualquiera de las personas especialmente relacionadas con el deudor, como consecuencia de prestamos o de cualquier otro contrato de análoga finalidad o como consecuencia de aportaciones dinerarias realizadas en operaciones de aumento del capital de la sociedad deudora, aunque el aumento hubiera quedado sin efecto.

15.º Cualesquiera otros créditos a los que esta ley atribuya expresamente tal consideración.

Artículo 243. Fondo de Garantía Salarial.

La subrogación del Fondo de Garantía de Salarios en la titularidad de cualesquiera créditos contra la masa o concursales no afectará al carácter y a la clasificación de esos créditos.

Sección 2.ª Del régimen de los créditos contra la masa activa

Artículo 244. Pago de los créditos contra la masa.

El pago de créditos contra la masa se hará con cargo a los bienes y derechos no afectos al pago de créditos con privilegio especial.

Artículo 245. Momento del pago de los créditos contra la masa.

1. Los créditos por salarios que tengan la consideración de créditos contra la masa se pagarán de forma inmediata.



2. Masaren aurkako gainerako kredituak, horien izaera eta konkurtsoaren egoera edozein izanda ere, bakoitzaren muga-egunearan ordainduko dira.

3. Konkurtso-administrazioak muga-egunera arteko ordainketa-erregela alda dezake konkurtsoaren interesaren ondorioz, masa aktiboa nahikoa bada masaren aurkako kreditu guztiak ordaintzeko. Masaren aurkako kredituen ordainketa atzeratzeak ezin izango die eragin mantenu-kredituei, lan-kredituei, tributu-kredituei eta gizarte-segurantzako kredituei.

246. artikulua. Masaren aurkako kredituak aitortzea.

Masaren aurkako kredituak aitortzea konkurtso-administrazioari dagokio.

247. artikulua. Masaren aurkako kredituei buruzko deklarazio-judizioak.

Konkurtso-administrazioak masaren aurkako kredituak aitortzeari edo ez aitortzeari buruzko akzioak, horiek sortu diren unea edozein izanda ere, eta kreditu horien ordainketa erreklamatzeko akzioak konkurtsoaren epailearen aurrean egikarituko dira, konkurtso-intzidentearan izapideen bidez.

248. artikulua. Masaren aurkako kredituei buruzko exekuzioak.

1. Masaren aurkako kredituak gauzatzeko exekuzio judizialak edo administratiboak hitzarmenaren erfidantzia-datatik aurrera baino ezin izango dira hasi.

2. Exekuzioak hasteko debekuak ez du eragotziko masaren aurkako kreditua mugaeguneratzean ez ordaintzearen ondoriozko interesak, erreklarguak eta gainerako betebeharrak sortzea.

3. atala. Masa aktiboa nahikoa ez denean egongo diren berezitasunak

249. artikulua. Masa aktiboa nahikoa ez dela komunikatzeko eginbeharra.

Masa aktiboa masaren aurkako kredituak ordaintzeko nahikoa ez dela egiaztatzen denean, konkurtso-administrazioak konkurtsoaren epaileari komunikatuko dio, eta horrek bulego judizialean adieraziko die pertsonatutako alderdiei.

250. artikulua. Masa aktiboa nahikoa ez den kasuetan masaren aurkako kredituak ordaintzea.

1. Konkurtso-administrazioak konkurtsoaren epaileari jakinarazten dionetik masa aktiboa ez dela nahikoa masaren aurkako kredituak ordaintzeko,

2. Los restantes créditos contra la masa, cualquiera que sea su naturaleza y el estado del concurso, se pagarán a sus respectivos vencimientos.

3. La administración concursal podrá alterar por interés del concurso la regla del pago al vencimiento si la masa activa fuera suficiente para la satisfacción de todos los créditos contra la masa. La postergación del pago de los créditos contra la masa no podrá afectar a los créditos por alimentos, a los créditos laborales, a los créditos tributarios ni a los de la seguridad social.

Artículo 246. Reconocimiento de créditos contra la masa.

El reconocimiento de créditos contra la masa corresponderá a la administración concursal.

Artículo 247. Juicios declarativos relativos a créditos contra la masa.

Las acciones relativas al reconocimiento o a la falta de reconocimiento por parte de la administración concursal de los créditos contra la masa, cualquiera que sea el momento en que se hubieran generado, y las de reclamación del pago de estos créditos se ejercerán ante el juez del concurso por los trámites del incidente concursal.

Artículo 248. Ejecuciones relativas a créditos contra la masa.

1. Las ejecuciones judiciales o administrativas para hacer efectivos créditos contra la masa solo podrán iniciarse a partir de la fecha de eficacia del convenio.

2. La prohibición de iniciar ejecuciones no impedirá el devengo de los intereses, recargos y demás obligaciones por razón de la falta de pago a su vencimiento del crédito contra la masa.

Sección 3.^a De las especialidades en caso de insuficiencia de la masa activa

Artículo 249. Deber de comunicación de la insuficiencia de la masa activa.

En cuanto conste que la masa activa es insuficiente para el pago de los créditos contra la masa, la administración concursal lo comunicará al juez del concurso que lo pondrá de manifiesto en la oficina judicial a las partes personadas.

Artículo 250. Pago de los créditos contra la masa en caso de insuficiencia de la masa activa.

1. Desde que la administración concursal comunique al juez del concurso que la masa activa es insuficiente para el pago de los créditos contra la



mugaeguneratuta dauden edo komunikazioaren ondoren mugaeguneratzen diren kreditu horien ordainketa hurrengo hurrenkeraren arabera egingo da, eta, hala denean, zenbaki bakoitzaren barruan hainbanatuta:

1.a Lanbidearteko gutxieneko soldataren bikoitza gainditzen ez duten benetako laneko azken hogeita hamar egunetako soldata-kredituak.

2.a Soldaten eta kalte-ordainen kredituak, lanbide arteko gutxieneko soldataren hirukoitza eta ordaintzeke dauden soldata-egunen kopurua biderkatuta ateratzen den zenbatekoan.

3.a Likidazio-fasea ireki ondoren sortutako mantenu-kredituak, lanbide arteko gutxieneko soldata gainditzen ez dutenak.

4.a Hartzekodunen konkurtsoko kostu eta gastu judizialen kredituak.

5.a Masaren aurkako gainerako kredituak.

2. Aurreko apartatuan ezarritakotik salbuetsita geratzen dira likidatzeko ezinbestekoak diren masaren aurkako kredituak.

V. TITULUA

Masa pasiboa

I. KAPITULUA

Masa pasiboaren osaketa

6.º Cuando, en un proceso laboral iniciado después de la presentación del informe de la administración concursal o del texto definitivo de la lista de acreedores, se dicte sentencia que suponga la existencia de un crédito concursal.

7.º Cuando, después de presentados los textos definitivos, se hubiera cumplido la condición o contingencia prevista o los créditos hubieran sido reconocidos o confirmados por acto administrativo, por laudo o por resolución procesal firme o susceptible de ejecución provisional con arreglo a su naturaleza o cuantía.

Artículo 309. Tratamiento de los créditos que modifican la lista definitiva de acreedores.

En caso de que resulten reconocidos, los créditos tendrán la siguiente clasificación:

1.º En los tres primeros casos del artículo precedente, la que les hubiera asignado la resolución judicial.

2.º En los demás casos, la que les corresponda con arreglo a su naturaleza, sin que sea posible su subordinación por comunicación tardía.



310. artikulua. Hasierako hartzekodunaren ordezenak hartzekodunen behin betiko zerrendan.

1. Aitortutako hartzekodun bat ordeztuz gero, dela kreditua eskuratzegatik, dela haren titulartasuna subrogatzegatik, hasierako hartzekodunari dagokion kredituaren sailkapenari eutsiko zaio.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaren salbuespen gisa, honako erregelak hauek aplikatuko dira:

1.a Soldata-kredituei edo lan-harremana azkentzearen ondoriozko kalte-ordainei dagokienez, subrogazioa Soldatak Bermatzeko Funtsaren alde baino ez da egingo.

2.a Konkurtsopekoak legezko betebeharrak bat betetzeko zor dituen tributu-atxikipenei eta gizarte-segurantzako atxikipenei dagozkien kopuruei dagokienez, eta pribilegio orokorra duten zuzenbide publikoko kredituei dagokienez, izaera pribilegiatuari eutsiko zaio soilik ondorengo hartzekoduna organismo publikoa denean.

3.a Zordun solidarioak, fidatzaileak edo abal-emaileak ordaintzen badu, konkurtso-administrazioak kreditua birsailkatuko du, eta, horretarako, hartzekodunari edo zordun solidarioari, fidatzaileari edo ordaindu duen abal-emaileari maila apalenera sailkapena emango dio dagozkien artetik.

4.a Ondorengo hartzekoduna konkurtsopekoarekin lotura berezia duen pertsona bada, konkurtso-administrazioak kreditua birsailkatuko du, eta, horretarako, hartzekodunari edo konkurtsopekoarekin lotura berezia duen pertsona horri maila apalenera sailkapena emango dio dagozkien artetik.

311. artikulua. Hartzekodunen behin betiko zerrenda aldatzeko prozedura.

1. Behin betiko zerrendaren aldaketa konkurtsoan emandako ebazpen judicial baten ondorio denean, konkurtso-administrazioak hartzekodunen zerrendaren behin betiko testua aldaratuko du, horren berri izan bezain laster.

2. Gainerako kasuetan, hartzekodunen zerrendaren behin betiko testua aldatzeko eskatu beharko da, hitzarmena onesten duen ebazpena eman aurretik, edo likidazioaren azken txostena edo masa aktiboa masaren aurkako kredituei erantzuteko nahikoa ez dela dioen komunikazioa epaitegian aurkeztu aurretik.

Artículo 310. Sustituciones del acreedor inicial en la lista definitiva de acreedores.

1. En caso de sustitución de un acreedor reconocido, bien por adquisición del crédito, bien por subrogación en la titularidad del mismo, se mantendrá la clasificación del crédito correspondiente al acreedor inicial.

2. Por excepción a lo establecido en el apartado anterior, serán de aplicación las siguientes reglas:

1.º Respecto de los créditos salariales o por indemnización derivada de extinción de la relación laboral, la subrogación únicamente procederá a favor del Fondo de Garantía Salarial.

2.º Respecto de los créditos por cantidades correspondientes a retenciones tributarias y de seguridad social debidas por el concursado en cumplimiento de una obligación legal y de los créditos de derecho público que gozasen de privilegio general, el carácter privilegiado únicamente se mantendrá cuando el acreedor posterior sea un organismo público.

3.º En caso de pago por deudor solidario, por fiador o por avalista, la administración concursal procederá a reclasificar el crédito optando por la clasificación de inferior grado de entre las que correspondan al acreedor o al deudor solidario, al fiador o al avalista que hubiera pagado.

4.º En el supuesto en que el acreedor posterior fuera una persona especialmente relacionada con el concursado, la administración concursal procederá a reclasificar el crédito optando por la clasificación de inferior grado de entre las que correspondan al acreedor o a dicha persona especialmente relacionada con el concursado.

Artículo 311. Procedimiento de modificación de la lista definitiva de acreedores.

1. Cuando la modificación de la lista definitiva sea consecuencia de una resolución judicial dictada en el concurso, la administración concursal modificará el texto definitivo de la lista de acreedores en cuanto tenga constancia de la misma.

2. En los demás casos, la modificación del texto definitivo de la lista de acreedores deberá solicitarse antes de que recaiga resolución por la que se apruebe el convenio o se presente en el juzgado el informe final de liquidación o la comunicación de insuficiencia de la masa activa para atender los créditos contra la masa.



Ondore horretarako, hartzekodunek eskaera bat bidaliko diote konkurtso-administrazioari, lortu nahi den aldaketa justifikatuz, bai eta kapitulu honetan aurreikusitako inguruabarren bat gertatzen dela ere.

3. Bost eguneko epean, konkurtso-administrazioak idatziz jakinaraziko dio epaileari eskaera.

4. Txostena nahi den aldaketaren aurkakoa bada, eskatzaileak intzidentea sustatu ahal izango du, hamar eguneko epean, kreditua aitor dadin. Intzidentea hasitakoan, intzidentean erabakitakoa hartuko da kontuan. Epe horretan sustatzen ez badu, epaileak errefusatu egingo du eskaera.

5. Txostena nahi den aldaketaren aldekoa bada, hamar eguneko epean helaraziko zaie pertsonatutako alderdiei. Alegaziorik egiten ez bada edo aurkeztutako uziaren aurkakoak ez badira, epaileak auto bidez erabakiko du aldaketa, geroko errekurtsorik gabe. Bestela, epaileak auto bidez ebaztuko du, eta auto horren aurka apelazio-errekurtsua jarri ahal izango da.

312. artikulua. Hartzekodunen behin betiko zerrenda aldatzearen ondoreak.

1. Eskaera izapidetzeak ez du eragotziko hitzarmen- edo likidazio-fasearekin jarraitzea.

2. Adostutako aldaketak ez du eraginik izango hitzarmenaren edo eskaera aurkeztu aurretik edo ondoren egindako likidazio- edo ordainketa-eragiketen baliozkotasunean, harik eta ebazpen irmo bidez sartu arte.

313. artikulua. Hartzekodunen behin betiko zerrenda aldatzeko kautela-neurriak.

Egin nahi den aldaketa egin daitekeela uste badu, konkurtsoko epaileak, eskatzaileak hala eskatuta, kasuan-kasuan egokitzen jotzen dituen kautela-neurriak hartu ahal izango ditu, eman beharreko ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko.

314. artikulua. Hartzekodunen behin betiko zerrenda aldatzeari buruzko ebazpen judicialaren behin-behineko exekuzioa.

Epaileak, alderdi batek eskatuta, hartzekodunen behin betiko zerrenda aldatzeari buruzko ebazpenaren behin-behineko exekuzioa erabaki ahal izango du, honako hauek lortzeko:

1.a Aldaketa behin-behinean onartzea, osorik edo zati batean, atxikitzeko eta botoa emateko eskubideak

A tal efecto los acreedores dirigirán a la administración concursal una solicitud con justificación de la modificación pretendida, así como de la concurrencia de alguna de las circunstancias previstas en este capítulo.

3. En el plazo de cinco días, la administración concursal informará por escrito al juez sobre la solicitud.

4. Si el informe fuera contrario a la modificación pretendida, el solicitante podrá promover incidente, dentro del plazo de diez días, para que se reconozca el crédito. Incoado el incidente, se estará a lo que se decida en el mismo. Si no lo promoviera en el plazo indicado, el juez rechazará la solicitud.

5. Si el informe fuera favorable a la modificación pretendida, se dará traslado del mismo, por término de diez días, a las partes personadas. Si no se efectuaran alegaciones o no fueran contrarias a la pretensión formulada, el juez acordará la modificación por medio de auto sin ulterior recurso. En otro caso, el juez resolverá, igualmente por medio de auto contra el que cabe interponer recurso de apelación.

Artículo 312. Efectos de la modificación de la lista definitiva de acreedores.

1. La tramitación de la solicitud no impedirá la continuación de la fase de convenio o liquidación.

2. La modificación acordada no afectará a la validez del convenio que se hubiera podido alcanzar o de las operaciones de liquidación o pago realizadas antes de la presentación de la solicitud o tras ella hasta su introducción por resolución firme.

Artículo 313. Medidas cautelares en orden a la modificación de la lista definitiva de acreedores.

Cuando estime probable la introducción de la modificación pretendida, el juez del concurso, a petición del solicitante, podrá adoptar las medidas cautelares que en cada caso considere oportunas para asegurar la efectividad de la resolución a dictar.

Artículo 314. Ejecución provisional de la resolución judicial relativa a la modificación de la lista definitiva de acreedores.

El juez, a petición de parte, podrá acordar la ejecución provisional de la resolución relativa a la modificación de la lista definitiva de acreedores a fin de que:

1.º La modificación se admita provisionalmente, en todo o en parte, a los efectos del ejercicio de los derechos de adhesión y voto y para el cálculo de las



baliatzeko eta hitzarmen-proposamena onartzeko behar diren gehiengoak kalkulatzeko.

2.a Egin beharreko ordainketek kontuan hartzea egin nahi diren aldaketak, eta, hala ere, masa aktiboan geratzea dagozkien zenbatekoak, harik eta egin nahi den aldaketari buruz erabakitzen duen ebazpena irmoa izan arte, salbu eta abalaren edo behar besteko fidantzaren bidez itzultzea bermatzen bada.

VII. TITULUA

Hitzarmena

I. KAPITULUA

Hitzarmen-proposamena

1. atala. Proposatzaileak

315. artikulua. Hitzarmen-proposamenaren egilea.

1. Zordunak eta hartzekodunek, haien kredituek masa pasiboaren bostena gainditzen badute, hitzarmen-proposamena aurkeztu ahal izango dute, lege honetan ezarritako denbora-, forma- eta edukibaldintzen arabera.

2. Ezin izango da inola ere hitzarmen-proposamenik aurkeztu konkurtsopekoak masa aktiboaren likidazioa eskatu badu.

316. artikulua. Hitzarmen-proposamena sinatzea.

1. Hitzarmen-proposamena idatziz egingo da, eta zordunak edo proposamena egin duten hartzekodun guztiek edo behar besteko ahalordea duten haien ordezkariak sinatuko dute.

2. Proposamenak hartzekodunen edo hirugarrenen kargurako konpromisoak jasotzen dituen ordainketak egiteko, bermeak edo finantzaketa emateko edo beste edozein betebeharrak bere gain hartzeko, horretaz gain, konpromiso-hartzaileek edo behar besteko ahalordea duten haien ordezkariak sinatu beharko dute, baita proposamenak bestelako edukia izan arren edo betebeharrak berri horiek onartzen dituzten hartzekodunei tratu berezia eman arren ere.

3. Proposamenaren sinadurak, eta, hala denean, ordezkari-izaeraren justifikazioa legitimatuta egon beharko dira.

mayorías necesarias para la aceptación de la propuesta de convenio.

2.º Los pagos a realizar tengan en cuenta las modificaciones pretendidas, quedando, no obstante, las cantidades correspondientes en la masa activa hasta que sea firme la resolución que decida sobre la modificación pretendida, salvo que garantice su devolución por aval o fianza suficiente.

TÍTULO VII

Del convenio

CAPÍTULO I

De la propuesta de convenio

Sección 1.ª De los proponentes

Artículo 315. Autoría de la propuesta de convenio.

1. El deudor y los acreedores cuyos créditos superen una quinta parte de la masa pasiva podrán presentar propuesta de convenio en las condiciones de tiempo, forma y contenido establecidas en esta ley.

2. En ningún caso podrá presentarse propuesta de convenio si el concursado hubiera solicitado la liquidación de la masa activa.

Artículo 316. Firma de la propuesta de convenio.

1. La propuesta de convenio se formulará por escrito y estará firmada por el deudor o por todos los acreedores proponentes, o por sus respectivos representantes con poder suficiente.

2. Cuando la propuesta contuviera compromisos a cargo de acreedores o de terceros para realizar pagos, prestar garantías o financiación o asumir cualquier otra obligación, deberá ir firmada, además, por los compromitentes o sus respectivos representantes con poder suficiente, incluso aunque la propuesta tuviera contenido alternativo o atribuya trato singular a los acreedores que acepten esas nuevas obligaciones.

3. Las firmas de la propuesta y, en su caso, la justificación de su carácter representativo, deberán estar legitimadas.



2. atala. Hitzarmen-proposamenaren edukia

1. azpiatala. Hitzarmen-proposamenari buruzko erregela orokorrak

317. artikulua. Hitzarmen-proposamenaren edukia.

1. Hitzarmen-proposamenak kitatzeko, itzaroteko edo kitatzeko eta itzaroteko proposamenak jaso beharko ditu. Itxaronaldia ezin izango da hamar urtetik gorakoa izan.
2. Hitzarmen-proposamenak jaso ahal izango ditu, hartzekodun guztientzat edo batzuentzat, edo hartzekodun mota jakin batzuentzat, hartzekodun publikoentzat izan ezik, proposatzaileak edo proposatzaileek komenigarritzat jotzen dituzten proposamen gehigarri guztiak, soil-soilik legeak ezarritako mugekin.
3. Hitzarmen-proposamenean, konkurtsopeko pertsona juridikoak bat egiteko, zatitzeko edo aktibo eta pasibo osoa lagatzeko aukera jaso ahal izango da.

318. artikulua. Debekuak.

1. Hitzarmen-proposamenak ez ditu inolaz ere honako hauek ekarriko:
 - 1.a Lege honetan ezarritako kredituen zenbatekoa aldatzea, izan ditzakeen kitaren edo kiten ondoreei kalterik egin gabe.
 - 2.a Lege honetan ezarritako kredituen sailkapena aldatzea.
2. Proposamena ezin izango da izan kredituak ordaintzeko masa aktiboaren likidazioa.

319. artikulua. Proposamen baldintzatuak.

1. Proposamenak hitzarmenaren efikazia edozein motatako baldintzapean jartzen badu, ulertuko da hura ez dela aurkeztu.
2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren salbuespen gisa, elkarri lotutako konkurtsoen kasuan, konkurtsopekoetako batek aurkezten duen proposamena baldintza daiteke beste batean edo batzuetan eduki jakin bat duen hitzarmen batek efikazia lor dezan.

320. artikulua. Interes-klausula duen proposamena.

Hitzarmen-proposamenak kita-proposamenik jasotzen ez duenean, konkURSO-deklarazioaren ondorioz sortutako interesak osorik edo zati batean ordaintzea jaso ahal izango du, legezko tasaren

Sección 2.^a Del contenido de la propuesta de convenio

Subsección 1.^a De las reglas generales sobre la propuesta de convenio

Artículo 317. Contenido de la propuesta de convenio.

1. La propuesta de convenio deberá contener proposiciones de quita, de espera o de quita y espera. La espera no podrá ser superior a diez años.
2. La propuesta de convenio podrá contener, para todos o algunos acreedores o para determinadas clases de acreedores, con excepción de los acreedores públicos, cuantas proposiciones adicionales considere convenientes el proponente o proponentes sin más limitaciones que las establecidas por la ley.
3. En la propuesta de convenio podrá incluirse la posibilidad de fusión, escisión o cesión global de activo y pasivo de la persona jurídica concursada.

Artículo 318. Prohibiciones.

1. En ningún caso la propuesta de convenio podrá suponer:
 - 1.º La alteración de la cuantía de los créditos establecida por esta ley, sin perjuicio de los efectos de la quita o quitas que pudiera contener.
 - 2.º La alteración de la clasificación de los créditos establecida por esta ley.
2. La propuesta no podrá consistir en la liquidación de la masa activa para satisfacción de los créditos.

Artículo 319. Propuestas condicionadas.

1. La propuesta que someta la eficacia del convenio a cualquier clase de condición se tendrá por no presentada.
2. Por excepción a lo dispuesto en el apartado anterior, en caso de concursos conexos, la propuesta que presente uno de los concursados podrá condicionarse a que en otro u otros adquiera eficacia un convenio con un contenido determinado.

Artículo 320. Propuesta con cláusula de intereses.

Cuando la propuesta de convenio no contenga proposiciones de quita podrá incluir el pago, total o parcial, de los intereses cuyo devengo hubiese quedado suspendido por efecto de la declaración de



arabera kalkulatuta, edo, txikiagoa bada, hitzarmenezkoaren arabera.

321. artikulua. Ahalmenak mugatuta dituen proposamena.

1. Hitzarmen-proposamenak neurri debekatzaille edo mugatzaileak jaso ahal izango ditu, zordunak masa aktiboaren ondasun eta eskubideen gaineko administratze- eta xedatze-ahalmenak egikari ditzan, hitzarmena betetzen den bitartean.

2. Debeku- eta muga-neurriak kasuan kasuko erregistro publikoan inskriba daitezke, eta, bereziki, neurri horiek ukitutako ondasun eta eskubideak zein erregistrotan inskribatuta egon eta halakoetan.

Inskripzioak ez du eragotziko aurkako egintzak erregistro publikoetan sartzea, baina egintza efikaziarik gabea dela deklaratzeko duen epaiak kalte egingo dio erregistroko edozein titularri.

322. artikulua. Hitzarmena betetzen den bitartean konkurtso-administrazioari eginkizunak esleitzen dizkion proposamena.

Hitzarmen-proposamenean, konkurtso-administrazioko edozein kideri edo laguntzaile eskuordeari esleitu ahal izango zaio, interesdunaren edo interesdunen alde aurreko baimenarekin, hitzarmena betetzen den bitartean eginkizun jakin batzuk betetzea, egokitzeak jotzen den ordainsaria finkatuta.

323. artikulua. Hitzarmen-proposamena, pribilegio bereziko kredituei atxikitako ondasunak edo eskubideak diru bihurtzeko aurreikuspenekin.

1. Hitzarmen-proposamenak pribilegio bereziko kredituei atxikitako ondasun edo eskubideak besterentzeko aurreikuspenak jaso ahal izango ditu; aurreikuspen horiek lege honetan horretarako ezarritako diru bihurtzeko moduak eta erregelak bete beharko dituzte.

2. Hitzarmenari lotutako hartzekodun pribilegiatuak ondasun edo eskubidea diru bihurtzearen ondoriozko zenbatekoa jaso beharko du, jatorrizko zorra gainditzen ez duen kopuruan, hitzarmenean aurreikusitakotik ondorioztatzen den moduan. Gerakinik badago, masa aktiboari egokituko zaio.

3. Hori eginda ez bada lortzen kreditua oso-osorik ordaintzea hitzarmeneko aurreikuspenen arabera, gainerakoa dagokion sailkapenaren arabera tratatuko da.

concurso, calculados al tipo legal o, si fuera menor, al convencional.

Artículo 321. Propuesta con limitación de facultades.

1. La propuesta de convenio podrá contener medidas prohibitivas o limitativas del ejercicio por el deudor de las facultades de administración y de disposición, durante el periodo de cumplimiento del convenio, sobre bienes y derechos de la masa activa.

2. Las medidas prohibitivas o limitativas serán inscribibles en los registros públicos correspondientes y, en particular, en los que figuren inscritos los bienes o derechos afectados por ellas.

La inscripción no impedirá el acceso a los registros públicos de los actos contrarios, pero perjudicará a cualquier titular registral la sentencia que declare la ineficacia del acto.

Artículo 322. Propuesta con atribución de funciones a la administración concursal durante el período de cumplimiento del convenio.

En la propuesta de convenio se podrá atribuir a cualquier miembro de la administración concursal o al auxiliar delegado, con el previo consentimiento del interesado o interesados, el ejercicio de funciones determinadas durante el período de cumplimiento del convenio, fijando la remuneración que se considere oportuna.

Artículo 323. Propuesta de convenio con previsiones para la realización de bienes o derechos afectos a créditos con privilegio especial.

1. La propuesta de convenio podrá contener previsiones para la enajenación de bienes o derechos afectos a créditos con privilegio especial, que deberán atenderse a los modos de realización y reglas establecidos al efecto en esta ley.

2. El acreedor privilegiado sujeto al convenio deberá recibir el importe que resulte de la realización del bien o derecho en cantidad que no exceda de la deuda originaria en los términos que resulten de las previsiones del convenio. Si hubiera remanente, corresponderá a la masa activa.

3. Si con dicha realización no se consiguiese la completa satisfacción del crédito en los términos que resulten de las previsiones del convenio, el resto será tratado con la clasificación que le corresponda.



2. azpiatala. Hitzarmen-proposamena, norberaren gain hartuta

324. artikulua. Hitzarmen-proposamena, norberaren gain hartuta.

1. Hitzarmen-proposamena izan daiteke pertsona fisiko edo juridiko batek, proposamenean bertan zehaztutakoak, eskuratzea dela konkurtsopekoaren lanbide- edo enpresa-jarduerari atxikitako masa aktiboko ondasun eta eskubide guztiak, dela ekoizpen-unitate jakin batzuk, eskuratzailerak bere gain hartuta jarduera horrekin jarraitzeko konpromisoa, proposamenean ezarritako gutxieneko denboran, eta konkurtsu-kreditu guztiak edo batzuk osorik edo zati batean ordaintzeko betebeharra izatea.

2. Ekoizpen-unitate bat edo batzuk hitzarmen-proposamenean zehaztutako eskuratzailerari eskualdatzeko, lege honetan horrelako eskualdaketetarako ezarritako erregelak bereziak bete beharko dira.

3. azpiatala. Hitzarmen-proposamenaren ordezkio edukia

325. artikulua. Ordezko edukia duen hitzarmen-proposamena.

Kitatzeko, itzaroteko edo kitatzeko eta itzaroteko proposamenez gain, hitzarmen-proposamenak beste edozein aukera jaso ahal izango du kreditu guztietarako edo batzuetarako edo kreditu mota batzuetarako, legeak ezarritakoez bestelako mugarik gabe, haiek ez baitiete inola ere hartzekodun publikoei eragingo.

326. artikulua. Hautatzeko ahalmena.

1. Ordezko edukia duen hitzarmen-proposamenean, hautatzeko ahalmena baliatzeko epea zehaztu beharko da, bai eta ahalmen hori erabili ezean aplikatu beharreko aukera ere.

2. Hautatzeko ahalmena baliatzeko epea ezin izango da hilabetetik gorakoa izan, hitzarmena onesten duen ebazpen judiziala irmoa den egunetik kontatzen hasita.

327. artikulua. Kreditu-bihurketarekin egindako hitzarmen-proposamena.

1. Ordezko edukia duen hitzarmen-proposamenean, beste aukera bat izan daiteke kredituak akzio, partaidetza edo kuota bihurtzea, edo konkurtsopeko sozietatearen beraren edo beste sozietate baten obligazio bihurtzea; edo kredituak

Subsección 2.ª De la propuesta de convenio con asunción

Artículo 324. La propuesta de convenio con asunción.

1. La propuesta de convenio podrá consistir en la adquisición por una persona natural o jurídica, determinada en la propia propuesta, bien del conjunto de bienes y derechos de la masa activa afectos a la actividad profesional o empresarial del concursado, bien de determinadas unidades productivas, con asunción por el adquirente del compromiso de continuidad de esa actividad durante el tiempo mínimo que se establezca en la propuesta, y de la obligación de pago, total o parcial, de todos o de algunos de los créditos concursales.

2. La transmisión de la unidad o de las unidades productivas al adquirente determinado en la propuesta de convenio estará sometida a las reglas especiales establecidas en esta ley para esta clase de transmisiones.

Subsección 3.ª Del contenido alternativo de la propuesta de convenio

Artículo 325. Propuesta de convenio con contenido alternativo.

Además de una proposición de quita, de espera o de quita y espera, la propuesta de convenio podrá contener cualesquiera otras alternativas para todos o algunos créditos o clases de créditos, sin más limitaciones que las establecidas por la ley, que en ningún caso afectarán a los acreedores públicos.

Artículo 326. Facultad de elección.

1. En la propuesta de convenio con contenido alternativo deberá determinarse el plazo para el ejercicio de la facultad de elección, así como la alternativa aplicable en caso de falta de ejercicio de esa facultad.

2. El plazo para el ejercicio de la facultad de elección no podrá ser superior a un mes a contar desde la fecha de la firmeza de la resolución judicial que apruebe el convenio.

Artículo 327. Propuesta de convenio con conversión de créditos.

1. En la propuesta de convenio de contenido alternativo se podrá incluir como una de las alternativas la conversión de los créditos en acciones, participaciones o cuotas o en obligaciones convertibles de la propia sociedad concursada o de



partaidetza-kreditu bihurtzea, gehienez ere hamar urterako, edo mendeko kreditu bihurtzea, interes kapitalizagarriak dituzten kreditu bihurtzea edo beste edozein finantza-tresna bihurtzea, haien ezaugarriak, maila edo epemuga ez badira jatorrizko kredituetan zeudenez bestelakoak.

2. Lan-kredituak bihurtzeko, kreditu horien titularren adostasun indibiduala galdatuko da.

328. artikulua. Hitzarmen-proposamena, kredituak akzio edo partaidetza sozial bihurtzeko.

1. Kredituak akzio edo partaidetza sozial bihurtu ahal izango dira, primarekin edo gabe, nahiz eta konpentsatu beharreko kredituak likidoak ez izan, mugaeguneratuta ez egon edo galdagarriak ez izan.

2. Bazkideen batzar orokorrak kapital soziala gehitzeko erabakia hartzeko, konkurtsokredituak konkurtsopeko sozietatearen akzio edo partaidetza bihurtzearen ondorioz, ez da beharrezkoa izango legeak edo estatutu sozialek ezarritako gehiengo indartua.

329. artikulua. Ordainean lagatzeko hitzarmen-proposamena.

1. Ordezko edukia duen hitzarmen-proposamenean, aukera horietako bat izan daiteke masa aktiboko ondasunak edo eskubideak hartzekodunei ordainean lagatzea.

2. Ordainean lagatuko masa aktiboaren ondasunak edo eskubideak ezin izango dira beharrezkoak izan konkurtsopekoaren lanbide- edo enpresa-jarduerarekin jarraitzeko.

3. Proposamenean, lege honetan ezarritakoaren arabera, lagatuko ondasun edo eskubideen arrazoizko balioa zehaztu beharko da.

4. Lagatuko ondasun eta eskubideen balioa azkentzen diren kredituen zenbatekoaren berdina edo txikiagoa izan beharko da. Handiago bada, lagapen-hartzaileak edo lagapen-hartzaileek masa aktiboan sartu beharko dute aldea.

5. Hartzekodun publikoei ez zaie inola ere ordainean lagatzeko beharra ezarriko.

330. artikulua. Hitzarmen-proposamena, akzioak edo itzultzearen ondoreak lagata.

Ordezko edukia duen hitzarmen-proposamenean, aukera horietako bat izan daiteke masa aktibora

otra sociedad, o la conversión de los créditos en créditos participativos por período no superior a diez años, en créditos subordinados, en créditos con intereses capitalizables o en cualquier otro instrumento financiero con características, rango o vencimiento distintos de aquellos que tuvieran los créditos originarios.

2. La conversión de los créditos laborales exigirá el consentimiento individual de los titulares de esos créditos.

Artículo 328. Propuesta de convenio con conversión de créditos en acciones o participaciones sociales.

1. La conversión de créditos en acciones o participaciones sociales, con o sin prima, podrá realizarse aunque los créditos a compensar no sean líquidos, no estén vencidos o no sean exigibles.

2. Para la adopción por la junta general de socios del acuerdo de aumentar el capital social por conversión de créditos concursales en acciones o participaciones de la sociedad concursada no será necesaria la mayoría reforzada establecida por la ley o por los estatutos sociales.

Artículo 329. Propuesta de convenio con cesión en pago.

1. En la propuesta de convenio de contenido alternativo se podrá incluir como una de esas alternativas la cesión en pago de bienes o derechos de la masa activa a los acreedores.

2. Los bienes o derechos de la masa activa objeto de cesión en pago no podrán ser los necesarios para la continuación de la actividad profesional o empresarial del concursado.

3. En la propuesta deberá determinarse, conforme a lo establecido en esta ley, cuál es el valor razonable de los bienes o derechos objeto de cesión.

4. El valor de los bienes y derechos objeto de cesión deberá ser igual o inferior al importe de los créditos que se extinguen. Si fuere superior, la diferencia se deberá integrar por el cesionario o cesionarios en la masa activa.

5. En ningún caso se impondrá la cesión en pago a los acreedores públicos.

Artículo 330. Propuesta de convenio con cesión de las acciones o de los efectos de la reintegración.

En la propuesta de convenio de contenido alternativo se podrá incluir como una de esas alternativas la



itzultzeko akzioak hartzekodun bati edo batzuei edo hartzekodun mota batzuei lagatzea.

3. atala. Ordainketa-plana eta bideragarritasun-plana

331. artikulua. Ordainketa-plana.

1. Hitzarmen-proposamenekin batera, ordainketa-plan bat aurkeztu beharko da.
2. Ordainketa-planean, hura betetzeko aurreikusitako baliabideez gainera, masa aktiboaren ondasun eta eskubide jakinak besterentzearen ondoriozkoak ere zehaztuko dira, kasua bada.

332. artikulua. Bideragarritasun-plana.

1. Hitzarmena betetzeko, lanbide- edo enpresa-jarduerari oso-osorik edo zati batean eustearen ondoriozko baliabideak kontuan hartzea pentsatu denean, proposamenarekin batera, ordainketa-planaz gainera, bideragarritasun-plana aurkeztuko da; plan horretan, behar diren baliabideak zehaztuko dira, bai eta haiek lortzeko modua eta baldintzak ere, eta, hala denean, adieraziko da hirugarrenek hartu dutela haiek emateko konpromisoa.
2. Hartzekodunek edo hirugarrenek konkurtsopekoari jardueraren jarraipena finantzatzeko ematen dizkioten kredituak hitzarmenean bertan ezarritako moduan ordainduko dira.

II. KAPITULUA

Proposamena aurkeztea eta izapidetzeko onartzea

1. atala. Proposamena aurkezteko unea

1. azpiatala. Hitzarmen-proposamenaren aurretiazko aurkezpena

333. artikulua. Hitzarmen-proposamena aurretiaz aurkeztea.

Zordunak aurretiazko hitzarmen-proposamena aurkeztu ahal izango dio epaileari, borondatezko konkurtsoa eskatzen denetik edo nahitaezko konkurtsoa deklaratzeko denetik, eta, bi kasuetan, kredituak komunikatzeko epea amaitu arte.

334. artikulua. Aurretiazko hitzarmen-proposamenari hasierako atxikimenduak egitea.

Aurretiazko hitzarmen-proposamena borondatezko konkurtso-eskaerarekin batera aurkezten denean, harekin batera edozein motatako hartzekodunen atxikimenduak aurkeztu beharko dira, haiek tresna publikoan mailegatu badira eta haien kredituak

cesión a uno o a varios acreedores o clases de acreedores de las acciones de reintegración de la masa activa.

Sección 3.ª Del plan de pagos y del plan de viabilidad

Artículo 331. El plan de pagos.

1. Las propuestas de convenio deberán presentarse acompañadas de un plan de pagos.
2. En el plan de pagos se determinarán, además, los recursos previstos para su cumplimiento, incluidos, en su caso, los procedentes de la enajenación de determinados bienes o derechos de la masa activa.

Artículo 332. El plan de viabilidad.

1. Cuando para el cumplimiento del convenio se prevea contar con los recursos que genere la continuación, total o parcial, del ejercicio de la actividad profesional o empresarial, la propuesta deberá ir acompañada, además del plan de pagos, de un plan de viabilidad en el que se especifiquen los recursos necesarios, los medios y condiciones de su obtención y, en su caso, los compromisos de su prestación por terceros.
2. Los créditos comprometidos por acreedores o terceros que se concedan al concursado para financiar la continuidad de la actividad se satisfarán en los términos fijados en el propio convenio.

CAPÍTULO II

De la presentación de la propuesta y de la admisión a trámite

Sección 1.ª Del momento de presentación de la propuesta

Subsección 1.ª De la presentación anticipada de la propuesta de convenio

Artículo 333. Presentación anticipada de la propuesta convenio.

El deudor podrá presentar ante el juez propuesta anticipada de convenio desde la solicitud de concurso voluntario o desde la declaración de concurso necesario y, en ambos casos, hasta la expiración del plazo de comunicación de créditos.

Artículo 334. Adhesiones iniciales a la propuesta anticipada de convenio.

Cuando la propuesta anticipada de convenio se presente con la propia solicitud de concurso voluntario, deberá ir acompañada de las adhesiones de acreedores de cualquier clase, prestadas en instrumento público, cuyos créditos alcancen la



zordunak aurkeztutako pasiboaren hamarrenera iristen badira. Gainerako kasuetan, aurretzako hitzarmen-proposamenaren atxikimenduek pasibo horren bostena gainditu beharko dute.

335. artikulua. Debekuak.

1. Hurrengo kasuetatik edozeinetan dagoen zordunak ezin izango du aurkeztu aurretzako hitzarmen-proposamena:

1.a Ondarearen aurkako edota ordena sozioekonomikoaren aurkako delituagatik, agiriak faltaztearen delituagatik, Ogasun Publikoaren, Gizarte Segurantzaren edo langileen eskubideen aurkako delituagatik epai irmoan kondenatua izan denak. Zorduna pertsona juridikoa bada, debeku-arrazoi berbera gertatuko da, administratzaile zein likidatzaileetako bat, edota hitzarmen-proposamena aurkeztu baino hiru urte lehenago administratzaile nahiz likidatzaile izan direnetako bat delitu horietatik edozeinengatik zigortuak izan badira.

2.a Azken hiru ekitaldietatik edozeinetan urteko kontuak gordailutzeko betebeharra bete ez duenak.

2. Aurretzako hitzarmen-proposamena izapidetzeko onartu ondoren, konkurtsopekoa debeku-arrazoiren batean erori bada edo aurretiaz horietatik edozeinetan erori dela egiaztatzen bada, epaileak ofizioz, konkurtso-administrazioak nahiz alderdi interesdunak hala eskatuta, eta, betiere, konkurtsopekoa entzun ondoren, deklaratu du proposamena ondorerik gabe geratzen dela, eta haren izapidetzea amaituko du.

336. artikulua. Beste proposamen bat aurkezteko edo aurretzako hitzarmen-proposamenari eusteko eskubidea.

1. Aurretzako hitzarmen-proposamena izapidetzeko onartzen ez bada edo epaileak hitzarmena onesten ez badu, konkurtsopekoak beste hitzarmen-proposamen bat aurkeztu ahal izango du.

2. Aurretzako hitzarmen-proposamenak ez badu lortzen onetsia izateko behar den konkurtso-pasiboaren gehiengoa, konkurtsopekoak proposamen horri eutsi edo aldatu ahal izango du, edo beste bat aurkeztu. Aurretzako hitzarmen-proposamenari eutsi dion konkurtsopekoak ezin izango du hitzarmen-proposamen berriak aurkeztu.

3. Aurretzako hitzarmen-proposamenaren aldaketa edo proposamen berria aurkeztu ahal izango dira personatutako hartzekodunei hartzekodunen behin betiko zerrenda edo inbentarioa agerian jartzen zaien egunera arte.

décima parte del pasivo presentado por el deudor. En los demás casos, las adhesiones a la propuesta anticipada de convenio deberán superar la quinta parte de ese pasivo.

Artículo 335. Prohibiciones.

1. No podrá presentar propuesta anticipada de convenio el deudor que se hallare en alguno de los siguientes casos:

1.º Haber sido condenado en sentencia firme por delito contra el patrimonio, contra el orden socioeconómico, de falsedad documental, contra la Hacienda Pública, la Seguridad Social o contra los derechos de los trabajadores. En caso de deudor persona jurídica, se dará esta causa de prohibición si alguno de sus administradores o liquidadores, o de quienes lo hubieran sido en los tres años anteriores a la presentación de la propuesta de convenio hubiera sido condenado por cualquiera de esos delitos.

2.º Haber incumplido en alguno de los tres últimos ejercicios la obligación del depósito de las cuentas anuales.

2. Si admitida a trámite la propuesta anticipada de convenio, el concursado incurriere en causa de prohibición o se comprobare que con anterioridad había incurrido en alguna de ellas, el juez de oficio, a instancia de la administración concursal o de parte interesada y, en todo caso, oído el concursado, declarará sin efecto la propuesta y pondrá fin a su tramitación.

Artículo 336. Derecho a presentar nueva propuesta o a mantener la propuesta anticipada de convenio.

1. Si la propuesta anticipada de convenio no fuera admitida a trámite o el convenio no fuera aprobado por el juez, el concursado podrá presentar nueva propuesta de convenio.

2. Si la propuesta anticipada de convenio, no obtuviera la mayoría del pasivo concursal necesaria para ser aprobada, el concursado podrá mantener o modificar esa propuesta o presentar otra nueva. El concursado que hubiere mantenido la propuesta anticipada de convenio no podrá presentar nueva propuesta de convenio.

3. La modificación de la propuesta anticipada de convenio o la nueva propuesta se podrán presentar hasta la fecha en que se pongan de manifiesto a los acreedores personados el inventario o la lista definitiva de acreedores.



2. azpiatala. Hitzarmen-proposamenaren aurkezpen arrunta

337. artikulua. Konkurtsopekoak hitzarmen-proposamena aurkeztea.

Behin kredituak komunikatzeko epea igarotakoan, eta inbentarioa eta hartzekodunen zerrenda aurkaratzeko epea amaitu arte, aurkaratzerik aurkeztu ez bada edo, aurkeztu bada, bulego judizialean pertsonatutako hartzekodunei agiri horien behin betiko testuak agerian jartzen zaizkien egunera arte, konkurtsopekoak hitzarmen-proposamena aurkeztu ahal izango du konkurtsoa izapidetzen ari den epaitegian.

338. artikulua. Hartzekodunek hitzarmen-proposamena aurkeztea.

Konkurtsopekoak ez badio eutsi aurretiazko hitzarmen-proposamenari, hartzekodunen behin betiko zerrendatik ateratzen den pasibo osoaren bostena, banaka edo batera, gainditzen duten kredituen hartzekodunak edo hartzekodunek hitzarmen-proposamena aurkeztu ahal izango dute konkurtsoa izapidetzen ari den epaitegian, aurreko artikuluan konkurtsopekoarentzat ezarritako epe berean.

339. artikulua. Hitzarmen-proposamena geroago aurkeztea.

Aurreko artikuluetan ezarritakoaren arabera hitzarmen-proposamenik aurkeztu ez bada, konkurtsopekoak edo hartzekodunak edo hartzekodunek, baldin eta hartzekodunen behin betiko zerrendatik ateratzen den pasibo osoaren bostena gainditzen badute banaka edo batera, hitzarmen-proposamena aurkeztu ahal izango dute batzarrerako deialdia egiten denetik batzarra egiteko eguna baino berrogei egun lehenago arte, edo, idatzizko izapidetzearen kasuan, atxikimenduak aurkezteko aurreikusitako epea baino hilabete lehenago arte.

340. artikulua. Hitzarmen-proposamenak ez aurkeztearen ondoreak.

Legeak ezarritako epeen barruan hitzarmen-proposamenik aurkeztu ez bada, edo, aurkeztu arren, proposamenetatik bat ere izapidetzeko onartu ez bada, epaileak, ofizioz, masa aktiboaren likidazio-fasea irekitzea erabakiko du.

Subsección 2.^a De la presentación ordinaria de la propuesta de convenio

Artículo 337. Presentación de la propuesta de convenio por el concursado.

Una vez transcurrido el plazo de comunicación de créditos y hasta la finalización del plazo de impugnación del inventario y de la lista de acreedores si no se hubiesen presentado impugnaciones o, de haberse presentado, hasta la fecha en que se pongan de manifiesto a los acreedores personados en la oficina judicial los textos definitivos de aquellos documentos, el concursado podrá presentar propuesta de convenio ante el juzgado que tramite el concurso.

Artículo 338. Presentación de la propuesta de convenio por los acreedores.

Cuando el concursado no hubiera mantenido la propuesta anticipada de convenio, el acreedor o los acreedores cuyos créditos, individual o conjuntamente, superen una quinta parte del total pasivo resultante de la lista definitiva de acreedores podrán presentar propuesta de convenio, dentro del mismo plazo establecido para el concursado en el artículo anterior, ante el juzgado que tramite el concurso.

Artículo 339. Presentación posterior de la propuesta de convenio.

Cuando no se hubieran presentado propuesta o propuestas de convenio conforme a lo establecido en los artículos anteriores, el concursado o el acreedor o acreedores cuyos créditos, individual o conjuntamente, superen una quinta parte del total pasivo resultante de la lista definitiva de acreedores podrán presentar propuesta de convenio desde la convocatoria de la junta hasta cuarenta días antes de la fecha señalada para su celebración o, en caso de tramitación escrita, hasta un mes anterior al plazo previsto para la presentación de adhesiones.

Artículo 340. Efectos de la falta de presentación de propuestas de convenio.

Cuando no se hubiera presentado dentro de los plazos establecidos por la ley ninguna propuesta de convenio o, habiéndose presentado, no se hubiera admitido a trámite ninguna de las propuestas, el juez, de oficio, acordará la apertura de la fase de liquidación de la masa activa.



2. atala. Hitzarmen-proposamena izapidetzeko onartzea

341. artikulua. Hitzarmen-proposamena helaraztea.

1. Justizia Administrazioaren letraduak konkurtsoan pertsonatutako alderdiei helaraziko die edo dizkie aurkeztutako proposamena edo proposamenak.
2. Hitzarmena aurretiaz proposatzen bada, interesdunak pertsonatutzat jotzen diren ebazpen bakoitzean helaraziko da.
3. Proposamenaren helarazpena ez zaie egingo proposamenari atxiki zaizkion hartzekodunei.

342. artikulua. Hitzarmen-proposamena izapidetzeko onartzea.

1. Epaileak hitzarmen-proposamena edo proposamenak izapidetzeko onartuko ditu, baldin eta lege honetan ezarritako denborari, forma eta edukiari buruzko baldintzak betetzen badituzte.
2. Hitzarmen-proposamenak aurreikusten badu hirugarren batek eskuratzea konkurtsopekoaren lanbide- edo enpresa-jarduerari atxikitako masa aktiboko ondasun eta eskubide guztiak, edo ekoizpen-unitate jakin batzuk, eta eskuratzailerak jarduera horrekin jarraitzeko konpromisoa hartzen badu, ezin izango da izapidetzeko onartu langileen ordezkariet aldez aurretik entzun gabe.
3. Konkurtsopekoak likidazioa eskatu badu, aurkeztutako proposamena edo proposamenak ez dira izapidetzeko onartuko.

343. artikulua. Izapidetzeko onartzeko modua eta unea.

1. Aurretiazko hitzarmen-proposamena aurkeztu denean borondatezko konkurtso-eskaerarekin batera edo epaileak hori deklaratu aurretik, epaile horrek konkurtsoa deklaratzeko autoan bertan ebartziko du proposamena izapidetzeko onartzen duen edo ez. Aurretiazko hitzarmen-proposamena konkurtso-deklarazioaren ondoren aurkeztu bada, epaileak auto bidez ebartziko du hura izapidetzeko onartzeari buruz, eta aurkeztu eta hurrengo hiru egunen barruan emango du auto hori.
2. Konkurtsopekoak edo hartzekodunek hitzarmen-proposamena modu arruntean aurkezten dutenean, epaileak auto bidez ebartziko du aurkeztutakoak izapidetzeko onartu diren ala ez, aurkeztu eta hurrengo bost eguneko epearen barruan.

Sección 2.ª De la admisión a trámite de la propuesta de convenio

Artículo 341. Traslado de la propuesta de convenio.

1. El Letrado de la Administración de Justicia dará traslado a las partes personadas en el concurso de la propuesta o propuestas presentadas.
2. En el caso de propuesta anticipada de convenio, el traslado se efectuará en cada una de las resoluciones por las que se tenga por personados a los interesados.
3. El traslado de la propuesta no procederá a aquellos acreedores que se hubieran adherido a la propuesta.

Artículo 342. Admisión a trámite de la propuesta de convenio.

1. El juez admitirá a trámite la propuesta o las propuestas de convenio si cumplieran las condiciones de tiempo, forma y contenido establecidas en esta ley.
2. Si la propuesta de convenio previera la adquisición por un tercero bien del conjunto de bienes y derechos de la masa activa afectos a la actividad profesional o empresarial del concursado, bien de determinadas unidades productivas, con asunción por el adquirente del compromiso de continuidad de esa actividad, no podrá admitirse a trámite sin la previa audiencia de los representantes de los trabajadores.
3. Si el concursado hubiera solicitado la liquidación, no procederá la admisión a trámite de la propuesta o propuestas que se hubieran presentado.

Artículo 343. Forma y momento de la admisión a trámite.

1. Cuando la propuesta anticipada de convenio se hubiera presentado con la solicitud de concurso voluntario o antes de la declaración judicial de este, el juez resolverá sobre su admisión a trámite en el mismo auto de declaración de concurso. Cuando la propuesta anticipada de convenio se hubiera presentado después de la declaración de concurso, el juez resolverá sobre su admisión a trámite mediante auto, que dictará dentro de los tres días siguientes al de la presentación.
2. En los casos de presentación ordinaria de la propuesta de convenio por el concursado o por los acreedores, el juez, dentro de los cinco días siguientes al de la presentación, resolverá mediante auto sobre la admisión a trámite de cada una de las presentadas.



344. artikulua. Hitzarmen-proposamenaren akatsak.

1. Aurkeztutako hitzarmen-proposamenean edo -proposamenean akatsen bat hautematen bada, epaileak, izapidetzeko onartzeko ezarritako epe beraren barruan, xedatuko du jakinaraztea konkurtsokoari eta, hala denean, hartzekodunei, jakinarazi eta hurrengo hiru egunen barruan zuzendu ahal izan dezaten.

2. Epaileak errefusatu egingo du aurretiazko hitzarmen-proposamena izapidetzeko onartzea, zorduna debekuren batean dagoenean edo lege honetan ezarritako moduan aurkeztutako atxikimenduak ez direnean iristen galdutako pasiboaren proportziora.

345. artikulua. Errekurtsoak.

1. Aurretiazko hitzarmen-proposamen bat izapidetzeko onartzeari buruz ebazten duen erabaki judizialaren aurka ezin izango da errekurtsorik jarri.

2. Gainerako proposamenak izapidetzeko onartzeari buruz ebazten duen erabaki judizialaren aurka, berraztertze-errekurtsoa baino ezin izango da jarri. Ezingo da errekurtsorik jarri berraztertze-errekurtsoa ebazten duen autoaren aurka, baina alderdiek arazoa errepikatu ahal izango dute apelaziorik hurbilenean, baldin eta bost eguneko epean protesta egin badute.

346. artikulua. Hitzarmen-proposamena aldatzeko edo errebokatze debekua.

Hitzarmen-proposamenak ezin izango dira aldatu, ezta errebokatu ere, izapidetzeko onartu ondoren, baina konkurtsokoak edozein unetan utzi ahal izango ditu ondorerik gabe, masa aktiboa likidatzeko eskaeraren bidez. Salbu geratzen da aurretiazko hitzarmen-proposamenari buruz ezarritakoa.

III. KAPITULUA

Hitzarmen-proposamenaren ebaluazioa

347. artikulua. Konkurtso-administrazioak hitzarmen-proposamena ebaluatzea.

1. Edozein hitzarmen-proposamen izapidetzeko onartzen duen ebazpenean, hura konkurtso-administrazioari helaraztea erabakiko da, hamar eguneko epe luzaezinean proposamenaren ebaluazioa aurkez dezan.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaren salbuespen gisa, ez da beharrezkoa izango konkurtsokoak eustea erabaki duen aurretiazko hitzarmen-proposamenaren ebaluazio berria egitea.

Artículo 344. Defectos de la propuesta de convenio.

1. De apreciar algún defecto en la propuesta o propuestas de convenio presentadas, el juez, dentro del mismo plazo establecido para la admisión a trámite, dispondrá que se notifique al concursado y, en su caso, a los acreedores para que dentro de los tres días siguientes al de la notificación puedan subsanarlo.

2. El juez rechazará la admisión a trámite de la propuesta anticipada de convenio cuando el deudor estuviere incurso en alguna prohibición o cuando las adhesiones presentadas en la forma establecida en esta ley no alcancen la proporción del pasivo exigida.

Artículo 345. Recursos.

1. Contra el pronunciamiento judicial que resolviera sobre la admisión a trámite de una propuesta anticipada de convenio no se dará recurso alguno.

2. Contra el pronunciamiento judicial que resolviera sobre la admisión a trámite de las demás propuestas solo podrá interponerse recurso de reposición. Contra el auto resolutorio del recurso de reposición no cabrá recurso alguno, pero las partes podrán reproducir la cuestión en la apelación más próxima siempre que hubieren formulado protesta en el plazo de cinco días.

Artículo 346. Prohibición de modificar o revocar la propuesta de convenio.

Las propuestas de convenio no podrán modificarse ni revocarse una vez hayan sido admitidas a trámite, pero el concursado podrá dejarlas sin efecto en cualquier momento mediante la solicitud de la liquidación de la masa activa. Queda a salvo lo establecido respecto de la propuesta anticipada de convenio.

CAPÍTULO III

De la evaluación de la propuesta de convenio

Artículo 347. Evaluación de la propuesta de convenio por la administración concursal.

1. En la resolución que admita a trámite cualquier propuesta de convenio se acordará dar traslado de la misma a la administración concursal para que, en el plazo improrrogable de diez días, presente evaluación de la propuesta.

2. Por excepción a lo establecido en el apartado anterior, no será necesaria nueva evaluación de la propuesta anticipada de convenio que el concursado hubiera decidido mantener.



348. artikulua. Hitzarmen-proposamenaren ebaluazioaren edukia.

1. Konkurtso-administrazioak hitzarmen-proposamenaren edukia ebaluatuko du, ordainketa-planari dagokionez eta, hala badagokio, harekin batera doan bideragarritasun-planarekin batera.
2. Ebaluazioak proposatutako hitzarmena betetzearen bideragarritasunari buruz aldeko iritzia jaso beharko du, erreserbekin edo erreserbarik gabe, edo kontrakoa.

349. artikulua. Ebaluazioa hartzekodunei komunikatzea.

2. Beharrezkoa denean, epaileak hitzarmeneko klausulen interpretazio zuzena finkatu ahal izango du.

389. artikulua. Hitzarmenaren onespén judiziala.

Onespenari aurka egiteko epea amaitu eta hurrengo bost egunen barruan, aurka egin ez bazaio, edo intzidentea izapidetu eta hamar eguneko epearen barruan, halakorik egin bada, epaileak hitzarmena onesteko edo ezesteko epaia emango du. Epaileak onesten duen autoan oso-osorik jaso beharko du onetsitako hitzarmena.

390. artikulua. Oneste-epaiaren publizitatea.

Hitzarmena onesten duen epaiari konkurtso-deklarazioaren autoaren publizitate bera emango zaio.

391. artikulua. Aurkakotza baiesten duen epaia.

1. Epaiak baietsi badu hitzarmen-edukiari buruzko lege-haustean edo hitzarmena betetzeari buruzko bideraezintasun objektiboan oinarritutako aurkakotza, epaiak hitzarmena errefusatu dela deklaratu du. Horren aurka apelazio-errekurtsoa jarri ahal izango da.
2. Epaiak baiesten badu batzarra eratzearen edo egitearen arloko lege-haustearen ondoriozko aurkakotza, epaileak erabakiko du Justizia Administrazioaren letraduak hartzekodunen beste batzar bat deitzea, lege honetan ezarritako publizitate-

Artículo 387. Medidas cautelares durante la tramitación de la oposición.

El juez, al admitir a trámite la oposición y emplazar a las demás partes para que contesten, podrá tomar cuantas medidas cautelares procedan para evitar que la demora derivada de la tramitación de la oposición impida, por sí sola, el cumplimiento futuro del convenio aceptado, en caso de desestimarse la oposición. Entre tales medidas cautelares podrá acordar que se inicie el cumplimiento del convenio aceptado, bajo las condiciones provisionales que determine.

Sección 3.^a De la aprobación judicial del convenio

Artículo 388. Facultades del juez en orden a la aprobación del convenio.

1. El juez no podrá modificar el contenido del convenio sometido a su aprobación, aunque sí podrá subsanar errores materiales o de cálculo.
2. Cuando fuera necesario, el juez podrá fijar la correcta interpretación de las cláusulas del convenio.

Artículo 389. Aprobación judicial del convenio.

Dentro de los cinco días siguientes al del vencimiento del plazo para oponerse a la aprobación, sin que se hubiere formulado oposición, o dentro del plazo de diez días una vez tramitado el incidente, si se hubiera formulado, el juez dictará sentencia aprobando o rechazando el convenio. En el auto en que se apruebe el juez deberá incluir íntegramente el convenio aprobado.

Artículo 390. Publicidad de la sentencia aprobatoria.

A la sentencia por la que se apruebe el convenio se le dará la misma publicidad que a la del auto de declaración de concurso.

Artículo 391. Sentencia estimatoria de la oposición.

1. La sentencia que estime la oposición por infracción legal en el contenido del convenio o por inviabilidad objetiva de su cumplimiento declarará rechazado el convenio. Contra la misma podrá interponerse recurso de apelación.
2. Si la sentencia estimase la oposición por infracción legal en la constitución o en la celebración de la junta, el juez acordará que el Letrado de la Administración de Justicia convoque nueva junta de acreedores con los mismos requisitos de publicidad y antelación que los establecidos en esta ley. La junta



eta aurrerapen-baldintza berberekin. Epaia eman eta hurrengo hilabetean egin beharko da batzarra.

Batzar horretan eztabaidatu eta bozkatuko da aurreko batzarrean gehiengo hartu duen hitzarmen-proposamena, eta, hura errefusatu izanez gero, izapidetzeko onartu diren gainerako proposamen guztiak eztabaidatu eta bozkatuko dira, lege honetan ezarritako hurrenkeraren arabera.

Epaiak baiesten badu idatzizko izapidean arau-haustearen ondoriozko aurka-jartzea, epaileak erabaki ahal izango du Justizia Administrazioaren letraduak batzarrerako deialdia egitea, aurreko baldintzetan, edo beste idatzizko izapidetze bat egitea, epaia eman eta hogeita hamar eguneko epean, gehienez ere.

392. artikulua. Onartutako hitzarmena ofizioz errefusatzeari.

1. Epaileak, aurka egin bazaio edo ez, ofizioz errefusatu du hartzekodunek onartutako hitzarmena, baldin eta hautematen badu lege honek hitzarmenaren edukiari, atxikimenduen forma eta edukiari, idatzizko izapidetzeari edo batzarraren eraketari eta haiek egiteari buruz ezarritako arauetatik bat urratu dela.

2. Hautemandako arau-haustea zenbait atxikimenduen forma eta edukia ukitzen baditu, epaileak, auto bidez, hilabeteko epea emango du atxikimendu horiek egin daitezkeen legean ezarritako betekizunekin eta bertan jarri moduan, eta, behin epe hori igarota, ebazpen egokia emango du.

3. Hautemandako arau-haustea batzarra eratzeari edo egiteari eragiten badiu, epaileak autoa emango du, Justizia Administrazioaren letraduak beste batzar baterako deia egin dezan, lege honetan ezarritako publikotasun- eta aurrerapen-betekizun berberekin. Batzarra ebazpen judiziala eman eta hurrengo hilabetean egin beharko da.

4. Hautemandako arau-haustea hitzarmenaren idatzizko izapidetzeari buruzko erregelari eragiten badie, epaileak erabakiko du idazkari judizialak batzarrerako deialdia egitea, aurreko apartatuan adierazitako moduan, edo beste idatzizko izapidetze bat egitea, autoaren datatik gehienez hilabeteko epean.

habrá de celebrarse dentro del mes siguiente a la fecha de la sentencia.

En esta junta se someterá a deliberación y voto la propuesta de convenio que hubiese obtenido mayoría en la anterior y, de resultar rechazada, se someterá a deliberación y voto, por el orden establecido en esta ley, todas las demás propuestas admitidas a trámite.

Si la sentencia estimase la oposición por infracción en la tramitación escrita el juez podrá acordar que el Letrado de la Administración de Justicia convoque junta en los términos anteriores o que se proceda a nueva tramitación escrita por un plazo no superior a treinta días desde la fecha de la sentencia.

Artículo 392. Rechazo de oficio del convenio aceptado.

1. El juez, haya sido o no formulada oposición, rechazará de oficio el convenio aceptado por los acreedores si apreciare que se ha infringido alguna de las normas que esta ley establece sobre el contenido del convenio, sobre la forma y el contenido de las adhesiones y sobre la tramitación escrita o la constitución de la junta y su celebración.

2. Si la infracción apreciada afectase a la forma y contenido de algunas de las adhesiones, el juez, mediante auto, concederá el plazo de un mes para que aquellas se formulen con los requisitos y en la forma establecidos en la ley, transcurrido el cual dictará la oportuna resolución.

3. Si la infracción apreciada afectase a la constitución o a la celebración de la junta, el juez dictará auto acordando que el Letrado de la Administración de Justicia convoque nueva junta, con los mismos requisitos de publicidad y de antelación que los establecidos en esta ley. La junta habrá de celebrarse dentro del mes siguiente a la fecha de la resolución judicial.

4. Si la infracción apreciada afectase a las reglas sobre la tramitación escrita del convenio, el juez acordará que el secretario judicial convoque junta en los términos expresados en el apartado anterior o que se proceda a nueva tramitación escrita por un plazo no superior a un mes desde la fecha del auto.



VI. KAPITULUA

Hitzarmenaren efikazia

393. artikulua. Hitzarmenaren efikazia hastea.

1. Hitzarmenak efikazia izango du hura onesten duen epaiaren datatik aurrera.
2. Aurreko apartatuan ezarritakoa gorabehera, epaileak, hitzarmenaren edukia dela-eta, efikazia hori atzeratzea erabaki ahal izango du, ofizioz edo alderdiak hala eskatuta, oneste-epaia irmo bihurtzen den egunera arte. Hitzarmenaren efikazia atzeratzea partzialki erabaki ahal izango da.

394. artikulua. Konkurtso-deklarazioaren ondoreak amaitzea.

1. Hitzarmenaren efikaziatik aurrera, konkurtso-deklarazioaren ondore guztiak amaituko dira, eta haien orde, hala denean, hitzarmenean bertan ezarritakoak jarriko dira.
2. Prozedura amaitu arte iraungo dute laguntzeko eta informazioa emateko eginbeharrek.

395. artikulua. Konkurtso-administrazioak bere jarduna amaitzea.

1. Hitzarmena efikaza denetik, konkurtso-administrazioak bere jarduna amaituko du.
2. Konkurtso-administrazioak bere jardunaren kontuak emango dizkio konkurtsoko epaileari, horrek zehaztutako epean.
3. Jardunaren amaiera gorabehera, konkurtso-administrazioak legitimazio osoa izango du aribidean dauden intzidenteekin jarraitzeko, bai eta seigarren atalean jarduteko ere, intzidente horietan ematen diren epaiak eta kalifikazio-epaia behin-behinean edo behin betiko exekutatzeko eskatzeko ahalmenekin.

396. artikulua. Hitzarmenaren beharrezko hedatzea.

1. Hitzarmenaren edukia zorduna eta hartzekodun arrunt eta mendekoak lotetsiko ditu, konkurtso-deklarazioa baino lehenagokoak diren mota horretako kredituei dagokienez, nahiz eta haiek hitzarmen-proposamenari atxiki ez edo horren aldeko botoa eman ez, edo, edozein arrazoiengatik, haiek aitortu ez.
2. Hitzarmenean hartzekodun arruntentzat ezarritako kita eta itxaronaldi berberak ukituko dituzte mendeko hartzekodunak ere, baina itxaronaldi-epeak hitzarmena oso-osorik betetzen denetik zenbatuko dira, azken horiei begira. Salbu geratzen dira mendeko

CAPÍTULO VI

De la eficacia del convenio

Artículo 393. Comienzo de la eficacia del convenio.

1. El convenio adquirirá eficacia desde la fecha de la sentencia que lo apruebe.
2. No obstante lo establecido en el apartado anterior, el juez, por razón del contenido del convenio, podrá acordar, de oficio o a instancia de parte, retrasar esa eficacia a la fecha en que la sentencia de aprobación alcance firmeza. El retraso de la eficacia del convenio podrá acordarse con carácter parcial.

Artículo 394. Cesación de los efectos de la declaración de concurso.

1. Desde la eficacia del convenio cesarán todos los efectos de la declaración de concurso, que quedarán sustituidos por los que, en su caso, se establezcan en el propio convenio.
2. Los deberes de colaboración e información subsistirán hasta la conclusión del procedimiento.

Artículo 395. Cese de la administración concursal.

1. Desde la eficacia del convenio cesará la administración concursal.
2. La administración concursal rendirá cuentas de su actuación ante el juez del concurso dentro del plazo que este señale.
3. No obstante el cese, la administración concursal conservará plena legitimación para continuar los incidentes en curso así como para actuar en la sección sexta, con facultades para solicitar la ejecución provisional o definitiva de las sentencias que se dicten en esos incidentes y de la sentencia de calificación.

Artículo 396. Extensión necesaria del convenio.

1. El contenido del convenio vinculará al deudor y a los acreedores ordinarios y subordinados, respecto de los créditos de cualquiera de estas clases que fuesen anteriores a la declaración de concurso, aunque no se hubieran adherido a la propuesta de convenio o votado a favor de ella, o aunque, por cualquier causa, no hubiesen sido reconocidos.
2. Los acreedores subordinados quedarán afectados por las mismas quitas y esperas establecidas en el convenio para los ordinarios, pero los plazos de espera se computarán a partir del íntegro cumplimiento del convenio respecto de estos últimos. Quedan a salvo los efectos que pueda



hartzekodunek hautatzeko ahalmena baliatzeak sor ditzakeen ondoreak.

397. artikulua. Hitzarmena kreditu pribilegiatuetara hedatzea.

1. Hartzekodun pribilegiatuak epaileak onetsitako hitzarmenari lotuta geratuko dira, baldin eta proposamenaren egile izan badira edo hari atxiki bazaizkio, salbu eta atxikimendua errebotatu badute, edo haren aldeko botoa eman badute, bai eta hartzekodunek jada onartu duten edo epaileak onetsi duen hitzarmenari modu egokian atxikitzen bazaizkio ere, hura betetzeko deklarazio judiziala egin aurretik.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoari kalterik egin gabe, hartzekodun pribilegiatuak hitzarmenari lotuta geratuko dira, halaber, dagokien mota berean gehiengo hauek lortu direnean:

1.a Mota horretako kreditu pribilegiatuen zenbatekoaren ehuneko hirurogei, baldin eta hitzarmena kredituak osorik hiru urtetik beherako epean ordaintzean badatza, edo mugaeguneratutako kredituak berehala ordaintzean ehuneko hogeitik beherako kitarekin; edo kredituaren zenbatekoaren erdia edo hortik beherako kitak dituen; itxaronaldien kasuan, nagusiarenak, interesenak edo zor den beste edozein kopururenak, epe batekin, gehienez bost urtekoa; edo, hartzekodun publikoak edo lan-hartzekodunak ez diren hartzekodunen kasuan, kredituak partaidetza-kreditu bihurtzea epe berean.

2.a Mota bereko kreditu pribilegiatuen zenbatekoaren ehuneko hirurogeita hamabost, bestelako edukia duten hitzarmenetan.

Pribilegio berezia duten hartzekodunen kasuan, gehiengoa kalkulatzeko, mota bakoitzaren barruan emandako bermeen balio osoaren gainean berme onartzaileen proportzioa hartuko da kontuan.

Pribilegio orokorra duten hartzekodunen kasuan, gehiengoa kalkulatzeko, mota bakoitzaren barruan pribilegio orokorra duen pasiboaren osoaren gainean onartutako pasiboa hartuko da kontuan.

398. artikulua. Hitzarmenaren efikazia objektiboa.

Kreditu arruntak eta mendeko kredituak kitak hartzen duen zatian geratuko dira azkenduta, itxaronaldiaren ondorioz galdagarritasunean geroratuta, eta, oro har, hitzarmenaren edukiak eraginda. Erregela bera aplikatuko zaie hitzarmenaren efikazia duten kreditu pribilegiatuei.

producir el ejercicio de la facultad de elección por los acreedores subordinados.

Artículo 397. Extensión del convenio a los créditos privilegiados.

1. Los acreedores privilegiados quedarán vinculados al convenio aprobado por el juez si hubieren sido autores de la propuesta o si se hubieran adherido a ella, salvo que hubieran revocado la adhesión, o si hubieran votado a favor de la misma, así como si se adhieren en forma al convenio ya aceptado por los acreedores o aprobado por el juez antes de la declaración judicial de su cumplimiento.

2. Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior, los acreedores privilegiados quedarán también vinculados al convenio cuando, dentro de la misma clase a la que pertenezcan, se hubieran obtenido las siguientes mayorías:

1.º El sesenta por ciento del importe de los créditos privilegiados de la misma de la clase, cuando el convenio consista en el pago íntegro de los créditos en plazo no superior a tres años o en el pago inmediato de los créditos vencidos con quita inferior al veinte por ciento; o cuando contenga quitas iguales o inferiores a la mitad del importe del crédito; esperas, ya sean de principal, de intereses o de cualquier otra cantidad adeudada, con un plazo no superior a cinco años; o, en el caso de acreedores distintos de los públicos o los laborales, la conversión de los créditos en créditos participativos durante el mismo plazo.

2.º El setenta y cinco por ciento del importe de los créditos privilegiados de la misma clase, en los convenios que tuvieran otro contenido.

En el caso de acreedores con privilegio especial, el cómputo de las mayorías se hará en función de la proporción de las garantías aceptantes sobre el valor total de las garantías otorgadas dentro de cada clase.

En el caso de los acreedores con privilegio general, el cómputo se realizará en función del pasivo aceptante sobre el total del pasivo que se beneficie de privilegio general dentro de cada clase.

Artículo 398. Eficacia objetiva del convenio.

Los créditos ordinarios y los créditos subordinados quedarán extinguidos en la parte a que alcance la quita, aplazados en su exigibilidad por el tiempo de espera y, en general, afectados por el contenido del convenio. La misma regla será de aplicación a aquellos créditos privilegiados a los que se extienda la eficacia del convenio.



399. artikulua. Eskubideen kontserbazioa.

1. Hitzarmenak ez du ondorerik sortuko hartzekodunek konkurtsopekoarekin solidarioak diren betebeharpkeen aurrean dituzten eskubideei dagokienez, ez eta fidatzaile edo abal-emaileen aurrean dituzten eskubideei dagokienez ere, salbu eta hartzekodun horiek proposamenaren egile izan direnean, proposamenarekin bat egin dutenean, salbu eta atxikimendua errebokatu badute, edo horren aldeko botoa eman dutenean. Betebeharpeko solidarioek, fidatzaileek eta abal-emaileek ezin izango dute eskatu ez hitzarmenaren onespena, ez hitzarmenaren edukia, haien kaltetan.

2. Konkurtsopekoaren betebeharpeko solidario, fidatzaile edo abal-emaileek proposamenaren egile izan diren hartzekodunen, proposamenari atxiki zaizkionen –atxikimendua errebokatu dutenean izan ezik– edo haren aldeko botoa eman dutenen aurrean duten erantzukizuna arautuko da gai horri buruz ezarritako itunen bidez, eta, halakorik izan ezean, hartu duten betebeharrari aplikagarriak diren legezko arauen arabera.

VII. KAPITULUA

Hitzarmena betetzea

1. atala. Hitzarmena betetzea

400. artikulua. Aldizkako informazioa.

Sei hilean behin, hitzarmena onesten duen epaiaren efikazia osoaren edo partzialaren datatik kontatzen hasita, konkurtsopekoak konkurtsoko epaileari hitzarmenaren betetzearen berri emango dio.

401. artikulua. Betetzea.

1. Konkurtsopekoak uste duenean hitzarmena oso-oso bete duela, konkurtsoko epaileari kasuan kasuko txostena aurkeztuko dio justifikazio egokiarekin, eta betetzearen deklarazio judiziala eskatuko dio. Justizia Administrazioaren letraduak erabakiko du txostena eta eskaera bulego judizialean agerian jartzea.

2. Agerian jartzen direnetik hamabost egun igarota, epailearen iritziz hitzarmena bete bada, halaxe deklaratuko du auto bidez, eta epaileak horri onspenaren publizitate bera emango dio.

Artículo 399. Conservación de derechos.

1. El convenio no producirá efectos respecto de los derechos de los acreedores frente a los obligados solidarios con el concursado ni frente a los fiadores o avalistas, salvo que esos acreedores hubiesen sido autores de la propuesta, se hubieran adherido a ella, salvo que hubieran revocado la adhesión, o hubieran votado a favor de la misma. Los obligados solidarios, los fiadores y los avalistas no podrán invocar la aprobación del convenio ni el contenido de este en perjuicio de aquellos.

2. La responsabilidad de los obligados solidarios, fiadores o avalistas del concursado frente a los acreedores que hubiesen sido autores de la propuesta, se hubieran adherido a ella, salvo que hubieran revocado la adhesión, o hubieran votado a favor de la misma se regirá por los pactos que sobre el particular hubieran establecido y, en su defecto, por las normas legales aplicables a la obligación que hubieren contraído.

CAPÍTULO VII

Del cumplimiento del convenio

Sección 1.ª Del cumplimiento del convenio

Artículo 400. Información periódica.

Con periodicidad semestral, contada desde la fecha de eficacia total o parcial de la sentencia aprobatoria del convenio, el concursado informará al juez del concurso acerca de su cumplimiento.

Artículo 401. Cumplimiento.

1. El concursado, una vez que estime íntegramente cumplido el convenio, presentará al juez del concurso el informe correspondiente con la justificación adecuada y solicitará la declaración judicial de cumplimiento. El Letrado de la Administración de Justicia acordará poner de manifiesto en la oficina judicial el informe y la solicitud.

2. Transcurridos quince días desde la puesta de manifiesto, el juez, si estimare cumplido el convenio, lo declarará mediante auto, al que dará la misma publicidad que la de su aprobación.



2. atala. Hitzarmena ez betetzea

402. artikulua. Ez-betetzearen deklarazioa eskatzeko legitimazioa.

1. Edozein hartzekodunek uste badu hitzarmena ez dela bete berari dagokion zatian, epaileari eskatu ahal izango dio ez-betetzearen deklarazioa.
2. Hitzarmena bete bitartean, zordunak masa aktiboaren ondasunak eta eskubideak administratzeko eta xedatzeko ahalmenak egikaritzea debekatzeko edo mugatzeko neurriak urratzea hitzarmena ez betetzea izango da, eta edozein hartzekodunek eskatu ahal izango dio hori epaileari.

403. artikulua. Ez-betetzea eskatzeko eta deklaratzeko araubidea.

1. Hitzarmena ez betetzearen deklarazioa eskatzeko akzioa egikaritu ahal izango da ez-betetzea gertatzen denetik, eta betetze-autoa azkenekoz argitaratu eta bi hilabetera iraungiko da.
2. Hitzarmena ez dela bete deklaratzeko demanda konkurtso-intzidentearen bidetik izapidetuko da.
3. Baietsiz gero, hitzarmena ez betetzeari buruzko deklarazioan, epaileak suntsiarazita dagoela deklaratu du, eta masa aktiboaren likidazio-fasea irekiko du.
4. Intzidentea ebazten duen epaiaren aurka, apelazio-errekurtsoa jarri ahal izango da.

404. artikulua. Ez-betetzearen deklarazioaren ondoreak.

1. Ez-betetzearen deklarazioa irmo bihurtzen denetik, kitak, itxaronaldiak eta hitzarmenean itundutako kredituen beste edozein aldaketa ondorerik gabe geratuko dira.
2. Ez-betetzearen deklarazioa irmo bihurtzen denetik, pribilegio berezia duten hartzekodunek, baldin eta hitzarmenaren efikazia hedatu bazaie edo, hitzarmena onetsi ondoren, hitzarmenari atxiki bazaizkio, bermearen exekuzio banandua hasi edo berrabiarazi ahal izango dute, likidazio-fasea ireki ala ez. Kasu horretan, hartzekodun exekutatuak bere egingo du exekuzioaren ondoriozko zenbatekoa, gehienez ere jatorrizko zorraren kopuruan. Gainerakoa, halakorik baldin badago, konkurtsoaren masa aktiboari egokituko zaio.

Sección 2.ª Del incumplimiento del convenio

Artículo 402. Legitimación para solicitar la declaración de incumplimiento.

1. Cualquier acreedor que estime incumplido el convenio en lo que le afecte podrá solicitar del juez la declaración de incumplimiento.
2. La infracción de las medidas prohibitivas o limitativas del ejercicio por el deudor de las facultades de administración y de disposición sobre bienes y derechos de la masa activa durante el periodo de cumplimiento del convenio constituirá incumplimiento del convenio, cuya declaración podrá ser solicitada del juez por cualquier acreedor.

Artículo 403. Régimen de la solicitud y de la declaración de incumplimiento.

1. La acción para solicitar la declaración de incumplimiento del convenio podrá ejercitarse desde que se produzca el incumplimiento y caducará a los dos meses contados desde la última publicación del auto de cumplimiento.
2. La demanda de declaración de incumplimiento del convenio se tramitará por el cauce del incidente concursal.
3. En el caso de ser estimada, en la declaración de incumplimiento del convenio, el juez lo declarará resuelto y abrirá la fase de liquidación de la masa activa.
4. Contra la sentencia que resuelva el incidente cabrá recurso de apelación.

Artículo 404. Efectos de la declaración de incumplimiento.

1. Desde que alcance firmeza la declaración de incumplimiento, las quitas, las esperas y cualesquiera otras modificaciones de los créditos que hubieran sido pactadas en el convenio quedarán sin efecto.
2. Desde que alcance firmeza la declaración de incumplimiento, los acreedores con privilegio especial a los que se hubiera extendido la eficacia del convenio o se hubieran adherido a él una vez aprobado podrán iniciar o reanudar la ejecución separada de la garantía con independencia de la apertura de la fase de liquidación. En este caso, el acreedor ejecutante hará suyo el importe resultante de la ejecución en cantidad que no exceda de la deuda originaria. El resto, si lo hubiere, corresponderá a la masa activa del concurso.



405. artikulua. Hitzarmena exekutatzeke egindako egintzak.

1. Onetsitako hitzarmena exekutatzean konkurtspekoak edo hirugarrenek egindako egintzek ondore guztiak izango dituzte.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoa gorabehera, ez-betetzearen deklarazioa irmo bihurtzen denetik, deuseztagarriak izango dira hitzarmena betetzeko fasean egindako egintzak, baldin eta hitzarmena bera urratzen badute edo inguruabar berdinetan dauden hartzekodunen tratu-berdintasuna aldatzen badute, eta hutsaldu ahal izango dira zordunak fase horretan egin eta masa aktiboarentzat kaltegarriak diren egintzak, iruzurra egon dela egiaztatzen bada.

VIII. TITULUA

Masa aktiboa likidatzea

I. KAPITULUA

Likidazio-fasea irekitzea

406. artikulua. Likidazioa irekitzea zordunak eskatuta.

Zordunak edozein unetan eska dezake likidazioa, eta epaileak, eskaera egin eta hurrengo hamar egunen barruan, autoa emango du likidazio-fasea irekitzeko.

407. artikulua. Likidazioa nahitaez irekitzea.

1. Hitzarmena indarrean dagoen bitartean, konkurtspekoak likidazioa eskatu beharko du, bertan hitzemandako ordainketak betetzea ezinezkoa jakiten duenetik eta hitzarmena onetsi ondoren hartutako betebeharrak ezagutzen dituenetik.

2. Konkurtspekoak ez badu likidazioa eskatzen hitzarmenaren indarraldian, hartzekodunetatik edozeinek eskatu ahal izango du, konkurtsodeklarazioa oinarritu dezaketen egitateetako bat dagoela egiaztatzen bada.

Epaileak auto bidez ebatziko du, konkurtspekoari entzun ondoren, likidazioa irekitzea bidezkoa den ala ez.

408. artikulua. Likidazioa irekitzea konkurts-administrazioak eskatuta.

Konkurs-administrazioak likidazio-fasea irekitzeko eskatu ahal izango du, baldin eta lanbide- edo enpresa-jarduera erabat edo partzialki uzten bada. Eskaera konkurtspekoari helaraziko zaio, hiru

Artículo 405. Actos realizados en ejecución del convenio.

1. Los actos realizados por el concursado o por terceros en ejecución del convenio aprobado producirán plenos efectos.

2. No obstante lo establecido en el apartado anterior, desde que alcance firmeza la declaración de incumplimiento serán anulables los actos realizados durante la fase de cumplimiento del convenio que supongan contravención del propio convenio o alteración de la igualdad de trato de los acreedores que se encuentren en igualdad de circunstancias, y serán rescindibles los actos perjudiciales para la masa activa realizados por el deudor durante esa fase si se acreditara la concurrencia de fraude.

TÍTULO VIII

De la liquidación de la masa activa

CAPÍTULO I

De la apertura de la fase de liquidación

Artículo 406. Apertura de la liquidación a solicitud del deudor.

El deudor podrá pedir la liquidación en cualquier momento y el juez, dentro de los diez días siguientes a la solicitud, dictará auto abriendo la fase de liquidación.

Artículo 407. Apertura obligatoria de la liquidación.

1. Durante la vigencia del convenio, el concursado deberá pedir la liquidación desde que conozca la imposibilidad de cumplir los pagos comprometidos en este y las obligaciones contraídas con posterioridad a la aprobación de aquel.

2. Si el concursado no solicitara la liquidación durante la vigencia del convenio, podrá hacerlo cualquier acreedor que acredite la existencia de alguno de los hechos que pueden fundamentar la declaración de concurso.

El juez resolverá mediante auto, previa audiencia del concursado, sobre si procede o no abrir la liquidación.

Artículo 408. Apertura de la liquidación a solicitud de la administración concursal.

La administración concursal podrá solicitar la apertura de la fase de liquidación en caso de cese total o parcial de la actividad profesional o empresarial. De la solicitud se dará traslado al concursado por plazo de



eguneko epean. Epaileak auto bidez ebartziko du eskaera, hurrengo bost egunen barruan.

409. artikulua. Likidazioa ofizioz irekitzea.

1. Likidazio-fasea ofizioz irekiko da honako hauek gertatzen direnean:

1.a Legezko epean hitzarmen-proposamenik aurkeztu ez izana edo aurkeztutakoak izapidetzeko onartu ez izana.

2.a Hartzekodunen batzarrean edo idatzizko izapidean hitzarmen-proposamenik onartu ez izana.

3.a Ebazpen judicial irmoaren bidez errefusatu izana hartzekodunen batzarrean onartutako hitzarmena edo idatziz izapidetutako hitzarmena; kasu horietan ez da bidezkoa izango batzarrerako beste deialdirik egitea, ezta idatzizko izapide berririk egitea ere.

4.a Epaileak onetsitako hitzarmenaren deuseztasuna ebazpen irmo baten bidez deklaratu denean.

5.a Hitzarmenaren ez-betetzea epailearen ebazpen irmo baten bidez deklaratu denean.

2. Aurreko apartatuaren 1. eta 2. kasuetan, epaileak likidazio-fasea irekitzeko erabakia auto bidez hartuko du, beste inolako izapiderik gabe; auto hori konkurtsopekoari, konkurtso-administrazioari eta prozeduran pertsonatutako alderdi guztiei jakinaraziko zaie.

Gainerako kasuetan, epaileak likidazio-fasea irekitzea erabakiko du, hori eragin duen ebazpenean, eta irmo bihurtzen denean ordainduko da.

410. artikulua. Likidazio-irekieraren publizitatea.

Likidazio-fasea ireki dela deklaratzeko duen ebazpen judicialari publizitate bera emango zaio konkurtso-deklarazioaren autoari dagokionez.

II. KAPITULUA

Likidazio-fasea irekitzearen ondoreak

411. artikulua. Ondore orokorrak.

Likidazio-fasean lege honen I. liburuko III. tituluaren jasotako arauak aplikatuko dira, kapitulu honetako arau zehatzen kontrakoak ez diren neurrian.

tres días. El juez resolverá sobre la solicitud mediante auto dentro de los cinco días siguientes.

Artículo 409. Apertura de oficio de la liquidación.

1. La apertura de la fase de liquidación procederá de oficio en los siguientes casos:

1.º No haberse presentado dentro del plazo legal ninguna propuesta de convenio o no haber sido admitidas a trámite las que hubieren sido presentadas.

2.º No haberse aceptado ninguna propuesta de convenio en la junta de acreedores o en la tramitación escrita.

3.º Haberse rechazado por resolución judicial firme el convenio aceptado en junta de acreedores o el tramitado por escrito, sin que proceda en ninguno de esos casos nueva convocatoria de junta ni nueva tramitación escrita.

4.º Haberse declarado por resolución judicial firme la nulidad del convenio aprobado por el juez.

5.º Haberse declarado por resolución judicial firme el incumplimiento del convenio.

2. En los casos 1.º y 2.º del apartado anterior, la apertura de la fase de liquidación se acordará por el juez sin más trámites, en el momento en que proceda, mediante auto que se notificará al concursado, a la administración concursal y a todas las partes personadas en el procedimiento.

En cualquiera de los demás casos, la apertura de la fase de liquidación se acordará en la propia resolución judicial que la motive y se hará efectiva una vez esta adquiera firmeza.

Artículo 410. Publicidad de la apertura de la liquidación.

A la resolución judicial que declare la apertura de la fase de liquidación, se dará la misma publicidad que a la del auto de declaración de concurso.

CAPÍTULO II

De los efectos de la apertura de la fase de liquidación

Artículo 411. Efectos generales.

Durante la fase de liquidación seguirán aplicándose las normas contenidas en el título III del libro I de esta ley en cuanto no se opongan a las específicas del presente capítulo.



412. artikulua. Konkurtso-administrazioa birjartzea.

Hitzarmenaren efikaziaren ondorioz konkurtso-administrazioak kargua utzi badu, epaileak, likidazioa irekitzea erabakitzen duen ebazpen berean, bere kargua betetzean birjarriko du, edo beste bat izendatuko du.

413. artikulua. Konkurtsopekoaren gaineko ondoreak.

1. Likidazio-fasean, konkurtsopekoaren egoera masa aktiboaren gaineko administratze- eta xedatze-ahalmenen egikaritzea eteteari dagokiona izango da, lege honen I. liburuko III. tituluaren horretarako ezarritako ondore guztiekin.

2. Konkurtsopekoa pertsona fisikoa bada, likidazioa irekitzeak masa aktiboaren kargurako mantenu-eskubidea azkentzea ekarriko du, salbu eta hori ezinbestekoa denean konkurtsopekoaren eta haren ezkontidearen gutxieneko beharizanei erantzuteko, edo, bestela, hautematen duenean badela esanbidezko edo isilbidezko itunik, bizikideek ondare erkidea eratzeko duten borondate zalantzagabearen ondorioz, izatezko bikote inskribatuaren beharizanei erantzuteko, bai eta bere ahalpeko ondorengoenei ere.

3. Konkurtsopekoa pertsona juridikoa bada, likidazio-fasea irekitzen duen ebazpena judizialak desgite-deklarazioa jasoko du, hori adostuta ez badago, eta, edozein kasutan, administratzaile edo likidatzaileen kargu-uztea; horren ordez, konkurtso-administrazioa jarriko da ondore guztietarako, konkurtso-prozeduran eta alderdi den intzidenteetan konkurtsopekoaren ordezkari gisa jarraitu ahal izateari kalterik egin gabe.

414. artikulua. Konkurtso-kredituen gaineko ondoreak.

Lege honen I. liburuko III. tituluaren III. kapituluaren ezarritako ondoreez gain, likidazioaren irekierak ekarriko du konkurtso-kreditu geroratuen epemuga aurreratzea, bai eta beste prestazio batzuk diru bihurtzea ere.

Artículo 412. Reposición de la administración concursal.

Cuando en virtud de la eficacia del convenio la administración concursal hubiera cesado, el juez, en la misma resolución en la que acuerde la apertura de la liquidación, la repondrá en el ejercicio de su cargo o nombrará otra nueva.

Artículo 413. Efectos sobre el concursado.

1. Durante la fase de liquidación la situación del concursado será la de suspensión del ejercicio de las facultades de administración y disposición sobre la masa activa, con todos los efectos establecidos para ella en el título III del libro I de esta ley.

2. Si el concursado fuera persona natural, la apertura de la liquidación producirá la extinción del derecho a alimentos con cargo a la masa activa, salvo cuando fuere imprescindible para atender las necesidades mínimas del concursado y las de su cónyuge o, cuando aprecie la existencia de pactos expresos o tácitos de los que derive la inequívoca voluntad de los convivientes de formar un patrimonio común, las de la pareja de hecho inscrita, así como para atender las de los descendientes bajo su potestad.

3. Si el concursado fuese persona jurídica, la resolución judicial que abra la fase de liquidación contendrá la declaración de disolución si no estuviese acordada y, en todo caso, el cese de los administradores o liquidadores, que serán sustituidos a todos los efectos por la administración concursal, sin perjuicio de continuar aquellos en representación de la concursada en el procedimiento concursal y en los incidentes en los que sea parte.

Artículo 414. Efectos sobre los créditos concursales.

Además de los efectos establecidos en el capítulo III del título III del libro I de esta ley, la apertura de la liquidación producirá el vencimiento anticipado de los créditos concursales aplazados y la conversión en dinero de aquellos que consistan en otras prestaciones.



III. KAPITULUA

Likidazio-eragiketak

1. atala. Likidazio-erregela orokorrak

415. artikulua. Erregela orokorrak.

1. Likidazio-eragiketak konkurtso-administrazioak egingo duen likidazio-plan baten arabera egingo dira; plan horrek onespenez judiziala beharko du.

2. Likidazio-plana onesten ez bada, eta, hala denean, onetsiak aurreikusi ez duen guztian, likidazio-eragiketak kapitulu honetan ezarritako erregela osagarrietara egokituko dira.

3. Nolanahi ere, likidazio-plana onetsi edo ez, I. liburuko IV. tituluaren pribilegio bereziari lotutako ondasun edo eskubideak diru bihurtzeari buruz eta ekoizpen-unitateak edo enpresa osoa besterentzeari buruz ezarritako erregela bereziak aplikatu beharko dira.

2. atala. Likidazio-plana

416. artikulua. Likidazio-plana aurkeztea.

1. Likidazio-fasea irekitzeko ebazpena jakinarazi eta hurrengo hamabost egunen barruan, konkurtso-administrazioak plan bat aurkeztuko dio epaileari, konkurtsoaren masa aktiboan sartutako ondasun eta eskubideak diru bihurtzeko. Konkurtsoaren konplexutasuna dela-medio komenigarria izango balitz, epaileak, konkurtso-administrazioak hala eskatuta, epe hori luzatzeko erabakia hartu ahal izango luke, iraupen bera duen beste epealdi baterako.

2. Likidazioa irekitzea konkurtso-deklarazioaren auto berean edo konkurtso-administrazioaren txostena aurkezteko epea amaitu baino lehen erabaki bada, likidazio-plana txosten horren eranskin gisa aurkeztuko da.

3. Justizia Administrazioaren letraduak erabakiko du plana bulego judizialean eta horretarako izendatzen dituen tokietan agerian jartzea, eta egokitzen jotzen duen moduan iragarriko du.

417. artikulua. Likidazio-plana egiteko legerizpideak.

1. Konkurtso-administrazioak likidazio-plana egingo du, kontuan hartuta konkurtsoaren interesa eta hartzekodunen asebetetzetik egokiena.

CAPÍTULO III

De las operaciones de liquidación

Sección 1.^a De las reglas generales de liquidación

Artículo 415. Reglas generales.

1. Las operaciones de liquidación se efectuarán con arreglo a un plan de liquidación que elaborará la administración concursal y que precisará de aprobación judicial.

2. De no aprobarse un plan de liquidación y, en su caso, en lo que no hubiere previsto el aprobado, las operaciones de liquidación se ajustarán a las reglas supletorias establecidas en este capítulo.

3. En cualquier caso, se apruebe o no el plan de liquidación, serán de necesaria aplicación las reglas especiales previstas en el título IV del libro I sobre la realización de bienes o derechos afectos a privilegio especial y sobre la enajenación de unidades productivas o del conjunto de la empresa.

Sección 2.^a Del plan de liquidación

Artículo 416. De la presentación del plan de liquidación.

1. Dentro de los quince días siguientes al de notificación de la resolución de apertura de la fase de liquidación, la administración concursal presentará al juez un plan para la realización de los bienes y derechos integrados en la masa activa del concurso. Si la complejidad del concurso lo justifica el juez, a solicitud de la administración concursal, podrá acordar la prórroga de este plazo por un nuevo período de igual duración.

2. En el caso de que la apertura de la liquidación se hubiera acordado en el mismo auto de declaración de concurso o antes de que finalice el plazo para la presentación del informe de la administración concursal, el plan de liquidación se presentará como anejo de ese informe.

3. El Letrado de la Administración de Justicia acordará poner de manifiesto el plan en la oficina judicial y en los lugares que a este efecto designe, anunciándolo en la forma que estime conveniente.

Artículo 417. Criterios legales de elaboración del plan de liquidación.

1. La administración concursal elaborará el plan de liquidación atendiendo al interés del concurso y a la más adecuada satisfacción de los acreedores.



2. Ahal den guztietan, masa aktiboko establezimendu, ustiategi eta beste edozein ekoizpen-unitate guztien edo haietako batzuen besterentze unitarioa proiektatu beharko da likidazio-planean.

3. Kreditu publikoen kasuan izan ezik, likidazio-planean ondasunen edo eskubideen lagapena aurreikusi ahal izango da, konkurtso-kredituak ordainean emateko edo ordaintzeko. Ordainean edo ordainketarako lagatzeko, ukitutako hartzekodunen adostasuna beharko da.

418. artikulua. Likidazio-planari buruzko oharrik eta aldaketa-proposamenak.

1. Bulego judizialean likidazio-plana aurkeztu eta hurrengo hamabost egunen barruan, konkurtsopekoak, konkurtso-hartzekodunak eta, halakorik izanez gero, langileen ordezkariak oharrik eta aldaketa-proposamenak egin ahal izango dituzte.

2. Likidazio-planak lan-baldintzen funtsezko aldarazte, lekualdatze, kaleratze, kontratu-etete edo lanaldi-murrizketa kolektiboari buruzko aurreikuspenak jasotzen baditu, lege honetan lan-kontratuei buruz ezarritakoa beteko da.

419. artikulua. Likidazio-plana onestea.

1. Aurreko artikulua aipatutako epea igaro ondoren, epaileak, konkurtsoaren onerako komenigarritzat jotzen duenaren arabera, auto bidez onetsi beharko du plana, aurkeztu den moduan; halaber, beharrezkotzat edo egokitzat jotzen dituen aldaketak sartu beharko ditu planean, edo likidazioa erabaki beharko du, legezko erregela osagarrien arabera. Onesten den autoan epaileak oso-osorik jaso beharko du onetsitako likidazio-plana.

2. Planaren onespenez baimen-balioa izango du pribilegio berezia duen kredituari atxikitako ondasun edo eskubideak besterentzeko, haiek ordainean emateko edo ordaintzeko, edo ekoizpen-unitateak besterentzea baimentzeko, onetsitako planean berariaz hala jasota dagoenean.

3. Autoaren aurka apelazio-errekurtsoa jarri ahal izango dute interesdunek.

420. artikulua. Likidazio-plana aldatzea.

1. Konkurtso-administratzaileak edozein unetan eska diezairoke epaileari onetsitako plana aldatzeko, baldin eta komenigarritzat jotzen badu hori konkurtsoaren onerako eta hartzekodunen

2. Siempre que sea posible, en el plan de liquidación deberá proyectarse la enajenación unitaria del conjunto de los establecimientos, explotaciones y cualesquiera otras unidades productivas de la masa activa o de algunos de ellos.

3. Salvo para los créditos públicos, en el plan de liquidación podrá preverse la cesión de bienes o derechos en pago o para pago de los créditos concursales. La cesión en pago o para pago exigirá el consentimiento de los acreedores a los que afecte.

Artículo 418. Observaciones al plan de liquidación y propuestas de modificación.

1. Durante los quince días siguientes a la fecha en que haya quedado de manifiesto en la oficina judicial el plan de liquidación, el concursado, los acreedores concursales y, si existieran, los representantes de los trabajadores podrán formular observaciones y propuestas de modificación.

2. En el caso de que el plan de liquidación contuviera previsiones sobre la modificación sustancial de las condiciones de trabajo, el traslado, el despido, la suspensión de contrato o la reducción de jornada de carácter colectivo, se estará a lo establecido en esta ley en materia de contratos de trabajo.

Artículo 419. Aprobación del plan de liquidación.

1. Transcurrido el plazo a que se refiere el artículo anterior, el juez, según estime conveniente para el interés del concurso, deberá, mediante auto, aprobar el plan en los términos en que hubiera sido presentado, introducir en él las modificaciones que estime necesarias u oportunas o acordar la liquidación conforme a las reglas legales supletorias. En el auto que se apruebe el juez deberá incluir íntegramente el plan de liquidación aprobado.

2. La aprobación del plan tendrá valor de autorización para enajenar los bienes o derechos afectos a crédito con privilegio especial o para darlos en pago o para pago o de autorización para enajenar las unidades productivas cuando así conste expresamente en el propio plan aprobado.

3. Contra el auto los interesados podrán interponer recurso de apelación.

Artículo 420. Modificación del plan de liquidación.

1. El administrador concursal podrá solicitar del juez en cualquier momento la modificación del plan aprobado si lo estima conveniente para el interés del concurso y la más rápida satisfacción de los



asebetetzerik azkarrena lortzeko. Eskaeran, aldatu behar diren planaren erregela zehatzak zehaztuko dira, bai eta ezabatu edo sartu behar direnak ere.

2. Aldaketak bat etorri beharko du lege honetan likidazio-plana onesteko ezarritako izapideekin.

3. Komenigarritzat jotzen badu, epaileak, auto bidez, proposatutako aldaketa onetsi ahal izango du konkurtso-administratzaileak eskatu bezala, bertan beharrezkotzat edo egokitzat jotzen dituen aldaketak sartu ahal izango ditu, edo aldaketa-eskaera ukatu ahal izango du.

4. Autoaren aurka apelazio-errekurtsoa jarri ahal izango dute interesdunek.

3. atala. Erregela osagarriak

1. azpiatala. Besterentze-prozedura

421. artikulua. Premiamendu-prozeduraren erregela.

Likidazio-planean aurreikuspenik egin ezean, masa aktiboko ondasunak eta eskubideak, izaeraren arabera, Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean premiamendu-prozedurarako ezarritako xedapenen arabera besterenduko dira.

2. azpiatala. Multzoaren erregela

422. artikulua. Multzoaren erregela.

1. Osotasun gisa besterenduko dira masa aktiboko establezimenduak, ustiategiak eta ondasunen edo zerbitzuen beste edozein ekoizpen-unitate.

2. Konkurtsoaren onerako komenigarritzat jotzen duenean, epaileak, aldez aurretik konkurtso-administrazioak txostena eginda, auto bidez erabaki ahal izango du establezimendu, ustiategi eta beste edozein ekoizpen-unitate edo haietako batzuk edo haiek osatzen dituzten elementuak banan-banan besterentzea.

3. Ezingo da errekurtsorik jarri establezimenduak, ustiategiak eta beste edozein ekoizpen-unitate edo haietako batzuk edo haiek osatzen dituzten elementuak banan-banan besterentzea erabakitzen duen autoaren aurka.

acreedores. La solicitud especificará las concretas reglas del plan que deben ser modificadas y aquellas otras que deban ser suprimidas o introducidas.

2. La modificación deberá ajustarse a los trámites establecidos en esta ley para la aprobación del plan de liquidación.

3. Si lo estima conveniente, el juez, mediante auto, podrá aprobar la modificación propuesta en los términos en que hubiera sido solicitada por el administrador concursal, introducir en ella las modificaciones que estime necesarias u oportunas o denegar la solicitud de modificación.

4. Contra el auto los interesados podrán interponer recurso de apelación.

Sección 3.ª De las reglas supletorias

Subsección 1.ª Del procedimiento de enajenación

Artículo 421. Regla del procedimiento de apremio.

En defecto de previsiones en el plan de liquidación, los bienes y derechos de la masa activa se enajenarán, según su naturaleza, por las disposiciones establecidas en la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil para el procedimiento de apremio.

Subsección 2.ª De la regla del conjunto

Artículo 422. Regla del conjunto.

1. El conjunto de los establecimientos, explotaciones y cualesquiera otras unidades productivas de bienes o de servicios de la masa activa se enajenará como un todo.

2. Cuando estime conveniente para el interés del concurso, el juez, previo informe de la administración concursal, podrá acordar mediante auto que se efectúe la enajenación individualizada de los establecimientos, explotaciones y cualesquiera otras unidades productivas o de algunas de ellas, o de los elementos de que se compongan.

3. Contra el auto que acuerde la enajenación individualizada de los establecimientos, explotaciones y cualesquiera otras unidades productivas o de algunas de ellas, o de los elementos de que se compongan, no cabrá recurso alguno.



IV. KAPITULUA

Likidatu beharreko ondasun eta eskubideen publizitatea

423. artikulua. Likidatu beharreko ondasun eta eskubideen publizitatea.

Konkurtsopekoa pertsona juridikoa bada, konkurtso-administrazioak, likidazio-plana onetsi edo likidazioa legezko erregela osagarrien bidez egitea erabaki ondoren, masa aktiboa besterentzea errazteko behar den informazio guztia bidali beharko du, Konkurtso-erregistro publikoko konkurtso-likidazioen atarian argitara dadin.

Zehazki, honelako informazioa igorriko du: konkurtsopeko pertsona juridikoaren forma juridikoa, sektorea, jardun-esparrua, martxan egon den denbora, negozio-bolumena, balantzearen tamaina, langile kopurua, enpresaren aktibo garrantzitsuenen inbentarioa, hirugarrenekin indarrean dituen kontratuak, indarreko administrazio-lizentzia eta -baimenak, enpresaren pasiboak, sartuta dagoen epai-, administrazio-, arbitraje- edo bitartekotza-prozesuak eta lan-arloko alderdi garrantzitsuak.

V. KAPITULUA

Hiru hilean behingo likidazio-txostenak

424. artikulua. Hiru hilean behingo likidazio-txostenak.

1. Likidazio-fasea irekitzen denetik hiru hilean behin, konkurtso-administrazioak eragiketen egoerari buruzko txostena aurkeztuko dio konkurtsoko epaileari. Txosten horrekin batera, masaren aurkako kredituen zerrenda aurkeztuko da. Zerrenda horretan, sortu diren baina ordaintzeke dauden kredituak zehaztu eta kuantifikatuko dira, dagozkien epemugak adierazita.

2. Hiru hilean behingo txostena agerian geldituko da bulego judizialean eta konkurtso-administrazioak telematikoki komunikatuko die hartzekodunei, betiere haien helbide elektronikoaren berri badu. Komunikatzeko betebehari hori ez betetzeak berekin ekar dezake konkurtso-administrazioa kargutik banantzea eta erantzukizuna eskatzea, ez-betetze horrek hartzekodunei kaltea eragin badie.

CAPÍTULO IV

De la publicidad de los bienes y derechos objeto de liquidación

Artículo 423. Publicidad de los bienes y derechos objeto de liquidación.

En el caso de concursado persona jurídica, la administración concursal, una vez aprobado el plan de liquidación o acordado que la liquidación se realice mediante las reglas legales supletorias, deberá remitir, para su publicación en el portal de liquidaciones concursales del Registro público concursal, cuanta información resulte necesaria para facilitar la enajenación de la masa activa.

En particular, se remitirá información sobre la forma jurídica de la persona jurídica concursada, sector al que pertenece, ámbito de actuación, tiempo durante el que ha estado en funcionamiento, volumen de negocio, tamaño del balance, número de empleados, inventario de los activos más relevantes de la empresa, contratos vigentes con terceros, licencias y autorizaciones administrativas vigentes, pasivos de la empresa, procesos judiciales, administrativos, arbitrales o de mediación en los que estuviera incurso y aspectos laborales relevantes.

CAPÍTULO V

De los informes trimestrales de liquidación

Artículo 424. Informes trimestrales de liquidación.

1. Cada tres meses, a contar de la apertura de la fase de liquidación, la administración concursal presentará al juez del concurso un informe sobre el estado de las operaciones. A ese informe se acompañará una relación de los créditos contra la masa, en la que se detallarán y cuantificarán los devengados y pendientes de pago, con indicación de sus respectivos vencimientos.

2. El informe trimestral quedará de manifiesto en la oficina judicial y será comunicado por la administración concursal de forma telemática a los acreedores de cuya dirección electrónica se tenga conocimiento. El incumplimiento de esta obligación de comunicación podrá determinar la separación de la administración concursal y la exigencia de la responsabilidad si ese incumplimiento hubiera causado daño a los acreedores.



VI. KAPITULUA

Prebentziozko kontsignazioa

425. artikulua. Prebentziozko kontsignazioa.

1. Masa aktiboa osatzen duten ondasunen eta eskubideen besterentze bakoitzean lortutakoaren edo haren kontura egindako eskudiruko ordainketen ehuneko hamabosta, gehienez ere, epaitegiaren kontuan kontsignatzea agindu ahal izango du epaileak, ofizios edo alderdi batek eskatuta.

2. Kontsignatutako kopuruak erabiliko dira jarritako apelazio-errekurtsoen baieste-erabaki judizialen ondoriozko konkurtso-kredituen ordainketari aurre egiteko, edo hartzekodunen zerrenda edo likidazio-egintzak aurkaratzeko epaien aurka jar daitezkeen kredituen ordainketari aurre egiteko.

426. artikulua. Kontsignatutako kopuruak askatzea.

Kontsignatutako kopuru horiek apelazio-errekurtsoak ebatzi ondoren askatuko dira, edota apelazio-errekurtsoak jartzeko epea bukatutakoan. Errekurtsoak jartzeko epea ebatzi edo amaitu ondoren, kontsignatutako gerakinaren zatia libre geratu bada, konkurtso-administrazioari emango zaio, hark esleitzen duen lege honetan lege ezarritako lehentasun-hurrenkeraren arabera, jada ordaindutako kredituen zatia kontuan hartuta.

VII. KAPITULUA

Likidazioa bidegabe luzatzea

427. artikulua. Konkurtso-administrazioa kargutik banantzea, likidazioa bidegabe luzatzeagatik.

1. Likidazio-fasea irekitzeko ebazpen judiziala irmo bihurtu eta urtebete igaro ondoren likidazio-fasea amaitu ez bada, edozein interesdunek konkurtso-epaileari eska diezaioke konkurtso-administrazioa banantzeko eta beste bat izendatzeko.

2. Konkurtso-administrazioari entzun ondoren, epaileak erabakiko du hura kargutik banantzea, baldin eta ez badago atzerapena justifikatzen duen arrazoirik, eta haren ordezkoa izendatuko ditu.

3. Likidazioa bidegabe luzatzeagatik konkurtso-administrazioa banantzea erabakitzen duen autoa Konkurtso-erregistro publikoan txertatuko da.

CAPÍTULO VI

De la consignación preventiva

Artículo 425. De la consignación preventiva.

1. El juez, de oficio o a instancia de parte, podrá ordenar la consignación en la cuenta del juzgado de hasta un quince por ciento de lo que se obtenga en cada una de las enajenaciones de los bienes y derechos que integran la masa activa o de los pagos en efectivo que se realicen con cargo a la misma.

2. Las cantidades consignadas se utilizarán para hacer frente al pago de aquellos créditos concursales que resulten de los pronunciamientos judiciales estimatorios de los recursos de apelación interpuestos o que pudieran interponerse frente a sentencias de impugnación de la lista de acreedores o actos de liquidación.

Artículo 426. De la liberación de las cantidades consignadas.

Las cantidades consignadas se liberarán cuando los recursos de apelación hayan sido resueltos o cuando el plazo para su interposición haya expirado. La parte del remanente consignado que haya quedado libre tras la resolución o expiración del plazo de interposición de los recursos, será entregada a la administración concursal para que esta la asigne de acuerdo con el orden de prelación legalmente establecido en esta ley, teniendo en cuenta la parte de los créditos que ya hubiere sido satisfecha.

CAPÍTULO VII

De la prolongación indebida de la liquidación

Artículo 427. Separación de la administración concursal por prolongación indebida de la liquidación.

1. Transcurrido un año desde la firmeza de la resolución judicial por la que se hubiera procedido a la apertura de la fase de liquidación sin que hubiera finalizado esta, cualquier interesado podrá solicitar al juez del concurso la separación de la administración concursal y el nombramiento de otra nueva.

2. El juez, previa audiencia de la administración concursal, acordará la separación si no existiere causa que justifique la dilación y procederá al nombramiento de quien haya de sustituirla.

3. El auto por el que se acuerde la separación de la administración concursal por prolongación indebida de la liquidación se insertará en el Registro público concursal.



428. artikulua. Ordainsaria jasotzeko eskubidea galtzea.

Likidazioa bidegabe luzatzeagatik kargutik bananduak izan diren konkurtso-administratzaileek galduko dute sortutako ordainsariak jasotzeko eskubidea, eta masa aktibora itzuli beharko dituzte likidazio-fasea ireki zenetik ordainsari moduan jasotako zenbatekoak.

IX. TITULUA

Konkurtsoko hartzekodunei ordaintzea

429. artikulua. Masaren aurkako kredituak ordaintzeko kenkaria.

Konkurtsoko-kredituak ordaindu baino lehen, konkurtso-administrazioak masa aktibotik kenduko ditu masaren aurkako kredituak ordaintzeko behar diren ondasun eta eskubideak.

430. artikulua. Pribilegio berezia duten kredituen ordainketa.

1. Pribilegio berezia duten kredituen ordainketa egingo da atxikitako ondasun eta eskubideen kontura, eta horiek bananduta zein taldeka exekuta daitezke.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, berme errealen exekuzioak eta antzeko berreskuratze-akzioen egikaritzea geldituta dauden bitartean edo konkurtso-deklarazioaren aurretik hasitako exekuzioen eteteak irauten duen bitartean, konkurtso-administrazioak pribilegio berezia duten kreditu horien titularrei komunikatu ahal izango die masaren kontura eta ukitutako ondasun eta eskubideak diru bihurtu gabe ordaintzea erabaki duela. Aukera hori komunikatutakoan, konkurtso-administrazioak berehala ordaindu beharko ditu mugaeguneratutako amortizazio-epe eta interes guztiak, eta hurrengoak masaren aurkako kreditu gisa tratatzeko betebeharrak hartuko du bere gain; betiere, beren zenbatekoak bermearen balioa gainditzen ez bada, hartzekodunen zerrendan ageri den moduan. Ez-betetzeen kasuan, atxikitako ondasun eta eskubideak diru bihurtuko dira, pribilegio bereziko kredituak ordaintzeko, hurrengo apartatuan xedatutakoaren arabera.

3. Atxikitako ondasun edo eskubideak diru bihurtzeagatik lortutako zenbatekoa hartzekodun pribilegiatuari ordaintzeko erabiliko da, jatorrizko zorra gainditzen ez duen kopuruan. Gainerakoa, egonez gero, masa aktiboari egokituko zaio. Kreditua osorik ordaintzea lortzen ez bada, ordaindu ez den zatia dagokion sailkapenaren arabera tratatuko da konkurtsoan.

Artículo 428. Pérdida del derecho a la retribución.

Los administradores concursales separados por prolongación indebida de la liquidación perderán el derecho a percibir las retribuciones devengadas, debiendo reintegrar a la masa activa las cantidades que en ese concepto hubieran percibido desde la apertura de la fase de liquidación.

TÍTULO IX

Del pago a los acreedores concursales

Artículo 429. Deducción para pagos de créditos contra la masa.

Antes de proceder al pago de los créditos concursales, la administración concursal deducirá de la masa activa los bienes y derechos necesarios para satisfacer los créditos contra esta.

Artículo 430. Pago de créditos con privilegio especial.

1. El pago de los créditos con privilegio especial se hará con cargo a los bienes y derechos afectos, ya sean objeto de ejecución separada o colectiva.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, en tanto se encuentren paralizadas las ejecuciones de garantías reales y el ejercicio de acciones de recuperación asimiladas o subsista la suspensión de las ejecuciones iniciadas antes de la declaración de concurso, la administración concursal podrá comunicar a los titulares de estos créditos con privilegio especial que opta por atender su pago con cargo a la masa y sin realización de los bienes y derechos afectos. Comunicada esta opción, la administración concursal habrá de satisfacer de inmediato la totalidad de los plazos de amortización e intereses vencidos y asumirá la obligación de atender los sucesivos como créditos contra la masa y en cuantía que no exceda del valor de la garantía conforme figura en la lista de acreedores. En caso de incumplimiento, se realizarán los bienes y derechos afectos para satisfacer los créditos con privilegio especial conforme a lo dispuesto en el apartado siguiente.

3. El importe obtenido por la realización de los bienes o derechos afectos se destinará al pago del acreedor privilegiado en cantidad que no exceda de la deuda originaria. El resto, si lo hubiere, corresponderá a la masa activa. Si no se consiguiese la completa satisfacción del crédito, la parte no satisfecha será tratada en el concurso con la clasificación que le corresponda.



431. artikulua. Denboraren arabera lehentasuna.

Ondasun edo eskubide berbera lotzen bazaie pribilegio berezia duen kreditu bati baino gehiagori, kontuan hartuko dira haien legeria berezian ezarritako betekizun eta formalitateak kreditu horiek hirugarrenen aurka jartzeko modukoak izan daitezzen, eta betekizun horiek ondorioztatutako denboraren arabera lehentasunari jarraituz egingo dira ordainketak. Legezko hipoteka isilbidezkoa duten kredituen ordainketa egiteko, hipoteka horren arauketak ezarritako lehentasuna aplikatuko da.

432. artikulua. Pribilegio orokorra duten kredituen ordainketa.

1. Masaren aurkako kredituak pribilegio bereziari atxiki gabeko ondasunen kontura edo kreditu horiek ordaindutakoan gelditzen den gerakinaren kontura ordaintzeko ondasun eta eskubideak masa aktibotik kendu direnean, pribilegio orokorreko kredituak ordainduko dira, lege honetan ezarritako hurrenkerarekin, eta, hala denean, zenbaki bakoitzaren barruan hainbanatuta.

2. Epaileak kreditu horien ordainketa baimendu ahal izango du, sustatutako aurkaratzeak amaitu arte itxaron gabe; horretarako, kasuan-kasuan egokizat jotzen dituen kautela-neurriak hartu beharko ditu, kreditu horien eta sor daitekeen masaren aurkako kredituen eraginkortasuna ziurtatzeko.

433. artikulua. Kreditu arruntak ordaintzea.

1. Masaren aurkako kredituak eta kreditu pribilegiatuak ordaindu ondoren ordainduko dira kreditu arruntak.

2. Kreditu arruntak hainbanatuta ordainduko dira, atxikitako ondasun eta eskubideen kontura ordaindu ez diren pribilegio bereziko kredituen zatiarekin batera, salbu eta mendekotzat hartzen direnean.

3. Konkurtso-administrazioak kreditu horiek ordainduko ditu masa aktiboaren likidezia aintzat hartuta, eta kreditu bakoitzaren balio nominalaren ehuneko bosta baino txikiagoko zenbatekoa duten kuotak eman ahal izango ditu.

434. artikulua. Kreditu arruntak aurretiaz ordaintzea.

1. Salbuespeneko kasuetan, konkurtso-administrazioak hala eskatuta, epaileak arrazoiak azalduz baimen dezake kreditu arruntak aurretiaz ordaintzea, beraren ustez behar bezala ziurtatu bada

Artículo 431. Prioridad temporal.

Si un mismo bien o derecho se encontrase afecto a más de un crédito con privilegio especial, los pagos se realizarán conforme a la prioridad temporal que para cada crédito resulte del cumplimiento de los requisitos y formalidades previstos en su legislación específica para su oponibilidad a terceros. La prioridad para el pago de los créditos con hipoteca legal tácita será la que resulte de la regulación de esta.

Artículo 432. Pago de créditos con privilegio general.

1. Deducidos de la masa activa los bienes y derechos necesarios para satisfacer los créditos contra la masa y con cargo a los bienes no afectos a privilegio especial o al remanente que de ellos quedase una vez pagados estos créditos, se atenderá al pago de aquellos que gozan de privilegio general, por el orden establecido en esta ley y, en su caso, a prorrata dentro de cada número.

2. El juez podrá autorizar el pago de estos créditos sin esperar a la conclusión de las impugnaciones promovidas adoptando las medidas cautelares que considere oportunas en cada caso para asegurar su efectividad y la de los créditos contra la masa de previsible generación.

Artículo 433. Pago de créditos ordinarios.

1. El pago de los créditos ordinarios se efectuará una vez satisfechos los créditos contra la masa y los privilegiados.

2. Los créditos ordinarios serán satisfechos a prorrata, conjuntamente con la parte de los créditos con privilegio especial en que no hubieran sido satisfechos con cargo a los bienes y derechos afectos, salvo que tuvieran la consideración de subordinados.

3. La administración concursal atenderá el pago de estos créditos en función de la liquidez de la masa activa y podrá disponer de entregas de cuotas cuyo importe no sea inferior al cinco por ciento del nominal de cada crédito.

Artículo 434. Pago de créditos ordinarios con antelación.

1. En casos excepcionales, el juez, a solicitud de la administración concursal, podrá motivadamente autorizar la realización de pagos de créditos ordinarios con antelación cuando estime suficientemente



masaren aurkako kredituen eta kreditu pribilegiatuen ordainketa.

2. Era berean, epaileak kreditu arruntak ordaintzeko baimena eman ahal izango du, sustatutako aurkaratzeak amaitu baino lehen, kasuan-kasuan egokitzat jotzen dituen kautela-neurriak hartuz, haien eraginkortasuna eta sortuko dela aurreikus daitekeen masaren aurkako kredituen eraginkortasuna ziurtatzeko.

435. artikulua. Mendeko kredituak ordaintzea.

1. Mendeko kredituak ez dira ordainduko, kreditu arruntak oso-osorik ordaindu arte.

2. Kreditu horien ordainketa lege honetan ezarritako hurrenkeraren arabera egingo da, eta, hala denean, zenbaki bakoitzaren barruan hainbanatuta.

436. artikulua. Ordainketa aurreratua.

Kreditua ordaintzen bada likidazioa irekitzean duen epemuga baino lehen, kasuan kasuko deskontua aplikatuko da, legezko interes-tasaren arabera kalkulatuta.

437. artikulua. Hartzekodunak duen eskubidea, zordun solidarioaren kuotari begira.

Hartzekodunak, konkurtso-deklarazioa egin baino lehen, zordun solidario baten, fidatzaile baten edo zordunaren abal-emaile baten kredituaren zati bat kobratu badu, eskubidea izango du zordunaren konkurtsoan hartzekodunari dagozkion ordainketak eskuratzeko, kredituaren bidez jasotzen dituen gehituta kredituaren zenbateko osoa estaltzen duten arte.

438. artikulua. Zordun solidarioen bi konkurtsotan edo gehiagotan aitortutako kredituaren ordainketa.

1. Kreditua aitortu bada zordun solidarioen bi konkurtsotan edo gehiagotan, konkurtso guztietan jasotakoaren baturak ezin gaindi dezake kredituaren zenbatekoa.

2. Konkurtso-administrazioak ordainketa atxiki dezake hartzekodunak gainerako zordun solidarioen konkurtsoetan jasotakoa egiaztatzeko ziurtagiria aurkeztu arte. Behin ordainketa eginda, horren berri emango die gainerako konkurtsoetako konkurtso-administrazioei.

3. Konkurtsopeko zordun solidarioak zatika ordaindu dionean hartzekodunari ezin izango du ordainketarik

cubierto el pago de los créditos contra la masa y de los créditos privilegiados.

2. El juez podrá también autorizar el pago de los créditos ordinarios antes de que concluyan las impugnaciones promovidas, adoptando en cada caso las medidas cautelares que considere oportunas para asegurar su efectividad y la de los créditos contra la masa de previsible generación.

Artículo 435. Pago de los créditos subordinados.

1. El pago de los créditos subordinados no se realizará hasta que hayan quedado íntegramente satisfechos los créditos ordinarios.

2. El pago de estos créditos se realizará por el orden establecido en esta ley y, en su caso, a prorata dentro de cada número.

Artículo 436. Pago anticipado.

Si el pago de un crédito se realizare antes del vencimiento que tuviere a la fecha de la apertura de la liquidación, se hará con el descuento correspondiente, calculado al tipo de interés legal.

Artículo 437. Derecho del acreedor a la cuota del deudor solidario.

El acreedor que, antes de la declaración de concurso, hubiera cobrado parte del crédito de un deudor solidario, de un fiador o de un avalista del deudor tendrá derecho a obtener en el concurso del deudor los pagos correspondientes a aquellos hasta que, sumados a los que perciba por su crédito, cubran el importe total de este.

Artículo 438. Pago de crédito reconocido en dos o más concursos de deudores solidarios.

1. En el caso de que el crédito hubiera sido reconocido en dos o más concursos de deudores solidarios, la suma de lo percibido en todos los concursos no podrá exceder del importe del crédito.

2. La administración concursal podrá retener el pago hasta que el acreedor presente certificación acreditativa de lo percibido en los concursos de los demás deudores solidarios. Una vez efectuado el pago, lo pondrá en conocimiento de las administraciones concursales de los demás concursos.

3. El deudor solidario concursado que haya efectuado pago parcial al acreedor no podrá obtener



lortu zordunkideen konkurtsoetan, hartzekodun horri dena ordaindu arte.

439. artikulua. Hitzarmen-fasean aurretiaz eginiko ordainketak koordinatzea.

1. Likidazioaren aurretik hitzarmena zati batean bete bada, uste izango da bertan egindako ordainketak legitimoak direla, salbu eta frogatzen denean iruzurra egon dela, hitzarmena hautsi dela edota hartzekodunei eman beharreko tratu-berdintasuna aldatu dela.

2. Zatikako ordainketak jaso dituztenek, haien legitimitate-presuntzioa indargabetzen ez bada errebokazio-epai irmoaren bidez, beren esku atxikiko dituzte, baina ezin izango dute kobratzea falta zaiena kobratu, harik eta sailkapen bereko gainerako hartzekodunek ehuneko baliokideko ordainketak jaso arte.

440. artikulua. Interesen ordainketa.

Konkurtsokreditu guztiak ordaindu ondoren gerakina gertatzen bada, konkurtso-deklarazioaren ondorioz sortutako interesak osorik edo zati batean ordaindu beharko dira; interesak hitzarmenezko tasaren arabera kalkulatu dira, eta, halakorik ez badago, legezko tasaren arabera.

X. TITULUA

Konkurtsoren kalifikazioa

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

441. artikulua. Konkurtsoaren kalifikazioa.

Konkurtsoa ezustekotzat edo erruzkotzat joko da.

442. artikulua. Erruzko konkurtsoa.

Konkurtsoa erruzkotzat joko da, zordunak edo beraien legezko ordezkariak, halakoak izanez gero, doloz edo erru larriz eragin edo areagotu dutenean kaudimengabezia, eta, pertsona juridikoen kasuan, haien administratzaile edo likidatzaileena, zuzenbidekoak edo egitezkoak, zuzendari nagusiena, eta konkurtsoa deklaratu aurreko bi urteetan izaera horietako edozein izan dutenena.

443. artikulua. Kasu bereziak.

Nolanahi ere, konkurtsoa erruzkotzat joko da honako kasu hauetan:

1.a Zordunak bere ondasun guztiak edo batzuk ostendu dituztenean hartzekodunen kalterako, edo

el pago en los concursos de los codeudores mientras el acreedor no haya sido íntegramente satisfecho.

Artículo 439. Coordinación con pagos anteriores en fase de convenio.

1. Si a la liquidación hubiese precedido el cumplimiento parcial de un convenio, se presumirán legítimos los pagos realizados en él, salvo que se probara la existencia de fraude, contravención al convenio o alteración de la igualdad de trato a los acreedores.

2. Quienes hubieran recibido pagos parciales cuya presunción de legitimidad no resultara desvirtuada por sentencia firme de revocación, los retendrán en su poder, pero no podrán cobrar lo que les faltara percibir hasta que el resto de los acreedores de su misma clasificación hubiera recibido pagos en un porcentaje equivalente.

Artículo 440. Pago de intereses.

Si resultara remanente después del pago de la totalidad de los créditos concursales, procederá el pago, total o parcial, de los intereses cuyo devengo hubiese quedado suspendido por efecto de la declaración de concurso, calculados al tipo convencional y, si no existiera, al tipo legal.

TÍTULO X

De la calificación del concurso

CAPÍTULO I

Disposiciones generales

Artículo 441. Calificación del concurso.

El concurso se calificará como fortuito o como culpable.

Artículo 442. Concurso culpable.

El concurso se calificará como culpable cuando en la generación o agravación del estado de insolvencia hubiera mediado dolo o culpa grave del deudor o, si los tuviere, de sus representantes legales y, en caso de persona jurídica, de sus administradores o liquidadores, de derecho o de hecho, directores generales, y de quienes, dentro de los dos años anteriores a la fecha de declaración del concurso, hubieren tenido cualquiera de estas condiciones.

Artículo 443. Supuestos especiales.

En todo caso, el concurso se calificará como culpable en los siguientes supuestos:

1.º Cuando el deudor se hubiera alzado con la totalidad o parte de sus bienes en perjuicio de sus



edozein egintza gauzatu duenean, has daitekeen exekuzioan enbargoaren efikazia atzeratu, zaildu edo eragozteko.

2.a Konkurtso-deklarazioa aurreko bi urteetan, zordunaren ondaretik ondasunak edo eskubideak atera direnean iruzurraren bidez.

3.a Konkurtso-deklarazioa egin aurretik zordunak edozein egintza juridiko gauzatu duenean, gezurrezko ondare-egoera simulatzeko.

4.a Zordunak zehaztugabetasun larria egin duenean konkurtso-deklarazioaren eskaerarekin batera aurkeztutako agirietatik edozeinetan edo prozeduraren izapideak egin bitartean aurkeztu direnetan, edo agiri faltsuak aurkeztu dituenen.

5.a Kontabilitatea eramatera legez behartuta dagoen zordunak betebeharrak hori funtsean bete ez duenean, kontabilitate bikoitza daramanean edo bere ondare-edo finantza-egoera ulertzeko irregulartasun nabarmena dakarrenean.

6.a Likidazioa irekitzea ofizioz erabaki denean, hitzarmena ez betetzeagatik konkurtsopekoari egotz dakiokkeen arrazoiaren ondorioz.

444. artikulua. Erruzkotasan-presuntzioak.

Aurkako frogarik ezean, uste izango da erruzko konkurtsoa dela, baldin eta zordunak, edo, hala denean, bere legezko ordezkariak, administratzaileak edo likidatzaileak:

1.a Konkurtso-deklarazioa eskatzeko eginbeharra bete ez badute.

2.a Konkurtsoko epaileari eta konkurtso-administratzaileari laguntzeko eginbeharra bete ez badute, konkurtsoaren onerako beharrezkoa den informazioa edo informazio egokia eman ez badiete edota hartzekodunen batzarrera bertaratu ez badira, zuzenean edo ahalordedunaren bidez, betiere haien parte-hartzea erabakigarria bazen hitzarmena egiteko.

3.a Konkurtso-deklarazioaren aurreko azken hiru ekitaldietakoren batean kontabilitatea eramatera legez behartuta dagoen zordunak ez baditu urteko kontuak formulatu, ez baditu auditoretzapean jarri, hori egiteko betebeharra izan arren, edo, behin onetsita, ez baditu gordailutu merkataritza-erregistroan edo dagokion erregistroan.

acreedores o hubiera realizado cualquier acto que retrase, dificulte o impida la eficacia de un embargo en cualquier clase de ejecución iniciada o de previsible iniciación.

2.º Cuando durante los dos años anteriores a la fecha de la declaración de concurso hubieran salido fraudulentamente del patrimonio del deudor bienes o derechos.

3.º Cuando antes de la fecha de declaración del concurso el deudor hubiese realizado cualquier acto jurídico dirigido a simular una situación patrimonial ficticia.

4.º Cuando el deudor hubiera cometido inexactitud grave en cualquiera de los documentos acompañados a la solicitud de declaración de concurso o presentados durante la tramitación del procedimiento, o hubiera acompañado o presentado documentos falsos.

5.º Cuando el deudor legalmente obligado a la llevanza de contabilidad hubiera incumplido sustancialmente esta obligación, llevara doble contabilidad o hubiera cometido en la que llevara irregularidad relevante para la comprensión de su situación patrimonial o financiera.

6.º Cuando la apertura de la liquidación haya sido acordada de oficio por incumplimiento del convenio debido a causa imputable al concursado.

Artículo 444. Presunciones de culpabilidad.

El concurso se presume culpable, salvo prueba en contrario, cuando el deudor o, en su caso, sus representantes legales, administradores o liquidadores:

1.º Hubieran incumplido el deber de solicitar la declaración del concurso.

2.º Hubieran incumplido el deber de colaboración con el juez del concurso y la administración concursal, no les hubieran facilitado la información necesaria o conveniente para el interés del concurso, o no hubiesen asistido, por sí o por medio de apoderado, a la junta de acreedores, siempre que su participación hubiera sido determinante para la adopción del convenio.

3.º Si, en alguno de los tres últimos ejercicios anteriores a la declaración de concurso, el deudor obligado legalmente a la llevanza de contabilidad no hubiera formulado las cuentas anuales, no las hubiera sometido a auditoría, debiendo hacerlo, o, una vez aprobadas, no las hubiera depositado en el Registro mercantil o en el registro correspondiente.



445. artikulua. Sopikunak.

Sopikunak direla ulertuko da, zordunarekin, edo, halakoak izanez gero, beraren legezko ordezkarekin eta, pertsona juridikoaren kasuan, zuzenbideko edo egitezko administratzaile nahiz likidatzaileekin edota haien zuzendari nagusiekin lankidetzan aritu diren pertsonak, konkurtsoa erruzkotzat kalifikatzeko oinarri izan den edozein egintza gauzatzeko.

II. KAPITULUA

Kalifikazio-atala

1. atala. Kalifikazio-atala eratzea eta izapidetzea

1. azpiatala. Araubide orokorra

446. artikulua. Seigarren atalaren eraketa.

1. Hitzarmena edo likidazio-plana onesten duen edo masa aktiboa legezko arau osagarrien arabera likidatzeko agintzen duen ebazpen judizial berean, epaileak seigarren atala eratzeke aginduko du.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaren salbuespen gisa, seigarren atala ez da eratuko, baldin eta hitzarmen bat onesten bada, eta hitzarmen horretan, kreditu guztientzat edo lege honetan ezarritako mota edo azpimota bateko edo batzuetako kredituentzat, kreditu horien zenbatekoaren herena baino gutxiagoko kita edo hiru urte baino gutxiagoko itxaronaldia ezartzen bada, non eta ez den betetzen.

3. Atalaren hasieran, haren eraketa agindu duen ebazpen judizialaren lekukotza jasoko da, eta hari erantsiko zaizkio konkurtso-deklarazioaren eskaeraren lekukotzak, zordunak ekarritako dokumentazioarenak, konkurtso-deklarazioaren autoarenak eta konkurtso-administrazioaren txostenarenak, erantsitako agiriekin batera.

447. artikulua. Hartzekodunak pertsonatzea.

Epaileak seigarren atala eratzea erabaki duen ebazpena azkenekoz argitaratu eta hurrengo hamar egunen barruan, edozein hartzekodun edo interes legitimoa egiaztatzen duen pertsona atalean pertsonatu eta alderdi izan ahal izango da, eta, hala denean, konkurtso-administrazioak edo Ministerio Fiskalak konkurtsoaren kalifikazioa erruzko gisa oinarritu ahal izateko garrantzitsutzat jotzen duen guztia alegatu ahal izango du idatziz.

Artículo 445. Cómplices.

Se consideran cómplices las personas que, con dolo o culpa grave, hubieran cooperado con el deudor o, si los tuviere, con sus representantes legales y, en caso de persona jurídica, con sus administradores o liquidadores, tanto de derecho como de hecho, o con sus directores generales, a la realización de cualquier acto que haya fundado la calificación del concurso como culpable.

CAPÍTULO II

De la sección de calificación

Sección 1.^a De la formación y tramitación de la sección de calificación

Subsección 1.^a Del régimen general

Artículo 446. Formación de la sección sexta.

1. En la misma resolución judicial por la que se apruebe el convenio o el plan de liquidación o se ordene la liquidación de la masa activa conforme a las normas legales supletorias el juez ordenará la formación de la sección sexta.

2. Por excepción a lo establecido en el apartado anterior, no procederá la formación de la sección sexta cuando se apruebe un convenio en el que se establezca, para todos los créditos o para los de una o varias clases o subclases de las establecidas en esta ley, una quita inferior a un tercio del importe de esos créditos o una espera inferior a tres años, salvo que resulte incumplido.

3. La sección se encabezará con testimonio de la resolución judicial que haya ordenado su formación y se incorporarán a ella testimonios de la solicitud de declaración de concurso, de la documentación aportada por el deudor, del auto de declaración de concurso y del informe de la administración concursal con los documentos anejos.

Artículo 447. Personación de acreedores.

Dentro de los diez días siguientes a la última publicación que se hubiera dado a la resolución en la que el juez hubiera acordado la formación de la sección sexta, cualquier acreedor o persona que acredite interés legítimo podrá personarse y ser parte en la sección y, en su caso, alegar por escrito cuanto considere relevante para que la administración concursal o el Ministerio Fiscal puedan fundar la calificación del concurso como culpable.



448. artikulua. Konkurtso-administrazioaren txostena.

1. Aurreko artikuluan aipatutako epea igaro ondoren, Justizia Administrazioaren letraduak ebazpena emango du, eta konkurtso-administrazioari eskatuko dio hamabost eguneko epean txosten arrazoitua eta dokumentatua aurkez dezala konkurtsoa kalifikatzeko garrantzitsuak diren egitatei buruz, ebazpen-proposamenarekin. Hartzekodunek edo interes legitimoa duten pertsonak alegazioak egin badituzte konkurtsoa erruzkotzat kalifikatzeko, ebazpen horretan bertan aginduko da idazki horiek konkurtso-administrazioari helaraztea.

2. Konkurtso-administrazioak konkurtsoa erruzkotzat kalifikatzea proposatzen badu, txostenak, demanda baten berezko egitura izango duenak, kalifikazioak ukitu behar dituen pertsonen identitatea eta sopikuntzat hartu behar diren pertsonena adieraziko ditu, arrazoia justifikatuz, bai eta, kasua bada, aurreko pertsonak eragindako kalte-galerak eta legeak aurreikusitakoaren arabera bidezkotzat jotzen diren gainerako uziak ere.

449. artikulua. Ministerio Fiskalaren irizpena.

1. Konkurtso-administrazioaren txostena seigarren atalari batu ondoren, Justizia Administrazioaren letraduak Ministerio Fiskalari helaraziko dio atal horren edukia, hamar eguneko epean irizpena eman dezan, konkurtso-administrazioaren txostenaren egitura berarekin, arrazoia justifikatuz, bai eta, hala denean, aurreko pertsonak eragindako kalte-galerak eta bidezkotzat jotzen dituen gainerako uziak ere. Epaileak, inguruabarrak kontuan hartuta, epe hori gehienez ere beste hamar egunez luzatzea erabaki ahal izango du.

2. Ministerio Fiskalak ez badu epearen barruan irizpenik ematen, ulertuko da ez dagoela konkurtso-administrazioaren kalifikazio-proposamenaren aurka, eta atalaren izapidetik aurrera jarraituko dute.

450. artikulua. Atalaren izapidetzea.

1. Konkurtso-administrazioaren txostena eta, hala denean, Ministerio Fiskalak emandako irizpena bat badatoz konkurtsoa ezusteko gisa kalifikatzearekin, epaileak, izapide gehiagorik gabe, jarduketak artxibatzeke aginduko du auto bidez. Ezingo da

Artículo 448. Informe de la administración concursal.

1. Una vez transcurrido el plazo a que se refiere el artículo anterior, el Letrado de la Administración de Justicia dictará resolución requiriendo a la administración concursal para que, en el plazo de quince días, presente un informe razonado y documentado sobre los hechos relevantes para la calificación del concurso, con propuesta de resolución. Si los acreedores o personas con interés legítimo hubieran formulado alegaciones para la calificación del concurso como culpable, en esa misma resolución se ordenará dar traslado de esos escritos a la administración concursal.

2. Si la administración concursal propusiera la calificación del concurso como culpable, el informe, que tendrá la estructura propia de una demanda, expresará la identidad de las personas a las que deba afectar la calificación y la de las que hayan de ser consideradas cómplices, justificando la causa, así como la determinación de los daños y perjuicios que, en su caso, se hayan causado por las personas anteriores y las demás pretensiones que se consideren procedentes conforme a lo previsto por la ley.

Artículo 449. Dictamen del Ministerio Fiscal.

1. Una vez unido a la sección sexta el informe de la administración concursal, el Letrado de la Administración de Justicia dará traslado del contenido de esa sección al Ministerio Fiscal para que, en el plazo de diez días, emita dictamen, con la misma estructura que la del informe de la administración concursal, justificando la causa, así como la determinación de los daños y perjuicios que, en su caso, se hayan causado por las personas anteriores, y las demás pretensiones que estime procedentes. Atendidas las circunstancias, el juez podrá acordar la prórroga de dicho plazo por un máximo de diez días más.

2. Si el Ministerio Fiscal no emitiera dictamen dentro de plazo, se entenderá que no se opone a la propuesta de calificación de la administración concursal y seguirá su curso la tramitación de la sección.

Artículo 450. Tramitación de la sección.

1. Si el informe de la administración concursal y el dictamen que, en su caso, hubiera emitido el Ministerio Fiscal coincidieran en calificar el concurso como fortuito, el juez, sin más trámites, ordenará, mediante auto, el archivo de las actuaciones. Contra



errekurtsorik jarri jarduketak artxibatzea agintzen duen autoaren aurka.

2. Bestela, Justizia Administrazioaren letraduak hamar eguneko epean entzungo dio konkurtsopekoari, eta ebazpen berean aginduko du, egindakoaren arabera, konkurtsoareen kalifikazioak uki ditzakeen edo sopikuntzat jo daitezkeen gainerako pertsona guztiak epatzea, bost eguneko epean ager daitezzen atalean, aurretik halakorik egin ez badute.

3. Epean agertzen direnei, Justizia Administrazioaren letraduak atalaren edukia ikusgai jarriko die, hurrengo hamar egunen barruan haien eskubideari komeni zaiona alega dezaten. Epea mugaeguneratu ostean agertzen badira, alderdi gisa hartuko dira, jarduketetan atzera egin gabe. Ez badira agertzen, Justizia Administrazioaren letraduak auzi-ihesean daudela deklaratu du, eta jarduketek aurrera egingo dute haiei zitazioa berriro egin gabe.

451. artikulua. Kalifikazioari aurka egitea.

1. Konkurtsopekoak edo agertutakoetatik batek aurkakotza formulatzen badu, demandari erantzuteko idazkirako aurreikusitako moduan egin beharko du. Ondorengo izapideetarako, konkurtso-intzidenterako aurreikusitakoaren arabera bideratuko da prozedura. Aurkakotza bat baino gehiago egonez gero, batera bideratuko dira intzidente berean.

2. Aurkakotza formulatu ez bazaio, epaileak bost eguneko epean emango du epaia.

2. azpiatala. Hitzarmena betetzen ez den kasuetako araubide berezia

452. artikulua. Kalifikazio-atalaren eraketaren berezitasunak, hitzarmena betetzen ez den kasuetarako.

1. Hitzarmena betetzen ez bada, ez-betetze hori dela-eta likidazioa irekitzea erabakitzen duen ebazpen judizialean bertan, epaileak seigarren atala eratzeko aginduko du, onetsitako hitzarmenaren edukiagatik ireki ez bada.

2. Seigarren atala hitzarmenaren edukiagatik eratu bada bere garaian, ez-betetze hori dela-eta likidazioa irekitzea erabakitzen duen ebazpen judizialean bertan, epaileak honela jokatu du:

1.a Bertan kalifikazio-epaia edo atala artxibatzeko autoa eman bada, atal hori berriro irekitzeko aginduko du, eta aurreko jarduketak eta ebazpena bera gehituko zaizkio hari.

el auto que ordene el archivo de las actuaciones no cabrá recurso alguno.

2. En otro caso, el Letrado de la Administración de Justicia dará audiencia al concursado por plazo de diez días y, en la misma resolución, ordenará emplazar a todas las demás personas que, según resulte de lo actuado, pudieran ser afectadas por la calificación del concurso o declaradas cómplices, a fin de que, en plazo de cinco días, comparezcan en la sección si no lo hubieran hecho con anterioridad.

3. A quienes comparezcan en plazo el Letrado de la Administración de Justicia les dará vista del contenido de la sección para que, dentro de los diez días siguientes, aleguen cuanto convenga a su derecho. Si comparecieren con posterioridad al vencimiento del plazo, les tendrá por parte sin retroceder el curso de las actuaciones. Si no comparecieren, el Letrado de la Administración de Justicia los declarará en rebeldía y seguirán su curso las actuaciones sin volver a citarlos.

Artículo 451. Oposición a la calificación.

1. Si el concursado o alguno de los comparecidos formulase oposición deberá hacerlo en la forma prevista para un escrito de contestación a la demanda. Para los trámites posteriores el procedimiento se sustanciará según lo previsto para el incidente concursal. De ser varias las oposiciones, se sustanciarán juntas en el mismo incidente.

2. Si no se hubiere formulado oposición, el juez dictará sentencia en el plazo de cinco días.

Subsección 2.^a Del régimen especial en caso de incumplimiento del convenio

Artículo 452. Especialidades de la formación de la sección de calificación en caso de incumplimiento del convenio.

1. En caso de incumplimiento del convenio, en la misma resolución judicial que acuerde la apertura de la liquidación por razón de ese incumplimiento el juez ordenará la formación de la sección sexta si no se hubiera abierto por razón del contenido del convenio aprobado.

2. Si la sección sexta hubiera sido formada en su día por razón del contenido del convenio, en la misma resolución judicial que acuerde la apertura de la liquidación por razón de ese incumplimiento, el juez procederá del siguiente modo:

1.º Si se hubiera dictado en ella sentencia de calificación o auto de archivo de la sección, ordenará la reapertura de esa sección, con incorporación a ella de las actuaciones anteriores y de la propia resolución.



2.a Izapidetzen jarraitzen bada, aginduko du pieza banandua eratzea, irekita dagoen kalifikazio-atalean, haren izapideak modu autonomoan eta titulu honetan zehaztutako arau aplikagarriak aintzat hartuta egin daitezten.

453. artikulua. Hartzekodunak pertsonatzea.

Hamar eguneko epean, epaileak atal hori berriro irekitzea edo pieza banandua eratzea erabaki duen ebazpenaren azken argitalpenetik kontatzen hasita, edozein hartzekodun edo interes legitimoa egiaztatzen duen pertsona atal edo pieza bananduan pertsonatu ahal izango da, eta, hala badagokio, garrantzitsua iruditzen zaion guztia idatziz alegatu ahal izango du konkurtso-administrazioak edo Ministerio Fiskalak oinarritu ahal dezaten konkurtsoaren kalifikazioa honelakoa dela: erruzkoa, hitzarmena ez betetzeagatik konkurtsopekoari ezin egotzi dakioken arrazoi bat tarteko.

454. artikulua. Txostenaren eta irizpenaren edukia.

1. Atala berriro irekitzen bada edo pieza banandua eratzen bada, konkurtso-administrazioaren txostena eta, hala denean, Ministerio Fiskalaren irizpena hitzarmena ez betetzeko arrazoiak zehaztera mugatuko dira, ebazpen-proposamenarekin batera.

2. Kalifikazio-atala eratzen denean, konkurtso-administrazioaren txostenak eta, hala denean, Ministerio Fiskalaren irizpenak adieraziko dituzte konkurtsoa kalifikatzeko garrantzitsuak diren egitateak, aurreko apartatuan aipatutako muga izan gabe, ebazpen-proposamenarekin batera.

2. atala. Kalifikazioaren epaia

455. artikulua. Kalifikazioaren epaia.

1. Epaiak konkurtsoa ezustekoa edo erruzkoa dela deklaratu du. Erruzkotzat jotzen badu, kalifikazio horren oinarri den arrazoia edo arrazoiak adieraziko ditu.

2. Konkurtsoa erruzkotzat kalifikatzen duen epaiak, aurrekoez gain, aipamen hauek jasoko ditu:

1.a Kalifikazioak ukitutako pertsonak zehaztea, baita, hala dagokionean, sopikun deklaraturakoak ere.

Pertsona juridikoaren kasuan, kalifikazioak ukitutako pertsonatzat hartu ahal izango dira zuzenbideko edo egitezko administratzaile edo likidatzaileak, zuzendari

2.º Si continuara en tramitación, ordenará la formación de una pieza separada dentro de la sección de calificación que se hallare abierta, para su tramitación de forma autónoma y conforme a las normas establecidas en este título que le sean de aplicación.

Artículo 453. Personación de acreedores.

Dentro del plazo de diez días, contado desde la última publicación que se hubiera dado a la resolución por la que el juez hubiera acordado la reapertura de esa sección o la formación de pieza separada, cualquier acreedor o persona que acredite interés legítimo podrá personarse en la sección o en la pieza separada y, en su caso, alegar por escrito cuanto considere relevante para que la administración concursal o el Ministerio Fiscal puedan fundar la calificación del concurso como culpable en razón del incumplimiento del convenio por causa imputable al concursado.

Artículo 454. Contenido del informe y del dictamen.

1. En el caso de reapertura de la sección o de formación de pieza separada, el informe de la administración concursal y, en su caso, el dictamen del Ministerio Fiscal, se limitarán a determinar las causas del incumplimiento del convenio, con propuesta de resolución.

2. En el caso de formación de la sección de calificación, el informe de la administración concursal y, en su caso, el dictamen del Ministerio Fiscal, expresarán los hechos relevantes para la calificación del concurso, sin la limitación a que se refiere el apartado anterior, con propuesta de resolución.

Sección 2.ª De la sentencia de calificación

Artículo 455. Sentencia de calificación.

1. La sentencia declarará el concurso como fortuito o como culpable. Si lo calificara como culpable, expresará la causa o causas en que se fundamente la calificación.

2. La sentencia que califique el concurso como culpable contendrá, además, los siguientes pronunciamientos:

1.º La determinación de las personas afectadas por la calificación, así como, en su caso, la de las declaradas cómplices.

En caso de persona jurídica, podrán ser consideradas personas afectadas por la calificación los administradores o liquidadores, de derecho o de



nagusiak eta, konkurtsoa deklaratu aurreko bi urteetan, izaera horietako edozein izan dutenak.

Ukitutako pertsonaren bat egitezko administratzaile-edo likidatzaile-egoeran bada, epaiak berariaz eman beharko ditu izaera hori esleitu izanaren arrazoiak.

Ez dira egitezko administratzailetzat hartuko, hitzarmenean itundutakoaren arabera, informazio-eskubide bereziak, zordunaren eragiketa jakin batzuk baimentzeko eskubideak edo bideragarritasun-plana betetzen dela zaintzeko edo kontrolatzeko beste edozein eskubide dituzten hartzekodunak, izaera hori esleitzea justifika dezakeen bestelako inguruabarren bat dagoela egiaztatzen denean izan ezik.

2.a Kalifikazioak ukitutako pertsona fisikoak desgaitzea inoren ondasunak administratzeko bi urtetik hamabost urte arteko epean, bai eta edozein pertsona ordezkatzeko ere epe horretan.

Epaiak finkatuko du desgaitze-aldiaren iraupena, kontuan hartuta egitateen larritasuna eta masa aktiboari eragindako kaltearen garrantzia, bai eta konkurtsoa erruzko gisa kalifikatzeko beste epai batzuk ere, pertsona bera jada desgaituta badago.

Salbuespen gisa, hitzarmenaren kasuan, konkurtso-administrazioak hala eskatu badu kalifikazio-txostenean, epaiak baimena eman ahal izango dio desgaituari enpresaren buru edo konkurtsopeko sozietatearen administratzaile gisa jarraitzeko, hitzarmena betetzen den bitartean edo epe laburragoan.

3.a Kalifikazioak ukitutako edo sopikuntzat jotako pertsonak konkurtso- edo masa-hartzekodun gisa duten edozein eskubide galtzea.

4.a Kalifikazioak ukitutako pertsonak edo sopikuntzat jotakoak kondenatzea zordunaren ondaretik edo masa aktibotik bidegabeki lortutako ondasunak edo eskubideak itzultzera.

5.a Kalifikazioak ukitutako pertsonak edo sopikuntzat jotakoak kondenatzea eragindako kalte-galerak ordaintzera.

456. artikulua. Defizita estaltzera kondenatzea.

1. Likidazio-fasea irekitzearen ondorioz kalifikazio-atala osatu edo berriro ireki bada, epaiak, kalifikazio-

hecho, los directores generales y quienes, dentro de los dos años anteriores a la fecha de la declaración de concurso, hubieren tenido cualquiera de estas condiciones.

Si alguna de las personas afectadas lo fuera como administrador o liquidador de hecho, la sentencia deberá motivar específicamente la atribución de esa condición.

No tendrán la consideración de administradores de hecho los acreedores que, en virtud de lo pactado en el convenio tuvieran derechos especiales de información, de autorización de determinadas operaciones del deudor o cualesquiera otras de vigilancia o control sobre el cumplimiento del plan de viabilidad, salvo que se acreditara la existencia de alguna circunstancia de distinta naturaleza que pudiera justificar la atribución de esa condición.

2.º La inhabilitación de las personas naturales afectadas por la calificación para administrar los bienes ajenos durante un período de dos a quince años, así como para representar a cualquier persona durante el mismo período.

La duración del periodo de inhabilitación se fijará por el juez atendiendo a la gravedad de los hechos y a la entidad del perjuicio causado a la masa activa, así como a la existencia de otras sentencias de calificación del concurso como culpable en los que la misma persona ya hubiera sido inhabilitada.

Excepcionalmente, en caso de convenio, si así lo hubiera solicitado la administración concursal en el informe de calificación, la sentencia podrá autorizar al inhabilitado a continuar al frente de la empresa o como administrador de la sociedad concursada durante el tiempo de cumplimiento del convenio o por periodo inferior.

3.º La pérdida de cualquier derecho que las personas afectadas por la calificación o declaradas cómplices tuvieran como acreedores concursales o de la masa.

4.º La condena a las personas afectadas por la calificación o declaradas cómplices a devolver los bienes o derechos que indebidamente hubieran obtenido del patrimonio del deudor o recibido de la masa activa.

5.º La condena a las personas afectadas por la calificación o declaradas cómplices a indemnizar los daños y perjuicios causados.

Artículo 456. Condena a la cobertura del déficit.

1. Cuando la sección de calificación hubiera sido formada o reabierta como consecuencia de la apertura



epaian, kondenatu ahal izango ditu, solidaritatearekin nahiz gabe, defizita osorik edo zati batean estaltzera konkurtsopeko pertsona juridikoaren administratzaile, likidatzaile, zuzenbidekoak nahiz egitezkoak, edo zuzendari nagusi guztiak edo batzuk, kalifikazioak ukitutako pertsonatzat jo direnak, konkurtsoa erruzkotzat kalifikatzea eragin duen pertsona horien jokabideak kaudimengabezia eragin edo larriagotu duen neurrian.

2. Defizita dagoela joko da konkurtso-administrazioaren inbentarioaren arabera masa aktiboaren ondasunen eta eskubideen balioa hartzekodunen zerrendan aitortutako kredituen zenbatekoen batura baino txikiagoa denean.

3. Defizita estaltzeko kondenatu bat baino gehiago egonez gero, epaiak haietako bakoitzak ordaindu beharreko zenbatekoa zehaztu beharko du, konkurtsoa kalifikatzera eraman duten egitateetan izan duten partaidetza aintzat hartuta.

4. Hitzarmena ez betetzeagatik seigarren atala berriro irekitzen bada, eta konkurtsoa erruzkotzat jo bada, epaileak, defizita osorik edo zati batean estaltzeko kondena finkatzeko, aintzat hartuko ditu bai kalifikazio-epaian frogatutaz jotako egitateak, bai berriro irekitzeko erabakigarriak direnak.

457. artikulua. Publizitatea.

Erruzko konkurtso gisa kalifikatzeko epaiaren edukia Konkurtso-erregistro publikoan inskribatuko da.

458. artikulua. Desgaikuntza-kondenak betetzea.

Pertsona bat bi konkurtso edo gehiagotan desgaitzen bada, haietako bakoitzaren batura izango da desgaikuntza-aldia.

459. artikulua. Desgaituak kargutik kentzea eta ordezkatzeta.

1. Kalifikazio-epaiaren irmotasunak berekin ekarriko du desgaituta dauden konkurtsopeko pertsona juridikoaren administratzaile eta likidatzaileen kargu-uzte automatikoa.

3. Intzidenteari buruzko ebazpena, eskatutako onura ematen edo ukatzen duela, irmo bihurtu arte, ezin izango da konkurtsoa amaitzeko autorik eman.

3. azpiatala. Libratzearen hedadura

491. artikulua. Libratzearen hedadura.

1. Masaren aurkako kredituak eta konkurtso-kreditu pribilegiatuak oso-osorik ordaindu badira, eta hori egin ahal izateko baldintzak betetzen dituen zorduna saiatu bada ordainketa-akordio estrajudizial bat lortzen, ordaindu gabeko pasibotik libratzearen onura ordaindu gabeko kreditu guztietara hedatuko da, zuzenbide publikoko kredituak eta mantenu-kredituak izan ezik.

2. Hori egin ahal izateko baldintzak betetzen dituen zorduna ez bada saiatu ordainketa-akordio estrajudizial bat lortzen, ordaindu gabeko pasibotik libratzearen onura kreditu arrunten ehuneko hirurogeita hamabostera eta mendeko guztien ehuneko hirurogeita hamabostera hedatuko da.

4. azpiatala. Libratzearen errebokazioa

492. artikulua. Libratzea ematea errebokatzeko.

1. Konkurtsoko edozein hartzekodunek legitimazioa izango du konkurtsoko epaileari ordaindu gabeko pasibotik libratzearen onura erreboka dadila eskatzeko, baldin eta, hura eman eta hurrengo bost urteetan, egiaztatzen bada zordunak ezkutatu egin dituela ondasunak, eskubideak edo diru-sarrerak,

posibilidad, deberá acompañar propuesta de plan de pagos, tramitándose la solicitud conforme a lo establecido en la sección siguiente.

Artículo 490. Resolución sobre la solicitud.

1. Si la administración concursal y los acreedores personados mostraran conformidad a la solicitud del deudor que hubiera mantenido la solicitud inicial o no se opusieran a ella dentro del plazo legal, el juez del concurso, previa verificación de la concurrencia de los presupuestos y requisitos establecidos en esta ley, concederá el beneficio de la exoneración del pasivo insatisfecho en la resolución en la que declare la conclusión del concurso.

2. La oposición solo podrá fundarse en la falta de alguno de los presupuestos y requisitos establecidos en esta ley. La oposición se sustanciará por el trámite el incidente concursal.

3. No podrá dictarse auto de conclusión del concurso hasta que gane firmeza la resolución que recaiga en el incidente concediendo o denegando el beneficio solicitado.

Subsección 3.^a De la extensión de la exoneración

Artículo 491. Extensión de la exoneración.

1. Si se hubieran satisfecho en su integridad los créditos contra la masa y los créditos concursales privilegiados y, si el deudor que reuniera los requisitos para poder hacerlo, hubiera intentado un previo acuerdo extrajudicial de pagos, el beneficio de la exoneración del pasivo insatisfecho se extenderá a la totalidad de los créditos insatisfechos, exceptuando los créditos de derecho público y por alimentos.

2. Si el deudor que reuniera los requisitos para poder hacerlo no hubiera intentado un previo acuerdo extrajudicial de pagos, el beneficio de la exoneración del pasivo insatisfecho se extenderá al setenta y cinco por ciento de los créditos ordinarios y a la totalidad de los subordinados.

Subsección 4.^a De la revocación de la exoneración

Artículo 492. Revocación de la concesión de la exoneración.

1. Cualquier acreedor concursal estará legitimado para solicitar del juez del concurso la revocación de la concesión del beneficio de exoneración del pasivo insatisfecho si, durante los cinco años siguientes a su concesión, se constatase que el deudor ha ocultado la existencia de bienes o derechos o de ingresos, salvo



salbu eta Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen arabera enbargaezinak direnean.

2. Errebokatzeko eskaera hitzeko judiziorako ezarritakoaren arabera izapidetuko da.

3. Epaileak onura errebokatzera erabakitzen badu, hartzekodunek beren akzio guztiak berreskuratuko dituzte zordunaren aurrean, konkurtsoaren amaieran ordaindu gabe geratutako kredituak kobratzeko.

3. atala. Ordainketa-plan bat onesteagatik libratzeko araubide berezia

493. artikulua. Aurrebaldintza objektibo berezia.

Fede oneko zordunak, araubide orokorrerako ezarritako aurrebaldintza objektiboa betetzen ez badu ere, ordaindu gabeko pasibotik libratzearen onura eskatu ahal izango du, libratuta geratuko ez litzatekeen zorraren ordainketa-plan bati lotuta, baldin eta honako betekizun hauek betetzen baditu:

1.a Konkurtsoa deklaratu aurreko lau urteetan ez errefusatzea bere ahalmeneko egokia zen enplegu-eskaintza bat.

2.a Konkurtsoko epaileari eta konkurtso-administrazioari dagokienez, laguntzeko eta informazioa emateko eginbeharra ez betetzea.

3.a Azken hamar urteetan ordaindu gabeko pasibotik libratzearen onura ez lortzea.

494. artikulua. Libratzeko eskaera.

Ordaindu gabeko pasibotik libratzeko eskaeran, zordunak esanbidez onartu beharko du epaileak onetsitako ordainketa-planari men egitea, eta onura horren emakida Konkurtso-erregistro publikoan jasota uztea, bost urteko epean.

495. artikulua. Ordainketa-planaren proposamena.

1. Ordaindu gabeko pasibotik libratzeko eskaerarekin batera, zordunak plan-proposamen bat aurkeztuko du, honako hauek ordaintzeko: masaren aurkako kredituak, konkurtso-kreditu pribilegiatuak, mantenu-kredituak eta planean jasotako kreditu arruntzen zatia. Zuzenbide publikoko kredituei dagokienez, geroratzeko edo zatikatzeko eskaerak berriazko araudiaren arabera izapidetuko dira.

2. Ordainketa-planaren proposamenean, zordunak esanbidez jaso beharko du proposamen horren arabera libratuta geratzen ez diren kredituen ordainketa-egutegia. Konkurtsoa amaitu eta hurrengo bost urteen barruan ordaindu beharko dira kreditu horiek, salbu eta geroagoko epemuga dutenean.

que fueran inembargables según la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

2. La solicitud de revocación se tramitará conforme a lo establecido para el juicio verbal.

3. En caso de que el juez acuerde la revocación del beneficio, los acreedores recuperarán la plenitud de sus acciones frente al deudor para hacer efectivos los créditos no satisfechos a la conclusión del concurso.

Sección 3.^a Del régimen especial de exoneración por la aprobación de un plan de pagos

Artículo 493. Presupuesto objetivo especial.

Aunque el deudor de buena fe no reuniera el presupuesto objetivo establecido para el régimen general podrá solicitar el beneficio de exoneración del pasivo insatisfecho, con sujeción a un plan de pagos de la deuda que no quedaría exonerada, si cumpliera los siguientes requisitos:

1.º No haber rechazado dentro de los cuatro años anteriores a la declaración de concurso una oferta de empleo adecuada a su capacidad.

2.º No haber incumplido los deberes de colaboración y de información respecto del juez del concurso y de la administración concursal.

3.º No haber obtenido el beneficio de exoneración del pasivo insatisfecho dentro de los diez últimos años.

Artículo 494. Solicitud de exoneración.

En la solicitud de exoneración del pasivo insatisfecho, el deudor deberá aceptar de forma expresa someterse al plan de pagos que resulte aprobado por el juez y que la concesión de este beneficio se haga constar en el Registro público concursal durante un plazo de cinco años.

Artículo 495. Propuesta de plan de pagos.

1. A la solicitud de exoneración del pasivo insatisfecho acompañará el deudor una propuesta de plan de pagos de los créditos contra la masa, de los créditos concursales privilegiados, de los créditos por alimentos y de la parte de los créditos ordinarios que incluya el plan. Respecto a los créditos de derecho público, la tramitación de las solicitudes de aplazamiento o fraccionamiento se registrará por su normativa específica.

2. En la propuesta de plan de pagos deberá incluir expresamente el deudor el calendario de pagos de los créditos que, según esa propuesta, no queden exonerados. El pago de estos créditos deberá realizarse dentro de los cinco años siguientes a la conclusión del concurso, salvo que tengan un vencimiento posterior.



3. Ordainketa-planaren proposamenean jasotako kredituek ezin izango dute interesik sortu.

496. artikulua. Ordainketa-plana onestea.

1. Justizia Administrazioaren letraduak eskaera eta zordunak aurkeztutako ordainketa-planaren proposamena helaraziko dizkie konkurtso-administrazioari eta pertsonatutako hartzekodunei, hamar eguneko epean, onura emateari buruz egokitzat jotzen dutena alega dezaten.

2. Alegazioak aurkeztu ondoren edo aurreko apartatuan aipatutako epea igaro ondoren, Justizia Administrazioaren letraduak zordunari helaraziko dizkio aurkeztu diren idazkiak, horretarako emandako epearen barruan adieraz dezan ordainketa-planari eusten dion edo aldatu egiten duen, alegatutako guztia edo zati bat kontuan hartuta.

3. Behin jarduketak igorrita, konkurtsoko epaileak, konkurtsoa amaitu dela deklaratzeko duen ebazpen berean, aldeaz aurretik egiaztatu ondoren aurrebaldintzak eta lege honetan ezarritako betekizunak betetzen direla, ordaindu gabeko pasiboa ordaintzetik libratzearen onura behin-behinean emango du, eta ordainketa-plana onetsiko du, proposamenean ezarritakoaren arabera edo egokitzat jotzen dituen aldaketekin, baina betetze-aldia ez da inola ere bost urtetik gorakoa izango.

497. artikulua. Libratzea hedatzea ordainketa-planen kasuan.

1. Ordainketa-planari men egitea onartu duten zordunei ordaindu gabeko pasibotik libratzearen onura, plan horren arabera kreditu hauetatik ordaindu gabe geratuko den zatira hedatuko da:

1.a Konkurtsoa amaitu den datan ordaintzeke zeuden kreditu arruntak eta mendekoak, nahiz eta komunikatuta ez egon, zuzenbide publikoko kredituak eta mantenuarenak salbuetsita.

2.a Pribilegio berezia duten kredituei dagokienez, bermea exekutatzeko ordaindu ezin izan diren kredituen zenbatekoa, pribilegio orokorra izan dezakeen zatian izan ezik.

2. Zuzenbide publikoko kredituen ordainketa geroratzeko edo zatikatze eskaerak berariazko araudian xedatutakoaren arabera arautuko dira.

3. Los créditos incluidos en la propuesta de plan de pagos no podrán devengar interés.

Artículo 496. Aprobación del plan de pagos.

1. El Letrado de la Administración de Justicia dará traslado de la solicitud y de la propuesta de plan de pagos presentadas por el deudor a la administración concursal y a los acreedores personados por un plazo de diez días, para que puedan alegar cuanto estimen oportuno en relación con la concesión del beneficio.

2. Presentadas las alegaciones o transcurrido el plazo a que se refiere el apartado anterior, el Letrado de la Administración de Justicia dará traslado al deudor de los escritos que se hubieran presentado a fin de que, dentro del plazo que al efecto le conceda, manifieste si mantiene el plan de pagos o lo modifica atendiendo en todo o en parte a lo alegado.

3. Elevadas las actuaciones, el juez del concurso, en la misma resolución en la que declare la conclusión del concurso, previa verificación de la concurrencia de los presupuestos y de los requisitos establecidos en esta ley, concederá provisionalmente el beneficio de la exoneración del pasivo insatisfecho y aprobará el plan de pagos en los términos de la propuesta o con las modificaciones que estime oportunas, sin que en ningún caso el periodo de cumplimiento pueda ser superior a cinco años.

Artículo 497. Extensión de la exoneración en caso de plan de pagos.

1. El beneficio de la exoneración del pasivo insatisfecho concedido a los deudores que hubiesen aceptado someterse al plan de pagos se extenderá a la parte que, conforme a este, vaya a quedar insatisfecha, de los siguientes créditos:

1.º Los créditos ordinarios y subordinados pendientes a la fecha de conclusión del concurso, aunque no hubieran sido comunicados, exceptuando los créditos de derecho público y por alimentos.

2.º Respecto a los créditos con privilegio especial, el importe de los mismos que no haya podido satisfacerse con la ejecución de la garantía, salvo en la parte que pudiera gozar de privilegio general.

2. Las solicitudes de aplazamiento o de fraccionamiento del pago de los créditos de derecho público se regirán por lo dispuesto en su normativa específica.



498. artikulua. Libratzea ematea errebokatzea ordainketa-planen kasuan.

Zordunak ondasunen, eskubideen edo diru-sarreren existentzia ezkutatuz gero, errebokatze-eskaeraz gain, konkurtsoko edozein hartzekodunek, ordainketa-plana betetzeko ezarritako epean, legitimazioa izango du konkurtsoko epaileari eskatzeko ordaindu gabeko pasibotik libratzeko onura behin-behinean ematea errebokatzeko, honako kasu hauetan:

- 1.a Zordunak ordainketa-plana betetzen ez badu.
- 2.a Zordunaren egoera ekonomikoa nabarmen hobetzen bada jarauntsi, legatu edo dohaintzaren ondorioz, edo zorte-, enbido- edo zori-jokoaren ondorioz; horrela, mantenua ordaintzeko betebeharrari kalterik egin gabe, libratutako kreditu guztiak ordaindu ahal izango lituzke.
- 3.a Zordunak fede oneko zorduntzat jotzeko ezarritako betekizunak ez betetzeagatik onura ematea eragotzi duen arrazoirik badago.

499. artikulua. Behin betiko libratzea.

1. Ordainketa-plana betetzeko ezarritako epea onura errebokatu gabe igaro bada, konkurtsoko epaileak autoa emango du, zordunak hala eskatuta, eta konkurtsuan ordaindu gabeko pasibotik behin betiko libratzea onartuko du.
2. Zordunak ordainketa-plana osorik bete ez badu ere, epaileak, hartzekodunei entzun ondoren, eta kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, zordunaren ordaindu gabeko pasibotik behin betiko libratzea erabaki ahal izango du, baldin eta, ordainketa-plana osorik bete ez badu ere, onura behin-behineko eman zitzaionetik bost urteko epean jasotako diru-sarrera guztien –enbargaezin ez direnen– erdia edo laurden bat gutxienez bideratu badu plana betetzera, betiere martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege Dekretuaren (Baliabiderik gabeko hipoteka-zordunak babesteko presako neurriei buruzkoa) 3.1 artikulua a) eta b) letretan aurreikusitako inguruabarrak betetzen baditu zordunak familia-unitatearen diru-sarrerei eta zaugarritasun bereziko familia-inguruabarrei dagokienez.

Artikulu honen ondoretarako, diru-sarrera enbargaezintzat joko dira uztailaren 1eko 8/2011 Errege Lege Dekretuaren (Hipoteka-zordunak laguntzeko neurriei buruzkoa eta gastu publikoa kontrolatzeko, toki-erakundeek enpresekin eta autonomoekin hartutako zorrak kitatzeko, enpresa-

Artículo 498. Revocación de la concesión de la exoneración en caso de plan de pagos.

Además de la solicitud de revocación en caso de ocultación por el deudor de la existencia de bienes o derechos o de ingresos, cualquier acreedor concursal, durante el plazo fijado para el cumplimiento del plan de pagos, estará legitimado para solicitar del juez del concurso la revocación de la concesión provisional del beneficio de exoneración del pasivo insatisfecho en los siguientes casos:

- 1.º Si el deudor incumpliere el plan de pagos.
- 2.º Si mejorase sustancialmente la situación económica del deudor por causa de herencia, legado o donación, o por juego de suerte, envite o azar, de manera que, sin detrimento de la obligación de satisfacer alimentos, pudiera pagar todos los créditos exonerados.
- 3.º Si el deudor incurriese en causa que hubiera impedido la concesión del beneficio por falta de los requisitos establecidos para poder ser considerado deudor de buena fe.

Artículo 499. Exoneración definitiva.

1. Transcurrido el plazo fijado para el cumplimiento del plan de pagos sin que se haya revocado el beneficio, el juez del concurso, a petición del deudor, dictará auto concediendo la exoneración definitiva del pasivo insatisfecho en el concurso.
2. Aunque el deudor no hubiese cumplido en su integridad el plan de pagos, el juez, previa audiencia de los acreedores, atendiendo a las circunstancias del caso, podrá conceder la exoneración definitiva del pasivo insatisfecho del deudor que no hubiese cumplido en su integridad el plan de pagos pero hubiese destinado a su cumplimiento, al menos, la mitad de los ingresos percibidos durante el plazo de cinco años desde la concesión provisional del beneficio que no tuviesen la consideración de inembargables o la cuarta parte de dichos ingresos cuando concudiesen en el deudor las circunstancias previstas en el artículo 3.1, letras a) y b), del Real Decreto-ley 6/2012, de 9 de marzo, de medidas urgentes de protección de deudores hipotecarios sin recursos, respecto a los ingresos de la unidad familiar y circunstancias familiares de especial vulnerabilidad.

A los efectos de este artículo, se entiende por ingresos inembargables los previstos en el artículo 1 del Real Decreto-ley 8/2011, de 1 de julio, de medidas de apoyo a los deudores hipotecarios, de control del gasto público y cancelación de deudas con empresas y autónomos contraídas por las entidades locales, de



jarduera sustatzeko eta birgaitzea bultzatzeko, eta administrazioa soiltzeko neurriei buruzkoa)

1. artikuluan aurreikusten direnak.

3. Ordaindu gabeko pasibotik behin betiko libratzea onartzen duen ebazpena Konkurtso-erregistro publikoan argitaratuko da.

4. Ezingo da errekurtsorik jarri ebazpen horren aurka.

4. atala. Libratzearen ondore erkideak

500. artikulua. Libratzeak hartzekodunengan dituen ondoreak.

Libratzearen ondorioz kredituak azkentzen zaizkien hartzekodunek ezin izango dute inolako akziorik hasi zordunaren aurka, kreditu horiek kobratzeko.

501. artikulua. Ezkontzako ondasun erkideetatik libratzearen ondoreak.

1. Zordunaren ezkontzako ondasun-eraentza irabazpidezko sozietatearen edo beste edozein ondasun-erkidegoren eraentza bada, libratzeak onura ekarriko die ondasun erkideei, konkurtso-deklarazioaren aurreko kredituei dagokienez, kreditu horien aurrean erantzukizuna izan behar badute, nahiz eta beste ezkontidea konkurtsoan deklaratu ez.

2. Erregela bera aplikatuko zaie jada desegindako ezkontza-sozietate edo -erkidegoaren ondasunei, hura likidatu arte.

3. Salbu geratzen da hartzekodunek duten ahalmena zordunaren ezkontidearen ondore pribatiboaren aurka jotzeko beren zor propioen ondorioz, zordunak pasibotik libratzearen onura lortu arte.

502. artikulua. Libratzeak betebeharpeko solidarioengan eta fidatzaileengan dituen ondoreak.

Libratzeak ez ditu ukituko hartzekodunen eskubideak zordunarekin solidarioki behartuta daudenen eta haien fidatzaile edo abal-emaleen aurrean; haiek ezingo dute baliatu zordunak lortutako ordaindu gabeko pasibotik libratzearen onura. Eta ezin izango dute subrogatu likidazioaren osteko ordainketagatik hartzekodunak haren kontra dituen eskubideetan baldin eta emandako libratzea errebokatzen ez bada.

fomento de la actividad empresarial e impulso de la rehabilitación y de simplificación administrativa.

3. La resolución por la que se conceda la exoneración definitiva del pasivo insatisfecho se publicará en el Registro público concursal.

4. Contra esta resolución no cabrá recurso alguno.

Sección 4.^a De los efectos comunes de la exoneración

Artículo 500. Efectos de la exoneración sobre los acreedores.

Los acreedores cuyos créditos se extingan por razón de la exoneración no podrán iniciar ningún tipo de acción frente al deudor para el cobro de los mismos.

Artículo 501. Efectos de la exoneración respecto de los bienes conyugales comunes.

1. Si el régimen económico del matrimonio del deudor fuera el de sociedad de gananciales o cualquier otro de comunidad de bienes, la exoneración beneficiará a los bienes comunes respecto de los créditos anteriores a la declaración de concurso frente a los que debieran responder esos bienes, aunque el otro cónyuge no hubiera sido declarado en concurso.

2. La misma regla será de aplicación a los bienes de la sociedad o comunidad conyugal ya disuelta en tanto no haya sido liquidada.

3. Queda a salvo la facultad de los acreedores de dirigirse contra el patrimonio privativo del cónyuge del deudor por sus deudas propias en tanto no haya obtenido este el beneficio de la exoneración del pasivo.

Artículo 502. Efectos de la exoneración sobre los obligados solidarios y sobre fiadores.

La exoneración no afectará a los derechos de los acreedores frente a los obligados solidariamente con el deudor y frente a sus fiadores o avalistas, quienes no podrán invocar el beneficio de exoneración del pasivo insatisfecho obtenido por el deudor ni subrogarse por el pago posterior a la liquidación en los derechos que el acreedor tuviese contra aquel, salvo que se revocase la exoneración concedida.



III. KAPITULUA

Konkurtoa berriro irekitzea

503. artikulua. Konkurtsoa berriro irekitzea.

Bidezkoa den kasuetan, prozeduraren gaineko ardura izan duen epaitegiak deklaratu du konkurtoa berriro ireki dela, eta auto berberetan izapidetuko da.

504. artikulua. Pertsona fisikoa den zordunaren konkurtoa berriro irekitzea.

1. Pertsona fisikoa den zordunaren konkurtoa bost urteko epean bakarrik ireki ahal izango da berriro, masa aktiboa likidatu delako edo nahikoa ez delako amaitzen denetik hasita.

2. Pertsona fisikoa den zordunaren konkurtoa deklaratzeko, masa aktiboa likidatu delako edo nahikoa ez delako beste bat amaitu eta hurrengo bost urteen ondoren, konkurto berritza hartuko da.

505. artikulua. Pertsona juridikoa den zordunaren konkurto amaitua berriro irekitzea.

1. Pertsona juridikoa den zordunaren konkurtoa berriro ireki ahal izango da, masa aktiboa likidatu delako edo nahikoa ez delako, baldin eta, amaitu ondoren, ondasun berriak agertzen badira.

2. Konkurtsoa amaitu eta hurrengo urtean, masa aktiboa likidatu delako edo nahikoa ez delako, asebeteta ez dauden hartzekodunetatik edozeinek konkurtoa berriro irekitzeko eskatu ahal izango du. Berriro irekitzeko eskaeran adierazi behar dira egitaritu beharreko itzulketa-akzio zehatzak, edo, hala denean, konkurto-kalifikazioa erruzkotzat har dezaketen egitate garrantzitsuak azaldu behar dira, salbu eta amaitutako konkurtoan konkurtoa erruzkotzat jo denean.

3. Konkurtsoa berriro irekitzea erabakitzen duen ebazpen judizialean, epaileak aginduko du amaitu ondoren azaldutako ondasun eta eskubideak likidatzea.

506. artikulua. Publizitatea.

1. Konkurtsoa berriro irekitzean, konkurto-deklarazioari emandako publizitate bera emango zaio.

2. Pertsona juridikoaren konkurtoa berriro irekitzen bada, berriro irekitzea erabakitzen den autoan bertan, epaileak konkurtopekoaren erregistro-orria berriro irekitzeko aginduko du, uztailaren 19ko 1784/1996

CAPÍTULO III

De la reapertura del concurso

Artículo 503. Reapertura del concurso.

En los casos en los que proceda, la reapertura del concurso será declarada por el mismo juzgado que hubiera conocido del procedimiento y se tramitará en los mismos autos.

Artículo 504. Reapertura del concurso del deudor persona natural.

1. La reapertura del concurso del deudor persona natural solo podrá tener lugar dentro de los cinco años siguientes a la conclusión por liquidación o insuficiencia de la masa activa.

2. La declaración de concurso de deudor persona natural después de los cinco años siguientes a la conclusión de otro por liquidación o insuficiencia de la masa activa tendrá la consideración de nuevo concurso.

Artículo 505. Reapertura del concurso concluido por deudor persona jurídica.

1. La reapertura del concurso del deudor persona jurídica por liquidación o por insuficiencia de la masa activa solo podrá tener lugar cuando, después de la conclusión, aparezcan nuevos bienes.

2. En el año siguiente a la fecha de la conclusión del concurso por liquidación o por insuficiencia de la masa activa, cualquiera de los acreedores insatisfechos podrá solicitar la reapertura del concurso. En la solicitud de reapertura deberán expresarse las concretas acciones de reintegración que deban ejercitarse o, en su caso, exponerse aquellos hechos relevantes que pudieran conducir a la calificación de concurso como culpable, salvo que, en el concurso concluido, ya se hubiera calificado el concurso como culpable.

3. En la resolución judicial por la que se acuerde la reapertura del concurso, el juez ordenará la liquidación de los bienes y derechos aparecidos con posterioridad a la conclusión.

Artículo 506. Publicidad.

1. A la reapertura del concurso se le dará la misma publicidad que la que se hubiera dado a la declaración de concurso.

2. En caso de reapertura del concurso de persona jurídica, en el propio auto en que se acuerde la reapertura el juez ordenará la reapertura de la hoja registral de la concursada en la forma prevista en el



Errege Dekretuak onetsitako Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduan aurreikusitako moduan.

507. artikulua. Inbentarioa eta hartzekodunen zerrenda, konkurtsoa berriro irekitzen denean.

1. Konkurtso-administrazioak bi hilabeteko epean eguneratuko ditu inbentarioaren eta hartzekodunen zerrendaren behin betiko testuak.
2. Inbentarioari dagokionez, eguneratze horretan zerrendatik ezabatuko dira zordunaren ondaretik atera diren ondasun eta eskubideak, irauten dutenen balorazioa zuzenduko da, eta gero azaldu direnak sartu eta baloratuko dira; eta hartzekodunen zerrendari dagokionez, irauten duten kredituen egungo zenbatekoa eta geroraturako gainerako aldaketak aipatu ez ezik, geroko kredituak ere zerrendan sartuko dira.
3. Eguneraketa egin eta onetsiko da lege honen I. liburuko IV. eta V. tituluetan masa aktiboa eta pasiboa zehazteko xedatutakoarekin bat etorriz.
4. Konkurtso-administrazioaren txostenaren eta agiri eguneratuen publizitatea eta haien aurkaratzea lege honen I. liburuko VI. tituluako I. eta II. kapituluetan xedatutakoaren arabera arautuko dira. Epaileak ofizios eta geroko errekurtsorik gabe errefusatuko ditu eguneratu beharreko gaiei hertsiki buruzkoak ez diren uziak.

XII. TITULUA

Arau prozesal orokorrak, prozedura laburtua, konkurtso-intzidentea eta errekurtsio-sistema

I. KAPITULUA

Prozeduraren izapidetzea

508. artikulua. Atalak.

Konkurtso-prozedurak atal hauek izango ditu, eta atal bakoitzeko jarduketak antolatuko dira beharrezkoak edo komenigarriak diren pieza bananduetan:

- 1.a Lehenengo atalean jasoko da konkurtso-deklarazioarekin, kautela-neurriekin, fase erkidearen azken ebazpenarekin, konkurtsoaren amaierarekin, eta, hala denean, konkurtso hori berriro irekitzearekin zerikusia duen guztia.
- 2.a Bigarren atalean jasoko da konkurtsoaren konkurtso-administrazioarekin, konkurtso-administratzaileen izendapen eta estatutuarekin,

Reglamento del Registro mercantil, aprobado por el Real Decreto 1784/1996, de 19 de julio.

Artículo 507. Inventario y lista de acreedores en caso de reapertura.

1. Los textos definitivos del inventario y de la lista de acreedores se actualizarán por la administración concursal en el plazo de dos meses.
2. La actualización se limitará, en cuanto al inventario, a suprimir de la relación los bienes y derechos aquellos que hubiesen salido del patrimonio del deudor, a corregir la valoración de los subsistentes y a incorporar y valorar los que hubiesen aparecido con posterioridad; y, en cuanto a la lista de acreedores, a indicar la cuantía actual y demás modificaciones acaecidas respecto de los créditos subsistentes y a incorporar a la relación los créditos posteriores.
3. La actualización se realizará y aprobará de conformidad con lo dispuesto en los títulos IV y V del libro I de esta ley para la determinación de la masa activa y pasiva.
4. La publicidad del informe de la administración concursal y de los documentos actualizados y la impugnación de estos se regirán por lo dispuesto en los capítulos I y II del título VI del libro I de esta ley. El juez rechazará de oficio y sin ulterior recurso aquellas pretensiones que no se refieran estrictamente a las cuestiones objeto de actualización.

TÍTULO XII

De las normas procesales generales, del procedimiento abreviado, del incidente concursal y del sistema de recursos

CAPÍTULO I

De la tramitación del procedimiento

Artículo 508. Secciones.

El procedimiento de concurso se dividirá en las siguientes secciones, ordenándose las actuaciones de cada una de ellas en cuantas piezas separadas sean necesarias o convenientes:

- 1.º La sección primera comprenderá lo relativo a la declaración de concurso, a las medidas cautelares, a la resolución final de la fase común, a la conclusión y, en su caso, a la reapertura del concurso.
- 2.º La sección segunda comprenderá todo lo relativo a la administración concursal del concurso, al nombramiento y al estatuto de los administradores



haien ahalmenen eta egikaritzaren zehaztapenarekin, kontuak ematearekin, eta, hala denean, konkurtso-administratzaileen erantzukizunarekin zerikusia duen guztia. Atal horretan sartuko dira konkurtso-administrazioaren txostena, harekin batera doazen agiriekin batera, eta, hala denean, behin betiko testuak.

3.a Hirugarren atalean, masa aktiboa zehazteari, masa aktiboaren ondasun eta eskubideak besterentzeko baimenei, itzulketa- eta murrizketa-akzioak bideratu, erabaki eta exekutatzeari eta masaren aurkako kredituei dagokiena jasoko da.

4.a Laugarren atalak masa pasiboa zehazteari, konkurtso-kredituak komunikatzeari, aitortzeari, mailakatzeari eta sailkatzeari eta hartzekodunak ordaintzeari dagokiena jasoko du. Atal honetan pieza bananduan jasoko dira, berebat, deklarazio-judizioak, baldin eta hartzekodunen konkurtsora pilatu badira, eta konkurtsopekoaren kontra hasi edo berrabiarazten diren exekuzioak.

5.a Bosgarren atalak hitzarmenari (aurretiazkoa edo izapidetze arruntekoa) eta likidazioari dagokiena jasoko du.

6.a Seigarren atalean jasoko da konkurtsoaren kalifikazioarekin eta haren ondoreekin zerikusia duena.

509. artikulua. Beharrezkoak diren zatiak.

Konkurtsoko atal guztietan alderditzat joko dira zorduna eta konkurtso-administrazioa, forma egokian agertu ez arren. Seigarren atalean, Ministerio Fiskala ere alderdi izango da.

510. artikulua. Zordunaren ordezkari eta defentsa.

Konkurtsopekoak prokuradorea eta letraduaren laguntza izango ditu beti.

511. artikulua. Konkurtso-administrazioaren jarduketa.

Konkurtsu-administratioari beti entzungo zaio forma egokian agertu beharrik izan gabe, baina intzidente edo errekurtsuetan esku hartzen duenean, letraduaren laguntzarekin egin beharko du. Konkurtso-administratzaile izendatua edo laguntzaile eskuordea letradua denean, ulertuko da intzidente eta errekurtsu horien zuzendaritza teknikoa konkurtso-administratioaren edo laguntzaile eskuordearen eginkizunen barruan dagoela.

concuriales, a la determinación de sus facultades y a su ejercicio, a la rendición de cuentas y, en su caso, a la responsabilidad de los administradores concursales. En esta sección se incluirá el informe de la administración concursal con los documentos que se acompañen y, en su caso, los textos definitivos.

3.º La sección tercera comprenderá lo relativo a la determinación de la masa activa, a las autorizaciones para la enajenación de bienes y derechos de la masa activa, a la sustanciación, decisión y ejecución de las acciones de reintegración y de reducción y a los créditos contra la masa.

4.º La sección cuarta comprenderá lo relativo a la determinación de la masa pasiva, a la comunicación, reconocimiento, graduación y clasificación de los créditos concursales y al pago de los acreedores. En esta sección se incluirán también, en pieza separada, los juicios declarativos que se hubieran acumulado al concurso de acreedores y las ejecuciones que se inicien o se reanuden contra el concursado.

5.º La sección quinta comprenderá lo relativo al convenio, sea anticipado o de tramitación ordinaria, y a la liquidación.

6.º La sección sexta comprenderá lo relativo a la calificación del concurso y a sus efectos.

Artículo 509. Partes necesarias.

En todas las secciones del concurso serán reconocidos como parte, sin necesidad de comparecencia en forma, el deudor y la administración concursal. En la sección sexta será parte, además, el Ministerio Fiscal.

Artículo 510. Representación y defensa del deudor.

El concursado actuará siempre representado por procurador y asistido de letrado.

Artículo 511. Actuación de la administración concursal.

La administración concursal será oída siempre sin necesidad de comparecencia en forma, pero cuando intervenga en incidentes o recursos deberá hacerlo asistida de letrado. Cuando el nombrado administrador concursal o el auxiliar delegado tengan la condición de letrado, la dirección técnica de estos incidentes y recursos se entenderá incluida en las funciones de la administración concursal o del auxiliar delegado.



512. artikulua. Hartzekodunen eta gainerako legitimatuen ordezkari eta defentsa.

1. Hartzekodunek eta konkurtso-deklarazioa eskatzeko legitimazioa duten gainerakoek prokuradoreak ordezkariatu ditu, eta abokatuaren laguntza izango dute deklarazio hori eskatzeko eta prozeduran agertzeko, bai eta errekursoak jartzeko, intzidenteak planteatzeko edo administrazio-egintzak aurkaratzeko ere.

2. Hartzekodunek eta konkurtso-deklarazioa eskatzeko legitimazioa duten gainerakoek kredituak komunikatu eta alegazioak egin ahal izango dituzte, bai eta hartzekodunen batzarrera bertaratu eta bertan esku hartu ere, behar bezala agertu beharrik gabe.

Forma egokian agertu ez diren hartzekodunek epaitegiari eskatu ahal diote beren kredituei buruzko autoetan jasotako agiri eta txostenak aztertzea, eta, horretarako, bulego judizialera joan daitezke, pertsonalki edo abokatu nahiz prokuradorearen bidez; azken horiek ez dira pertsonatu beharko izapide hori egiteko.

3. Konkurtsoan interes legitimoa duen beste edozein agertu ahal izango da, baldin eta prokuradoreak ordezkariatu baditu eta abokatuak laguntzen badiete.

513. artikulua. Administrazio publikoen eta langileen ordezkari eta defentsa.

1. Aurreko artikuluetan xedatutakoak ez dio kalterik egingo berariazko prozesu-araudian administrazio publikoentzat ezarritakoari.

2. Aurreko artikuluetan xedatutakoak ez dio kalterik egingo arlo sozialeko jurisdikzioa arautzen duen legean langileen ordezkarietarako eta defentsarako ezarritakoari, lan-harremanetako gradudunei eta sindikatuei emandako ahalmenak barne, konkurtso-prozesuan kredituak eta lan-eskubideak eraginkorrak izan daitezzen beharrezkoak diren akzio eta errekurso guztiak egikaritzeko.

514. artikulua. Soldatak Bermatzeko Funtsa alderdi izatea.

Soldatak Bermatzeko Funtsa prozeduran alderdi izango da, baldin eta langileei soldatak eta kalte-ordainak ordaindu behar badizkie, masaren aurkako kredituengatik edo konkurtso-kredituengatik.

515. artikulua. Ofizioz bideratzea.

Konkurtsua deklaratu ondoren, Justizia Administrazioaren letratuak ofizioz bultzatuko du prozesua.

Artículo 512. Representación y defensa de los acreedores y demás legitimados.

1. Los acreedores y los demás legitimados para solicitar la declaración de concurso actuarán representados por procurador y asistidos por letrado para solicitar esa declaración y para comparecer en el procedimiento, así como para interponer recursos, plantear incidentes o impugnar actos de administración.

2. Los acreedores y los demás legitimados para solicitar la declaración de concurso podrán comunicar créditos y formular alegaciones, así como asistir e intervenir en la junta de acreedores sin necesidad de comparecer en forma.

Los acreedores no comparecidos en forma podrán solicitar del juzgado el examen de aquellos documentos o informes que consten en autos sobre sus respectivos créditos, acudiendo para ello a la oficina judicial personalmente o por medio de letrado o procurador que los represente, quienes para dicho trámite no estarán obligados a personarse.

3. Cualesquiera otros que tengan interés legítimo en el concurso podrán comparecer siempre que lo hagan representados por procurador y asistidos de letrado.

Artículo 513. Representación y defensa de las Administraciones públicas y de los trabajadores.

1. Lo dispuesto en los artículos anteriores se entenderá sin perjuicio de lo establecido para las Administraciones públicas en la normativa procesal específica.

2. Lo dispuesto en los artículos anteriores se entenderá sin perjuicio de lo establecido para la representación y defensa de los trabajadores en la Ley reguladora de la jurisdicción social, incluidas las facultades atribuidas a los graduados sociales y a los sindicatos para el ejercicio de cuantas acciones y recursos sean precisos en el proceso concursal para la efectividad de los créditos y derechos laborales.

Artículo 514. Condición de parte del Fondo de Garantía Salarial.

El Fondo de Garantía Salarial será parte del procedimiento siempre que deba abonar salarios e indemnizaciones a los trabajadores, sea en concepto de créditos contra la masa o de créditos concursales.

Artículo 515. Sustanciación de oficio.

Declarado el concurso, el Letrado de la Administración de Justicia impulsará de oficio el proceso.



516. artikulua. Erabakitzeko epeak.

Legeak ez duenean ebazpena emateko eperik zehazten, atzerapenik gabe eman beharko da ebazpena.

517. artikulua. Konkurtsoko epailearen ahalmenak hedatzea.

1. Epaileak konkurtsoarean onurarako presakotzat jotzen dituen eginbideak gauzatzeko egunak eta orduak baliodun bihurtu ahal izango ditu. Justizia Administrazioaren letraduak behar diren egun eta orduak gaitu ahal izango ditu berak agindutako jarduketa prozesalak edo epaileak emandako ebazpenak betetzea helburu dutenak egiteko.

2. Epaileak froga-jarduketak gauza ditzake bere lurralde-eskumenetik kanpo, baldin eta aurretiaz epaile eskudunari horren berri ematen badio, ez bazaio kalterik egiten kasuan kasuko epailearen eskumenari, eta prozesuko ekonomiaren arazoiek justifikatzen badute jarduketa hori.

518. artikulua. Baimen judizialak.

1. Legearen arabera epailearen baimena eskuratzea beharrezkoa den kasuetan edota konkurtso-administratzaileek komenigarritzat jotzen badute, eskaera hori idatziz egingo da.

2. Aurkeztutako eskaera xedeari begira entzun behar diren alderdi guztiei helaraziko zaie, eta hiru eta hamar egun bitarteko epea emango zaie alegazioak egiteko, arazoaren konplexutasuna eta garrantzia kontuan izanda.

3. Epaileak auto bidez ebatziko du eskaera, azken epemugatik kontatzen hasita bost eguneko epean.

4. Eskatutako baimena ematen edo ukatzen duen autoaren aurka berraztertze-errekurtsoa baino ezin izango da jarri.

519. artikulua. Prejudizialitate penala.

Zordunarekin zerikusia duten edo hartzekodunen konkurtsoan zerikusia edo eragina duten egitateengatiko prozedura kriminalak hasteak ez du ekarriko konkurtsoarean beraren edo konkurtsoa zatituta dagoen ataletako baten izapidetzea etetea.

520. artikulua. Arlo penaleko jurisdikzioko epaileek edo auzitegiek eskatutako kautela-neurriak.

1. Zordunaren aurkako edo konkurtsoan zerikusia edo eragina duten egitateengatiko kereila edo

Artículo 516. Plazos para proveer.

Cuando la ley no fije plazo para dictar una resolución, deberá dictarse sin dilación.

Artículo 517. Extensión de facultades del juez del concurso.

1. El juez podrá habilitar los días y horas necesarios para la práctica de las diligencias que considere urgentes en beneficio del concurso. El Letrado de la Administración de Justicia podrá habilitar los días y horas necesarios para la práctica de aquellas actuaciones procesales por él ordenadas o de las que tuvieran como finalidad dar cumplimiento a las resoluciones dictadas por el juez.

2. El juez podrá realizar actuaciones de prueba fuera del ámbito de su competencia territorial, poniéndolo previamente en conocimiento del juez competente, cuando no se perjudique la competencia del juez correspondiente y venga justificado por razones de economía procesal.

Artículo 518. Autorizaciones judiciales.

1. En los casos en que la ley establezca la necesidad de obtener autorización del juez o los administradores concursales la consideren conveniente, la solicitud se formulará por escrito.

2. De la solicitud presentada se dará traslado a todas las partes que deban ser oídas respecto de su objeto, concediéndoles para alegaciones plazo de igual duración no inferior a tres días ni superior a diez, atendidas la complejidad e importancia de la cuestión.

3. El juez resolverá sobre la solicitud mediante auto dentro de los cinco días siguientes al último vencimiento.

4. Contra el auto que conceda o deniegue la autorización solicitada no cabrá más recurso que el de reposición.

Artículo 519. Prejudicialidad penal.

La incoación de procedimientos criminales relacionados con el deudor o por hechos que tuvieran relación o influencia en el concurso de acreedores no provocará la suspensión de la tramitación de este, ni de ninguna de las secciones en que se divide.

Artículo 520. Medidas cautelares a solicitud de jueces o tribunales del orden jurisdiccional penal.

1. Admitida a trámite querrela o denuncia criminal contra el deudor o por hechos que tuvieran relación o



salaketa kriminala izapidetzeko onartu ondoren, konkurtsoko epailearen eskumen eskusiboa izango da, arlo penaleko jurisdikzioko epaile edo auzitegiak hala eskatuta, masa aktiboari eragiten dion ondare-izaerako edozein kautela-neurri hartzea, prozedura kriminaletan edo antzekoetan erruztatutako hartzekodunei ordainketak atxikitzeo neurriak barne.

2. Erabakitako kautela-neurriek ez dute inola ere eragotzi behar konkURSO-prozedura izapidetzen jarraitzea, eta egokien iritzitako moduan erabakiko dira, balizko kondena penalaren ondare-erabakiak exekutatuako direla bermatzeko.

3. Erabakitako kautela-neurriek ezin izango dute aldatu konkURSO-kredituen sailkapena, ezta lege honetan ezarritako ordainketa-lehentasanak ere.

521. artikulua. Zuzenbide prozesal osagarria.

Lege honetan aurreikusi ez den orori dagokionez, Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean xedatutakoa aplikatuko da.

II. KAPITULUA

Prozedura laburtua

1. atala. Prozedura laburtuaren aplikazioa

522. artikulua. Prozedura laburtuaren aukerako aplikazioa.

1. Epaileak prozedura laburtua aplikatu ahal izango du, eskuragarri dagoen informazioa ikusita, konkURSOa konplexutasun berezikoa ez dela uste duenean, honako inguruabar hauek kontuan hartuta:

1.a Zordunak aurkeztutako zerrendan berrogeita hamar hartzekodun baino gutxiago egotea.

2.a Pasiboaren hasierako zenbatespena bost milioi eurotik gorakoa ez izatea.

3.a Ondasunen eta eskubideen balorazioa bost milioi eurora ez iritea.

Zorduna pertsona fisikoa denean, epaileak bereziki baloratuko du pertsona juridiko baten administratzailea den edo besteren zorren erantzule edo bermatzaile den.

2. Epaileak prozedura laburtua aplikatu ahal izango du, halaber, zordunak aurretiazko hitzarmen-proposamena edo hitzarmen-proposamen bat aurkezten duenean, nahiz eta aurretiazkoa ez izan, eta proposamen horrek haren aktiboa eta pasiboa

influencia en el concurso, será competencia exclusiva del juez del concurso, adoptar, a solicitud del juez o tribunal del orden jurisdiccional penal, cualquier medida cautelar de carácter patrimonial que afecte a la masa activa, incluidas las de retención de pagos a los acreedores inculpados en procedimientos criminales u otras análogas.

2. Las medidas cautelares acordadas en ningún caso deben impedir continuar la tramitación del procedimiento concursal, y se acordarán del modo más conveniente para garantizar la ejecución de los pronunciamientos patrimoniales de la eventual condena penal.

3. Las medidas cautelares acordadas no podrán alterar o modificar la clasificación de los créditos concursales, ni las preferencias de pagos establecida en esta ley.

Artículo 521. Derecho procesal supletorio.

En lo no previsto en esta ley será de aplicación lo dispuesto en la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil.

CAPÍTULO II

Del procedimiento abreviado

Sección 1.ª De la aplicación del procedimiento abreviado

Artículo 522. Aplicación facultativa del procedimiento abreviado.

1. El juez podrá aplicar el procedimiento abreviado cuando, a la vista de la información disponible, considere que el concurso no reviste especial complejidad, atendiendo a las siguientes circunstancias:

1.º Que la lista presentada por el deudor incluya menos de cincuenta acreedores.

2.º Que la estimación inicial del pasivo no supere los cinco millones de euros.

3.º Que la valoración de los bienes y derechos no alcance los cinco millones de euros.

Cuando el deudor sea una persona natural el juez valorará especialmente si es administrador de alguna persona jurídica o si responde o es garante de deudas ajenas.

2. El juez podrá también aplicar el procedimiento abreviado cuando el deudor presente propuesta anticipada de convenio o una propuesta de convenio, aunque no sea anticipada, que incluya una



osorik eskualdatzeko egiturazko aldaketa bat jasotzen duenean.

523. artikulua. Prozedura laburtua nahitaez aplikatzea.

Epaileak prozedura laburtua aplikatuko du, nahitaez, zordunak bere jarduera erabat utzi eta lan-kontraturik indarrean ez duenean, edo zordunak, konkurtso-eskaerarekin batera, likidazio-plan bat aurkezten duenean, martxan dagoen ekoizpen-unitatea eskuratzeko idatzizko proposamen lotesle bat jasotzen duena.

524. artikulua. Prozedura eraldatzea.

Edozein unetan, epaileak, ofizioz edo zordunak, konkurtso-administrazioak edo edozein hartzekodunek hala errekerituta, aurreko artikuluetan ezarritako inguruabarren aldaketa ikusita eta konkurtsoaren konplexutasuna kontuan hartuta, prozedura laburtua prozedura arrunt edo prozedura arrunta laburtu bihurtu ahal izango du.

2. atala. Prozedura laburtuaren berezitasunak

525. artikulua. Konkurtso-administrazioaren jarduketetarako epeak laburtzea.

1. Konkurtso-administrazioak masa aktiboaren ondasun eta eskubideen inbentarioa aurkeztu beharko du kargua onartu eta hurrengo hamabost egunen barruan.

2. Konkurtso-administrazioak inbentario-proiektua eta hartzekodunen zerrenda komunikatuko dizkie zordunari eta hartzekodunei, hartzekodunen zerrenda aurkeztu baino bost egun lehenago, gutxienez.

3. Konkurtso-administrazioak hilabeteko epea izango du txostena aurkezteko, kargua onartzen duenetik kontatzen hasita. Arrazoi justifikatua dagoenean, konkurtso-administratzaileak luzapen bat eskatu ahal izango dio epaileari, baina luzapen hori ez da inola ere hamabost egunetik gorakoa izango.

526. artikulua. Aurkaratzeen izapidetzea.

1. Justizia Administrazioaren letraduak pieza banandua eratuko du, inbentarioaren eta hartzekodunen zerrendaren aurkaratzeei buruzko izapidetak egiteko, eta, hurrengo egunean, intzidenterik hasi gabe, haiek konkurtso-administrazioari helaraziko dizkio.

modificación estructural por la que se transmite íntegramente su activo y su pasivo.

Artículo 523. Aplicación obligatoria del procedimiento abreviado.

El juez aplicará necesariamente el procedimiento abreviado cuando el deudor hubiera cesado completamente en su actividad y no tuviera en vigor contratos de trabajo o cuando el deudor presente, junto con la solicitud de concurso, un plan de liquidación que contenga una propuesta escrita vinculante de adquisición de la unidad productiva en funcionamiento.

Artículo 524. Transformación del procedimiento.

En cualquier momento, el juez, de oficio o a requerimiento del deudor, de la administración concursal o de cualquier acreedor, a la vista de la modificación de las circunstancias previstas en los artículos anteriores y atendiendo a la mayor o menor complejidad del concurso, podrá transformar un procedimiento abreviado en ordinario o un procedimiento ordinario en abreviado.

Sección 2.^a De las especialidades del procedimiento abreviado

Artículo 525. Reducción de los plazos para las actuaciones de la administración concursal.

1. La administración concursal deberá presentar el inventario de bienes y derechos de la masa activa dentro de los quince días siguientes a la aceptación del cargo.

2. La administración concursal practicará la comunicación del proyecto de inventario y de la lista de acreedores al deudor y a los acreedores, al menos, cinco días antes de la presentación de la lista de acreedores.

3. La administración concursal deberá presentar su informe en el plazo de un mes, contado a partir de la aceptación del cargo. Cuando concurra causa justificada, el administrador concursal podrá solicitar al juez una prórroga, que en ningún caso excederá de quince días.

Artículo 526. Tramitación de las impugnaciones.

Artículo 560. El Registro público concursal.

1. El Registro público concursal es un instrumento técnico de información, de acceso libre y gratuito, sobre los concursos de acreedores declarados en España, las principales resoluciones que se dicten en esos concursos y las situaciones preconcursales, así como de las personas naturales y jurídicas que puedan ser nombradas administradores concursales.
2. El Registro público concursal se llevará bajo la dependencia del Ministerio de Justicia.
3. Reglamentariamente se desarrollarán la estructura, el contenido y el sistema de publicidad a través de este registro y los procedimientos de inserción y de acceso.

Artículo 561. Organización del Registro.

El Registro público concursal constará de cinco secciones:

1.^a En la sección primera, de edictos concursales, se insertarán ordenados alfabéticamente por concursado y fechas, la declaración de concurso y las demás resoluciones que deban publicarse en este Registro conforme a lo establecido en esta ley.

2.^a En la sección segunda, de publicidad registral, se insertarán, ordenadas alfabéticamente por concursado y fechas, las resoluciones judiciales anotadas o inscritas en los registros públicos de personas, incluida la de la calificación del concurso como culpable.

En esta sección se insertarán igualmente, ordenadas alfabéticamente por personas y fechas, las resoluciones judiciales anotadas o inscritas en los registros públicos, relativas a las personas afectadas por la calificación.

La inserción de las resoluciones judiciales en esta sección segunda se practicará en virtud de certificaciones remitidas de oficio por el encargado del registro una vez practicado el correspondiente asiento.

3.^a En la sección tercera, de exoneración del pasivo insatisfecho, se insertarán, ordenadas alfabéticamente por concursado, la obtención provisional de ese beneficio con un plan de pagos con una duración máxima de cinco años, y la resolución judicial por la que se conceda la exoneración definitiva.



4.a Laugarren atalean, konkurtso-administratzaile eta laguntzaile eskuordeei buruzkoan, abizenen arabera alfabetikoki ordenatuta inskribatuko dira, pertsona fisikoak izanez gero, eta izendapenaren arabera, halakoak ez badira, konkurtso-administratzaile eta laguntzaile eskuorde izendatzeko legezko eta erregelamenduzko betekizunak bete eta Erregistro honetan inskribatzea eskatu duten pertsona fisiko eta juridikoak, konkurtso-administratzaile edo laguntzaile eskuorde gisa jarduteko borondatea adierazi dutenak.

Atal horretan sartuko dira, halaber, pertsona horietako bakoitzari dagokion zatian, izendapenak, kargu-uzteak, arrazoia adieraziz, eta, hala denean, konkurtso-administratzaileen eta laguntzaile eskuordeen desgaitasuna, auzitegia eta ebazpen judizialaren mota eta data zehaztuz, bai eta haien ordainsaria finkatzeko edo aldatzeko autoak ere.

Konkurtso-administratzaile bat desgaituta dagoenean, Justizia Administrazioaren letratuak Konkurtso-erregistro publikoari horren berri emango dio, desgaitasuna-aldian baja eman diezaioten.

Atal horretan sartuko da, halaber, epaitegien arabera alfabetikoki ordenatuta, konkurtso bakoitzaren tamainaren arabera epaitegi bakoitzean sekuentzialki izendatu beharreko administratzailearen aipamena.

5.a Bosgarren atalean, ordainketa-akordio estrajudizialei eta pasibo finantzarioa birfinantzatzeko akordioei buruzkoan, txertatuko dira, zordunen arabera alfabetikoki ordenatuta, akordio horiek lortzeko hartzekodunekin negoziazioak hasi izanaren komunikazioak, salbu eta isilpekoak badira, lortutako ordainketa-akordio estrajudizialak eta, pasibo finantzarioa birfinantzatzeko akordioen kasuan, epaileak akordio horiei emandako homologazioa.

562. artikulua. Ebazpen judizialak lehenengo atalean txertatzea.

1. Ebazpen judizialak lehenengo atalean txertatuko dira, osorik edo laburpen bidez, Justizia Administrazioaren letratuak zuzenean igorritako manamenduari jarraikiz. Ebazpena pertsonen erregistro publiko batean inskriba badaiteke, ebazpenak edo laburpenak, ahal dela, konkurtsopekoa inskribatuta dagoen edo inskribatzen den erregistroarekin koordinatzeko mekanismoen bidez txertatuko dira, erregelamendu bidez onetsitako ereduen arabera.

4.^a En la sección cuarta, de administradores concursales y auxiliares delegados, se inscribirán, ordenadas alfabéticamente por orden de apellidos, si fueran personas naturales, y por denominación, si no lo fueran, las personas naturales y jurídicas que, cumpliendo los requisitos legales y reglamentarios para poder ser nombradas como administrador concursal y auxiliares delegados, hayan solicitado la inscripción en este Registro manifestando la voluntad de ejercer como administrador concursal o auxiliar delegado.

En esta sección se insertarán igualmente, en la parte relativa a cada una de esas personas, los nombramientos, los ceses, con expresión de la causa, y, en su caso, la inhabilitación de los administradores concursales y de los auxiliares delegados, con indicación del tribunal y de la clase y fecha de la resolución judicial, así como los autos en los que se fije o modifique su remuneración.

Cuando un administrador concursal sea inhabilitado el Letrado de la Administración de Justicia lo pondrá en conocimiento del Registro público concursal a fin de que se le dé de baja por el periodo de inhabilitación.

En esta sección se insertará igualmente, ordenada alfabéticamente por tribunales, la indicación del administrador cuya designación secuencial corresponda en cada juzgado en función del tamaño de cada concurso.

5.^a En la sección quinta, de acuerdos extrajudiciales de pagos y de acuerdos de refinanciación de pasivo financiero, se insertarán, ordenadas alfabéticamente por deudor, las comunicaciones de la apertura de las negociaciones con los acreedores para alcanzar tales acuerdos, salvo que tuviera carácter reservado, los acuerdos extrajudiciales de pago que se hubieran alcanzado y, en el caso de acuerdos de refinanciación de pasivo financiero, su homologación por el juez.

Artículo 562. Inserción de resoluciones judiciales en la sección primera.

1. La inserción de las resoluciones judiciales en la sección primera se realizará, bien íntegramente o por extracto, en virtud de mandamiento directamente remitido por el Letrado de la Administración de Justicia. Si la resolución fuera inscribible en un Registro público de personas la inserción de las resoluciones o sus extractos se realizará preferentemente, a través de mecanismos de coordinación con el Registro en que constare inscrito o se inscriba el concursado, conforme a los modelos que se aprueben reglamentariamente.



2. Ebazpena laburpen bidez argitaratzen bada, ebazpenaren edukia eta irismena zehazteko ezinbestekoak diren datuak jasoko dira bertan, eta erregistratzeko moduko datuak adieraziko dira, baldin eta haiek dagozkien erregistro publikoetan idatzoharra edo inskripzioa eragin badute.

563. artikulua. Laugarren atalean inskribatzeko eskaera.

1. Pertsona fisikoen kasuan, laugarren atalean inskribatzeko eskaeran, honako hauek adieraziko dira: helbide profesionala, posta elektronikoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta zein lurralde-eremutan adierazi den aritzeko prestasuna, bai eta atal horretan inskribatuta dauden eta konkurtso-administratzailearen jardueran aritzeko profesionalki lotuta dauden pertsona juridiko guztien identitatea ere. Eskabidean adieraziko da, halaber, konkurtso-administratzaile edo laguntzaile eskuorde izendatu duten aurretiazko konkurtso guztietan izandako esperientzia, zein auzitegitan izapidetu den eta auto-zenbakia adierazita, konkurtsopekoaren identitatea, jarduera-sektorea, prozedura mota eta jasotako ordainsaria adierazita.

2. Pertsona juridikoen kasuan, laugarren atalean inskribatzeko eskaeran, honako hauek adieraziko dira: izena, egoitza, forma juridikoa, posta elektronikoa, jarduera egiten duen bulego bakoitzaren helbidea eta zein lurralde-eremutan jardun nahi izatea adierazi duten, bai eta bazkide bakoitzaren eta pertsona juridikoarentzat zerbitzuak ematen dituen eta atal honetan inskribatuta dagoen edozein pertsona fisikoren identitatea eta helbidea ere. Eskaeran adieraziko da, halaber, konkurtso-administratzaile edo laguntzaile eskuorde izendatua izan den aurretiazko konkurtso guztietan izandako esperientzia, zein auzitegitan izapidetu den adierazita, bai eta auto-zenbakia ere, lanen zuzendaritzaz arduratuko den pertsona fisikoaren identitatea eta haietako bakoitzean pertsona juridikoak izango duen ordezkari-tza aipatuz.

3. Konkurtso-erregistro publikoaren laugarren atalean, pertsona horietako bakoitzari dagokion zatian, aurreko bi apartatueta aipatutako datu guztiak txertatuko dira.

2. Si la resolución se publicara por extracto, se incluirán en él los datos indispensables para la determinación del contenido y alcance de la resolución, con indicación de los datos registrables cuando aquellas hubieran causado anotación o inscripción en los correspondientes registros públicos.

Artículo 563. Solicitud de inscripción en la sección cuarta.

1. En el caso de personas naturales, en la solicitud de inscripción en la sección cuarta, se indicará, la dirección profesional, el correo electrónico, el número de identificación fiscal, y el ámbito o ámbitos territoriales en los que se hubiera manifestado la disposición para ejercer, así como la identidad de todas las personas jurídicas inscritas en esta sección con las que se encuentre relacionada profesionalmente para el ejercicio de la actividad de administrador concursal. En la solicitud se expresará igualmente la experiencia en todos los concursos previos en los que hubiera sido nombrado administrador concursal o auxiliar delegado con expresión del tribunal en que se hubiera tramitado y el número de autos, señalando la identidad del concursado, el sector de actividad, el tipo de procedimiento y la remuneración percibida.

2. En el caso de las personas jurídicas en la solicitud de inscripción en la sección cuarta, se indicará la denominación, el domicilio, la forma jurídica, el correo electrónico, la dirección de cada oficina en la que se realice su actividad y el ámbito o ámbitos territoriales en los que se hubiera manifestado la disposición para ejercer, así como la identidad y la dirección de cada uno de los socios y de cualquier persona natural inscrita en esta sección que preste sus servicios para la persona jurídica. En la solicitud se expresará igualmente la experiencia en todos los concursos previos en los que hubiera sido nombrada administradora concursal o auxiliar delegado con expresión del tribunal en que se hubiera tramitado y el número de autos, indicando la identidad de la persona natural encargada de la dirección de los trabajos y de la representación de la persona jurídica en cada uno de ellos.

3. En la sección cuarta del Registro público concursal, en la parte relativa a cada una de esas personas, se insertarán todos los datos a que se refieren los dos apartados anteriores.



564. artikulua. Konkurtso-erregistro publikoan sartzeko askatasuna.

1. Erregistroaren edukia Internet bidez edo kontsulta telematikorako beste bitarteko baliokide batzuen bidez eskuratu ahal izango da.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaren salbuespen gisa, ordaindu gabeko pasibotik libratzeko onura behin-behinean emateari buruzko informaziorako sarbidea izango dute soilik zordunaren egoera ikertzeko interes legítimoa dagoela justifikatzen duten pertsonak. Nolanahi ere, interes legitimoztat jotzen dira zordunari eskaintza irmo bat egiten diotenak, dela kreditukoa, dela beste edozein ondasun ematekoa edo beste edozein zerbitzu ematekoa, baldin eta zordunaren kaudimenaren arabera ordaindu edo itzuli beharrekoa bada, bai eta beren eginkizunak betetzeari begira behar duten informazioa biltzeko legez gaitutako administrazio publiko eta jurisdikzio-organoak ere. Konkurtso-erregistro publikoaren ardura duenak balioetsiko du interes legítimoa dagoela.

565. artikulua. Konkurtso-erregistro publikoaren informazio-balio hutsa.

Ebazpen judizialak edo haien laburpenak argitaratzeak informazio-balioa baino ez du izango.

566. artikulua. Informazioaren eskuragarritasunaren hasierako kontrola.

Konkurtso-erregistro publikoak gailu bat izan beharko du, bertan jasotako ebazpenak eta informazioa jendaurrean zabaltzen hasi direla modu fede-emailean jakiteko eta egiaztatzeko, edozein interesdunek hala eskatuta.

XIV. TITULUA

Berezitasunak dituzten hartzekodunen konkurtsoak

I. KAPITULUA

Jarauntsiaren konkurtsoa

567. artikulua. Jarauntsiaren konkurtsoaren deklarazioa.

Jarauntsiaren gaineko konkurtso-deklarazioa eman ahal izango da, hura huts eta soilik onartu ez bada.

568. artikulua. Konkurtso-deklarazioa eskatzeko legitimazioa.

1. Huts eta soilik onartu gabeko jarauntsiaren konkurtso-deklarazioa eskatzeko legitimazioa dute

Artículo 564. Libertad de acceso al Registro público concursal.

1. El contenido del registro será accesible por internet u otros medios equivalentes de consulta telemática.

2. Por excepción a lo establecido en el apartado anterior, únicamente tendrán acceso a la información relativa a la concesión provisional del beneficio de exoneración del pasivo insatisfecho aquellas personas que justifiquen la existencia de interés legítimo en averiguar la situación del deudor. En todo caso se considera que tienen interés legítimo quienes realicen una oferta en firme al deudor, ya sea de crédito o de cualquier otra entrega de bienes o prestación de servicios que tenga que ser remunerada o devuelta por este y que esté condicionada a su solvencia, así como las administraciones públicas y órganos jurisdiccionales habilitados legalmente para recabar la información necesaria para el ejercicio de sus funciones. La apreciación de la existencia de interés legítimo se realizará por quien esté a cargo del Registro público concursal.

Artículo 565. Valor meramente informativo del Registro público concursal.

La publicación de las resoluciones judiciales o sus extractos tendrá un valor meramente informativo.

Artículo 566. Control del inicio de la accesibilidad de la información.

El Registro público concursal deberá contar con un dispositivo que permita conocer y acreditar fehacientemente a solicitud de cualquier interesado el inicio de la difusión pública de las resoluciones y de la información que se incluyan en el mismo.

TÍTULO XIV

De los concursos de acreedores con especialidades

CAPÍTULO I

Del concurso de la herencia

Artículo 567. Declaración de concurso de la herencia.

El concurso de la herencia podrá declararse en tanto no haya sido aceptada pura y simplemente.

Artículo 568. Legitimación para solicitar la declaración de concurso.

1. Para solicitar la declaración de concurso de la herencia no aceptada pura y simplemente están



jarauntsi jasogabearen administratzaileak, jaraunsleek eta hildako zordunaren hartzekodunek.

2. Eskaeran, legitimatuek kausatzailearen datuak eta konkurtso-deklarazioa zein izaeratan egin duten adierazi beharko dute, eta, horrekin batera, legitimazioa eragin duen agiria aurkeztu beharko dute, edo hura egiazatzeko froga proposatu.

3. Jaraunsle batek egindako eskaerak izango ditu jarauntsia inbentario onuraren arabera onartzearen ondoreak.

569. artikulua. Jarauntsiaren borondatezko konkurtsoa eta nahitaezko konkurtsoa.

1. Jarauntsiaren hartzekodunen konkurtsoa borondatezkoa izango da, aurkeztutako lehenengo eskaera jarauntsi jasogabearen administratzailearena edo jaraunsle batena izan denean. Gainerakoetan, konkurtsoa nahitaezkatzat joko da.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoaren salbuespen gisa, jarauntsiaren hartzekodunen konkurtsoa nahitaezkatzat joko da, jarauntsi jasogabearen administratzaileak edo jaraunsle batek eskaera egin aurreko hiru hilabeteetan zordunaren aurkako beste bat aurkeztu eta izapidetzeko onartu denean hura hil baino lehen, edo jarauntsiaren beraren aurkako beste bat, legitimatutako edozeinek aurkeztuta, nahiz eta legitimatu horrek atzera egin, ikustaldian agertu ez edo eskaera ez berretsi.

570. artikulua. Zordunaren gaineko ondoreak.

Jarauntsiaren konkurtsoa egiten denean, konkurtso-administrazioak egikaritutako ditu jarauntsiko ondasunak administratu eta xedatzeko ondare-ahalmenak, eta epaileak ezin izango du egoera hori aldatu.

571. artikulua. Konkurtsopekoaren heriotza.

1. Konkurtsopekoaren heriotza edo heriotza-deklarazioa ez da izango konkurtsoa amaitzeko arrazoiak, eta haren izapidetzea jarauntsiaren konkurtso gisa egingo da; halakoetan, konkurtso-administrazioari dagokio jarauntsiko ondasunen gaineko administratze- eta xedatze-ahalmenen egikaritzea.

2. Zuzenbidearen arabera jarauntsiaren ordezkaritza noren ardura izan eta horrek ordezkartuko du jarauntsia prozeduran ere, edota, hala denean, jaraunsleek izendatutako pertsonak.

3. Konkurtsopekoa hil ondoren, jarauntsia ez da zatituko konkurtsoaren izapidetzea egin bitartean.

legitimados el administrador de la herencia yacente, los herederos y los acreedores del deudor fallecido.

2. En la solicitud los legitimados deberán expresar los datos del causante y el carácter en el que formulan la declaración de concurso, acompañando el documento del que resulte su legitimación o proponiendo prueba para acreditarla.

3. La solicitud formulada por un heredero producirá los efectos de la aceptación de la herencia a beneficio de inventario.

Artículo 569. Concurso voluntario y concurso necesario de la herencia.

1. El concurso de acreedores de la herencia tendrá la consideración de voluntario cuando la primera de las solicitudes presentadas hubiera sido la del administrador de la herencia yacente o la de un heredero. En los demás casos, el concurso se considerará necesario.

2. Por excepción a lo dispuesto en el apartado anterior, el concurso de acreedores de la herencia tendrá la consideración de necesario cuando, en los tres meses anteriores a la fecha de la solicitud del administrador de la herencia yacente o de un heredero, se hubiera presentado y admitido a trámite otra contra el deudor antes de su fallecimiento o contra la propia herencia por cualquier legitimado, aunque este hubiera desistido, no hubiera comparecido en la vista o no se hubiese ratificado en la solicitud.

Artículo 570. Efectos sobre el deudor.

En caso de concurso de la herencia, corresponderá a la administración concursal el ejercicio de las facultades patrimoniales de administración y disposición sobre el caudal relicto, sin que el juez pueda modificar esta situación.

Artículo 571. Fallecimiento del concursado.

1. La muerte o declaración de fallecimiento del concursado no será causa de conclusión del concurso, que continuará tramitándose como concurso de la herencia, correspondiendo a la administración concursal el ejercicio de las facultades patrimoniales de administración y disposición del caudal relicto.

2. La representación de la herencia en el procedimiento corresponderá a quien la ostente conforme a derecho y, en su caso, a quien designen los herederos.

3. Fallecido el concursado, la herencia se mantendrá indivisa durante la tramitación del concurso.



II. KAPITULUA

Konkurtsuak zordunaren kariaz dituen berezitasunak

1. atala. Komunikazioak eta jakinarazpen bereziak

572. artikulua. Borondatezko edo nahitaezko konkurtsu-eskaeraren komunikazio bereziak.

1. Bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatutako baloreak edo finantza-tresnak jaulkita dituen sozietate baten hartzekodunen konkurtsua eskatuz gero, Justizia Administrazioaren letraduak, epaileak horren berri eman ondoren, lehenbailehen komunikatuko dio Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari.

2. Kreditu-erakunde baten edo inbertsio-zerbitzuetako enpresa baten hartzekodunen konkurtsua eskatuz gero, organo judicial eskudunak, eskaeraren izapidetzea etenda, gainbegirale eskudunari eta BBOFri jakinaraziko die, Kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuetako enpresak oneratzeari eta desegiteari buruzko ekainaren 18ko 11/2015 Legearen hamabosgarren xedapen gehigarriaren 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoa betetzeko.

Ondoren, hala badagokio, Justizia Administrazioaren letraduak, epaileak horren berri eman ondoren, lehenbailehen komunikatuko die Espainiako Bankuari, BBOFri eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari, eta baloreak edo finantza-tresnak ordaintzeko eta likidatzeko sistemen zerrenda eskatuko die, deribatuak barne, ukitutako erakundeari dagozkionak, eta kudeatzailearen izena eta egoitza, aplikagarria den legeria berezian aurreikusitako baldintzetan.

3. Aseguru- edo berraseguru-erakunde baten hartzekodunen konkurtsua eskatuz gero, Justizia Administrazioaren letraduak, epaileak horren berri eman ondoren, berehala komunikatuko dio Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiarri.

4. Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduen mutua baten hartzekodunen konkurtsua eskatuz gero, Justizia Administrazioaren letraduak, epaileak horren berri eman ondoren, lehenbailehen komunikatuko dio Gizarteratze, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioari.

CAPÍTULO II

De las especialidades del concurso por razón de la persona del deudor

Sección 1.^a De las comunicaciones y notificaciones especiales

Artículo 572. Comunicaciones especiales de la solicitud de concurso voluntario o necesario.

1. En caso de solicitud de concurso de acreedores de una sociedad que tuviera emitidos valores o instrumentos financieros negociados en un mercado secundario oficial, el Letrado de la Administración de Justicia, una vez que el juez hubiera proveído sobre la misma, lo comunicará sin dilación a la Comisión Nacional del Mercado de Valores.

2. En caso de solicitud de concurso de acreedores de una entidad de crédito o a una empresa de servicios de inversión, el órgano judicial competente, suspendiendo la tramitación de la solicitud, lo notificará al supervisor competente y al FROB para dar cumplimiento a lo dispuesto en los apartados 2 y 3 de la disposición adicional decimoquinta de la Ley 11/2015, de 18 de junio, de recuperación y resolución de entidades de crédito y empresas de servicios de inversión.

A continuación, en caso de que así proceda el Letrado de la Administración de Justicia, una vez que el juez hubiera proveído sobre la misma, lo comunicará sin dilación al Banco de España, al FROB y a la Comisión Nacional del Mercado de Valores y solicitará la relación de los sistemas de pagos y de liquidación de valores o instrumentos financieros, incluidos los derivados, a los que pertenezca la entidad afectada y la denominación y domicilio del gestor en los términos previstos en la legislación especial aplicable.

3. En caso de solicitud de concurso de acreedores de una entidad aseguradora o reaseguradora, el Letrado de la Administración de Justicia, una vez que el juez hubiera proveído sobre la misma, lo comunicará sin dilación a la Dirección General de Seguros y Fondos de Pensiones.

4. En caso de solicitud de concurso de acreedores de una mutua colaboradora con la Seguridad Social, el Letrado de la Administración de Justicia, una vez que el juez hubiera proveído sobre la misma, lo comunicará sin dilación al Ministerio de Inclusión, Seguridad Social y Migraciones.



573. artikulua. Konkurtso-deklarazioaren jakinarazpen bereziak.

Aurreko artikuluan aipatutako erakundeetako edozeinen konkurtsoa deklaratu ondoren, Justizia Administrazioaren letraduak autoa jakinaraziko die, dataren egun berean, eskaera jakinarazi dien edo jakinarazi behar dien erakunde eta administrazio publikoei, bai eta ukitutako erakundeari dagozkion sistemen kudeatzaileari ere.

2. atala. Konkurtso-administrazioaren berezitasunak

574. artikulua. Konkurtso-administrazioaren izendapena.

1. Kreditu-erakundearen konkurtsoan, epaileak konkurtso-administratzaile bat izendatuko du BBOFk hirukote gisa proposatutako pertsonen artean.

2. Aseguru- edo berraseguru-erakundearen konkurtsoan, epaileak Aseguruen Konpentsazio Partzuergoa izendatuko du konkurtso-administratzaile.

3. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak gainbegiratutako erakunde baten konkurtsoan, epaileak konkurtso-administratzaile izendatuko du batzorde horrek hirukote gisa proposatutako pertsonen artean.

575. artikulua. Bateriaezintasunak eta debekuak.

1. Konkurtso-administratzaile izendatzeko bateraezintasunei eta debekuei buruz lege honetan ezarritako arauak aplikatuko zaizkie konkurtsoko epaileak BBOFren, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren edo Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren proposamenez izendatutako pertsonei.

2. Aurreko apartatuan ezarritakotik salbuetsita geratzen dira izendatuak daukan edo eduki duen kargu edo funtzio publikoagatiko debekuak; edo, konkurtso-administrazio dualaren kasuan, konkurtso-administrazio kideen arteko lotura pertsonal edo profesionalagatiko bateraezintasunak.

576. artikulua. Izendatuak onartzea.

1. BBOFk, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak edo Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak proposatutako pertsonetatik edozein izendatzen bada konkurtso-administrazio, ez da beharrezkoa izango izendatuaren onarpena.

Artículo 573. Notificaciones especiales de la declaración de concurso.

Declarado el concurso de cualquiera de las entidades a que se refiere el artículo anterior, el Letrado de la Administración de Justicia notificará el auto, en el mismo día de la fecha, a los mismos organismos y administraciones públicas a las que hubiera notificado o debido notificar la existencia de la solicitud, así como al gestor de los sistemas a los que pertenezca la entidad afectada.

Sección 2.ª De las especialidades de la administración concursal

Artículo 574. Nombramiento de la administración concursal.

1. En el concurso de entidad de crédito el juez nombrará administrador concursal de entre las personas propuestas en terna por el FROB.

2. En el concurso de entidad aseguradora o reaseguradora el juez nombrará administrador concursal al Consorcio de Compensación de Seguros.

3. En el concurso de una entidad sometida a la supervisión de la Comisión Nacional del Mercado de Valores el juez nombrará administrador concursal de entre las personas propuestas en terna por esa Comisión.

Artículo 575. Incompatibilidades y prohibiciones.

1. Las normas establecidas en esta ley sobre incompatibilidades y prohibiciones para ser nombrado administrador concursal serán de aplicación a las personas nombradas por el juez del concurso a propuesta del FROB, del Consorcio de Compensación de Seguros o de la Comisión Nacional del Mercado de Valores.

2. Se exceptúan de lo establecido en el apartado anterior, las prohibiciones por razón del cargo o función pública que tuviera o hubiera tenido el nombrado; o, en caso de administración concursal dual, de las incompatibilidades por razón de la vinculación personal o profesional entre los miembros de la administración concursal.

Artículo 576. Aceptación del nombrado.

1. Cuando el nombramiento de la administración concursal recaiga en cualquiera de las personas propuestas por el FROB, el Consorcio de Compensación de Seguros o la Comisión Nacional del Mercado de Valores no será necesaria la aceptación del nombrado.



2. Izendapena jakinarazi eta hurrengo bost egunen barruan, izendatuak epaitegiari komunikatuko dizkio kredituak komunikatzeko eta beste edozein jakinarazpen egiteko posta-helbidea eta helbide elektronikoa.

Adierazten duen helbide elektronikoak komunikazio elektronikoen segurtasun-baldintza teknikoak bete beharko ditu, komunikazioen transmisioa eta harrera, datak eta eduki osoa jasotzeari dagokionez.

577. artikulua. Karguaren doakotasuna.

BBOFk, Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoak edo Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak konkurtso-administratzaile kargua betetzeko proposatutako pertsonak organismo horietako kide badira, ez dute masa aktiboaren konturako ordainsarirako eskubiderik izango.

3. atala. Kreditu-erakundeen, inbertsio-zerbitzuetako enpresen, aseguru-erakundeen, merkatu arautuetako kide diren erakundeen eta baloreak konpentsatzeko eta likidatzeko sistemetan parte hartzen duten erakundeen konkurtsoaren berezitasunak

578. artikulua. Hartzekodunen konkurtsoaren araubide berezia.

1. Kreditu-erakunde edo legez horiekin berdinetatik erakunde, inbertsio-zerbitzuetako enpresa eta aseguru-erakundeen konkurtsoetan, bai eta balore-merkatu ofizialetako kide diren erakundeen eta baloreak konpentsatu eta likidatzeko sistemetan parte hartzen duten erakundeen konkurtsoetan ere, legeria berezian hartzekodunen konkurtsoarentzat ezarritako berezitasunak aplikatuko dira.

2. Aurreko apartatua aplikatzeari dagokionez, honako arau hauetan jasotakoa hartuko da legeria berezizat:

1.a Hipoteka Merkatua arautzeari buruzko martxoaren 25eko 2/1981 Legearen 10., 14. eta 15. artikulua, bai eta beste balore eta tresna batzuei buruzkoak ere, baldin eta hipoteka-zedulei aplikagarri zaien kaudimen-araubide bera eratziki badie legeak balore zein tresna horiei.

2.a Kreditu-erakundeen arloko Espainiako legeria Bankuak Koordinatzeko Bigarren Zuzentzura egokitzen duen eta finantza-sistemari buruzko beste aldaketa batzuk sartzen dituen apirilaren 14ko 3/1994 Legearen bosgarren xedapen gehigarria.

2. Dentro del plazo de cinco días siguientes a la notificación del nombramiento, el nombrado comunicará al juzgado las direcciones postal y electrónica en las que efectuar la comunicación de créditos, así como cualquier otra notificación.

La dirección electrónica que se señale deberá cumplir las condiciones técnicas de seguridad de las comunicaciones electrónicas en lo relativo a la constancia de la transmisión y recepción, de sus fechas y del contenido íntegro de las comunicaciones.

Artículo 577. Carácter gratuito del cargo.

Si las personas propuestas por el FROB, el Consorcio de Compensación de Seguros o la Comisión Nacional del Mercado de Valores para el ejercicio del cargo de administrador concursal formaran parte de estos organismos, no tendrán derecho a retribución con cargo a la masa activa.

Sección 3.^a De las especialidades del concurso de entidades de crédito, de empresas de servicios de inversión, de entidades aseguradoras, de entidades que sean miembros de mercados regulados y de entidades participantes en los sistemas de compensación y liquidación de valores

Artículo 578. Régimen especial del concurso de acreedores.

1. En los concursos de entidades de crédito o entidades legalmente asimiladas a ellas, empresas de servicios de inversión y entidades aseguradoras, así como de entidades miembros de mercados oficiales de valores y entidades participantes en los sistemas de compensación y liquidación de valores, se aplicarán las especialidades que para el concurso de acreedores se hallen establecidas en su legislación específica.

2. Se considera legislación especial, a los efectos de la aplicación del apartado anterior, la contenida en las siguientes normas:

1.º Los artículos 10, 14 y 15 de la Ley 2/1981, de 25 de marzo, de regulación del mercado hipotecario, así como las normas reguladoras de otros valores o instrumentos a los que legalmente se atribuya el mismo régimen de solvencia que el aplicable a las cédulas hipotecarias.

2.º La disposición adicional quinta de la Ley 3/1994, de 14 de abril, por la que se adapta la legislación española en materia de entidades de crédito a la Segunda Directiva de Coordinación Bancaria y se introducen otras modificaciones relativas al sistema financiero.



3.a Espainiako Bankuaren Autonomiari buruzko ekainaren 1eko 13/1994 Legea (Espainiako Bankuak, Europako Banku Zentralak edo Europar Batasuneko beste nazio-banku zentralak euren eginkizunak bete ditzaten eraturako bermeei aplikagarri zaien araubideari dagokionez).

4.a Arrisku-kapitaleko erakundeak eta euren sozietate kudeatzaileak arautzeko urtarrilaren 5eko 1/1999 Legearen hirugarren xedapen gehigarria.

5.a Baloreak ordaintzeko eta kitatzeko sistemei buruzko azaroaren 12ko 41/1999 Legea.

6.a Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bategina (azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia).

7.a Inbertsio Kolektiboko Erakundeen azaroaren 4ko 35/2003 Legea.

8.a Aseguruen Konpentsaziorako Partzuergoaren Lege Estatutuaren testu bategina (urriaren 29ko 7/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia).

9.a Martxoaren 11ko 5/2005 Errege Lege Dekretuaren (Produktibitatea sustatzeko eta kontratazio publikoa hobetzeko premiazko erreformei buruzkoa) I. tituluko II. kapitulua.

10.a Kreditu-erakundeen saneamenduari eta likidazioari buruzko apirilaren 22ko 6/2005 Legea.

11.a Ekintzaileei eta haien nazioartekotzeari laguntzeko irailaren 27ko 14/2013 Legearen 34. artikulua.

12.a 22/2014 Legea, azaroaren 12koa, arrisku-kapitaleko erakundeak, inbertsio kolektiboko bestelako erakunde itxiak eta inbertsio kolektiboko erakunde itxien erakunde kudeatzaileak arautzen dituen, eta Inbertsio Kolektiboko Erakundeen azaroaren 4ko 35/2003 Legea aldatzen duena.

13.a Enpresa-finantzaketa sustatzearen apirilaren 27ko 5/2015 Legearen 16.4 artikulua eta laugarren xedapen gehigarriaren 7. puntua.

14.a Kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuetarako enpresak berreskuratu eta suntsitzearen ekainaren 18ko 11/2015 Legea.

15.a Aseguru- eta berraseguru-erakundeen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenaren auztailaren 14ko 20/2015 Legearen VI. eta VII. tituluak.

3.º La Ley 13/1994, de 1 de junio, de autonomía del Banco de España, por lo que respecta al régimen aplicable a las garantías constituidas a favor del Banco de España, del Banco Central Europeo o de otros Bancos Centrales Nacionales de la Unión Europea, en el ejercicio de sus funciones.

4.º La disposición adicional tercera de la Ley 1/1999, de 5 de enero, reguladora de las entidades de capital-riesgo y de sus sociedades gestoras.

5.º La Ley 41/1999, de 12 de noviembre, sobre sistemas de pagos y de liquidación de valores.

6.º El texto refundido de la Ley de Regulación de los Planes y Fondos de Pensiones, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2002, de 29 de noviembre.

7.º La Ley 35/2003, de 4 de noviembre, de Instituciones de Inversión Colectiva.

8.º El texto refundido del Estatuto Legal del Consorcio de Compensación de Seguros, aprobado por Real Decreto Legislativo 7/2004, de 29 de octubre.

9.º El capítulo II del título I del Real Decreto-ley 5/2005, de 11 de marzo, de reformas urgentes para el impulso a la productividad y para la mejora de la contratación pública.

10.º La Ley 6/2005, de 22 de abril, sobre saneamiento y liquidación de las entidades de crédito.

11.º El artículo 34 de la Ley 14/2013, de 27 de septiembre, de apoyo a los emprendedores y su internacionalización.

12.º La Ley 22/2014, de 12 de noviembre, por la que se regulan las entidades de capital-riesgo, otras entidades de inversión colectiva de tipo cerrado y las sociedades gestoras de entidades de inversión colectiva de tipo cerrado, y por la que se modifica la Ley 35/2003, de 4 de noviembre, de Instituciones de Inversión Colectiva.

13.º El artículo 16.4 y la disposición adicional cuarta, punto 7, de la Ley 5/2015, de 27 de abril, de fomento de la financiación empresarial.

14.º La Ley 11/2015, de 18 de junio, de recuperación y resolución de entidades de crédito y empresas de servicios de inversión.

15.º Los títulos VI y VII de la Ley 20/2015, de 14 de julio, de ordenación, supervisión y solvencia de entidades aseguradoras y reaseguradoras.



16.a Balore Merkatuaren Legearen testu bategina, urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia, eta hura garatzeko araudia.

17.a Otsailaren 15eko 217/2008 Errege Dekretua (inbertsio-zerbitzuetako enpresen eta inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten gainerako erakundeen araubide juridikoari buruzkoa eta Inbertsio Kolektiboko Erakundeen azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamendua, azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuak onetsitakoa, zati batean aldatzen duena).

18.a Uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretua, inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena.

3. Aurreko apartatuan zerrendatutako legezko arauak arau horietan aurreikusitako irismen subjektibo eta objektiboarekin aplikatuko zaizkie lege horretan jasotzen diren eragiketa edo kontratuei.

4. atala. Obra eta zerbitzu publikoen emakida duten enpresen edo administrazio publikoen kontratisten konkurtsoaren berezitasunak

579. artikulua. Obra eta zerbitzu publikoen emakidadunen edo administrazio publikoen kontratisten konkurtsoa.

Obra eta zerbitzu publikoen emakida duten enpresen edo administrazio publikoen kontratisten konkurtsoetan, sektore publikoko kontratuen legerian eta administrazio-kontratu mota bakoitza arautzen duen berariazko legerian zehaztuta dauden berezitasunak aplikatuko dira.

580. artikulua. Hitzarmen-proposamena aurkezteko legitimazio gehigarria.

Obra eta zerbitzu publikoen emakida duten enpresen edo administrazio publikoen kontratisten konkurtsoetan, oro har hitzarmen-proposamena aurkezteko legitimazioa dutenez gain, administrazio publikoek ere aurkeztu ahal izango dute beren proposamena, baita haiei lotutako edo haien mendeko organismo, erakunde eta merkataritza-sozietateek ere, nahiz eta hartzekodunak ez izan, lege honetan ezarritako denbora-, forma- eta eduki-baldintza berberetan.

16.º El texto refundido de la Ley del Mercado de Valores, aprobado por Real Decreto Legislativo 4/2015, de 23 de octubre, y su normativa de desarrollo.

17.º El Real Decreto 217/2008, de 15 de febrero, sobre el régimen jurídico de las empresas de servicios de inversión y de las demás entidades que prestan servicios de inversión y por el que se modifica parcialmente el Reglamento de la Ley 35/2003, de 4 de noviembre, de Instituciones de Inversión Colectiva, aprobado por el Real Decreto 1309/2005, de 4 de noviembre.

18.º El Real Decreto 1082/2012, de 13 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley 35/2003, de 4 de noviembre, de instituciones de inversión colectiva.

3. Las normas legales enumeradas en el apartado anterior se aplicarán con el alcance subjetivo y objetivo previsto en las mismas a las operaciones o contratos que en ella se contemplan.

Sección 4.ª De las especialidades del concurso de empresas concesionarias de obras y servicios públicos o contratistas de las administraciones públicas

Artículo 579. Concurso de concesionarias de obras y servicios públicos o contratistas de las administraciones públicas.

En los concursos de empresas concesionarias de obras y servicios públicos o contratistas de las administraciones públicas se aplicarán las especialidades establecidas en la legislación de contratos del sector público y en la legislación específica reguladora de cada tipo de contrato administrativo.

Artículo 580. Legitimación adicional para presentar propuesta de convenio.

En los concursos de empresas concesionarias de obras y servicios públicos o contratistas de las administraciones públicas, además de los legitimados con carácter general para presentar propuesta de convenio, podrán presentarla las administraciones públicas, incluidos los organismos, entidades y sociedades mercantiles vinculadas o dependientes de ellas, aunque no sean acreedores, en las mismas condiciones de tiempo, forma y contenido establecidas en esta ley.



581. artikulua. Obra eta zerbitzu publikoen emakidadunen edo administrazio publikoetako kontratisten konkurtsoak metatzea.

1. Obra eta zerbitzu publikoen emakidadun edo administrazio publikoen kontratista diren bi enpresa edo gehiagoren konkurtsoetan, haiei guztiei eragiten dieten hitzarmen-proposamenak aurkezten direnean, izapidetzen ari diren prozedurak metatu egingo dira, edozein fasetan daudela ere, nahiz eta kasuan kasuko hitzarmenen efikazia ez egon besteen efikaziaren mende.

2. Metaketa bidezkoa izango da, nahiz eta konkurtsoak epaitegi desberdinek deklaratu. Kasu horretan, konkurtso-eskaera aurkezteko unean emakidadunaren edo pasibo handiena duen kontratistaren konkurtsoaz arduratzen ari den epaileak izango du metatutako konkurtsoak izapidetzeko eskumena.

5. atala. Kirol-erakundeen konkurtsoaren berezitasunak

582. artikulua. Kirol-erakundeen konkurtsoa.

1. Lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten kirol-erakundeen konkurtsoetan, Estatuko kirol-legeriak eta hura garatzeko arauak hartzekodunen konkurtsoarentzat aurreikusitako berezitasunak aplikatuko dira.

2. Kirol-erakunde baten konkurtso-deklarazio judizialak ez du etengo egiten ari den jardueraren jarraipena, eta ez du eragotziko erakunde horrek lehiaketan parte hartzea arautzen duen araudiaren aplikazioa.

BIGARREN LIBURUA

Konkurtso aurreko zuzenbidea

I. TITULUA

Hartzekodunekin negoziazioak hasi izana komunikatzea

I. KAPITULUA

Hartzekodunekin negoziazioak hasi izana komunikatzea

583. artikulua. Negoziazioak hasi izana komunikatzea.

1. Egungo edo hur-hurreko kaudimengabezia-egoeran dagoen zordunak, pertsona fisikoa zein juridikoa izan, konkurtsoan deklaratu ez bada, hartzekodunekin negoziazioak hasi direla jakinarazi

Artículo 581. De la acumulación de concursos de concesionarias de obras y servicios públicos o contratistas de las administraciones públicas.

1. Cuando en los concursos de dos o más empresas concesionarias de obras y servicios públicos o contratistas de las administraciones públicas se presenten propuestas de convenio que afecten a todas ellas, procederá la acumulación de los procedimientos en tramitación, cualquiera que sea la fase en que se encuentren, aunque la eficacia de los respectivos convenios no esté condicionada a la eficacia de los demás.

2. La acumulación procederá aunque los concursos hayan sido declarados por diferentes juzgados. En este caso, la competencia para la tramitación de los concursos acumulados corresponderá al juez que estuviera conociendo del concurso de la concesionaria o de la contratista con mayor pasivo en el momento de la presentación de la solicitud de concurso.

Sección 5.^a De las especialidades del concurso de entidades deportivas

Artículo 582. Concurso de entidades deportivas.

1. En los concursos de entidades deportivas que participen en competiciones oficiales, se aplicarán las especialidades que para el concurso de acreedores prevea la legislación estatal del deporte y sus normas de desarrollo.

2. La declaración judicial de concurso de una entidad deportiva no interrumpirá la continuación de la actividad que viniera ejerciendo ni impedirá la aplicación de la normativa reguladora de la participación de esa entidad en la competición.

LIBRO SEGUNDO

Del derecho preconcursal

TÍTULO I

De la comunicación de la apertura de negociaciones con los acreedores

CAPÍTULO I

De la comunicación de apertura de negociaciones con los acreedores

Artículo 583. Comunicación de la apertura de negociaciones.

1. El deudor, persona natural o jurídica, en situación de insolvencia actual o inminente, que no hubiera sido declarado en concurso podrá poner en conocimiento del juzgado competente para la declaración del propio



ahal izango dio konkurtsoa bera deklaratzeko eskumena duen epaitegiari, aurreiazko hitzarmen-proposamen bati atxikitzeko edo lege honetan ezarritako baldintzak betetzen dituen birfinantzatze-akordio bat lortzeko, betiere berezia ez bada.

2. Zordunak konkurtso-bitartekari bat izendatzea eskatu badu ordainketa-akordio estrajudizial bat lortzeko, notarioak, merkataritza-erregistratzaileak edo eskaera jaso duen ganberak, bitartekariak izendapena onartu ondoren, konkurtso-deklarazioa egiteko eskumena duen epaitegiari komunikatuko dio ordainketa-akordio estrajudizial bat lortzeko hartzekodunekin negoziazioak hasi direla, bitartekariaren identitatea adierazita.

3. Komunikazioan adieraziko da zer exekuzio jarraitzen diren zordunaren ondarearen aurka, eta haietatik zeintzuk diren lanbide- edo enpresa-jarduerarekin jarraitzeko beharrezkotzat jotzen diren ondasun edo eskubideen gainekoak.

4. Komunikazioa egin ondoren, zordun berak ezin izango du beste bat aurkeztu urtebeteko epean.

584. artikulua. Komunikazioaren unea.

Zorduna egungo kaudimengabezia-egoeran badago, komunikazioa bakarrik egin ahal izango da konkurtsoa eskatzeko eginbeharra betetzeko lege ezarritako epea amaitu baino lehen.

585. artikulua. Komunikazioa argitaratzea.

1. Komunikazioa hartzen den egun berean, Justizia Administrazioaren letraduak dekretua emango du komunikazio hori jasota uzteko, eta dekretu horretan aginduko du Konkurtso-erregistro publikoan ediktua argitaratzea, ebazpen horren laburpena jasota.

2. Dekretuan jasoko dira, eskaeraren arabera, zordunaren lanbide- edo enpresa-jarduerarekin jarraitzeko beharrezkoak diren ondasun edo eskubideen gainean arribidean dauden exekuzioak. Ondasunaren edo eskubidearen izaera beharrezkoari buruzko eztabaidaren kasuan, interes legitimoa duenak berrikuspen-errekurtsoa jarri ahal izango du.

3. Komunikazio-idazkian jasota badago komunikazioa isilpekoa izateari buruzko eskaera, Justizia Administrazioaren letraduak ez du aginduko ediktua argitaratzeko. Zordunak edozein unetan eskatu ahal izango du komunikazioari isilpeko izaera kentzeko.

concurso la apertura de negociaciones con los acreedores para obtener adhesiones a una propuesta anticipada de convenio o para alcanzar un acuerdo de refinanciación que reúna los requisitos establecidos en esta ley, siempre que no sea singular.

2. Si el deudor hubiera solicitado el nombramiento de un mediador concursal para tratar de alcanzar un acuerdo extrajudicial de pagos, el notario, el registrador mercantil o la cámara ante los que se hubiera presentado la solicitud, una vez aceptado el nombramiento por el mediador, comunicará al juzgado competente para la declaración del concurso la apertura de negociaciones con los acreedores para alcanzar un acuerdo extrajudicial de pagos, indicando la identidad del mediador.

3. En la comunicación se indicará qué ejecuciones se siguen contra el patrimonio del deudor y cuáles de ellas recaen sobre bienes o derechos que se consideran necesarios para la continuidad de la actividad profesional o empresarial.

4. Una vez formulada la comunicación, no podrá presentarse otra por el mismo deudor en el plazo de un año.

Artículo 584. Momento de la comunicación.

Si el deudor se encontrara en situación de insolvencia actual, la comunicación solo podrá realizarse antes del vencimiento del plazo legalmente establecido para el cumplimiento del deber de solicitar el concurso.

Artículo 585. Publicación de la comunicación.

1. El mismo día de la recepción de la comunicación, el Letrado de la Administración de Justicia dictará decreto dejando constancia de esa comunicación, en la que ordenará la publicación en el Registro público concursal de edicto conteniendo extracto de esa resolución.

2. En el decreto se harán constar las ejecuciones que se encuentran en curso sobre bienes o derechos que, según la solicitud, fuesen necesarios para la continuidad de la actividad profesional o empresarial del deudor. En caso de controversia sobre el carácter necesario del bien o del derecho quien ostente interés legítimo podrá interponer recurso de revisión.

3. Si en el escrito de comunicación constara la solicitud del carácter reservado de la comunicación, el Letrado de la Administración de Justicia no ordenará la publicación del edicto. El deudor podrá solicitar en cualquier momento el levantamiento del carácter reservado de la comunicación.



II. KAPITULUA

Komunikazioaren ondoreak

1. atala. Komunikazioak kredituen gainean dauzkan ondoreak

586. artikulua. Komunikazioak eperako kredituen gainean dituen ondoreak.

Hartzekodunekin negoziazioak hasi direla komunikatzeak ez du berez ekarriko geroratutako kredituen epemuga aurreratua.

587. artikulua. Komunikazioak berme pertsonaletan dituen ondoreak.

1. Hartzekodunekin negoziazioak hasi direla komunikatzeak ez du eragotziko kreditua ordaintzeko hirugarren baten berme pertsonala duen hartzekodunak berme hori gauzatzea, bermatutako kredituaren epemuga igaro bada.

2. Bermatzaileek ezin izango dute eskatu negoziazioen hasieraren komunikazioa hartzekodunaren kalterako, nahiz eta hartzekodunak negoziazio horietan parte hartu.

2. atala. Komunikazioak akzioen eta exekuzio-prozeduren gainean dauzkan ondoreak

588. artikulua. Exekuzioak hasteko debekua.

1. Ordainketa-akordio estrajudizial bat lortzeko negoziazioen hasieraren komunikazioa aurkezten denetik hiru hilabete igaro arte, hartzekodunek ezin izango dute zordunaren ondareko ondasun eta eskubideen gaineko exekuzio judizialik edo estrajudizialik hasi.

2. Hartzekodunek ezin izango dute exekuzio judizialik edo estrajudizialik hasi, baldin eta zordunaren lanbide- edo enpresa-jarduerarekin jarraitzeko beharrezkoak diren ondasunak edo eskubideak enbargatzea eskatzen badute, harik eta hiru hilabete igaro arte aurretiazko hitzarmen-proposamen bati atxikimenduak lortzeko edo birfinantzatze-akordio bat lortzeko negoziazioen hasieraren komunikazioa aurkezten denetik.

3. Zorduna enpresaburua ez den pertsona fisikoa bada, epea bi hilabetekoa izango da.

CAPÍTULO II

De los efectos de la comunicación

Sección 1.ª De los efectos de la comunicación sobre los créditos

Artículo 586. Efectos de la comunicación sobre los créditos a plazo.

La comunicación de la apertura de negociaciones con los acreedores no producirá por sí sola el vencimiento anticipado de los créditos aplazados.

Artículo 587. Efectos de la comunicación sobre las garantías personales.

1. La comunicación de la apertura de negociaciones con los acreedores no impedirá que el acreedor que disponga de garantía personal de un tercero para la satisfacción del crédito pueda hacerla efectiva si el crédito garantizado hubiera vencido.

2. Los garantes no podrán invocar la comunicación de la apertura de negociaciones en perjuicio del acreedor, incluso aunque este participe en esas negociaciones.

Sección 2.ª De los efectos de la comunicación sobre las acciones y sobre los procedimientos ejecutivos

Artículo 588. Prohibición de iniciación de ejecuciones.

1. Hasta que transcurran tres meses a contar desde la fecha de presentación de la comunicación de la apertura de negociaciones para tratar de alcanzar un acuerdo extrajudicial de pagos, los acreedores no podrán iniciar ejecuciones judiciales o extrajudiciales sobre los bienes y derechos integrados en el patrimonio del deudor.

2. Hasta que transcurran tres meses a contar desde la fecha de presentación de la comunicación de la apertura de negociaciones para obtener adhesiones a una propuesta anticipada de convenio o para alcanzar un acuerdo de refinanciación, los acreedores no podrán iniciar ejecuciones judiciales o extrajudiciales en las que soliciten el embargo de bienes o derechos necesarios para la continuidad de la actividad profesional o empresarial del deudor.

3. El plazo será de dos meses si el deudor fuera persona natural que no tuviera la condición de empresario.



589. artikulua. Izapidetzen ari diren exekuzioak etetea.

Aurreko artikulua aipatutako ondasun edo eskubideen gainean izapidetzen ari diren exekuzioak eten egingo ditu haien gaineko ardura duen epaileak.

590. artikulua. Pasibo finantzarioen kredituen exekuzioak.

Ezin izango dira hasi, eta, hasiz gero, eten egingo dira, pasibo finantzarioen hartzekodunek zordunaren ondarean sartutako beste edozein ondasun edo eskubideren gainean sustatutako exekuzio bereziak, judizialak zein estrajudizialak, baldin eta agiri bidez egiaztatzen bada pasibo finantzario osoaren ehuneko berrogeita hamaikak, gutxienez, berariaz babestu duela birfinantzate-akordioa sinatzeko negoziazioak hastea, negoziazioak egiten ez diren bitartean zordunaren aurkako exekuzio indibidualak ez hasteko edo ez jarraitzeko berariazko konpromisoarekin.

591. artikulua. Berme errealeen exekuzioa.

1. Hartzekodunekin negoziazioak hasi direla komunikatu arren, aurretiazko hitzarmen-proposamen bati atxikitzeko edo birfinantzate-akordio bat lortzeko, berme erreala duten hartzekodunek exekuzioak hasi ahal izango dituzte bermea eratuta duten ondasun edo eskubideen gainean. Bermea zordunaren lanbide- edo enpresa-jarduerarekin jarraitzeko beharrezkoak diren ondasun edo eskubideen gainekoa bada, behin exekuzio-prozedura hasi ondoren, haren gaineko ardura duen epaileak eten egingo du, harik eta hartzekodunekin negoziazioak hasi izanaren komunikazioa aurkezten denetik hiru hilabete igaro arte, aurretiazko hitzarmen-proposamen bati atxikimenduak lortzeko edo birfinantzate-akordio bat lortzeko.

2. Ordainketa-akordio estrajudizial bat lortzeko asmoz hartzekodunekin negoziazioak hasi direla komunikatu arren, berme erreala duten hartzekodunek bermea eratuta duten ondasun edo eskubideen gaineko exekuzioak hasi ahal izango dituzte. Bermea zordunaren ohiko etxebizitzaren edo zordunaren lanbide- edo enpresa-jarduerarekin jarraitzeko beharrezkoak diren ondasun edo eskubideen gainekoa bada, prozedura hasi ondoren, ondasun edo eskubide horien gaineko exekuzioa eten egingo du haien gaineko ardura duen epaileak, harik eta hartzekodunekin negoziazioak hasi izana

Artículo 589. Suspensión de las ejecuciones en tramitación.

Las ejecuciones sobre los bienes o derechos a que se refiere el artículo anterior que estén en tramitación se suspenderán por el juez que estuviere conociendo de las mismas.

Artículo 590. Ejecuciones de créditos de pasivos financieros.

No podrán iniciarse y, si se hubieran iniciado, se suspenderán las ejecuciones singulares, judiciales o extrajudiciales, promovidas por los acreedores de pasivos financieros sobre cualesquiera otros bienes o derechos integrados en el patrimonio del deudor si se acreditara documentalmente que, al menos, el cincuenta y uno por ciento del pasivo financiero total ha apoyado expresamente la apertura de las negociaciones para la suscripción del acuerdo de refinanciación, con compromiso expreso a no iniciar o continuar ejecuciones individuales frente al deudor en tanto tengan lugar las negociaciones.

Artículo 591. De las ejecuciones de garantías reales.

1. No obstante la comunicación de la apertura de negociaciones con los acreedores para obtener adhesiones a una propuesta anticipada de convenio o para alcanzar un acuerdo de refinanciación, los acreedores con garantía real podrán iniciar ejecuciones sobre los bienes o derechos sobre los que se hubiera constituido la garantía. Si la garantía recayera sobre bienes o derechos necesarios para la continuidad de la actividad profesional o empresarial del deudor, una vez iniciado el procedimiento de ejecución, se suspenderá por el juez que esté conociendo del mismo hasta que transcurran tres meses a contar desde la fecha de presentación de la comunicación de la apertura de negociaciones con los acreedores para obtener adhesiones a una propuesta anticipada de convenio o para alcanzar un acuerdo de refinanciación.

2. No obstante la comunicación de la apertura de negociaciones con los acreedores para tratar de alcanzar un acuerdo extrajudicial de pagos, los acreedores con garantía real podrán iniciar ejecuciones sobre los bienes o derechos sobre los que se hubiera constituido la garantía. Si la garantía recayera sobre la vivienda habitual del deudor o sobre bienes o derechos necesarios para la continuidad de la actividad profesional o empresarial del deudor, una vez iniciado el procedimiento, la ejecución sobre esos bienes o derechos se suspenderá por el juez que estuviere conociendo de las mismas hasta que



komunikatzen denetik hiru hilabete igaro arte, edota, zorduna enpresaburua ez den pertsona fisikoa bada, bi hilabete igaro arte.

3. Ondasun eta eskubideen erregistro publikoetan hartzekodunekin egindako negoziazioen hasieraren idatzoharra egin ondoren, ezin izango dira zordunaren ondasun eta eskubideei buruzko idatzoharrak egin, konkurtso-bitartekaria izendatzeko eskaera aurkeztu ondorengo enbargo edo zainpean uzteei dagokienez.

592. artikulua. Zuzenbide publikoko kredituak.

Atal honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko zuzenbide publikoko kredituak gauzatzeko xedea duten exekuzio-prozedurei.

593. artikulua. Exekuzioak hasteko edo berrabiarazteko aukera.

1. Hasi gabeko edo etendako exekuzioak hasi edo berrabiarazi ahal izango dira, baldin eta konkurtsoa deklaratzeko eskumena duen epaileak ebazten badu ondasun edo eskubideak ez direla beharrezkoak zordunaren lanbide- edo enpresa-jarduerarekin jarraitzeko.

2. Hasi gabeko edo etendako exekuzioak hasi edo berrabiarazi ahal izango dira epaitegiari hartzekodunekin negoziazioak hasi izana komunikatzen zaionetik hiru hilabete igaro ondoren, edota, zorduna enpresaburua ez den pertsona fisikoa bada, bi hilabete igaro ondoren.

3. atala. Konkurtso-eskaeren gaineko ondoreak

594. artikulua. Zorduna ez den beste legitimatu batzuek eskatuta egindako konkurtso-eskaeraren gainean komunikazioak dituen ondoreak.

1. Zorduna ez den beste legitimatu batzuek negoziazioen hasiera komunikatu ondoren edo, ordainketa-akordio estrajudizialean, zorduna edo konkurtso-bitartekaria ez diren beste batzuek aurkeztutako konkurtso-eskaerak ez dira izapidetzeko onartuko, komunikazio horren datatik hiru hilabeteko epea igarotzen ez den bitartean, edota, zorduna enpresaburua ez den pertsona fisikoa bada, bi hilabeteko epea igarotzen ez den bitartean. Komunikazioa egin aurretik aurkeztutakoak, oraindik izapidetzeko onartu ez badira ere, izapidetzen jarraituko dira.

2. Epe hori amaitu ondoren aurkeztzen diren eskaerak ebatziko dira soilik hilabete balioduneko epea amaitu eta zordunak konkurtso-deklarazioa eskatu ez duenean. Zordunak hilabete horren barruan eskatzen badu konkurtso-deklarazioa, hori

transcurran tres meses a contar desde la fecha de la comunicación de la apertura de negociaciones con los acreedores o dos meses si el deudor fuera persona natural que no tuviera la condición de empresario.

3. Practicada en los registros públicos de bienes y derechos la anotación de la apertura de negociaciones con los acreedores, no podrán anotarse respecto de los bienes y derechos del deudor embargos o secuestros posteriores a la presentación de la solicitud del nombramiento de mediador concursal.

Artículo 592. Créditos de derecho público.

Lo dispuesto en esta sección no será de aplicación a los procedimientos de ejecución que tengan por objeto hacer efectivos créditos de derecho público.

Artículo 593. Posibilidad de iniciar o reanudar ejecuciones.

1. Las ejecuciones no iniciadas o suspendidas podrán iniciarse o reanudarse si el juez competente para la declaración de concurso resolviera que los bienes o derechos no son necesarios para la continuidad de la actividad profesional o empresarial del deudor.

2. Las ejecuciones no iniciadas o suspendidas podrán iniciarse o reanudarse una vez transcurridos tres meses desde la comunicación al juzgado de la apertura de negociaciones con los acreedores, o dos meses si el deudor fuera persona natural que no tuviera la condición de empresario.

Sección 3.^a De los efectos sobre las solicitudes de concurso

Artículo 594. Efectos de la comunicación sobre la solicitud de concurso a instancia de legitimados distintos del deudor.

1. Las solicitudes de concurso presentadas después de la comunicación de la apertura de negociaciones por otros legitimados distintos del deudor o, en el acuerdo extrajudicial de pagos, distintos del deudor o del mediador concursal no se admitirán a trámite mientras no transcurra el plazo de tres meses a contar desde la fecha de esa comunicación o de dos meses si el deudor fuera persona natural que no tuviera la condición de empresario. Las presentadas antes de la comunicación, aunque aún no hubieran sido admitidas a trámite, continuarán su tramitación.

2. Las solicitudes que se presenten con posterioridad a la expiración de ese plazo solo se proveerán cuando haya vencido el plazo de un mes hábil sin que el deudor hubiera solicitado la declaración de concurso. Si el deudor solicita la



izapidetuko da lehenik eta behin. Zordunak hala eskatuta konkurtsoa deklaratu ondoren, autoei batuko zaizkie aurretik aurkeztu diren eskaerak eta zordunaren eskaeraren ondoren aurkeztu direnak, eta eskatzaileak agertutzat joko dira.

III. KAPITULUA

Konkurtsoa eskatzeko legezko eginbeharraren galdagarritasuna

595. artikulua. Legezko eginbeharraren galdagarritasuna.

Hartzekodunekin negoziazioak hasi direla epaitegiari komunikatu eta hiru hilabeteko epean, edota, enpresaburua ez den pertsona fisikoa bada, bi hilabeteko epean, zordunak ez badu lortu birfinantzatzeko-akordioak edo ordainketa-akordio estrajudizialik edo aurretiatzeko hitzarmen-proposamenari atxikimendu nahikorik egitea, konkurtso-deklarazioa eskatu beharko du hurrengo hilabete baliodunaren barruan, baldin eta une horretan kaudimengabezia-egoeran badago, konkurtso-bitartekariak lehenagotik eskatu duenean salbu.

II. TITULUA

Birfinantzatzeko-akordioak

I. KAPITULUA

Birfinantzatzeko-akordioak

1. atala. Birfinantzatzeko-akordio motak

596. artikulua. Birfinantzatzeko-akordio motak.

Honako hauek hartzen dira birfinantzatzeko-akordiotzat:

1.a Birfinantzatzeko-akordio kolektiboak, zordunak bere hartzekodunekin hitzartutakoak, homologazio judizialarekin edo gabe.

2.a Birfinantzatzeko-akordio bereziak, zordunak hartzekodun batekin edo hainbat hartzekodunekin hitzartutakoak, baldin eta kapitulu honen 3. atalean ezarritako betekizunak betetzen badituzte. Epaileak, nolana ere, ezin izango ditu haiek inolaz ere homologatu.

2. atala. Birfinantzatzeko-akordio kolektiboak

597. artikulua. Birfinantzatzeko-akordioak.

Eguno edo hur-hurreko kaudimengabezia-egoeran dagoen zordunak, pertsona fisikoa zein juridikoa izan, konkurtsoan deklaratu ez bada, edozein unetan lortu

deklaración de concurso dentro de ese mes, esta se tramitará en primer lugar. Declarado el concurso a instancia del deudor, las solicitudes que se hubieran presentado antes y las que se presenten después de la del deudor se unirán a los autos, teniendo por comparecidos a los solicitantes.

CAPÍTULO III

De la exigibilidad del deber legal de solicitar el concurso

Artículo 595. Exigibilidad del deber legal.

El deudor que, dentro de los tres meses a contar desde la comunicación al juzgado de la apertura de negociaciones con los acreedores o dos meses si fuera persona natural que no tuviera la condición de empresario, no hubiera alcanzado un acuerdo de refinanciación o un acuerdo extrajudicial de pagos o adhesiones suficientes a la propuesta anticipada de convenio, deberá solicitar la declaración de concurso dentro del mes hábil siguiente si se encontrara en estado de insolvencia actual, a menos que ya la hubiera solicitado el mediador concursal.

TÍTULO II

De los acuerdos de refinanciación

CAPÍTULO I

De los acuerdos de refinanciación

Sección 1.ª De las clases de acuerdos de refinanciación

Artículo 596. Clases de acuerdos de refinanciación.

Se consideran acuerdos de refinanciación:

1.º Los acuerdos colectivos de refinanciación, estipulados por el deudor con sus acreedores, con o sin homologación judicial.

2.º Los acuerdos singulares de refinanciación, estipulados por el deudor bien con uno, bien con varios acreedores, siempre que reúnan los requisitos establecidos en la sección 3.ª de este capítulo, que en ningún caso podrán ser homologados por el juez.

Sección 2.ª De los acuerdos colectivos de refinanciación

Artículo 597. Acuerdos de refinanciación.

El deudor, persona natural o jurídica, en situación de insolvencia actual o inminente, que no hubiera sido declarado en concurso, podrá alcanzar en cualquier



ahal izango du birfinantzatze-akordioa bere hartzekodunekin. Epaitegi eskudunari komunikatu badio hartzekodunekin negoziazioak hasi dituela, komunikazio hori egin eta hurrengo hiru hilabeteen barruan lortu beharko da birfinantzatze-akordioa.

598. artikulua. Birfinantzatze-akordio kolektiboen betekizunak.

1. Lege honetan ezarritakoaren ondoretarako, birfinantzatze-akordio kolektiboen honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

1.a Akordioak bideragarritasun-plan bati erantzutea, eta plan horrek epe labur eta ertainean lanbide- edo enpresa-jarduerarekin jarraitzea ahalbidetzea zordunari.

2.a Akordioaren xedea izatea, gutxienez, kreditu erabilgarria nabarmen handitzea edo zordunaren betebeharrak aldatzea edo azkentzea, dela muga-eguna luzatuz, dela azkentzen direnen ordeztu betebeharrak ezarritu.

3.a Zordunak eta hartzekodunek sinatu izana akordioa, baldin eta akordio hori sinatu den datan zordunaren pasiboaren hiru bostenak badira, gutxienez, lege honetan ezarritakoaren arabera zenbatuta, zordunaren kontu-auditoreak emandako ziurtagiriaren arabera.

Zordunak edo taldeko sozietateek ez badute urteko kontuak auditoretzapean jartzeko betebeharririk, ziurtagiria ematen duen auditorea izendatuko du zordunaren egoitzako merkataritza-erregistratzaileak xede honetarako, eta, sozietate-taldearen edo -azpitaldearen akordioaren kasuan, sozietate nagusiaren egoitzakoak.

4.a Akordioa sinatu duten guztiek tresna publiko bidez formalizatu izana.

2. Tresna publikoari honako hauek gehituko zaizkio, eranskin gisa: bideragarritasun-plana, auditorearen ziurtagiria eta akordioa hartu den egunean legeak galdatzen dituen betekizunak betetzen direla justifikatzen duten agiri guztiak, kasuan kasuko akordio motaren arabera. Bideragarritasun-planak aditu independente baten txostena jaso badu, txosten hori ere erantsiko zaio eskriturari, eranskin gisa.

3. Birfinantzatze-akordio kolektiboa formalizatzen duen tresna publikoa zenbatekorik gabeko agiritzat hartuko da, baimena ematen duen notarioaren zerbitzu-sariak zehaztearen ondoretarako. Ematen

momento un acuerdo de refinanciación con sus acreedores. Si hubiera efectuado comunicación al juzgado competente del inicio de negociaciones con los acreedores, el acuerdo de refinanciación deberá alcanzarse dentro de los tres meses siguientes a la fecha de esa comunicación.

Artículo 598. Requisitos de los acuerdos colectivos de refinanciación.

1. A los efectos de lo establecido en esta ley, los acuerdos colectivos de refinanciación deberán reunir los siguientes requisitos:

1.º Que el acuerdo responda a un plan de viabilidad que permita la continuidad de la actividad profesional o empresarial del deudor a corto y a medio plazo.

2.º Que el acuerdo tenga como objeto, al menos, la ampliación significativa del crédito disponible o la modificación o la extinción de las obligaciones del deudor, bien mediante la prórroga de la fecha de vencimiento, bien mediante el establecimiento de nuevas obligaciones en sustitución de aquellas que se extingan.

3.º Que el acuerdo haya sido suscrito por el deudor y por acreedores que representen, en la fecha en que se hubiera adoptado, al menos, las tres quintas partes del pasivo del deudor, computado conforme a lo establecido en esta ley, según certificación emitida por el auditor de cuentas del deudor.

Si el deudor o las sociedades del grupo no tuvieran la obligación de someter las cuentas anuales a auditoría, el auditor que emita la certificación será el nombrado a este efecto por el registrador mercantil del domicilio del deudor y, en los casos de acuerdos de grupo o de subgrupo de sociedades, el de la sociedad dominante.

4.º Que el acuerdo se haya formalizado en instrumento público por todos los que lo hubieran suscrito.

2. Al instrumento público se incorporarán como anejo el plan de viabilidad, la certificación del auditor y cuantos documentos justifiquen la concurrencia a la fecha del acuerdo de los requisitos exigidos por la ley según la clase de acuerdo de que se trate. Si el plan de viabilidad hubiera sido sometido a informe de experto independiente, el informe se incorporará también como anejo a la escritura.

3. El instrumento público en que se formalice el acuerdo colectivo de refinanciación tendrá la consideración de documento sin cuantía a los efectos de determinación de los honorarios del notario que lo



diren matrizearen eta lehenengo kopien folioek ez dute inolako zenbatekorik sortuko hamargarren foliotik aurrera, hura barne.

599. artikulua. Gehiengoa zenbatzeko erregelak.

1. Pasiboaren ehunekoa zenbatzean, zordunarekin lotura berezia duten pertsonak diren hartzekodunen titulartasuneko pasibo guztiak kenduko dira.

2. Sindikatze-araubide edo -itun bati lotutako pasiboan kasuan, birfinantzate-akordio kolektiboaren sindikatutako hartzekodun guztiek onartzen dutela ulertuko da, akordioa sinatzen dutenek sindikatutako pasiboaren gutxienez ehuneko hirurogeita hamabosta ordezkatzeko dutenean. Sindikatze-araubidean edo -itunean gehiengo txikiagoa ezarri bada, azken gehiengo hori aplikatuko da.

3. Taldeko edo azpitaldeko birfinantzate-akordio kolektiboaren kasuan, pasiboaren ehunekoa banakako oinarrian kalkulatu da, ukitutako sozietate guztiekiko, baita oinarri finkatua ere, ukitutako talde edo azpitalde bakoitzaren kredituekiko eta, bi kasuetan, taldeko sozietateek emandako mailegu eta kredituak kanpo utzita.

600. artikulua. Aditu independente bat izendatzea bideragarritasun-planari buruzko txostena egiteko.

1. Zordunak nahiz hartzekodunek aditu independente bat izendatzeko eskatu ahal izango diote zordunaren egoitzako merkataritza-erregistratzaileari, bideragarritasun-planari buruzko txostena egin dezan.

2. Birfinantzate-akordio kolektiboak talde bereko hainbat sozietateri eragiten badie, txostena aditu bakar batek egin ahal izango du. Aditu hori sozietate nagusiaren egoitzako erregistratzaileak izendatuko du –akordioak sozietate horri eragiten badiot– edo, bestela, talde horretako edozein sozietateren egoitzakoak.

3. Merkataritzako erregistratzaileak egokitzat jotzen duen profesionala izendatuko du txostena egiteko aditu. Adituari lege honetan konkurtso-administratzaile izendatua izateko ezarritako bateraezintasun eta debekuen araubidea aplikatuko zaizkio, bai eta kontu-auditore izendatua izateko ezarritako bateraezintasunen araubidea ere.

601. artikulua. Adituaren txostenaren edukia.

1. Txostenean, honako hauei buruzko iritzia emango du adituak: bideragarritasun-plana zentzuzkoa eta

autorice. Los folios de la matriz y de las primeras copias que se expidan no devengarán cantidad alguna a partir del décimo folio inclusive.

Artículo 599. Reglas de cómputo de la mayoría.

1. En el cómputo del porcentaje del pasivo se deducirán del total los pasivos titularidad de acreedores que fueran personas especialmente relacionadas con el deudor.

2. En caso de pasivo sujeto a un régimen o pacto de sindicación, se entenderá que acepta el acuerdo colectivo de refinanciación la totalidad de los acreedores sindicados cuando quienes suscriban el acuerdo representen, al menos, el setenta y cinco por ciento del pasivo sindicado. Si en el régimen o en el pacto de sindicación se hubiera establecido una mayoría inferior, será de aplicación esta última.

3. En el caso de acuerdo colectivo de refinanciación de grupo o subgrupo, el porcentaje del pasivo se calculará tanto en base individual, en relación con todas y cada una de las sociedades afectadas, como en base consolidada, en relación con los créditos de cada grupo o subgrupo afectados, con exclusión en ambos casos de los préstamos y créditos concedidos por sociedades del grupo.

Artículo 600. Nombramiento de experto independiente para emitir informe sobre el plan de viabilidad.

1. Tanto el deudor como los acreedores podrán solicitar del registrador mercantil del domicilio del deudor el nombramiento de un experto independiente para que informe sobre el plan de viabilidad.

2. Si el acuerdo colectivo de refinanciación afectara a distintas sociedades de un mismo grupo, el informe podrá ser elaborado por un solo experto, designado por el registrador del domicilio de la sociedad dominante, si estuviera afectada por el acuerdo, en su defecto, por el del domicilio de cualquiera de las sociedades de ese grupo.

3. Para la emisión del informe el registrador mercantil designará como experto a profesional que considere idóneo. Será de aplicación al experto el régimen de incompatibilidades y prohibiciones establecidas en esta ley para ser nombrado administrador concursal así como el régimen de incompatibilidades establecidas para ser nombrado auditor de cuentas.

Artículo 601. Contenido del informe del experto.

1. En el informe el experto se pronunciará sobre el carácter razonable y realizable del plan de viabilidad,



gauzagarria den; proportzionaltasuna, akordioaren datan merkatuko baldintza normalen arabera; hartzekodunen alde eraturako edo eraten diren bermeak; eta, hala badagokio, aplikagarria den araudiak aurreikusten dituen bideragarritasun-planeko gainerako aipamenak.

2. Txostenak edozein motatako erreserbak edo mugak dituenen, akordioaren alderdiek berriaz baloratu beharko dute birfinantzate-akordio kolektiboa formalizatzen duen tresna publikoan erreserba edo muga horien edukia bideragarritasun-planean izan dezakeen eragina.

602. artikulua. Birfinantzate-akordio kolektiboaren efikazia.

1. Birfinantzate-akordio kolektiboaren edukia loteslea izango da zordunarentzat, hura sinatu duten hartzekodunentzat eta, sindikatzeko-araubide edo -itun bati lotutako pasiboen kasuan, sindikatutako hartzekodun guztientzat, akordioa sinatzen dutenek pasibo sindikatuaren ehuneko galdagarria ordezkatzeko dutenean.

2. Birfinantzate-akordio kolektiboan bertan besterik ezartzen ez bada, akordioak formalizatu duen tresna publikoaren datatik aurrera izango du efikazia.

603. artikulua. Taldea birfinantzateko akordioak.

Taldea edo azpitaldea birfinantzateko akordio kolektiboaren kasuan, aurreko artikuluetan zordunari buruz egiten diren aipamenak akordioa hitzartzen duten talde bereko sozietateei egiten zaizkiela ulertuko da.

3. atala. Birfinantzate-akordio bereziak

604. artikulua. Birfinantzate-akordio bereziak.

1. Lege honetan ezarritakoaren ondoretarako, birfinantzate-akordio bereziak dira zordunak, pertsona fisiko zein juridikoa izan, egungo edo hurreko kaudimengabezia-egoeran egonik, konkurtsoan deklaratu ez bada, hartzekodun batekin edo batzuekin hitzartutakoak, baldin eta hartzekodun horiek, banaka hartuta edo adostutakoa exekutatzeko hitzartu direnekin batera, honako betekizun hauek betetzen badituzte:

1.a Akordioak bideragarritasun-plan bati erantzutea, eta plan horrek epe labur eta ertainean lanbide- edo enpresa-jarduerarekin jarraitzea ahalbidetzea zordunari.

sobre la proporcionalidad, conforme a las condiciones normales de mercado a la fecha del acuerdo, de las garantías constituidas o que se constituyan a favor de los acreedores, así como de las demás menciones del plan de viabilidad que, en su caso, prevea la normativa que resulte aplicable.

2. Cuando el informe contuviera reservas o limitaciones de cualquier clase, las partes del acuerdo deberán valorar expresamente en el instrumento público en que se formalice el acuerdo colectivo de refinanciación la incidencia que el contenido de esas reservas o limitaciones pudiera tener en el plan de viabilidad.

Artículo 602. Eficacia del acuerdo colectivo de refinanciación.

1. El contenido del acuerdo colectivo de refinanciación vinculará al deudor, a los acreedores que lo hayan suscrito y, en caso de pasivo sujeto a un régimen o pacto de sindicación, a todos los acreedores sindicados cuando quienes suscriban el acuerdo representen el porcentaje del pasivo sindicado que resulte exigible.

2. Salvo que en el propio acuerdo colectivo de refinanciación se establezca otra cosa, el acuerdo adquirirá eficacia desde la fecha del instrumento público en que se hubiera formalizado.

Artículo 603. Acuerdos de refinanciación de grupo.

En los casos de acuerdos colectivos de refinanciación de grupo o de subgrupo, las referencias al deudor que se contienen en los artículos anteriores se entenderán realizadas a aquellas sociedades del mismo grupo que estipulen el acuerdo.

Sección 3.^a De los acuerdos singulares de refinanciación

Artículo 604. Acuerdos singulares de refinanciación.

1. A los efectos de lo establecido en esta ley, son acuerdos singulares de refinanciación los estipulados por el deudor, persona natural o jurídica, en situación de insolvencia actual o inminente, que no hubiera sido declarado en concurso, con uno o varios acreedores que, individualmente considerados o conjuntamente con los que se hubieran estipulado en ejecución de lo acordado, reúnan los siguientes requisitos:

1.º Que el acuerdo responda a un plan de viabilidad que permita la continuidad de la actividad profesional o empresarial del deudor a corto y a medio plazo.



2.a Akordioa hartu zen egunean zegoen pasiboaren gaineko aktiboaren alde zuzeneko proportzioa handitzea.

3.a Ondorioztatzen den aktibo korrantea pasibo korrantearen berdina edo handiagoa izatea.

4.a Akordioa sinatzen duten hartzekodunek berme pertsonalak edo errealak dituzten kredituen proportzioa ez izatea akordioaren aurretik zegoena baino handiagoa, ezta akordioak ukitutako pasibo osoaren ehuneko laurogeita hamar baino handiagoa ere. Berme errealeen kasuan, bermearen balioa lege honen I. liburuko VI. tituluan ezarritakoaren arabera zehaztuko da.

5.a Hartzekodun esku-hartzailearen edo hartzekodun esku-hartzaileen aldeko akordiotik eratorritako kredituei aplikagarri zaien interes-tasa akordioa baino lehen kredituei aplikatu beharreko interesen batezbestekoa baino heren bat handiagoa ez izatea.

6.a Akordioa eskritura publikoan formalizatzea, eta eskritura hori zordunak eta bertan parte hartu duten hartzekodun guztiek egilestea, beren kabuz edo ordezkari baten bidez. Eskrituran, akordioa ikuspegi ekonomikotik justifikatzen duten arrazoiak adierazi beharko dira, bai eta zordunaren eta akordioa sinatzen duten hartzekodunen artean egindako egintzak eta negozioak ere; eta eskriturari erantsiko zaizkio aurreko zenbakiek aipatutako betekizunak egilestedatan betetzen direla egiaztatzen duten agiriri guztiak.

2. Aurreko apartatuaren 1. eta 2. zenbakietan ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatzeko, kontuan hartuko dira ekonomia-, ondare- edo finantza-izaerako ondorio guztiak, fiskalak barne, bai eta aurretiaz dauden edo hitzartzen diren epemuga aurreratuko klausulak eta antzeko beste guztiak ere, gauzatzen diren egintzetatik eratorritakoak, nahiz eta esku hartzen ez duten hartzekodunei buruzkoak izan.

II. KAPITULUA

Birfinantzatze-akordioak homologatzea

1. atala. Homologaziorako betekizunak

605. artikulua. Akordio homologagarriak.

1. Egungo edo hur-hurreko kaudimengabezia-egoeran dagoen zordunak, pertsona fisikoa zein juridikoa izan, konkurtsoan deklaratu ez bada, edozein

2.º Que incremente la previa proporción de activo sobre pasivo existente en la fecha de adopción del acuerdo.

3.º Que el activo corriente resultante sea igual o superior al pasivo corriente.

4.º Que la proporción de los créditos con garantías personales o reales de los acreedores que suscriban el acuerdo no sea superior a la existente antes del acuerdo, ni superior al noventa por ciento del pasivo total afectado por el acuerdo. En el caso de garantías reales, el valor de la garantía se determinará conforme a lo establecido en el título VI del libro I de esta ley.

5.º Que el tipo de interés aplicable a los créditos subsistentes o resultantes del acuerdo a favor del o de los acreedores intervinientes no exceda en más de un tercio a la media de los intereses aplicables a los créditos antes del acuerdo.

6.º Que el acuerdo se haya formalizado en escritura pública otorgada por el deudor y por todos los acreedores intervinientes en el mismo, por sí o por medio de representante. En la escritura deberán hacerse constar las razones que, desde el punto de vista económico, justifiquen el acuerdo, así como los diversos actos y negocios realizados entre el deudor y los acreedores que suscriban el acuerdo, y se acompañarán a ella cuantos documentos justifiquen la concurrencia a la fecha del otorgamiento de los requisitos a que se refieren los números anteriores.

2. Para verificar el cumplimiento de los requisitos establecidos en los números 1.º y 2.º del apartado anterior, se tendrán en cuenta todas las consecuencias de naturaleza económica, patrimonial o financiera, incluidas las fiscales, así como las cláusulas de vencimiento anticipado preexistentes o que se estipulen y cualesquiera otras similares, derivadas de los actos que se lleven a cabo aun cuando se produzcan con respecto a acreedores no intervinientes.

CAPÍTULO II

De la homologación de los acuerdos de refinanciación

Sección 1.ª De los requisitos de la homologación

Artículo 605. Acuerdos homologables.

1. El deudor, persona natural o jurídica, en situación de insolvencia actual o inminente, que no hubiera sido declarado en concurso, podrá solicitar en cualquier



unetan eskatu ahal izango du bere hartzekodunekin lortutako birfinantzatze-akordioaren homologazio judiziala. Hartzekodunekin negoziazioak hasi dituela komunikatu badio epaitegi eskudunari, hurrengo hiru hilabeteen barruan aurkeztu beharko da eskaera.

2. Birfinantzatze-akordio bereziak ezin izango dira homologatu.

606. artikulua. Homologaziorako betekizunak.

1. Lege honetan ezarritakoaren ondoretarako, birfinantzatze-akordioek, homologatuak izateko, honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

1.a Akordioak bideragarritasun-plan bati erantzutea, eta plan horrek epe labur eta ertainean lanbide- edo enpresa-jarduerarekin jarraitzea ahalbidetzea zordunari.

2.a Akordioaren xedea izatea, gutxienez, kreditu erabilgarria nabarmen handitzea edo zordunaren betebeharrak aldatzea edo azkentzea, dela muga-eguna luzatuz, dela azkentzen direnen ordez betebehar berriak ezarriz.

3.a Akordioa hartzerakoan pasibo finantzarioaren gutxienez ehuneko berrogeita hamaika ordezkatzeko duten hartzekodunek sinatu izana akordioa, lege honetan ezarritako moduan zenbatuta, zordunaren kontu-auditoreak emandako ziurtagiriaren arabera.

Zordunak edo taldeko sozietateek ez badute urteko kontuak auditoretzapean jartzeko betebeharririk, ziurtagiria ematen duen auditorea izendatuko du zordunaren egoitzako merkataritza-erregistratzaileak xede honetarako, eta, sozietate-taldearen edo -azpitaldearen akordioen kasuan, sozietate nagusiaren egoitzakoak.

4.a Akordioa sinatu duten guztiek tresna publiko bidez formalizatu izana.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaren ondoretarako, kreditu finantzariotzat hartzen dira zordunak egindako edozein zorpetze finantzariotatik datozenak, kreditu horien titularrak ikuskapen finantzarioaren pean egon ala ez. Inola ere ez dira kreditu finantzariotzat hartuko zuzenbide publikoko kredituak, lan-kredituak eta merkataritza-eragiketetako hartzekodunak, horietako edozeinek kredituaren galdagarritasuna geroratuta izan arren.

momento la homologación judicial del acuerdo de refinanciación que hubiera alcanzado con sus acreedores. Si hubiera efectuado comunicación al juzgado competente del inicio de negociaciones con los acreedores, la solicitud deberá presentarse dentro de los tres meses siguientes.

2. Los acuerdos singulares de refinanciación no podrán ser objeto de homologación.

Artículo 606. Requisitos de la homologación.

1. A los efectos de lo establecido en esta ley, los acuerdos de refinanciación, para ser homologados, deberán reunir los siguientes requisitos:

1.º Que el acuerdo responda a un plan de viabilidad que permita la continuidad de la actividad profesional o empresarial del deudor a corto y a medio plazo.

2.º Que el acuerdo tenga como objeto, al menos, la ampliación significativa del crédito disponible o la modificación o la extinción de las obligaciones del deudor, bien mediante la prórroga de la fecha de vencimiento, bien mediante el establecimiento de nuevas obligaciones en sustitución de aquellas que se extingan.

3.º Que el acuerdo haya sido suscrito por acreedores que representen, en el momento de su adopción, al menos, el cincuenta y uno por ciento del pasivo financiero, computado conforme a lo establecido en esta ley, según certificación emitida por el auditor de cuentas del deudor.

Si el deudor o las sociedades del grupo no tuvieran la obligación de someter las cuentas anuales a auditoría, el auditor que emita la certificación será el nombrado a este efecto por el registrador mercantil del domicilio del deudor y, en los casos de acuerdos de grupo o de subgrupo de sociedades, el de la sociedad dominante.

4.º Que el acuerdo se haya formalizado en instrumento público por todos los que lo hubieran suscrito.

2. A los efectos de lo establecido en el apartado anterior, se consideran créditos financieros los procedentes de cualquier endeudamiento financiero por parte del deudor, con independencia de que los titulares de esos créditos estén o no sometidos a supervisión financiera. En ningún caso tendrán la consideración de créditos financieros los créditos de derecho público, los créditos laborales y los acreedores por operaciones comerciales, aunque cualquiera de ellos tuviera aplazada la exigibilidad del crédito.



3. Tresna publikoari honako hauek gehituko zaizkio, eranskin gisa: bideragarritasun-plana, auditorearen ziurtagiria eta akordioa hartu den egunean legeak galdatzen dituen betekizunak betetzen direla justifikatzen duten agiri guztiak, kasuan kasuko akordio motaren arabera. Bideragarritasun-planak aditu independente baten txostena jaso badu, txosten hori ere erantsiko zaio eskriturari, eranskin gisa.

607. artikulua. Pasibo finantzarioaren gehiengoa zenbatzeko erregelak.

1. Pasibo finantzarioaren ehunekoa zenbatzean, ezin izango da kontuan hartu pasibo mota horren titular ez diren hartzekodunek birfinantzatze-akordioa sinatzea edo hari atxikitzea.

2. Beste moneta batean adierazitako kreditu finantzarioak legezko monetan zenbatuko dira, hori formalizatu duen tresna publikoaren datako truke-tasa ofizialaren arabera.

3. Pasibo finantzarioaren ehunekoa zenbatzean, zordunarekin lotura berezia duten pertsonak diren hartzekodunen titulartasuneko pasibo finantzarioak kenduko dira guztizkotik; hala ere, pertsona horiei birfinantzatze-akordio homologatuaren efikaziaren hedapenak eragin ahal izango die.

4. Sindikatze-araubide edo -itun bati lotutako pasibo finantzarioaren kasuan, birfinantzatze-akordio kolektiboa sindikatutako hartzekodun guztiek sinatzen dutela ulertuko da, betiere akordioa sinatzen dutenek sindikatutako pasiboaren gutxienez ehuneko hirurogeita hamabosta ordezkatzen badute. Sindikatze-araubidean edo -itunean gehiengo txikiagoa ezarri bada, azken gehiengo hori aplikatuko da.

5. Pasibo finantzario bereziki pribilegiatuaren kasuan, pribilegioaren muga zehazteko, lege honen I. liburuko V. tituluaren ezarritakoa beteko da. Bigarren mailako merkatu ofiziala edo kasuan kasuko bigarren mailako merkatua zuzentzen duen sozietateak emandako ziurtagiriak, balore higigarri kotizatuen gaineko bermeen kasuan, edo homologatutako eta Espainiako Bankuaren erregistro berezian inskribatutako tasazio-sozietate batek emandakoak, ondasun higiezinen kasuan, eranskin gisa gehituko zaizkio eskritura publikoari.

3. Al instrumento público se incorporarán como anejo el plan de viabilidad, la certificación del auditor y cuantos documentos justifiquen la concurrencia a la fecha del acuerdo de los requisitos exigidos por la ley según la clase de acuerdo de que se trate. Si el plan de viabilidad hubiera sido sometido a informe de experto independiente, el informe se incorporará también como anejo a la escritura.

Artículo 607. Reglas de cómputo de la mayoría del pasivo financiero.

1. En el cómputo del porcentaje del pasivo financiero no podrán tomarse en consideración la suscripción del acuerdo de refinanciación o la adhesión al mismo por acreedores que no sean titulares de esa clase de pasivo.

2. Los créditos financieros expresados en otra moneda se computarán en la de curso legal según el tipo de cambio oficial en la fecha del instrumento público en que se hubiera formalizado.

3. En el cómputo del porcentaje del pasivo financiero se deducirán del total los pasivos financieros titularidad de acreedores que fueran personas especialmente relacionadas con el deudor, quienes, no obstante, podrán quedar afectados por la extensión de la eficacia del acuerdo homologado de refinanciación.

4. En caso de pasivo financiero sujeto a un régimen o pacto de sindicación, se entenderá que suscribe el acuerdo de refinanciación la totalidad de los acreedores sindicados cuando quienes suscriban el acuerdo representen, al menos, el setenta y cinco por ciento del pasivo sindicado. Si en el régimen o en el pacto de sindicación se hubiera establecido una mayoría inferior, será de aplicación esta última.

5. En caso de pasivo financiero especialmente privilegiado, para determinar el límite del privilegio se estará a lo establecido en el título V del libro I de esta ley. Las certificaciones emitidas por la sociedad rectora del mercado secundario oficial o del mercado secundario de que se trate, en caso de garantías sobre valores mobiliarios cotizados, o por una sociedad de tasación homologada e inscrita en el registro especial del Banco de España, en caso de bienes inmuebles, se unirán a la escritura pública como anejo.



608. artikulua. Taldeko edo azpitaldeko akordioen kasuan gehiengoaren erregelak.

Taldeko edo azpitaldeko birfinantzate-akordioaren kasuan, pasibo finantzarioaren ehunekoa banakako oinarrian kalkulatu da, ukitutako sozietate guztiekiko, baita oinarri finkatua ere, ukitutako talde edo azpitalde bakoitzaren kredituekiko eta, bi kasuetan, taldeko sozietateek emandako mailegu eta kredituak kanpo utzita.

2. atala. Homologazio judiziala

1. azpiatala. Homologazio-prozedura

609. artikulua. Homologaziorako eskumena.

1. Sinatu duen zordunaren hartzekodunen konkurtsoa, hala badagokio, deklaratzeko eskumena duen epaileak homologatu ahal izango ditu birfinantzate-akordioak.

2. Taldeko edo azpitaldeko birfinantzate-akordioaren kasuan, homologaziorako eskumena izango du sozietate nagusiaren hartzekodunen konkurtsoa deklaratzeko eskumena duen epaileak, edo, sozietate horrek akordioa sinatu ez badu, akordioan parte hartu eta pasibo finantzario handiena duen taldeko sozietatearen hartzekodunen konkurtsoa deklaratzeko eskumena duen epaileak.

610. artikulua. Homologatzeko eskaera.

1. Birfinantzate-akordioa homologatzeko eskaera zordunak edo akordioa sinatu duen edozein hartzekodunek egin ahal izango du.

2. Eskaerarekin batera, tresna publikoaren kopia osoa aurkeztuko da.

611. artikulua. Izapidetzeko onartzea.

Akordioak lege honen 606. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen baditu, epaileak probidentzia emango du, hura izapidetzeko onartuz, eta probidentzia horretan bertan aginduko du exekuzio berezien geldiarazteak jarrai dezala, harik eta eskatutako homologazioa onesten edo ukatzen duen arte.

612. artikulua. Probidentzia argitaratzea.

Justizia Administrazioaren letraduak probidentzia Konkurtso-erregistro publikoan argitaratzeko aginduko du, iragarki baten bidez. Iragarki horretan, honako hauek jasoko dira: zorduna identifikatzeko datuak,

Artículo 608. Reglas de cómputo de la mayoría en caso de acuerdos de grupo o de subgrupo.

En el caso de acuerdo de refinanciación de grupo o subgrupo, el porcentaje del pasivo financiero se calculará tanto en base individual, en relación con todas y cada una de las sociedades afectadas, como en base consolidada, en relación con los créditos de cada grupo o subgrupo afectados, con exclusión en ambos casos de los préstamos y créditos concedidos por sociedades del grupo.

Sección 2.ª De la homologación judicial

Subsección 1.ª Del procedimiento de homologación

Artículo 609. Competencia para la homologación.

1. Los acuerdos de refinanciación podrán ser homologados por el juez que fuera competente para la declaración, en su caso, del concurso de acreedores del deudor que lo hubiera suscrito.

2. En el caso de acuerdo de refinanciación de grupo o subgrupo será competente para la homologación el juez que fuera competente para la declaración de concurso de acreedores de la sociedad dominante o, cuando esta no hubiera suscrito el acuerdo, el de la sociedad del grupo con mayor pasivo financiero que participe en el acuerdo.

Artículo 610. Solicitud de homologación.

1. La solicitud de homologación del acuerdo de refinanciación podrá ser formulada por el deudor o por cualquier acreedor que lo haya suscrito.

2. A la solicitud se acompañará una copia íntegra del instrumento público.

Artículo 611. Admisión a trámite.

Si el acuerdo reúne los requisitos establecidos en el artículo 606 de esta ley, el juez dictará providencia admitiéndola a trámite, y en esa misma providencia decretará que la paralización de las ejecuciones singulares continúe hasta que acuerde o deniegue la homologación solicitada.

Artículo 612. Publicación de la providencia.

El Letrado de la Administración de Justicia ordenará la publicación de la providencia en el Registro público concursal por medio de un anuncio que contendrá los datos que identifiquen el deudor, el juez competente,



epaile eskuduna, homologazio-prozedura judizialaren zenbakia, birfinantzatze-akordioaren data eta akordioan jasotako neurrien ondoreak. Halaber, adieraziko du ukitutako hartzekodunen eskura dagoela akordioa, homologazioaz arduratzeko eskumena duen epaitegian, eta haren edukia bitarteko telematikoen bidez eskuratzeko aukera dagoela.

613. artikulua. Homologazio-autoa.

1. Konkurtso-erregistro publikoan eskaera izapidetzeko onartzeko probidentzia argitaratu eta hurrengo hamabost egunen barruan, epaileak, auto bidez, homologatu egingo du lege honen 606. artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituen birfinantzatze-akordioa.

2. Homologazio-autoan, epaileak deklaratu du birfinantzatze-akordioaren edukia honako hauek lotzen dituela: zorduna, akordioa sinatu duten hartzekodunak, sindikatutako hartzekodunak, sindikatzearaubide edo -itun bati lotutako pasiboen kasuan, akordioa sinatzen dutenek galda daitekeen sindikatutako pasiboaren ehuneko ordezkatzen dutenean, eta lege honen arabera akordioaren efikaziaz hartzen dituen hartzekodunak, homologazio-akordioa sinatu ez arren edo horrekin ados ez daudela adierazi arren.

3. Homologazio-autoan, geldiarazita geratu diren exekuzio bereziak amaitzea aginduko du epaileak, eta artxibatu egingo ditu jarduketak. Homologazio-autoa irmoa denean, pasibo finantzarioa birfinantzatzeko akordioak ukitutako kredituengatik exekuzio-prozeduretan egindako enbargoak ezerezteko agindu ahal izango du epaileak.

614. artikulua. Homologazio-autoaren efikazia.

Akordioak berehala izango ditu ondoreak eta exekuzio-indarra izango du, irmoa izan ez arren.

615. artikulua. Homologazio-autoaren publizitatea.

Pasibo finantzarioa birfinantzatzeko akordioa homologatzeko autoa berehala argitaratuko da Konkurtso-erregistro publikoan eta ediktu bidez *Estatuko Aldizkari Ofizialean*. Ediktuak honako hauek jasoko ditu: zorduna identifikatzeko datuak, epaile eskuduna, homologazio-prozedura judizialaren zenbakia, birfinantzatze-akordioaren data, homologazio-autoaren data eta birfinantzatze-akordioaren efikazia zein hartzekodunetara hedatzen den.

el número del procedimiento judicial de homologación, la fecha del acuerdo de refinanciación y los efectos de aquellas medidas que en el mismo se contienen, con la indicación de que el acuerdo está a disposición de los acreedores afectados por el acuerdo en el juzgado competente para conocer de la homologación, con posibilidad de acceder a su contenido por medios telemáticos.

Artículo 613. Auto de homologación.

1. Dentro de los quince días siguientes a la publicación de la providencia de admisión a trámite de la solicitud en el Registro público concursal, el juez, mediante auto, homologará el acuerdo de refinanciación que reúna los requisitos establecidos en el artículo 606 de esta ley.

2. En el auto de homologación el juez declarará que el contenido del acuerdo de refinanciación vincula al deudor, a los acreedores que lo hayan suscrito, a los acreedores sindicados, en caso de pasivo sujeto a un régimen o pacto de sindicación, cuando quienes suscriban el acuerdo representen el porcentaje del pasivo sindicado que resulte exigible, y a aquellos acreedores a los que, aunque no hubieran suscrito el acuerdo de homologación o hubiesen mostrado su disconformidad al mismo, esta ley extiende la eficacia del acuerdo.

3. En el auto de homologación, el juez decretará la finalización de las ejecuciones singulares que hubieran quedado paralizadas, con archivo de las actuaciones. Una vez firme el auto de homologación, el juez podrá ordenar la cancelación de los embargos que se hubieran practicado en los procedimientos de ejecución por créditos afectados por el acuerdo de refinanciación del pasivo financiero.

Artículo 614. Eficacia del auto de homologación.

El acuerdo producirá sus efectos de inmediato y tendrá fuerza ejecutiva, aunque no sea firme.

Artículo 615. Publicidad del auto de homologación.

El auto de homologación del acuerdo de refinanciación del pasivo financiero se publicará de inmediato en el Registro público concursal y mediante edicto en el «Boletín Oficial del Estado». El edicto contendrá los datos que identifiquen al deudor, el juez competente, el número del procedimiento judicial de homologación, la fecha del acuerdo de refinanciación, la fecha del auto de homologación y los acreedores a los que se extiende la eficacia del acuerdo de refinanciación.



616. artikulua. Pasibo finantzarioa birfinantzatzeko akordio homologatu bati atxikitzea.

1. Pasibo finantzarioen hartzekodun ez diren hartzekodunak birfinantzatze-akordio homologatuari atxiki ahal izango zaizkio, zuzenbide publikoko kredituen titularrak direnean salbu.
2. Atxikitako hartzekodunei akordio homologatuaren edukia hedatuko zaie.
3. Atxikimendu horiek ez dira kontuan hartuko lege honek akordioa hartzeko edo akordio homologatuaren ondoreak hedatzeko galdatzen dituen pasibo finantzarioaren ehunekoak zenbatzeko.

617. artikulua. Homologazio-eskaera berriak aldi baterako debekatzea.

Zordunak berak edo hartzekodunetako batek birfinantzatze-akordio bat homologatzeko eskatu ondoren, urtebete igaro arte ezin izango da beste bat eskatu zordun berari dagokionez.

2. azpiatala. Homologazioa aurkaratzea

618. artikulua. Homologazioa aurkaratzea.

1. Homologazioa *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo hamabost egunen barruan, homologazio judizialak ukitutako pasibo finantzarioen hartzekodunek, birfinantzatze-akordioa sinatu ez badute edo harekin ados ez daudela adierazi badute, aurkaratu egin ahal izango dute homologazioa, akordioa homologatu duen epaile beraren aurrean.
2. Aurkaratzeak ez du akordioaren exekuzioa etengo.

619. artikulua. Homologazioa aurkaratzeko arrazoiak.

1. Aurkaratzea arrazoi hauetan bakarrik oinarritu ahal izango da:
 - 1.a Akordioa ez hartu izana lege honek galdatzen dituen gehiengoekin.
 - 2.a Homologazioa aurkaratzen duen hartzekodunari edo hartzekodunei galdatutako sakrifizioa neurritz kanpokoa izatea.
2. Sakrifizioa neurritz kanpokoa den ala ez zehazteko, epaileak inguruabar guztiak hartu beharko ditu kontuan.

Artículo 616. Adhesión a un acuerdo homologado de refinanciación del pasivo financiero.

1. Salvo que se trate de titulares de créditos de derecho público, los acreedores que no lo sean de pasivos financieros podrán adherirse al acuerdo homologado de refinanciación.
2. A los acreedores adheridos se les extenderá el contenido del acuerdo homologado.
3. Estas adhesiones no se tendrán en cuenta a los efectos del cómputo de los porcentajes de pasivo financiero exigidos por esta ley para la adopción del acuerdo o para la extensión de efectos del acuerdo homologado.

Artículo 617. Prohibición temporal de nuevas solicitudes de homologación.

Una vez solicitada la homologación de un acuerdo de refinanciación por el propio deudor o por alguno de sus acreedores, no podrá solicitarse otra respecto del mismo deudor hasta que transcurra un año.

Subsección 2.^a De la impugnación de la homologación

Artículo 618. Impugnación de la homologación.

1. Dentro de los quince días siguientes a la publicación de la homologación en el «Boletín Oficial del Estado» los acreedores de pasivos financieros afectados por la homologación judicial que no hubieran suscrito el acuerdo de refinanciación o que hubiesen mostrado su disconformidad al mismo podrán impugnar la homologación ante el mismo juez que hubiera homologado el acuerdo.
2. La impugnación no suspenderá la ejecución del acuerdo.

Artículo 619. Motivos de impugnación de la homologación.

1. La impugnación solo podrá fundarse en los siguientes motivos:
 - 1.º En no haber adoptado el acuerdo con las mayorías exigidas por esta ley.
 - 2.º En el carácter desproporcionado del sacrificio exigido al acreedor o acreedores que impugnen la homologación.
2. Para determinar si el sacrificio es o no desproporcionado el juez deberá tener en cuenta todas las circunstancias concurrentes.



3. Nolanahi ere, sakrifizioa neurritz kanpokotzat joko da hartzekodun berdinentzat edo antzekoentzat desberdina bada, eta berme errealik ez duen hartzekodunak masa aktiboaren likidazioan birfinantzatze-akordioan aurreikusitakoa baino asebetetze-kuota handiagoa lor badezake.

620. artikulua. Aurkaratzea izapidetzea.

1. Aurkaratze guztiak batera izapidetuko dira konkurtso-intzidentearen bideetatik.

2. Aurkeztutako aurkaratzeen berri emango zaie zordunari eta pasibo finantzarioa birfinantzatzeko akordioaren homologazioak ukitutako hartzekodunei, aurkakotza formulatu ahal izan dezaten.

621. artikulua. Epaia.

1. Homologazioaren aurkaratzea ebazten duen epaia intzidentearen izapidetzea amaitu eta hurrengo hogeita hamar egunen barruan eman beharko da. Aurkaratzea baiestek, hartzekodun bati edo batzuei galdatzen zaien sakrifizioa neurrigabea delako, ez du eragotziko akordioa gainerakoekiko homologatzea.

2. Aurkaratzea ebazten duen epaiak homologazio-autoaren publizitate bera izango du.

3. Aurkaratzea ebazten duen epaiaren kontra ezin izango da apelazio-errekurtsoa jarri.

622. artikulua. Epaia-efikazia-unea.

Homologazioaren aurkaratzea ebazten duen epaiaren ondoreak *Estatuko Aldizkari Ofizialean* ediktu bidez argitaratu eta hurrengo egunean sortuko dira, eta ezin izango dira eten edo atzeratu.

3. atala. Birfinantzatze-akordio homologatuaren efikazia hedatzea

1. azpiatala. Berme errealik gabeko kredituetara hedatzea

623. artikulua. Berme errealik gabeko kredituetara hedatzea.

Zordun baten birfinantzatze-akordioa homologatu ondoren, honako ondore hauek izango dituzte pasibo finantzarioen hartzekodunek, baldin eta haien kredituek ez badute berme errealik, edo birfinantzatze-akordioa izenpetu ez duten edo harekiko desadostasuna agertu duten berme horren balioa gainditzen duten kredituen zatiei dagokienez:

3. En todo caso, se considera desproporcionado el sacrificio si fuera diferente para acreedores iguales o semejantes así como si el acreedor que no goce de garantía real pudiera obtener en la liquidación de la masa activa una mayor cuota de satisfacción que la prevista en el acuerdo de refinanciación.

Artículo 620. Tramitación de la impugnación.

1. Todas las impugnaciones se tramitarán conjuntamente por los cauces del incidente concursal.

2. De las impugnaciones presentadas se dará traslado al deudor y a los acreedores afectados por la homologación del acuerdo de refinanciación del pasivo financiero para que puedan formular oposición.

Artículo 621. Sentencia.

1. La sentencia que resuelva la impugnación de la homologación deberá dictarse dentro de los treinta días siguientes a aquel en que hubiera finalizado la tramitación del incidente. La estimación de la impugnación por el carácter desproporcionado del sacrificio exigido a uno o varios de los acreedores, no impedirá la homologación del acuerdo respecto de los demás.

2. La sentencia que resuelva la impugnación tendrá la misma publicidad que el auto de homologación.

3. La sentencia que resuelva la impugnación no será susceptible de recurso de apelación.

Artículo 622. Momento de eficacia de la sentencia.

Los efectos de la sentencia que resuelva la impugnación de la homologación se producirán, sin posibilidad de suspensión o aplazamiento, al siguiente día al de la publicación de la misma por medio de edicto en el «Boletín Oficial del Estado».

Sección 3.^a De la extensión de la eficacia del acuerdo homologado de refinanciación

Subsección 1.^a De la extensión a los créditos sin garantía real

Artículo 623. Extensión a los créditos sin garantía real.

Homologado el acuerdo de refinanciación de un deudor, se extenderán a los acreedores de pasivos financieros, cuyos créditos no gocen de garantía real o por la parte de los créditos que exceda del valor de esa garantía que no hayan suscrito el acuerdo de refinanciación o que hubieran mostrado su disconformidad al mismo, los siguientes efectos:



1.a Gehienez ere bost urteko itxaronaldiak, izan nagusikoak, interesetakoak edo zor den beste edozein kopurutakoak, eta kredituak partaidetza-kreditu bihurtzea epe berean, baldin eta akordioa pasibo finantzario osoaren gutxienez ehuneko hirurogeia ordezkatzan duten hartzekodunek sinatu badute.

2.a Bost urte baino gehiagoko eta hamar urte baino gutxiagoko itxaronaldiak, kitak, kredituak sozietate zordunaren edo beste sozietate baten akzio edo partaidetza bihurtzea, kredituak bost urte baino gehiagoko eta hamar urte baino gutxiagoko partaidetza-kreditu bihurtzea, obligazio bihurtzea, mendeko kreditu bihurtzea, interes kapitalizagarriak dituzten kreditu bihurtzea edo jatorrizko kredituek dituzten ezaugarriak, maila edo epemuga ez dituzten beste edozein finantza-tresna bihurtzea, eta ondasun edo eskubideak hartzekodunei lagatzea, zor osoa edo zati bat ordainean emateko edo ordaintzeko, baldin eta akordioa pasibo finantzario osoaren gutxienez ehuneko hirurogeita hamabosta ordezkatzan duten hartzekodunek sinatu badute.

624. artikulua. Akzio edo partaidetza sozial bihurtzeko araubide berezia.

1. Pasibo finantzarioa birfinantzatzeko plan homologatu bat gauzatzean, kredituak sozietatearen akzio edo partaidetza bihurtu ahal izango dira, primarekin edo gabe, nahiz eta konpentsatu beharreko kredituak likidoak ez izan, mugaeguneratuta ez egon edo galdagarriak ez izan.

2. Bazkideen batzar orokorrak kapital soziala gehitzeko akordioa hartzeko, kredituak akzio edo partaidetza sozial bihurtzearen ondorioz, ez da beharrezkoa izango legeak edo estatutu sozialek ezarritako gehiengo indartua.

625. artikulua. Aukera-eskubidea, akzio edo partaidetza sozial bihurtuz gero.

1. Homologazioa efikaza denetik hilabeteko epean, pasibo finantzarioen hartzekodunek bi aukera izango dituzte: kreditua kapital bihurtzea edo kita bat egitea, zeina harpidetu edo bere gain hartu beharko lituzketen akzio edo partaidetzen eta, hala badagokio, jaulkipen-edo bereganatze-primaren nominalaren zenbatekoaren baliokidea izango baita.

2. Hautatzeko ahalmena egikaritzen ez badute, hartzekodunek kita aukeratzan dutela ulertuko da.

1.º Las esperas por plazo no superior a cinco años, ya sean de principal, de intereses o de cualquiera otra cantidad adeudada, y la conversión de los créditos en créditos participativos durante el mismo plazo, si el acuerdo hubiera sido suscrito por acreedores que representen, al menos, el sesenta por ciento del pasivo financiero total.

2.º Las esperas por plazo superior a cinco años y no superior a diez, las quitas, la conversión de los créditos en acciones o participaciones de la sociedad deudora o de otra sociedad, la conversión de los créditos en créditos participativos por período superior a cinco años y no superior a diez, en obligaciones convertibles, en créditos subordinados, en créditos con intereses capitalizables o en cualquier otro instrumento financiero con características, rango o vencimiento distintos de aquellos que tuvieran los créditos originarios, y la cesión de bienes o derechos a los acreedores en pago o para pago de la totalidad o parte de la deuda, si el acuerdo hubiera sido suscrito por acreedores que representen, al menos, el setenta y cinco por ciento del pasivo financiero total.

Artículo 624. Régimen especial de la conversión en acciones o participaciones sociales.

1. La conversión de créditos en acciones o participaciones sociales, con o sin prima, en ejecución de un plan homologado de refinanciación del pasivo financiero podrá realizarse aunque los créditos a compensar no sean líquidos, no estén vencidos o no sean exigibles.

2. Para la adopción por la junta general de socios del acuerdo de aumentar el capital social por conversión de los créditos en acciones o participaciones sociales no será necesaria la mayoría reforzada establecida por la ley o por los estatutos sociales.

Artículo 625. Derecho de opción en caso de conversión en acciones o participaciones sociales.

1. Dentro del plazo de un mes a contar de la eficacia de la homologación, los acreedores por pasivos financieros podrán optar entre la conversión del crédito en capital o una quita equivalente al importe del nominal de las acciones o participaciones que les correspondería suscribir o asumir y, en su caso, de la correspondiente prima de emisión o de asunción.

2. En caso de falta de ejercicio de la facultad de elección, se entenderá que los acreedores optan por la quita.



2. azpiatala. Berme erreala duten kredituetara hedatzea

626. artikulua. Berme erreala duten kredituetara hedatzea.

1. Zordun baten birfinantzatzeko-akordioa homologatu ondoren, honako ondore hauek izango dituzte berme errealaren balioa gainditzen ez duen kreditua duten pasibo finantzarioen hartzekodunek, baldin eta birfinantzatzeko-akordioa sinatu ez badute edo, homologazioaren aurretik edo ondoren, akordio horrekiko desadostasuna adierazi badute:

1.a Gehienez ere bost urteko itxaronaldiak, izan nagusikoak, interesetakoak edo zor den beste edozein kopurutakoak, eta kredituak partaidetza-kreditu bihurtzea epe berean, baldin eta ondore hori hartzekodunek adostu badute, eta hartzekodun horiek pribilegio berezia duen pasibo finantzarioaren gutxienez ehuneko hirurogeita bosta ordezkatzeko badute, berme errealaren balioaren arabera kalkulata, lege honen I. liburuko V. tituluan ezarritakoaren arabera.

2.a Bost urte baino gehiagoko eta hamar urte baino gutxiagoko itxaronaldiak, kitak, kredituak sozietate zordunaren edo beste sozietate baten akzio edo partaidetza bihurtzea, kredituak bost urte baino gehiagoko eta hamar urte baino gutxiagoko partaidetza-kreditu bihurtzea, obligazio bihurtzea, mendeko kreditu bihurtzea, interes kapitalizagarriak dituzten kreditu bihurtzea edo jatorrizko kredituek dituzten ezaugarriak, maila edo epemuga ez dituzten beste edozein finantza-tresna bihurtzea, eta ondasun edo eskubideak hartzekodunei lagatzea, zor osoa edo zati bat ordainean emateko edo ordaintzeko, baldin eta ondore espezifiko hori hartzekodunek adostu badute, eta haiek pribilegio berezia duen pasibo finantzarioaren gutxienez ehuneko laurogeia ordezkatzeko badute, lege honen I. liburuko V. tituluan ezarritako moduan kalkulaturako berme errealaren balioaren arabera.

2. Kreditua akzio edo partaidetza sozial bihurtzeari aurreko bi artikuluetan ezarritakoa aplikatuko zaio.

3. azpiatala. Berme pertsonalak kontserbatzea

627. artikulua. Berme pertsonalak kontserbatzea.

1. Homologazio-akordioa sinatu ez duten pasibo finantzarioen hartzekodunek edo, homologazioaren ondorioz, pasibo finantzarioa birfinantzatzeko akordioaren ondoreak hedatzen zaizkien

Subsección 2.^a De la extensión a los créditos con garantía real

Artículo 626. Extensión a los créditos con garantía real.

1. Homologado el acuerdo de refinanciación de un deudor, se extenderán a los acreedores de pasivos financieros cuyo crédito no exceda del valor de la garantía real que no hayan suscrito el acuerdo de refinanciación o que, antes o después de la homologación, hubieran mostrado su disconformidad al mismo, los siguientes efectos:

1.º Las esperas por plazo no superior a cinco años, ya sean de principal, de intereses o de cualquiera otra cantidad adeudada, y la conversión de los créditos en créditos participativos durante el mismo plazo, si ese efecto hubiera sido acordado por acreedores que representen, al menos, el sesenta y cinco por ciento del pasivo financiero con privilegio especial por razón del valor de la garantía real calculado conforme a lo establecido en el título V del libro I de esta ley.

2.º Las esperas por plazo superior a cinco años y no superior a diez, las quitas, la conversión de los créditos en acciones o participaciones de la sociedad deudora o de otra sociedad, la conversión de los créditos en créditos participativos por período superior a cinco años y no superior a diez, en obligaciones convertibles, en créditos subordinados, en créditos con intereses capitalizables o en cualquier otro instrumento financiero con características, rango o vencimiento distintos de aquellos que tuvieran los créditos originarios, y la cesión de bienes o derechos a los acreedores en pago o para pago de la totalidad o parte de la deuda, si ese específico efecto hubiera sido acordado por acreedores que representen, al menos, el ochenta por ciento del pasivo financiero con privilegio especial por razón del valor de la garantía real calculado conforme a lo establecido en el título V del libro I de esta ley.

2. A la conversión del crédito en acciones o participaciones sociales será de aplicación lo establecido en los dos artículos anteriores.

Subsección 3.^a De la conservación de las garantías personales

Artículo 627. Conservación de las garantías personales.

1. Los acreedores de pasivos financieros que no hubieran suscrito el acuerdo de homologación o que hubiesen mostrado su disconformidad al mismo a los que, por efecto de la homologación, se extiendan los



hartzekodunek beren eskubideak mantenduko dituzte zordunarekin solidarioki behartuta daudenen aurrean eta fidatzaileen edo abal-emaileen aurrean; azken horiek ezin izango dituzte inbokatu birfinantzatze-akordioaren onspena edo homologazioaren ondoreak, haien kaltetan.

2. Birfinantzatze-akordioa sinatu duten finantza-hartzekodunei dagokienez, gainerako betebeharpeko, fidatzaile edo abal-emaileen aurrean eskubideak mantentzea dagokion erlazio juridikoan adostu zenaren arabera izango da.

III. KAPITULUA

Birfinantzatze-akordioa ez betetzea

628. artikulua. Birfinantzatze-akordioa ez betetzea.

1. Zordunak ez baditu birfinantzatze-akordioaren baldintzak betetzen, akordioak ukitutako edozein hartzekodunek ez-betetzearen deklarazioa eskatu ahal izango du.

2. Eskaeraz arduratzeko epaile eskuduna homologatu duena izango da; eta, homologaziorik egon ez bada, zordunaren hartzekodunen konkurtsoa deklaratzeko eskuduna dena.

3. Eskaera bideratzeko, konkurtso-intzidentearen izapideak beteko dira. Eskaera zordunari eta agertzen diren hartzekodun guztiei helaraziko zaie; eta, homologaziorik izanez gero, homologazioa aurkaratzeko intzidentean agertu direnei, homologazioari atxikitzeko edo haren aurka egiteko aukera izan dezaten.

4. Intzidentea ebazten duen epaiaren aurka ezin izango da apelazio-errekurtsorik jarri.

629. artikulua. Ez-betetzearen deklarazioaren ondoreak.

1. Birfinantzatze-akordioa bete ez dela deklaritzen bada, akordioa suntsiarazi egingo da eta kredituen gaineko ondoreak desagertu egingo dira.

2. Ez-betetzea deklaratu ostean, hartzekodunek hartzekodunen konkurtsoa deklaratzeko edota exekuzio bereziak abiarazteko eskaera egin ahal izango dute.

3. Berme errealak ezin izango dira exekutatzeko hasi, baldin eta birfinantzatze-akordioan itundu bada ez-betetzearen kasuan azkendu egingo direla aurretik zeuden bermeak edo akordio hori exekutatzean eratutakoak.

efectos del acuerdo de refinanciación del pasivo financiero mantendrán sus derechos frente a los obligados solidariamente con el deudor y frente a sus fiadores o avalistas, quienes no podrán invocar ni la aprobación del acuerdo de refinanciación ni los efectos de la homologación en perjuicio de aquellos.

2. Respecto de los acreedores financieros que hayan suscrito el acuerdo de refinanciación, el mantenimiento de sus derechos frente a los demás obligados, fiadores o avalistas, dependerá de lo que se hubiera acordado en la respectiva relación jurídica.

CAPÍTULO III

Del incumplimiento del acuerdo de refinanciación

Artículo 628. Incumplimiento del acuerdo de refinanciación.

1. En caso de no cumplir el deudor los términos del acuerdo de refinanciación, cualquier acreedor afectado por el acuerdo podrá solicitar la declaración de incumplimiento.

2. Será juez competente para conocer de la solicitud el que lo hubiera homologado y, en defecto de homologación, el que fuera competente para la declaración de concurso de acreedores del deudor.

3. La solicitud se sustanciará por los trámites del incidente concursal. De la solicitud se dará traslado al deudor y a todos los acreedores que comparezcan y, en caso de homologación, a los que hubieran comparecido en el incidente de impugnación de la homologación para que puedan adherirse u oponerse a la misma.

4. La sentencia que resuelva el incidente no será susceptible de recurso de apelación.

Artículo 629. Efectos de la declaración de incumplimiento.

1. La declaración de incumplimiento del acuerdo de refinanciación supondrá la resolución de este y la desaparición de los efectos sobre los créditos.

2. Declarado el incumplimiento, los acreedores podrán instar la declaración de concurso de acreedores o iniciar las ejecuciones singulares.

3. Las ejecuciones de las garantías reales no podrán iniciarse si en el acuerdo de refinanciación se hubiese pactado, para el caso de incumplimiento, la extinción de las garantías preexistentes o de las constituidas en ejecución de ese acuerdo.



630. artikulua. Birfinantzate-akordioa ez betetzea eta berme errealak exekutatzea.

Pasibo finantzarioa birfinantzatzeko akordioa betetzen ez denean, honako erregelak hauek aplikatuko zaizkie berme errealean exekuzioei:

1.a Exekuzioan lortutako zenbatekoa handiagoa bada jatorrizko zorra baino, edo, akordiorik lortu ez balitz, ordaintzeke geratuko litzatekeen kopurua baino, soberakintzat hartuko da lehenengo eta bigarren zenbatekoen arteko aldea, Prozedura Zibilararen urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean eta hipoteka-legerian ezarritakoaren ondoretarako.

2.a Exekuzioan lortutako zenbatekoa txikiagoa bada jatorrizko zorra baino, edo, akordiorik lortu ez balitz, ordaintzeke geratuko litzatekeen kopurua baino, baina lege honen I. liburuko VI. tituluaren ezarritakoaren arabera kalkulaturako bermearen balioa baino handiagoa bada, exekuzioaren soberakinik edo kredituaren gerakinik ez dagoela ulertuko da, eta hartzekodunak bere egingo du exekuzioaren ondoriozko kopuru osoa.

3.a Exekuziotik ateratako kopurua lege honen I. liburuko VI. tituluaren ezarritakoaren arabera kalkulaturako bermearen balioa baino txikiagoa bada, kredituaren gerakin-zatitzat hartuko da kreditu horren zenbatekoaren eta exekuziotik ateratzen den kopuruaren arteko aldea.

III. TITULUA

Ordainketa-akordio estrajudiziala

I. KAPITULUA

Aurrebaldintzak

631. artikulua. Aurrebaldintza orokorra.

1. Egungo edo hur-hurreko kaudimengabezia-egoeran dagoen zordunak, pertsona fisikoa zein juridikoa izan, konkurtsoan deklaratu ez bada, konkurtso-bitartekari bat izendatzeko eskatu ahal izango du, hartzekodunekin ordainketa-akordio estrajudizial bat lortzen saiatzeko.

2. Zorduna pertsona juridikoa izanez gero, administrazio- edo likidazio-organoak izango du eskaeraren gaineko erabakia hartzeko eskumena.

632. artikulua. Pertsona fisikoa den zordunarentzako aurrebaldintza berezia.

Zorduna pertsona fisikoa izanez gero, beharrezkoa izango da pasiboaren balioaren hasierako zenbatespena ez izatea bost milioi eurotik gorakoa.

Artículo 630. Incumplimiento del acuerdo de refinanciación y ejecución de garantías reales.

Incumplido el acuerdo de refinanciación del pasivo financiero, serán de aplicación a las ejecuciones de las garantías reales las siguientes reglas:

1.^a Si el importe obtenido en la ejecución excediese del de la deuda originaria o del saldo pendiente de la misma de no haberse producido el acuerdo, se considerará sobrante la diferencia entre el primer y el segundo importe a los efectos de lo establecido en la Ley 1/2000, de 7 de enero, de Enjuiciamiento Civil, y en la legislación hipotecaria.

2.^a Si la cantidad obtenida en la ejecución fuese menor que la deuda originaria o del saldo pendiente de la misma de no haberse producido el acuerdo, pero mayor del valor de la garantía calculado conforme a lo establecido en el título VI del libro I de esta ley, se considerará que no hay sobrante de la ejecución ni remanente del crédito, haciendo el acreedor suya toda la cantidad resultante de la ejecución.

3.^a Si la cantidad resultante de la ejecución fuese inferior al valor de la garantía calculado conforme a lo establecido en el título VI del libro I de esta ley, se considerará como parte remanente del crédito la diferencia entre el importe de ese crédito y la cantidad resultante de la ejecución.

TÍTULO III

Del acuerdo extrajudicial de pagos

CAPÍTULO I

De los presupuestos

Artículo 631. Presupuesto general.

1. El deudor, persona natural o jurídica, en situación de insolvencia actual o inminente, que no hubiera sido declarado en concurso, podrá solicitar el nombramiento de un mediador concursal para tratar de alcanzar un acuerdo extrajudicial de pagos con sus acreedores.

2. Si el deudor fuera persona jurídica, será competente para decidir sobre la solicitud el órgano de administración o de liquidación.

Artículo 632. Presupuesto especial para el deudor persona natural.

Si el deudor fuera persona natural, será necesario que la estimación inicial del valor del pasivo no sea superior a cinco millones de euros.



633. artikulua. Pertsona juridikoa den zordunarentzako aurrebaldintza berezia.

Zorduna pertsona juridikoa izanez gero, beharrezkoa izango da aktiboaren balioaren edo pasiboaren zenbatekoaren hasierako zenbatespena ez izatea bost milioi eurotik gorakoa edota hartzekodunak berrogeita hamar baino gutxiago izatea, betiere espedientearen izapidetzearen berezko gastuak ordaintzeko behar adina aktibo dituela egiaztatzen badu.

634. artikulua. Debekuak.

Honako hauek ezin izango dute konkurtso-bitartekaria izendatzeko eskatu:

1.a Eskaera egin aurreko hamar urteetan ondarearen edota ordena sozioekonomikoaren aurkako delituagatik, agiriak faltsutzearen delituagatik, Ogasun Publikoaren, Gizarte Segurantzaren edo langileen eskubideen aurkako delituagatik epai irmoz kondenatu diren pertsonak.

2.a Eskaera egin aurreko bost urteetan hartzekodunekin ordainketa-akordio estrajudizial bat lortu duten pertsonak, birfinantzatze-akordio baten homologazio judiziala lortu dutenek edo hartzekodunen konkurtsoan deklaratuak izan direnek.

Epe hori honela hasiko da zenbatzen, hurrenez hurren: Konkurtso-erregistro publikoan ordainketa-akordio estrajudizialaren onarpena, birfinantzatze-akordioa homologatzen duen ebazpen judiziala edo konkurtsoa amaitu dela deklaratzeko duen autoa argitaratzen denetik.

3.a Hartzekodunekin birfinantzatze-akordio bat negoziatzen ari diren pertsonak.

4.a Konkurtso-eskaera izapidetzeko onartu zaien pertsonak.

II. KAPITULUA

Konkurtso-bitartekaria izendatzea

1. atala. Konkurtso-bitartekaria izendatzeko eskaera

635. artikulua. Izendatzeko eskaera.

1. Konkurtso-bitartekaria izendatzeko eskaera zordunak sinatutako formulario normalizatuaren bidez egingo da; eta, harekin batera, ondasun eta eskubideen inbentarioa eta hartzekodunen zerrenda aurkeztuko dira. Justizia Ministerioaren agindu bidez zehaztuko da eskaera egiteko, inbentariarako eta

Artículo 633. Presupuesto especial para el deudor persona jurídica.

Si el deudor fuera persona jurídica, será necesario que la estimación inicial del valor del activo o del importe del pasivo no sea superior a cinco millones de euros, o que tenga menos de cincuenta acreedores, siempre que, en todo caso, acredite disponer de activos suficientes para pagar los gastos propios de la tramitación del expediente.

Artículo 634. Prohibiciones.

No podrán solicitar el nombramiento de un mediador concursal:

1.º Las personas que, dentro de los diez años anteriores a la solicitud, hubieran sido condenadas en sentencia firme por delito contra el patrimonio, contra el orden socioeconómico, de falsedad documental, contra la Hacienda Pública, la Seguridad Social o contra los derechos de los trabajadores.

2.º Las personas que, dentro de los cinco años anteriores a la solicitud, hubieran alcanzado un acuerdo extrajudicial de pagos con los acreedores, hubieran obtenido la homologación judicial de un acuerdo de refinanciación o hubieran sido declaradas en concurso de acreedores.

El cómputo de este plazo comenzará a contar, respectivamente, desde la publicación en el Registro público concursal de la aceptación del acuerdo extrajudicial de pagos, de la resolución judicial que homologue el acuerdo de refinanciación o del auto que declare la conclusión del concurso.

3.º Las personas que se encuentren negociando con sus acreedores un acuerdo de refinanciación.

4.º Las personas cuya solicitud de concurso hubiera sido admitida a trámite.

CAPÍTULO II

Del nombramiento de mediador concursal

Sección 1.ª De la solicitud de nombramiento de mediador concursal

Artículo 635. Solicitud de nombramiento.

1. La solicitud de nombramiento de mediador concursal se hará mediante formulario normalizado firmado por el deudor, al que acompañará el inventario de bienes y derechos y la lista de acreedores. El contenido de los formularios normalizados de solicitud, del inventario y de lista de acreedores, se determinará mediante orden del Ministerio de Justicia.



hartzekodunen zerrendarako formulario normalizatuen edukia.

2. Zorduna irabazpidezko araubidean edo beste edozein ondasun-erkidegoko araubidean ezkontua bada, ezkontidearen identitatea eta ezkontzaren ondasun-eraentza adieraziko ditu eskaeran. Ezkontideak familia-etxebizitzaren jabeak badira eta ordainketa-akordio estrajudizialak etxebizitza horri eragin ahal badio, eskaera bi ezkontideek sinatu beharko dute nahitaez, edo batak bestearen adostasunarekin aurkeztu beharko du.

636. artikulua. Agiri orokorrak.

1. Inbentarioan titular den ondasun eta eskubideak jasoko dira, haien izaera, ezaugarriak eta kokapena adieraziz; erregistro publiko batean inskribatuta badaude, honako hauek ere adieraziko ditu: zerrendatutako ondasun eta eskubide guztien erregistroko identifikazio-datuak, eskuratze-balioa, bidezkoak diren balorazio-zuzenketak eta egungo balioaren zenbatespena. Inbentarioan adieraziko dira, halaber, ondasun eta eskubide horiei eragiten dieten karga, traba eta zamak, haien izaera eta, hala denean, erregistroko identifikazio-datuak adierazita. Inbentarioaren eranskinean, dituen eskudirua eta aktibo likidoak zehaztuko dira, baita aurreikusitako diru-sarrera erregularren zerrenda ere.

2. Hartzekodunen zerrendan, ordena alfabetikoan, eskatzaileak dituenak agertuko dira, zuzenbide publikokoak barne, eta honako alderdi hauek adieraziko dira: haien identitatea, egoitza eta helbide elektronikoa, halakorik edukiz gero, bai eta kredituen zenbatekoa eta epemuga eta edozein hartzekodunen edo hirugarrenaren alde emandako berme pertsonalak edo eratutako berme errealak. Bermearen balioa zehazteko, lege honetan pribilegio berezia duten kredituei buruz ezarritakoa hartuko da kontuan.

Zordunaren ondarearen aurkako exekuzioak egonez gero, honako alderdi hauek adieraziko dira hartzekodunen zerrendan: exekutatzailearen identitatea, zein epaitegitan ari diren izapidetzen eta auto-zenbakia, eta aipatuko da exekuzio horietatik zein diren eskatzaileak lanbide- edo enpresa-jarduerarekin jarraitzeko beharrezkotzat jotzen dituen ondasun edo eskubideen gainekoak.

Zerrendaren eranskin gisa, indarrean dauden kontratuen zerrenda eta aurreikusitako hileko gastuen zerrenda jasoko dira.

2. Si el deudor fuera persona casada en régimen de gananciales o cualquier otro de comunidad de bienes, indicará en la solicitud la identidad del cónyuge, con expresión del régimen económico del matrimonio. Si los cónyuges fueran propietarios de la vivienda familiar y esta pudiera quedar afectada por el acuerdo extrajudicial de pagos, la solicitud deberá firmarse necesariamente por ambos cónyuges o presentarse por uno con el consentimiento del otro.

Artículo 636. Documentos generales.

1. En el inventario figurarán los bienes y derechos de que sea titular, con expresión de la naturaleza que tuvieran, las características, el lugar en que se encuentren y, si estuvieran inscritos en un Registro público, los datos de identificación registral de cada uno de los bienes y derechos relacionados, el valor de adquisición, las correcciones valorativas que procedan y la estimación del valor actual. Se indicarán también en el inventario los gravámenes, trabas y cargas que afecten a estos bienes y derechos, con expresión de la naturaleza de los mismos y, en su caso, de los datos de identificación registral. En anejo del inventario se especificarán el efectivo y los activos líquidos de que disponga, así como una relación de los ingresos regulares previstos.

2. En la lista de acreedores figurarán, por orden alfabético, los que tenga el solicitante, incluidos los de derecho público, con expresión de su identidad, el domicilio y la dirección electrónica, si la tuviere, de cada uno de ellos, así como de la cuantía y el vencimiento de los respectivos créditos y las garantías personales prestadas o reales constituidas a favor de cualquier acreedor o de tercero. A los efectos de la determinación del valor de la garantía se estará a lo establecido en esta ley respecto de los créditos con privilegio especial.

Si existieran ejecuciones contra el patrimonio del deudor se indicará en la lista de acreedores la identidad del ejecutante, el juzgado en el que se estuvieran tramitando y el número de autos, con expresión de cuáles de esas ejecuciones recaen sobre bienes o derechos que el solicitante considere necesarios para la continuidad de la actividad profesional o empresarial.

En anejo de la lista se incluirá una relación de los contratos vigentes y una relación de los gastos mensuales previstos.



3. Langilerik edukiz gero, dituen langileen zerrenda bat aurkeztuko du eskatzaileak, haien ordezkarien identitatea eta helbidea adierazita.

637. artikulua. Kontabilitate-agiriak.

Zordunak, legez kontabilitatea eramatera behartuta egonez gero, azken hiru ekitaldiei dagozkien urteko kontuak erantsiko ditu. Enpresaburua izanez gero, balantze eguneratua ere aurkeztu beharko du.

638. artikulua. Eskaera aurkeztea.

1. Pertsona fisikoa den zorduna enpresaburua ez bada edota pertsona juridikoa den zorduna merkataritza-erregistroan inskriba daitekeen erakundea ez bada, zordunaren egoitzako notarioaren aurrean aurkeztuko da eskaera.

2. Pertsona fisikoa den zorduna enpresaburua bada edota pertsona juridikoa den zorduna merkataritza-erregistroan inskriba daitekeen erakundea bada, nahiz eta inskribatuta ez egon, zordunaren egoitzari dagokion merkataritza-erregistratzaileari aurkeztuko edo telematikoki igorriko zaio eskaera.

3. Pertsona fisikoa den zorduna enpresaburua bada edota pertsona juridikoa bada, Espainiako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialean ere aurkeztu ahal izango da eskaera, edota, dagokion araudiaren arabera, bitartekaritza-eginkizunak bere gain hartu dituen Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko edozein ganbera ofizialetan.

4. Titulu honetan ezarritakoaren ondoretarako, enpresaburutzat hartuko dira, merkataritza-legeriaren arabera edo gizarte-segurantzaren legeriaren arabera izaera hori duten pertsona fisikoak ez ezik, lanbide-jarduerak egiten dituztenak eta langile autonomoak ere.

639. artikulua. Eskaera aurkeztearen ondoreak.

Konkurso-bitartekaria izendatzeko eskatu ostean, zordunak bere lanbide-, enpresa- edo lan-jarduerarekin jarraitu ahal izango du, baina ez du egin beharko bere jardueraren igorpenari edo trafikoari dagozkion egintzak edo eragiketak gaintitzen dituen administratze- eta xedatze-egintzarik.

640. artikulua. Eskaera izapidetzea.

1. Eskaeraren hartzaileak, eskuduna bada, espedientea irekiko du, eta egiaztatuko du zordunak betetzen dituen galdatutako legezko betekizunak, eta

3. Si tuviera trabajadores acompañará el solicitante una relación de los que tuviera, con expresión de la identidad y dirección de sus representantes.

Artículo 637. Documentos contables.

Si el deudor estuviera legalmente obligado a la llevanza de contabilidad, acompañará las cuentas anuales correspondientes a los tres últimos ejercicios. Si fuera empresario, acompañará, además, un balance actualizado.

Artículo 638. De la presentación de la solicitud.

1. Si el deudor persona natural no fuera empresario o el deudor persona jurídica no fuera entidad inscribible en el Registro mercantil, la solicitud se presentará ante notario del domicilio del deudor.

2. Si el deudor persona natural fuera empresario o el deudor persona jurídica fuera entidad inscribible en el Registro mercantil, aunque no estén inscritos, la solicitud se presentará o se remitirá telemáticamente al registrador mercantil correspondiente al domicilio del deudor.

3. Si el deudor persona natural fuera empresario o si tuviera la condición de persona jurídica, la solicitud también podrá presentarse ante la Cámara Oficial de Comercio, Industria, Servicios y Navegación de España o ante cualquier Cámara Oficial de Comercio, Industria, Servicios y Navegación que, de conformidad con la normativa por la que se rija, haya asumido funciones de mediación.

4. A los efectos de lo establecido en este título, serán consideradas empresarios no solamente las personas naturales que tengan tal condición, sea conforme a la legislación mercantil, sea conforme a la legislación de la seguridad social, sino también aquellas que ejerzan actividades profesionales, así como los trabajadores autónomos.

Artículo 639. De los efectos de la presentación de la solicitud.

Solicitado el nombramiento de mediador concursal, el deudor podrá continuar con su actividad profesional, empresarial o laboral, pero se abstendrá de realizar cualquier acto de administración y disposición que exceda de los actos u operaciones propias del giro o tráfico de su actividad.

Artículo 640. De la tramitación de la solicitud.

1. El receptor de la solicitud, si fuera competente, procederá a la apertura de expediente y comprobará si el deudor reúne los requisitos legales exigidos y si



formularioan eta harekin batera doan dokumentazioan agertzen diren datuek akatsik ez duten eta nahikoak diren. Irizten badio eskaerak edo atxikitako dokumentazioak akatsen bat dutela, edo dokumentazioa ez dela nahikoa legezko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko, zuzenketa egiteko epe bakar bat emango dio eskatzaileari, bost egunetik gorakoa izango ez dena.

2. Eskaerak akatsik ez badu eta dokumentazioa osoa bada, konkurtso-bitartekaria izendatuko du. Eskaera merkataritzako erregistratzaile eskudunari aurkeztu edo igorri bazaio, hark, konkurtso-bitartekaria izendatu aurretik, dagokion orria irekiko du, inskribatuta ez badago.

3. Zordunak ez badu justifikatzen galdatutako legezko betekizunak betetzen dituela, eskaera ez da onartuko. Eskaera ez bada onartzen justifikatu edo zuzendu ez delako, eskatzaileak beste eskaera bat aurkeztu ahal izango du, baldin eta betekizun horiek betetzen badira edo betetzen direla egiazta badaiteke.

2. atala. Konkurtso-bitartekaria izendatzea

1. azpiatala. Izendapena

641. artikulua. Instanzia eskuduna.

1. Eskaeraren hartzaileak du konkurtso-bitartekaria izendatzeko eskumena.

2. Eskaera jaso eta hurrengo bost egunen barruan egin beharko da konkurtso-bitartekariaren izendapena.

3. Izendapena notarioak egiten badu, fede-emaileak berak eskuetsitako aktan jaso beharko da; merkataritzako erregistratzaileak egiten badu, ematen duen ebazpena eskatzaileari irekitako orrian idatziko da; eta, izendapena ganbera ofizialak egiten badu, eskumena duen organoaren aktan jaso beharko da, eta idazkariak horren ziurtagiria emango du.

642. artikulua. Bitartekariaren betekizun orokorrak.

1. Konkurtso-bitartekariak, pertsona fisikoa zein juridikoa izan, gai zibiletan eta merkataritza-gaietan bitartekari-izaera izan beharko du, eta Justizia Ministerioko Bitartekarien eta Bitartekaritza Erakundearen Erregistroak egindako zerrenda ofizialean inskribatuta egon beharko du. Zerrenda ofiziala *Estatuko Aldizkari Ofizialeko* dagokion atarian egongo da.

los datos que constan en el formulario y la documentación que la acompaña no contienen defecto alguno y son suficientes. Si estimara que la solicitud o la documentación adjunta adolecen de algún defecto o que esta es insuficiente para acreditar el cumplimiento de los requisitos legales, señalará al solicitante un único plazo de subsanación, que no podrá exceder de cinco días.

2. Si la solicitud no tuviera defectos y la documentación fuera completa, procederá a nombrar al mediador concursal. Si la solicitud se hubiera presentado o remitido al registrador mercantil competente, este, antes de nombrar al mediador concursal, procederá a la apertura de la hoja correspondiente, en caso de que no figurase inscrito.

3. La solicitud se inadmitirá cuando el deudor no justifique que reúne los requisitos legales exigidos. En caso de inadmisión por falta de justificación o de subsanación, el solicitante podrá presentar nueva solicitud cuando concurriesen o pudiera acreditarse la concurrencia de esos requisitos.

Sección 2.ª Del nombramiento de mediador concursal

Subsección 1.ª Del nombramiento

Artículo 641. Instancia competente.

1. La competencia para el nombramiento de mediador concursal corresponde al receptor de la solicitud.

2. El nombramiento del mediador concursal deberá realizarse dentro de los cinco días siguientes a la recepción de la solicitud.

3. Si el nombramiento se efectuara por notario deberá constar en acta autorizada por el mismo fedatario; si se efectuara por registrador mercantil, la resolución que dicte se anotará en la hoja abierta al solicitante; y si se efectuara por Cámara Oficial deberá constar en acta del órgano que sea competente, de la que el secretario expedirá certificación.

Artículo 642. Requisitos generales del mediador.

1. El mediador concursal, sea persona natural o jurídica, deberá tener la condición de mediador en asuntos civiles y mercantiles, y estar inscrito en la lista oficial confeccionada por el Registro de Mediadores e Instituciones de Mediación del Ministerio de Justicia. La lista oficial figurará en el portal correspondiente del «Boletín Oficial del Estado».



2. Zorduna enpresaburua ez den pertsona fisikoa denean, eskaera jaso duen notarioak bitartekari-izaera hartu ahal izango du bere gain, zordunak aurka egiten duenean salbu. Erregelamendu bidez zehaztuko da ordainketa-akordio estrajudizialean bitartekari gisa esku hartzen duten notarioen erantzukizun-araubidea.

643. artikulua. Izendatzeko sistema.

Aurreko artikuluan aipatutako zerrendan modu sekuentzialean dagokion pertsona izendatu beharko da konkurtso-bitartekari.

644. artikulua. Kasu bereziak.

1. Pertsona fisikoa den enpresaburu zordunak edo pertsona juridikoa den zordunak ganbera ofizial batean aurkeztu badu eskaera, ganberak berak hartuko ditu bere gain bitartekaritza-eginkizunak.

Ganberak ezarritako bitartekaritza-sistemak gardena izan beharko du eta interes-gatazkarik ez dagoela bermatu beharko da. Horretarako, gainzorpetze-azpibatzerde bat edo organo baliokide bat eratu ahal izango da, eta azpibatzerde horretako kideetako bat gutxienez konkurtso-bitartekari izendatzeko betekizunak betetzen dituen pertsona bat izango da.

2. Zorduna aseguru- edo berraseguru-erakundea bada, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoa izendatu beharko da bitartekari.

645. artikulua. Konkurtso-bitartekariaren ordainsaria.

1. Ordainsariaren zenbatekoa konkurtso-bitartekari izendatzen den ebazpenean finkatuko da.

2. Erregelamendu bidez zehaztuko dira konkurtso-bitartekariaren ordainsaria kalkulatzeko erregelak. Edonola ere, honako hauek baldintzatuko dute ordainsaria: zordun motak, zordunaren pasibo eta aktiboek, eta bitartekaritza lortutako arrakastak.

2. azpiatala. Onarpena

646. artikulua. Onartzeko betekizunak.

Kargua onartzean, izendatuak helbide elektronikoko bat eman beharko dio notarioari, erregistratzaileari edo Ganberari, hartzekodunek bertara bidal diezaioten edozein komunikazio edo jakinarazpen. Helbide elektronikoko komunikazio elektronikoen segurtasun-baldintza teknikoak bete beharko ditu, komunikazioen transmisioa eta harrera, datak eta eduki osoa jasotzeari dagokionez.

2. Cuando el deudor fuera persona natural no empresario, el notario receptor de la solicitud podrá asumir la condición de mediador, salvo oposición del deudor. Reglamentariamente se determinará el régimen de responsabilidad de los notarios que intervengan como mediadores en los acuerdos extrajudiciales de pagos.

Artículo 643. Sistema de nombramiento.

El nombramiento de mediador concursal habrá de recaer en la persona a la que, dentro de la lista a que se refiere el artículo anterior, de forma secuencial le corresponda.

Artículo 644. Supuestos especiales.

1. Si el deudor persona natural empresario o la persona jurídica deudora hubiera presentado la solicitud ante una Cámara Oficial, la propia Cámara asumirá las funciones de mediación.

El sistema de mediación desarrollado por las Cámaras deberá ser transparente y se deberá garantizar la inexistencia de conflicto de intereses. A tal efecto podrá constituirse una subcomisión de sobreendeudamiento u órgano equivalente, que deberá estar compuesto por, al menos, una persona que reúna los requisitos para ser nombrada mediadora concursal.

2. Si el deudor fuera una entidad aseguradora o reaseguradora, deberá ser nombrado mediador el Consorcio de Compensación de Seguros.

Artículo 645. Remuneración del mediador concursal.

1. La cuantía de la retribución se fijará en la resolución en la que se le nombre.

2. Reglamentariamente se determinarán las reglas para el cálculo de la retribución del mediador concursal. En todo caso, la retribución a percibir dependerá del tipo de deudor, de su pasivo y activo y del éxito alcanzado en la mediación.

Subsección 2.^a De la aceptación

Artículo 646. Requisitos de la aceptación.

Al aceptar el cargo, el nombrado deberá facilitar al notario, al registrador o a la Cámara una dirección electrónica a la que los acreedores puedan remitir cualquier comunicación o notificación. La dirección electrónica deberá cumplir las condiciones técnicas de seguridad de las comunicaciones electrónicas en lo relativo a la constancia de la transmisión y recepción, de sus fechas y del contenido íntegro de las comunicaciones.



647. artikulua. Onartzeko epea.

1. Konkurtso-bitartekariak izendapen-ebazpena jaso eta hurrengo bost egunen barruan eman beharko du onarpena.
2. Epe horretan onarpena ematen ez badu, izendapena iraungi egingo da.

3. atala. Izendapena komunikatzea

648. artikulua. Epaitegiari komunikatzea.

Bitartekariak kargua onartu ondoren, notarioak, erregistratzaileak edo ganbera ofizialak eskatzailearen konkurtso-deklarazioa egiteko eskumena duen epaitegiari komunikatuko dio hartzekodunekin ordainketa-akordio estrajudizial bat negoziatzeko asmoa duela zordunak; horrekin batera, bidezkoa denaren arabera, idazpenaren edo izendapen-akordioaren aktaren edo ziurtagiriaren kopia autentikoa aurkeztuko du, izendatuak kargua onartu duen data adierazita.

649. artikulua. Erregistro publikoei komunikatzea.

Bitartekariak kargua onartu ondoren, notarioak, erregistratzaileak edo ganbera ofizialak aktaren kopia autentikoa edota idazpenaren edo izendapen-akordioaren ziurtagiria, bidezkoa dena, bidaliko die eskatzailea inskribatuta dagoen pertsonen erregistro publikoei eta hark bere jabetzako ondasun edo eskubideak inskribatuta dituen ondasun edo eskubideen erregistro publikoei, izendatuak kargua onartu duen data adierazita. Dokumentazioa jaso ondoren, erregistroaren arduradunak prebentziozko idatzoharra egingo du zorduna edo haren ondasun eta eskubideak inskribatuta dauden orrian.

650. artikulua. Konkurtso-erregistro publikoari komunikatzea.

1. Bitartekariak kargua onartu ondoren, notarioak, erregistratzaileak edo ganbera ofizialak aktaren kopia autentikoa edota idazpenaren edo izendapen-akordioaren ziurtagiria, bidezkoa dena, bidaliko dio Konkurtso-erregistro publikoari.
2. Komunikazioak honako hauek jasoko ditu: zordunaren identitatea, identifikazio fiskaleko zenbakia barne; eskaera zein notariori, erregistratzaileari edo ganbera ofizialari aurkeztu zaion; hasitako espedientearen zenbakia; eta konkurtso-bitartekariaren identitatea, identifikazio fiskaleko zenbakia barne.

Artículo 647. Plazo para la aceptación.

1. La aceptación del mediador concursal deberá tener lugar dentro de los cinco días siguientes al de recibo de la resolución de nombramiento.
2. La falta de aceptación dentro de plazo determinará la caducidad del nombramiento.

Sección 3.ª De la comunicación del nombramiento

Artículo 648. Comunicación al juzgado.

Aceptado el cargo por el mediador, el notario, el registrador o la Cámara Oficial comunicará al juzgado competente para la declaración de concurso del solicitante el propósito del deudor de negociar con los acreedores un acuerdo extrajudicial de pagos, acompañando, según proceda, copia auténtica del acta o certificación del asiento o del acuerdo de nombramiento, con expresión de la fecha en que el nombrado haya aceptado el cargo.

Artículo 649. Comunicaciones a los Registros públicos.

Aceptado el cargo por el mediador, el notario, el registrador o la Cámara Oficial, remitirá, según proceda, copia auténtica del acta o, certificación del asiento o del acuerdo de nombramiento, a los Registros públicos de personas en que figure inscrito el solicitante y a los Registros públicos de bienes o derechos en que este tuviera inscritos bienes o derechos de su propiedad, con expresión de la fecha en que el nombrado haya aceptado el cargo. Una vez recibida la documentación, el responsable del registro practicará anotación preventiva en la hoja en que figurase inscrito el deudor o sus bienes y derechos.

Artículo 650. Comunicación al Registro público concursal.

1. Aceptado el cargo por el mediador, el notario, el registrador o la Cámara Oficial, remitirá, según proceda, copia auténtica del acta o, certificación del asiento o del acuerdo de nombramiento, al Registro público concursal.
2. La comunicación contendrá la identidad del deudor, incluyendo el número de identificación fiscal; el notario, el registrador o la Cámara Oficial ante el que se hubiera presentado la solicitud; el número del expediente que se hubiera incoado; y la identidad del mediador concursal, incluyendo el número de identificación fiscal.



651. artikulua. Erakunde publikoei komunikatzea.

1. Bitartekariak kargua onartu ondoren, notarioak, erregistratzaileak edo ganbera ofizialak aktaren kopia autentikoa edota idazpenaren edo izendapen-akordioaren ziurtagiria, bidezkoa dena, igorriko die Zerga Administrazioako Estatu Agentziari eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari, hartzekodun gisa jasota egon edo ez.

2. Komunikazioak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, erakunde horiek beren egoitza elektronikoen gaitzen dituzten bideak erabiliz.

3. Komunikazioetan alderdi hauek jasoko dira: zordunaren identitatea eta duen identifikazio fiskaleko zenbakia, bitartekariaren identitatea eta duen identifikazio fiskaleko zenbakia, kargua onartu duen eguna, eta eman duen helbide elektronikoa.

652. artikulua. Langileen ordezkariari komunikatzea.

Bitartekariak kargua onartu ondoren, notarioak, erregistratzaileak edo ganbera ofizialak aktaren kopia autentikoa edota idazpenaren edo izendapen-akordioaren ziurtagiria, bidezkoa dena, igorriko dio langileen ordezkariari, halakorik badago, eta jarduketetan pertsonatzeko eskubidea duela jakinaraziko dio.

653. artikulua. Notarioria eta erregistro-jarduketak.

Zorduna enpresaburua ez den pertsona fisikoa bada, kapitulu honetan deskribatutako notarioria- edo erregistro-jarduketek ez dute arantzel-ordainsaririk sortuko.

4. atala. Araubide osagarria

654. artikulua. Araubide osagarria.

Konkurso-bitartekariaren izendapenari eta onarpenari buruz lege honetan aurreikusi ez den guztian, aditu independenteak izendatzeko xedatutakoa beteko da.

Artículo 651. Comunicaciones a organismos públicos.

1. Aceptado el cargo por el mediador, el notario, el registrador o la Cámara Oficial, remitirá, según proceda, copia auténtica del acta o, certificación del asiento o del acuerdo de nombramiento a la Agencia Estatal de Administración Tributaria y a la Tesorería General de la Seguridad Social, conste o no su condición de acreedoras.

2. Las comunicaciones se efectuarán por medios electrónicos a través de los cauces que estos organismos habiliten en sus respectivas sedes electrónicas.

3. En las comunicaciones se hará constar la identidad del deudor y el número de identificación fiscal que tuviera; la identidad del mediador y el número de identificación fiscal que tuviera, la fecha de aceptación del cargo y dirección electrónica que hubiera facilitado.

Artículo 652. Comunicación a la representación de los trabajadores.

Aceptado el cargo por el mediador, el notario, el registrador o la Cámara Oficial, remitirá, según proceda, copia auténtica del acta o, certificación del asiento o del acuerdo de nombramiento a la representación de los trabajadores, si la hubiere, haciéndoles saber de su derecho a personarse en las actuaciones.

Artículo 653. Actuaciones notariales y registrales.

Si el deudor fuera persona natural no empresario, las actuaciones notariales o registrales descritas en este capítulo no devengarán retribución arancelaria alguna.

Sección 4.ª Del régimen supletorio

Artículo 654. Régimen supletorio.

En todo lo no previsto en esta ley en cuanto al nombramiento y a la aceptación del mediador concursal, se estará a lo dispuesto para el nombramiento de expertos independientes.



5. atala. Zuzenbide publikoko kredituak ordaintzeko betebeharra geroratzea edo zatikatzea eskatzeko eginbeharra

655. artikulua. Zuzenbide publikoko kredituak geroratzea edo zatikatzea eskatzeko eginbeharra.

1. Konkurtso-bitartekaria izendatu ondoren, tributuzorrak edo gizarte-segurantzakoak dituen zordunak, baldin eta zerga-bilketa kudeatzeko Zergei buruzko abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorrean, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrean edo ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean testu bateginean xedatutakoa aplikatu behar bada, administrazio publiko eskudunari eskatu beharko dio ordainketa geroratze edo zatikatze, bitartekaria izendatu den egunean ordaintzeke zeudenei dagokienez, salbu eta zor horiek aplikagarri den araudian ezarritako epean ordaintzea aurreikusia bada eta ordaindu ahal baditu.

2. Geroratze edo zatikatze eskaerarekin batera, aurkezpen-datan ebazteke dauden eskaeretan sartuta dauden zuzenbide publikoko bestelako zorren zerrenda aurkeztuko du.

656. artikulua. Geroratzeari edo zatikatzeari aplikagarri zaion araubidea.

1. Tributuzorrak geroratze edo zatikatze eskaerak izapidetzeko, abenduaren 17ko 58/2003 Legean eta lege hori garatzen duen araudian ezarritakoa bete beharko da.

2. Gizarte-segurantzako zorrak geroratze edo zatikatze eskaerak izapidetzeko, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean testu bateginean eta hura garatzen duen araudian ezarritakoa bete beharko da.

657. artikulua. Eskaera ebaztea.

1. Tributuzorren edo gizarte-segurantzako zorren geroratze edo zatikatze ebazteko akordioa ordainketa-akordio estrajudiziala formalizatu ostean bakarrik eman ahal izango da. Hala ere, administrazio publiko eskudunak lehenago ebatzi ahal izango du eskaera, baldin eta aurkeztu zenetik hiru hilabete igaro badira ordainketa-akordio estrajudiziala Konkurtso-erregistro publikoan argitaratu gabe, edota zorduna hartzekodunen konkurtsoan deklaratu bada.

Sección 5.ª Del deber de solicitar aplazamiento o fraccionamiento de la obligación de pago de los créditos de derecho público

Artículo 655. El deber de solicitar aplazamiento o fraccionamiento de los créditos de derecho público.

1. Una vez nombrado el mediador concursal, el deudor que tuviera deudas tributarias o de seguridad social para cuya gestión recaudatoria resulte de aplicación lo dispuesto en la Ley 58/2003, de 17 de diciembre, General Tributaria, en la Ley 47/2003, de 26 de noviembre, General Presupuestaria, o en el texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social, aprobado por el Real Decreto legislativo 1/1994, de 20 de junio, deberá solicitar de la administración pública competente el aplazamiento o el fraccionamiento de pago de aquellas que, a la fecha del nombramiento del mediador, se encontrasen pendientes de ingreso, salvo que tuviera previsto y pudiera efectuar el pago de dichas deudas en el plazo establecido en la normativa que resulte de aplicación.

2. A la solicitud de aplazamiento o fraccionamiento se acompañará la relación de aquellas otras deudas de derecho público que a la fecha de presentación estuvieran incluidas en solicitudes pendientes de resolución.

Artículo 656. Régimen aplicable al aplazamiento o fraccionamiento.

1. La tramitación de las solicitudes de aplazamiento o de fraccionamiento de las deudas tributarias se regirá por lo establecido en la Ley 58/2003, de 17 de diciembre, y en la normativa que la desarrolla.

2. La tramitación de las solicitudes de aplazamiento o de fraccionamiento de las deudas de seguridad social se regirá por lo establecido en el texto refundido de la Ley General de la Seguridad Social, aprobado por Real Decreto legislativo 1/1994, de 20 de junio, y en la normativa que la desarrolla.

Artículo 657. Resolución sobre la solicitud.

1. El acuerdo de resolución del aplazamiento o fraccionamiento de las deudas tributarias o de seguridad social solo podrá dictarse cuando el acuerdo extrajudicial de pagos haya sido formalizado. No obstante, la administración pública competente podrá resolver antes la solicitud si hubieran transcurrido tres meses desde que se hubiera presentado sin que se haya publicado en el Registro público concursal el acuerdo extrajudicial de pagos o si el deudor hubiera sido declarado en concurso de acreedores.



2. Administrazio publikoak nahierara hautemandako zenbateko-arrazoiek kontrakoa ezartzen ez badute, geroratzea edo zatikatzea emateko akordioak ordainketa-akordio estrajudizialean jasotakoa izango du gehieneko denbora-erreferentzia; hala ere, epeen aldizkakotasuna desberdina izan ahalko da.

658. artikulua. Aurreko geroratzeak edo zatikatzeak.

1. Bere garaian emandako tributu-zorren edo gizarte-segurantzako zorren ordainketa geroratzeek eta zatikatzeek, eskaera aurkezten den egunean indarrean daudenean, ondore guztiak sortzen jarraituko dute.

2. Zor berriak geroratzeko edo zatikatzeak eskaerarekin batera jada emanda zeudenean baldintzak aldatzeko eskatzen bada, eskaera batera izapidetuko da.

III. KAPITULUA

Egiaztatzeko eginbeharrak

659. artikulua. Eskaera eta dokumentazioa egiaztatzeko eginbeharra.

1. Konkurtso-bitartekariak, kargua onartu eta hurrengo hamar egunen barruan, egiaztatu beharko du egiazkoak eta zehatzak direla eskaeran eta harekin batera aurkeztutako agirietan agertzen diren datuak.

2. Konkurtso-bitartekariak dagokiona osatzeko edo zuzentzeko eskatu ahal izango dio zordunari, bai eta eskaeran edo dokumentazioan egon daitezkeen akatsak zuzentzeko ere.

660. artikulua. Kredituak egiaztatzeko eginbeharra.

Konkurtso-bitartekariak, kargua onartu eta hurrengo hamar egunen barruan, hartzekodunen zerrendan daudenen kredituen existentzia eta zenbatekoa egiaztatu beharko ditu zordunak dituen agiri-aurrekariarekin eta egokitzen jotzen dituen gainerako bitartekoekin. Zorduna enpresaburua ez den pertsona fisikoa bada eta bitartekaria notarioa bera bada, epea hamabost eguneko izango da, notarioari bitartekaria izendatzeko eskaera aurkezten zaionetik kontatzen hasita.

661. artikulua. Helbide elektronikoak.

Hartzekodunak konkurtso-bitartekariari helbide elektroniko bat ematen dionetik, helbide elektroniko

2. Salvo que razones de cuantía, discrecionalmente apreciadas por la administración pública determinen lo contrario, el acuerdo de concesión del aplazamiento o fraccionamiento, tendrá como referencia temporal máxima la contemplada en el acuerdo extrajudicial de pagos, si bien la periodicidad de los plazos podrá ser diferente.

Artículo 658. Aplazamientos o fraccionamientos anteriores.

1. Los aplazamientos y fraccionamientos de pago de las deudas tributarias o de seguridad social en su día concedidos y vigentes a la fecha de presentación de la solicitud continuarán surtiendo plenos efectos.

2. En el caso de que, junto con el aplazamiento o del fraccionamiento de las nuevas deudas, se solicitase la modificación de las condiciones de los ya concedidos, la solicitud se tramitará conjuntamente.

CAPÍTULO III

De los deberes de comprobación

Artículo 659. Deber de comprobación de la solicitud y de la documentación.

1. Dentro de los diez días siguientes al de la aceptación del cargo, el mediador concursal deberá comprobar la realidad y exactitud de los datos que figuren en la solicitud y la documentación que la acompañe.

2. El mediador concursal podrá requerir al deudor para que complemente o subsane lo que proceda, así como instarle a la corrección de cuantos errores pueda haber en la solicitud o en la documentación.

Artículo 660. Deber de comprobación de los créditos.

Dentro de los diez días siguientes al de la aceptación del cargo, el mediador concursal, con los antecedentes documentales con que cuente el deudor y con los demás medios que considere oportunos, deberá comprobar la existencia y la cuantía de los créditos de quienes figuren en la lista de acreedores. Si el deudor fuera persona natural que no tuviera la condición de empresario y el mediador fuera el propio notario, el plazo será de quince días a contar desde la presentación al notario de la solicitud de nombramiento de mediador.

Artículo 661. Direcciones electrónicas.

Desde que el acreedor hubiera facilitado al mediador concursal una dirección electrónica, las



horretan egingo beharko dira konkurtso-bitartekariarekin komunikazioak.

IV. KAPITULUA

Ordainketa-akordio estrajudiziala

1. atala. Hartzekodunei deialdia egitea

662. artikulua. Hartzekodunei deialdia egitea.

1. Konkurtso-bitartekariak, kargua onartu eta hurrengo hamar egunen barruan, bilera batera deituko ditu zorduna eta eskaerari atxikitako zerrendan agertzen diren hartzekodunak edo beste edozein bitartekoren bidez existitzen direla dakien hartzekodunak. Bilera hori zordunak egoitza duen herrian egingo da. Zorduna enpresaburua ez den pertsona fisikoa bada eta bitartekaria notarioa bera bada, deialdia egiteko epea hamabost egunekoa izango da, notarioari bitartekaria izendatzeko eskaera aurkezten zaionetik kontatzen hasita.

2. Hartzekodun publikoei ez zaie bilerara joateko deialdia egingo.

3. Deialdiak honako hauek adierazi beharko ditu: bileraren lekua, eguna eta ordua, ordainketa-akordio estrajudizial bat lortzeko helburua eta deitutako hartzekodun bakoitzaren identitatea, kredituaren zenbatekoa, emate-data eta muga-eguna, eta eraturako berme pertsonal edo errealak.

4. Onarpen-dataren ondorengo bi hilabeteen barruan egin beharko da bilera; zorduna enpresaburua ez den pertsona fisikoa izanez gero, berriz, hogeita hamar egunen barruan.

663. artikulua. Deialdiaren forma.

Bitartekariak hartzekodunaren helbide elektronikoa badu, zordunak adierazi diolako edo hartzekodunak eman diolako, helbide elektronikoko horretara igorri beharko du deialdia. Gainerako kasuetan, notario-bidez egingo da deialdia, edo hartu izana ziurtatzen duen edozein banakako edo idatzizko komunikazio-bideren bidez.

664. artikulua. Abstentzio-eginbeharra.

1. Konkurtso-deklarazioa egiteko eskumena duen epaitegiari negoziazioak hasi direla komunikatzen zaionetik, hartzekodunek ezin izango dute zordunarekiko duten egoera hobetzera zuzendutako inolako egintzarik egin.

2. Gauzatzen diren hobekuntza-egintzek ez dute inolako ondorerik sortuko.

comunicaciones con el mediador concursal deberán realizarse a la citada dirección electrónica.

CAPÍTULO IV

Del acuerdo extrajudicial de pagos

Sección 1.^a De la convocatoria a los acreedores

Artículo 662. Convocatoria a los acreedores.

1. Dentro de los diez días siguientes al de la aceptación del cargo, el mediador concursal convocará al deudor y a los acreedores que figuren en la lista que acompañe a la solicitud o de cuya existencia por cualquier otro medio tenga conocimiento a una reunión en la localidad en la que el deudor tenga su domicilio. Si el deudor fuera persona natural que no tuviera la condición de empresario y el mediador fuera el propio notario, el plazo para la convocatoria será de quince días a contar desde la presentación al notario de la solicitud de nombramiento de mediador.

2. Los acreedores públicos no serán convocados a la reunión.

3. La convocatoria deberá expresar el lugar, día y hora de la reunión, la finalidad de alcanzar un acuerdo extrajudicial de pago y la identidad de cada uno de los acreedores convocados, con expresión de la cuantía del crédito, la fecha de concesión y de vencimiento y las garantías personales o reales constituidas.

4. La reunión deberá celebrarse dentro de los dos meses siguientes a la fecha de la aceptación o dentro de los treinta días si el deudor fuera persona natural que no tuviera la condición de empresario.

Artículo 663. Forma de la convocatoria.

Si constara al mediador la dirección electrónica de acreedor por haberla aportado el deudor o facilitado el acreedor, la convocatoria deberá realizarse a esa dirección electrónica. En los demás casos, la convocatoria se realizará por conducto notarial o por cualquier medio de comunicación, individual y escrita, que asegure la recepción.

Artículo 664. Deber de abstención.

1. Desde la comunicación de la apertura de las negociaciones al juzgado competente para la declaración del concurso, los acreedores deberán abstenerse de realizar acto alguno dirigido a mejorar la situación en que se encuentren respecto del deudor.

2. Los actos de mejora que se realicen no producirán efecto alguno.



665. artikulua. Interesen sortzapena etetea.

Akordioa negoziatzeko epeak irauten duen bitartean, akordioak uki ditzakeen kredituen legezko edo hitzarmenezko interesen sortzapena eten egingo da. Salbuespen bakarrak hartzekodunen konkurtsoaren kasurako ezarritakoak izango dira.

2. atala. Ordainketa-akordio estrajudizialaren proposamena

1. azpiatala. Proposamena

666. artikulua. Proposamena igortzea.

Bilera egiteko aurreikusitako data baino gutxienez hogeit egun natural lehenago, edota, zorduna enpresaburua ez den pertsona fisikoa bada, hamabost egun natural lehenago, konkurtso-bitartekariak, zordunaren adostasunarekin, eskaera-egunean ordaintzeke dauden kredituei buruzko ordainketa-akordio estrajudizialaren proposamena igorriko die hartzekodunei.

667. artikulua. Akordio-proposamenaren edukia.

1. Proposamenak neurri hauetako edozein jaso ahal izango du:

1.a Itxaronaldiak, hamar urtetik gorakoa ez den epeaz.

2.a Kitak.

3.a Kredituak sozietate zordunaren edo beste sozietate baten akzio edo partaidetza bihurtzea, kredituak partaidetza-kreditu bihurtzea, gehienez ere hamar urterako, obligazio bihurtzea, mendeko kreditu bihurtzea, interes kapitalizagarriak dituzten kreditu bihurtzea edo beste edozein finantzatresna bihurtzea, jatorrizko kredituek dituzten ezaugarriak, maila edo epemuga ez dituztenak.

4a. Ondasunak edo eskubideak hartzekodunei lagatzea, kreditu guztiak edo batzuk ordainean emateko edo ordaintzeko.

2. Zorduna enpresaburua ez den pertsona fisikoa bada, proposamenak itxaronaldiak, kitak eta ondasun edo eskubideen lagapena baino ezin izango ditu jaso hartzekodunentzat, kreditu guztiak edo batzuk ordainean emateko edo ordaintzeko.

668. artikulua. Akzio edo partaidetza sozial bihurtzeko araubide berezia.

1. Kredituak akzio edo partaidetza sozial bihurtu ahal izango dira, primarekin edo gabe, nahiz eta

Artículo 665. Suspensión del devengo de intereses.

Durante el plazo de negociación del acuerdo, se suspenderá el devengo de los intereses, legales o convencionales, de los créditos que pudieran verse afectados por el mismo, sin más excepciones que las establecidas para el caso de concurso de acreedores.

Sección 2.ª De la propuesta de acuerdo extrajudicial de pagos

Subsección 1.ª De la propuesta

Artículo 666. Remisión de la propuesta.

Con una antelación mínima de veinte días naturales a la fecha prevista para la celebración de la reunión o, de quince si el deudor fuera persona natural que no tuviera la condición de empresario, el mediador concursal remitirá a los acreedores, con el consentimiento del deudor, una propuesta de acuerdo extrajudicial de pagos sobre los créditos pendientes de pago a la fecha de la solicitud.

Artículo 667. Contenido de la propuesta de acuerdo.

1. La propuesta podrá contener cualquiera de las siguientes medidas:

1.ª Esperas por un plazo no superior a diez años.

2.ª Quitas.

3.ª La conversión de los créditos en acciones o participaciones de la sociedad deudora o de otra sociedad, la conversión de los créditos en créditos participativos por período no superior a diez años, en obligaciones convertibles, en créditos subordinados, en créditos con intereses capitalizables o en cualquier otro instrumento financiero con características, rango o vencimiento distintos de aquellos que tuvieran los créditos originarios.

4.ª La cesión de bienes o derechos a los acreedores en pago o para pago de la totalidad o parte de sus créditos.

2. Si el deudor fuera persona natural que no tuviera la condición de empresario, la propuesta únicamente podrá contener esperas, quitas y cesión de bienes o derechos a los acreedores en pago o para pago de totalidad o parte de sus créditos.

Artículo 668. Régimen especial de la conversión en acciones o participaciones sociales.

1. La conversión de créditos en acciones o participaciones sociales, con o sin prima podrá



konpentsatu beharreko kredituak likidoak ez izan, mugaeguneratuta ez egon edo galdagarriak ez izan.

2. Bazkideen batzar orokorrak kapital soziala gehitzeko akordioa hartzeko, kredituak akzio edo partaidetza sozial bihurtzearen ondorioz, ez da beharrezkoa izango legeak edo estatutu sozialek ezarritako gehiengo indartua.

669. artikulua. Ondasunak lagatzeko akordioen mugak.

1. Hartzekodunei ondasunak eta eskubideak ordainean lagatzean, lanbide- edo enpresa-jarduerarekin jarraitzeko beharrezkoak ez diren ondasunak edo eskubideak baino ezin izango dira izan lagatzearen xede.

2. Ondasun eta eskubideen lagapena haien arrazoizko balioaren arabera egin beharko da, lege honen I. liburuko V. tituluko III. kapituluaren 2. atalean ezarritakoaren arabera kalkulatuta. Balioa kredituaren zenbatekoaren berdina edo txikiagoa izanez gero, lagapena egin ondoren azkendu egingo da kreditua. Handiagoa izanez gero, aldea zordunaren ondarean sartu beharko da.

3. Lagatuko ondasunak berme errealari lotuta egonez gero, lege honen I. liburuko IV. tituluko III. kapituluaren ezarritakoa aplikatuko da, eta zordunak hartzekodunekin ordainketa-akordio estrajudizial bat negoziatzeko duen asmoa eta konkurtso-bitartekariaren izendapena komunikatu zaion epaileak izango du kapitulu horretan galdatutako baimenak emateko edo ukatzeko eskumena.

670. artikulua. Debekuak.

1. Ordainketa-akordio estrajudizialaren proposamenak ezin izango du inola ere hartzekodunen konkurtsoarako ezarritako ordainketen lehentasun-hurrenkera aldatu, atzeratutako hartzekodunek esanbidez adostasuna ematen dutenean salbu.

2. Proposamenak ezin izango du inola ere zordunaren ondarearen likidazio globala izan, kredituak ordaintzeko.

2. azpiatala. Proposamenari erantsitako agiriak

671. artikulua. Ordainketa-plana.

1. Proposamenarekin batera, ordaintzeke dauden kredituak ordaintzeko plan bat aurkeztu beharko da, haiek ordaintzeko aurreikusitako baliabideak eta kreditu berriak zehaztuta; haien artean, zordunarentzako eta haren familiarentzako mantenu-eskubide gisa sortzen direnak sartuko dira.

realizarse aunque los créditos a compensar no sean líquidos, no estén vencidos o no sean exigibles.

2. Para la adopción por la junta general de socios del acuerdo de aumentar el capital social por conversión de los créditos en acciones o participaciones sociales no será necesaria la mayoría reforzada establecida por la ley o por los estatutos sociales.

Artículo 669. Límites de los acuerdos de cesión de bienes.

1. La cesión en pago de bienes y derechos a los acreedores solo podrá tener por objeto bienes o derechos que no resulten necesarios para la continuación de la actividad profesional o empresarial.

2. La cesión de los bienes y derechos deberá realizarse por el valor razonable que tuvieran, calculado conforme a lo establecido en la sección 2.^a del capítulo III del título V del libro I de esta ley. Si el valor fuera igual o inferior al importe del crédito, este se extinguirá una vez realizada la cesión. Si fuera superior, la diferencia se deberá integrar en el patrimonio del deudor.

3. Si los bienes objeto de cesión estuvieran afectos a garantía real, será de aplicación lo establecido en el capítulo III del título IV del libro I de esta ley, siendo competencia del juez al que se hubiera comunicado el propósito del deudor de negociar con los acreedores un acuerdo extrajudicial de pagos y el nombramiento del mediador concursal conceder o denegar las autorizaciones exigidas en dicho capítulo.

Artículo 670. Prohibiciones.

1. En ningún caso la propuesta de acuerdo extrajudicial de pagos podrá alterar el orden de prelación de pagos establecido para el concurso de acreedores, salvo que los acreedores postergados consientan expresamente.

2. En ningún caso la propuesta podrá consistir en la liquidación global del patrimonio del deudor para satisfacción de los créditos.

Subsección 2.^a De los documentos adjuntos a la propuesta

Artículo 671. Plan de pagos.

1. La propuesta deberá presentarse acompañada de un plan de pagos de los créditos pendientes de pago, con determinación de los recursos previstos para satisfacerlos, así como de los nuevos créditos, entre los que se incluirán los que se devenguen en concepto de derecho de alimentos para el deudor y su familia.



2. Proposamenarekin batera, zuzenbide publikoko kredituen ordainketa geroratzeko eskaeraren edo emandako ebazpenaren kopia aurkeztuko da. Bestela, horiek ordaintzeko datak adieraziko dira, epemugan ordainduko ez badira.

672. artikulua. Bideragarritasun-plana.

Akordioa betetzeari begira zordunaren lanbide- edo enpresa-jardueraren jarraipenak –osoa edo partziala– sortzen dituen baliabideak izatea aurreikusten bada, bideragarritasun-plan bat aurkeztu beharko da proposamenarekin batera, behar diren baliabideak eta haiek lortzeko bitartekoak eta baldintzak zehaztuta.

673. artikulua. Ordezko proposamenak eta aldaketa-proposamenak.

Konkurso-bitartekariak hartzekodunei akordio-proposamena bidali ondorengo hamar egun naturalen barruan, hartzekodunek ordezko proposamenak edo aldatzeko proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte.

674. artikulua. Azken proposamena.

Aurreko artikuluan aipatutako epea igarotakoan, zordunak onartutako azken proposamena igorriko die konkurso-bitartekariak hartzekodunei.

675. artikulua. Ordainketa-plana aldatzea.

1. Zordunak hartzekodunekin egiten duen bileran aldaketak egin ahal izango dira ordainketa-planean eta bideragarritasun-planean.

2. Ezin izango dira inola ere aldatu hartzekodunei ordaintzeko baldintzak, baldin eta hartzekodun horiek, bileraren aurreko hamar egun naturalen barruan, proposamena onartu dutela adierazi badute eta bilerara bertaratu ez badira.

3. atala. Proposamena onartzea

1. azpiatala. Bertaratzeko eginbeharra

676. artikulua. Bertaratzeko eginbeharra.

Deitutako hartzekodunek bilerara bertaratu beharko dute, salbu eta, aurreikusitako dataren aurreko hamar egun naturalen barruan, proposamena onartu badute edo haren aurka egin badute.

2. A la propuesta se acompañará copia de la solicitud de aplazamiento del pago de los créditos de derecho público o de la resolución que se hubiera dictado. En otro caso, se indicarán las fechas de pago de los mismos, si no fueran a satisfacerse en los respectivos plazos de vencimiento.

Artículo 672. Plan de viabilidad.

Cuando para atender al cumplimiento del acuerdo se prevea contar con los recursos que genere la continuación, total o parcial, del ejercicio de la actividad profesional o empresarial del deudor, la propuesta deberá ir acompañada, además, de un plan de viabilidad, en el que se especifiquen los recursos necesarios y los medios y condiciones de su obtención.

Artículo 673. Propuestas alternativas y propuestas de modificación.

Dentro de los diez días naturales posteriores al envío de la propuesta de acuerdo por el mediador concursal a los acreedores, estos podrán presentar propuestas alternativas o propuestas de modificación.

Artículo 674. Propuesta final.

Transcurrido el plazo citado en el artículo anterior, el mediador concursal remitirá a los acreedores la propuesta final aceptada por el deudor.

Artículo 675. Modificación del plan de pagos.

1. El plan de pagos y el plan de viabilidad podrán ser modificados en la reunión del deudor con los acreedores.

2. En ningún caso podrán modificarse las condiciones de pago de aquellos acreedores que, habiendo manifestado la aceptación de la propuesta dentro de los diez días naturales anteriores a la reunión, no hubieran asistido a ella.

Sección 3.ª De la aceptación de la propuesta

Subsección 1.ª Del deber de asistencia

Artículo 676. Deber de asistencia.

Los acreedores convocados deberán asistir a la reunión, salvo que, dentro de los diez días naturales anteriores a la fecha prevista, hubieran aceptado la propuesta o hubiera formulado oposición a la misma.



2. azpiatala. Gehiengoak

677. artikulua. Akordioa hartzeko pasibo konputagarria zehaztea.

1. Akordioa hartzeko pasibo konputagarrian honako hauek sartuko dira: berme errealik ez duten kredituen zenbatekoaren batura, berme horren balioa gainditzen duten kredituen zenbatekoa, lege honen I. liburuko V. tituluaren ezarritakoaren arabera kalkulatu, eta proposamena onartu duten berme errealeko kredituen zenbatekoa.

2. Zuzenbide publikoko kredituei dagozkien zenbatekoak ez dira inola ere pasibo konputagarrian sartuko.

678. artikulua. Akordioa hartzeko behar diren gehiengoak.

1. Akordio-proposamenak bost urte baino gehiagorako ez diren itxaronaldiak biltzen dituenean, izan nagusikoak, interesetakoak edota zor den beste edozein kopurutakoak, edo kredituak partaidetza-kreditu bihurtzen badira epe berean, edo kita ez bada kredituen zenbatekoaren ehuneko hogeita bostetik gorakoa, pasibo konputagarriaren ehuneko hirurogeia beharko da akordioa hartzeko.

2. Akordio-proposamenak beste edozein eduki badu, pasibo konputagarriaren ehuneko hirurogeita hamabosta beharko da.

4. atala. Akordioa formalizatzea

679. artikulua. Eskritura publikoan jasotzea.

1. Hartzekodunek proposamena onartzen badute, akordioa eskritura publikoan jasoko da berehala, eta konkurtso-bitartekariak egiletsiko du eskritura hori.

2. Bitartekaria notarioak izendatu badu, notarioak eskrituran bertan itxiko du espedientea, eginbide baten bidez. Bitartekaria merkataritzako erregistrozaleak edo Ganberak izendatu badute, erregistroan bertan aurkeztuko da eskritura, eta erregistro horrek itxiko du espedientea.

680. artikulua. Epaitegi eskudunari komunikatzea.

Konkurtso-bitartekariaren izendapena egin duen profesionalak, funtzionarioak edo erakundeak komunikatuko dio zordunaren konkurtsoa deklaratzeko eskumena duen epaitegiari espedientearen itxiera.

Subsección 2.^a De las mayorías

Artículo 677. Determinación del pasivo computable para la adopción del acuerdo.

1. El pasivo computable para la adopción del acuerdo comprenderá la suma del importe de los créditos que no gocen de garantía real, el importe de los créditos que exceda del valor de esa garantía calculado conforme a lo establecido en el título V del libro I de esta ley y el importe de los créditos con garantía real que hubieran aceptado la propuesta.

2. En ningún caso integrarán el pasivo computable los importes correspondientes a los créditos de derecho público.

Artículo 678. Mayorías requeridas para la adopción del acuerdo.

1. Cuando la propuesta de acuerdo contenga esperas, ya sean de principal, de intereses o de cualquier otra cantidad adeudada, por un plazo no superior a cinco años o la conversión de los créditos en créditos participativos durante el mismo plazo, o quitas no superiores al veinticinco por ciento del importe de los créditos será necesario el sesenta por ciento del pasivo computable para la adopción del acuerdo.

2. Cuando la propuesta de acuerdo tuviera cualquier otro contenido, será necesario el setenta y cinco por ciento del pasivo computable.

Sección 4.^a De la formalización del acuerdo

Artículo 679. Elevación a escritura pública.

1. Si la propuesta fuera aceptada por los acreedores, el acuerdo se elevará inmediatamente a escritura pública que otorgará el mediador concursal.

2. Si el mediador hubiera sido nombrado por el notario, en la misma escritura el notario, mediante diligencia, cerrará el expediente. Si el mediador hubiera sido nombrado por el registrador mercantil o por la Cámara, la escritura se presentará en el propio registro, el cual procederá a cerrar el expediente.

Artículo 680. Comunicación al juzgado competente.

El profesional, el funcionario o la entidad que hubiera realizado el nombramiento del mediador concursal comunicará el cierre del expediente al juzgado competente para la declaración del concurso del deudor.



681. artikulua. Erregistro publikoei komunikatzea.

1. Konkurtso-bitartekariaren izendapena egin duen profesionalak, funtzionarioak edo erakundeak komunikatuko die konkurtso-bitartekariaren izendapena jaso duten pertsonen edo ondasunen erregistro publikoei espedientearen itxiera, egindako idatzoharrak ezerez ditzaten.

2. Konkurtso-bitartekaria notarioak izendatu badu, eskritura publikoaren kopiaren bidez egingo da komunikazioa. Merkataritzako erregistratzaileak izendatu badu, idazpenaren edukiaren ziurtagiriaren bidez egingo da komunikazioa. Ganberak izendatu badu, ganberako idazkariak emandako ziurtagiriaren bidez egingo da komunikazioa.

682. artikulua. Konkurtso-erregistro publikoan argitaratzea.

Konkurtso-bitartekariaren izendapena egin duen profesionalak, funtzionarioak edo erakundeak ordainketa-akordio estrajudiziala dagoela argitaratuko du Konkurtso-erregistro publikoan, eta adieraziko du espedientea notariotzan, erregistroan edo ganberan dagoela interesa duten hartzekodunen eskura, haren edukiaren berri izan dezaten.

V. KAPITULUA

Akordioaren efikazia

683. artikulua. Akordioaren hedadura beharrezkoa.

1. Akordio estrajudizialaren edukia loteslea izango da zordunarentzat eta berme errealik ez duten kredituen hartzekodunentzat, edo berme errearen balioa gaintzen duten kredituen zatiari dagokionez, kreditu publikoak izan ezik.

2. Ordainketa-akordio estrajudizialak ez die inola ere eragingo kreditu publikoei, berme erreala eduki edo ez.

684. artikulua. Akordioa berme erreala duten kredituetara hedatzea.

1. Berme erreala duten hartzekodunentzat, bermearen balioa gaintzen ez duen kredituaren zatiari dagokionez, akordioa loteslea izango da, baldin eta hura onartzeko borondatea adierazi badute.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoari kalterik egin gabe, akordioa onartu ez duten berme errealeko hartzekodunentzat ere loteslea izango da akordio hori, bermearen balioa gaintzen ez duten kredituen

Artículo 681. Comunicación a los Registros públicos.

1. El profesional, el funcionario o la entidad que hubiera realizado el nombramiento del mediador concursal comunicará el cierre del expediente a los registros públicos de personas o de bienes en los que se hubiera anotado el nombramiento de mediador concursal a fin de que procedan a la cancelación de las anotaciones practicadas.

2. Si el mediador concursal hubiera sido nombrado por el notario, la comunicación se efectuará por medio de copia de la escritura pública. Si hubiera sido nombrado por el registrador mercantil, la comunicación se efectuará por medio de certificación del contenido del asiento. Si hubiera sido nombrado por cámara, la comunicación se efectuará mediante certificación expedida por el secretario de la cámara.

Artículo 682. Publicación en el Registro público concursal.

El profesional, el funcionario o la entidad que hubiera realizado el nombramiento del mediador concursal publicará la existencia del acuerdo extrajudicial de pagos en el Registro público concursal, con la indicación de que el expediente está a disposición de los acreedores interesados en la notaría, el registro o la cámara para el conocimiento de su contenido.

CAPÍTULO V

De la eficacia del acuerdo

Artículo 683. Extensión necesaria del acuerdo.

1. El contenido del acuerdo extrajudicial vinculará al deudor y a los acreedores cuyos créditos no gocen de garantía real o por la parte de los créditos que exceda del valor de la garantía real, a excepción de los créditos públicos.

2. En ningún caso, los créditos públicos, gocen o no de garantía real, podrán verse afectados por el acuerdo extrajudicial de pagos.

Artículo 684. Extensión del acuerdo a los créditos con garantía real.

1. Los acreedores con garantía real, por la parte del crédito que no exceda del valor de la garantía, únicamente quedarán vinculados por el acuerdo si hubieran manifestado la voluntad de aceptarlo.

2. Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior, los acreedores con garantía real que no hayan aceptado el acuerdo, por la parte de sus créditos que no exceda del valor de la garantía,



aldetik, adosten den irismenarekin, honako gehiengo hauek lortzen direnean, berme onartzaileek emandako bermeen balio osoaren gainean duten balioaren proportzioaren arabera kalkulatuta:

1.a Ehuneko hirurogeita bosta, baldin eta akordioan itxaronaldiak jasotzen badira, nagusikoak, interesetakoak edo zor den beste edozein kopurutakoak, bost urtetik gorakoa ez den epearekin, edo kredituak partaidetza-kreditu bihurtzen badira epe berean, edo kitak ez badira kredituen zenbatekoaren ehuneko hogeita bostetik gorakoak.

2.a Ehuneko laurogeia, akordioak beste edozein eduki duenean.

685. artikulua. Akordioaren efikazia objektiboa.

1. Akordioaren efikazia hedatzen zaien kredituak azkenduta geratuko dira kitak hartzen duen zatian, galdagarritasuna geroratuta dutenean itxaronaldian, eta, oro har, akordioaren edukiak ukituta daudenean.

2. Hartzekodun bakar batek ere ezin izango du zordunaren aurkako exekuziorik hasi edo jarraitu, prozeduraren irekiera komunikatu aurreko zorren ondorioz, akordioaren efikazia hedatzen deneko kredituetan oinarrituta.

Horrelakoak agindu dituen epailearen enbargoak ezerezteko eskatu ahal izango du zordunak.

686. artikulua. Eskubideen kontserbazioa.

1. Akordioak ez du ondorerik izango hartzekodunek zordunarekin solidario diren betebeharpekoen aurrean dituzten eskubideei dagokienez, ezta fidatzaile edo abal-emaileen aurrean ere, salbu eta hartzekodun horiek akordioarekin ados daudela adierazi dutenean. Betebeharpeko solidarioek, fidatzaileek eta abal-emaileek ezin izango dute inbokatu ez akordioaren onspena, ez akordioaren edukia, haien kaltetan.

2. Zordunaren betebeharpeko solidario, fidatzaile edo abal-emaileek akordioa onartu duten hartzekodunen aurrean duten erantzukizuna horri buruz ezarri itunek arautuko dute, eta, halakorik izan ezean, hartu duten betebeharrari aplikagarri zaizkion legezko arauak.

VI. KAPITULUA

Akordia aurkaratzea

687. artikulua. Aurkaratze-arrazoiak.

Akordia arrazoi hauetan bakarrik oinarrituz aurkaratu ahal izango da:

quedarán también vinculados a dicho acuerdo, con el alcance que se convenga, cuando se obtengan las siguientes mayorías, calculadas en función de la proporción del valor de las garantías aceptantes sobre el valor total de las garantías otorgadas:

1.º El sesenta y cinco por ciento cuando el acuerdo contenga esperas, ya sean de principal, de intereses o de cualquier otra cantidad adeudada, con un plazo no superior a cinco años o la conversión de los créditos en créditos participativos durante el mismo plazo, o quitas no superiores al veinticinco por ciento del importe de los créditos.

2.º El ochenta por ciento cuando el acuerdo tuviera cualquier otro contenido.

Artículo 685. Eficacia objetiva del acuerdo.

1. Los créditos a los que se extienda la eficacia del acuerdo quedarán extinguidos en la parte a que alcance la quita, aplazados en su exigibilidad por el tiempo de espera y, en general, afectados por el contenido del acuerdo.

2. Ningún acreedor podrá iniciar o continuar ejecuciones contra el deudor por deudas anteriores a la comunicación de la apertura del procedimiento con fundamento en créditos a los que se extienda la eficacia del acuerdo.

El deudor podrá solicitar la cancelación de los correspondientes embargos del juez que los hubiera ordenado.

Artículo 686. Conservación de derechos.

1. El acuerdo no producirá efectos respecto de los derechos de los acreedores frente a los obligados solidarios con el deudor, ni frente a los fiadores o avalistas, salvo que esos acreedores hubiesen mostrado su conformidad con el acuerdo. Los obligados solidarios, los fiadores y los avalistas no podrán invocar la aprobación del acuerdo ni el contenido de este en perjuicio de aquellos.

2. La responsabilidad de los obligados solidarios, fiadores o avalistas del deudor frente a los acreedores que hubiesen aceptado el acuerdo se regirá por los pactos que sobre el particular hubieran establecido y, en su defecto, por las normas legales aplicables a la obligación que hubieren contraído.

CAPÍTULO VI

De la impugnación del acuerdo

Artículo 687. Motivos de impugnación.

La impugnación del acuerdo solo podrá fundarse en los siguientes motivos:



1.a Akordioa hartzeko galdatzen diren gehiengoak ez egotea, kontuan hartuta, hala badagokio, parte hartu behar duten eta deitu ez diren hartzekodunak.

2.a Titulu honetan proposamenaren edukari buruz aurreikusitako arauak haustea.

3.a Adostutako neurrien desproporzioa.

688. artikulua. Legitimazio aktiboa.

Hartzekodunak du akordioa aurkaratzeko legitimazio aktiboa, baldin eta, hartzekodunen batzarrera bertaratzeko eskubidea izanik, ez bazaio batzarrerako deia egin; halaber, akordioa onartu ez duen hartzekodunak du legitimazio aktiboa, betiere akordioaren efikazia bere titulartasuneko kredituetara hedatzen bada.

689. artikulua. Aurkaratzea aurkeztea.

1. Zordunaren konkurtsoaz arduratzeko eskumena duen epaitegian aurkeztuko da aurkaratzea, akordioa Konkurtso-erregistro publikoan argitaratu eta hurrengo hamar egunen barruan.

2. Aurkaratzeak ez du akordioaren exekuzioa etengo.

690. artikulua. Prozedura.

Aurkaratze guztiak batera izapidetuko dira, konkurtso-intzidentearen prozeduraren bidez.

691. artikulua. Epaia.

